

TXOMIN PEILLEN

**BALOREAK EUSKAL HERRIAN
ETA BESTE GIZARTEETAN
(Sena, ohiturak, gizarte balore orokorrak)**

Utriusque Vasconiae

TXOMIN PEILLEN

**BALOREAK EUSKAL HERRIAN
ETA BESTE GIZARTEETAN**
(Sena, ohiturak, gizarte balore orokorrak)



© Txomin Peillen

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2005eko urria

ISBN: 84-934066-1-9

Depósito legal: BU-393-2005

Discinua eta maketazioa: P.I.A.

Azalaren diseinua: Marie-Thérèse Olivier Peillen

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailca: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

AURKIBIDEA

LEHEN HITZAK "EGIAZ"	9
SENAZ	17
1. Senaren inguruko ikerketak	17
1.0. Sena zer den?	17
1.1. Erreflexologia	19
1.2. Behaviorismoa	19
1.3. Etologia	20
2. Sen, olde eta joera batzuez	23
2.1. Bizi nahia	23
2.2. Erasotasun sena	27
2.2.1 Erasotasuna eta bere buruaren zaintzea ..	28
2.3 Besteen hil nahia	31
2.4. Bizi eman nahia, ama sena	33
2.5. Ongizate, atsegin-oinaze senez	35
2.6. Libidoa	38
2.7. Sexu sena, lotsak, tabuak	40
2.8. Maitasun, laguntasun joerak	43
2.9. Senak balore?	45
2.10. Jendea zer den senaren argitan	47
3. Sen baloreen gizarte erabilera, heziketa	49
3.1. Erlijioaren garaia	49
3.1.1. Egiategi eta erlijioa	51
3.2. Militarren garaia	55
3.3. Familiaren sena	66
3.3.1. Talde sexu harremanak	68
3.3.2. Sexu erkidetzak	69
3.4. Lana senaren hezteko?	72
3.5. Diruaren baloreak ala balioak	74

3.6. Basa gizonaren irudia: euskaldun hutsa edo “el vasco bruto”	82
3.6.1. Basati izateko eskubidea	85
OHITURAK	89
1. Ohiturak zer diren	89
1.1 Ohituren zahartasuna, antzinatasuna	90
1.2 Ohituren bakartasuna, baztertasuna	90
1.3. Ohituren aldakortasuna	91
1.4. Ohituren bestelakotasuna	91
1.5. Herriaren oroimena	92
2. Ohiturak eta animaltasuna	93
3. Ohituren sortzea	95
4. Ohitura zapalduak	95
5. Ohituren aldekoak eta etsaiak	99
6. Ohituren ukapen zuzena	101
6.1. Sexubideak	101
6.2. Ohituren hiltzeko: masa kultura	104
7. Ohituren kritika Euskal Herrian XVI-XVIII. mendeetan	108
7.1. Jusef Egiategi	108
7.1.1. Auzikeria, ohiturak eta familia Euskal Herrian	114
7.2. Ohituren kritika Euskal Herrian, XX. mendean	115
7.3. Emakumez eredu zaharrak eta zaharkituak	125
7.4. Ohiturak eta andreak erlijioaren ikuspegitik	127
7.5. Araztasuna, birjintasuna, ezkongabetasuna	131
7.6. Ohituren aldaketa Egiategiren zahartzaroan	136
7.7. Ohiturak eta mitologia	137
7.8. Ohitura, forua eta kondaira	140
7.9. Egiategi eta historiaren kezka	141
8. Ohituraren betekizuna eta eginkizuna	142
8.1. Heziketa, sena eta ohiturak	142
8.2. Adigaiak eta ohiturak	143
8.3. Adigaien edo kontzeptuen agertzea	144
8.4 Ohituren aldatzea	145

8.5. Kulturazko ohiturak	146
8.6. Ohituren dinamika	149
9. Kultura zer den	153
10. Gure oinarritzko balorea: euskal hizkuntza	156
11. Manuel de Larramendiren lehen egitasmoa euskal aberriaz	160
11.1. Baloreak	160
11.2. Politika antolakuntza	161
12. Euskal sabindar nazionalismoa	165
13. Hogeigarren mendeko abertzale ametsak	167
GIZARTE BALORE OROKORRAK	173
A. Gizarte ingurumena	173
1. Ingurumenean kulturaren errespetua	175
2. Giza eskubideen agiri mundukorra	179
3. Gizartearen aldatzeko mendebaldearen "ismoak"	186
3.1. Totalitarismoak edo aginte osoko sistemak	187
4. Aurrerapena eta erosotasuna	194
5. Modernotasuna eta mundializatzea	197
6. Bakea	202
7. Erljioak	204
8. Mendebaldeko ideologiek eskaini baloreen hierarkia	206
9. Zuzenbidea eta eginbideak: legea	208
10. Demokrazia	210
11. Buruzagien, gizagoien, gizagaindikoen sortzea	215
12. Edergintza, hiru balore erroen bidegurutzean	218
B. Ingurugiroaren errespetua	220
1. Izadiaren erabilera	220
2. Ekologiaz	223
3. Jakintzaz	225
4. Mundu honetako bizioak eta atsegin	226
ONDORIOAK	231
EUSKAL BIBLIOGRAFIA	247
ERDAL BIBLIOGRAFIA	255

LEHEN HITZAK “EGIAZ”

Jusef Egiategi lehenbiziko euskal filosofo zuberotarrari

Zer laburki aipatuko dudan: egia

Metafisikariek bakarrik ulertuko omen lukete, bazterrik gabeko dirudien itzulinguru batean, baloreak nondik abiatu diren eta nora doazen asmatzea, eta zio horrengatik gizaldi osoak gatazkatu eta gudukatu dira. Balore horien sorreraz eta behin betiko galeraz ez naiz arduratuko. Dogmazaleek liburu bat daukate eta ez besterik. Halatan ere, liburu horietaz idazten hasten direnean, dogmatismoak hamar puxka egiten du, hamar heresia sortzen. Egiaren dogma erlijioen ogia bada, zientisten arrazoiaren dogmak janari hobeak ote?

Badakit lan hau ez dela, ahalaz, ez aszetikako ur gorritz, morala didaktikaz tindatuz, ez eta politikaren ur arre eta nahasiez etika-ideologietan larregi bustiko. Egiategi filosofo apalak, idealistak, bere garaian XVIII. mendean egin zuena egin baneza, egiaren ondotik tximeleta eguzkira heldu nahian bezala ibil nintekeela badakit.

Joan den XX. mendean, 1990. urtean, saiakera honen egitea erabaki nuenez geroz, hona non Eduardo Gil Berak duela hiru urte argitaratu filosofia liburuan, *Atea bere erroetan bezala*, egiari buruzko iritzi berdina argi eta garbi azaldua irakurri nuen:

“Erljioek bi zatitan bereizten dute jendetza, gu egjadunok argian bizi garenok eta gainerakoak, okerrak, ilunpean daude-

nak. Politika sistemek bera egiten dute: zapaltzaileak eta zapatuak, demokratikak eta kontrakoak. Zati bat zintzo, egiazko, fiagarria, hautatua, hitz batez eta bertzea bortxakeria ta ohointzari emana, makurra, gezurtia, gaiztoa” (E. Gil Bera, 1985, 119).

Asiako pentsalari batzuen ezagutzak —azalekoa bada ere— beste uretara eroan nau. Bai, gure artean batik bat teologialariek eta politikariek darabilten hitza, “EGIA” delakoa, ikusten dugu beren teoria eta dogmetatik ekintzetaraino leizea geroago eta handiagoa egiten delarik.

Joan den XX. gizaldiaren amaieran politikari eta teologialari horien erruz gertatu baloreen gaitzaldiak gogoetatsu uzten gaitu. Gai horretaz jardun zuen Gil Berak bere *O tempora! o mores!* euskarazko saiakeran. Nire saio honek dogma eztabaidagarri batzuk ukitzen baditu ere, hortik urruti ibiltzen ahaleginduko naiz eta beti —arinkeria usaina baldin badu ere—, maisu bakar bat jarraitu gabe.

Bidearen galtzeko arriskutik baztertzeko, eta nire iritziekin errekararen ez jotzeko, Buddharen apologoa lagun izango zait. Filosofo hari egia hitza susmagarri gertatu baitzitzaion. Buddharen adibide ospetsua “egia” hitzari lotua dago. Behin honela Indietako errege batek Zakia Muni, hil ondoren Buddha izango zenari, galdetu zion egia zer zen azal ziezaion. Eta erantzuna izan zuen:

—Zure zerbitzariak hamar itsu eta elefante bat ekar ditzatela.
(Halatan egin zuten eta itsuak elefantearen inguruan zutik jarrarazi).

—Galde iezaiozu, Jauna, itsu bakoitzari ukitzen duen animalia zelakoa den, nolakoa den egiatan.

(Itsu bakoitzak ukitzen zuen lekua aipatuz azalpenetan sartu zen).

—Basa ehiza hau luzea da, ez da erraz tolesten. Punta batean bilo kimatxoa dauka.

(Honela esan zuen isatsa eskuen artean zeukanak).

—Ez! iharduki zion auzokoak, abere hau zuhaitza lakoa da, zuhaitza antzeko den piztia sendo, lodi, zuta da (Zangoak besarkatu zituenak).

—Piztia hau tubo luze eta toleskorra da, holako suge huts baten antzekoa (Sudurra ukitu zion hirugarrenak).

—Ez! Inolaz ere! Zabala eta mehea da piztia hau, hosto handi baten modukoa (Belarria hartu zion laugarrenak).

Halaxe, hamar itsuek hamar abere ezberdin ukitu zituzten eta, Erregearen harriduraren argitzeko, Buddhak gaineratu zuen:

—Egia baldin bada, hau da elefante bat eta gu inguruan gabiltzan hamar itsuak.

Irakasbide honetan ez da doktrina baten egiaentzat lekurik batere: Buddharen irakaspenak hamar bat liburutan bilduak dira; bakoitza Biblia baino askoz lodiagoa, baina liburu horiek guztiak ezaguturik, Birmaniako bi fraide jakintsuenek ikasleei diote eta esan ziguten egia zer den ez dakitela, horregatik meditatzen, gogoeztatzen, idazten, irakurtzen jarraitzen dutela. Hau irakaspena! Hau da guretzat gogamen horren ekarpen handiena. Ez naiz, ordea, Buddhismoan sartuko, Zakia Munik berak baitzion bakoitzak bere lekutik, bakoitzak bere argitxoak bilatuz, pentsatu behar genuela, eta hamar bat euskaldun pentsalari, Europako erdal pentsalariekin batean, aipatuko ditut. Euskaldun zaharren kategoriak gure itzulpengileek, kalkogileek, ohiturek gandutzen, lausotzen dizkigute, non ez dizkiguten lorrintzen. *Egia* hitza batzuek *eki* “eguzkitik” eratorria dela idatzi badute ere, nire ustez eta hitz erroak darakutsanez, *egina* adierazi nahi zuen; beraz, ez oso teorikoa, irudimezkoa, gauzatzeari lotua, *egiazkoa* dena errealitateari lotua delako.

Antzinateko euskaldun horien gogoetak atsotitz moduan laburtuak heldu zaizkigu. Ez dezakegu esan gure arbasoak asma-tu zituztela, baina beren errealitateari egokitu bai. Egia ez zuten begi itsuz ikusten, baina latza eta lausoa zela zioten:

Egia latz eta labio (Refranes y Sentencias, 14. atsotitza).

Egia da latz ta garratz ta mergaz (Refranes y Sentencias 518. atsotitza).

Egia eder balitz eta eder bada ere, noizean behin, isildu behar da:

Ao itxian eztoa sartu eulia

ta aldi guztietan ezta eder egia (Refranes y Sentencias, 123. atsotitza).

Egia ez da beti onartzen eta gatazka sortzailea da:

Egia ergarria (Refranes y Sentencias 291. atsotitza).

Euskal Herrian elefanterik ez dagoelako:

Edo idia edo begia

emongo deustak ene egia (Refranes y Sentencias, 389. atsotitza).

Egiari buruzko gogamenetan, Huarte Donibane Garazikoa bere "Examen de Ingenios" delakoan aurrelaria dugu eta komeni zaigu hemen sartzea Gil Berak bere lehen filosofia liburuan eman zuen itzulpen zati hau, egiaren edo egien ugaritasunaz:

"Adimendua egiari buruz errezki okertzen da, ez dugu ahalmelik hau baino argalago denik, adimendu bakoitzak bere egia konpondu eta eraiki behar baitu eta baldin berak ez badu berea egin eta konpondu, berez egiak ez du harentzat ez molderik, ez irudirik izanen" (1985, 72).

Eduardo Gil Bera jaunak ematen digun azalpena oraingotasunaren urduritasunez betea dago:

"Adimendun bilera batzuek egia aurkitu dute eta ororen harridurez aspaldi errana zegoen egian, erran omen zuen hemen Kristok, hau Saussure-k, hor Freud-ek, honatago Platonek, hau Marx-ek edo bertze Jon Done Urliak. Orain bakarrik jakin behar dute zehatzki zein eta zein erran nahi zituzten egiak, egia ziotenean; horretarako adimendu bilerak, komentu, kontzilio eta parlamentuetan biltzen dira eta beren adimenduak biltzen, sumatzen eta berretzen egiaren egiazko xedeak zehatzki zeintzu diren heltzen ohi da jakitera" (1985, 72).

Bai, Buddha bezain zuhurrak eta argiak izaten jakin zuten gure antzinako euskaldunek; nahiz Oihenartek, nahiz Joan Huarte Garazikoak, Buddharen apologoa bazela ez zekiten. Giza gogamenaren mugez mintzo zaizkigu bai Eduardo Gil Bera, baita Erramun Garmendia ere. Mendebaldeko pentsamenduan, adibidez besteei indarrez onarrarazi nahi den ideia dugu "gure egia", besteak menperatu nahi dituen ideologia; horrela, indoeuroparren ondokoak egiaren izenean Amerikaz eta Afrikaz jabetu ziren, eta

orain jarraitzen dute globalizazioaren izenean Asiaraino maltzurki hedatzen. Kanpotarren artean, jakina, Axular, Egiategi eta Gil Bera baino lehen, egiaren ondotik ibili ziren Platon, Aristoteles, Spinoza, Kant, Heggel, Kojève eta beste. Ez da harritzekoa, ordea, transzendentziaren ondotik dabiltzan erlijioak beren egia dogmatzat ematea; urrunago ikusiko dugunez, Egiategik dogmatismo horiek aski kritikatu zituen.

Aitor dezagun egia baten izenean sinesleen dogmez kanpo ere filosofoek eta jakintzalariek, egia arrazoiarekin lotuz, sistemak eraiki dituztela, baina hain zuzen egiaren lausotasun hori argitzen duena da garai batean emankorra izan den sistema bat-batean antzua gerta daitekeela. Zalantzak, dudak du sistema berria sortuko. Ptolemeo edo Newtonen egiek hutsa jo zutenean, Kopernikok beste sistema bat eskaini zigun eta geroago Heisenbergekek, De Broglieki eta Einsteinek quanta delakoekin beste bat. Gertatzen da ere antzinako sinboloa egia bilakatzea eta gero erlijioek dogma. Erdi Aro ia osoan, lurreko paradisua dilubiotik salbatu zela egia zen, Jakintzak besterik frogatu arte. Ez dezakegu erran gezurra dela sinbolo baten aldaketa baizik. Bai, gezurra ez da beti egiaren aurkakoa. Mitoak ziren lehen ezbai izugarrien baketzeko pentsaerak: nolakoa den gizona, nolakoa den mundua.

Egiak edo egiaren antzeko zer edo zerk, zerbait ziurtasun eman liezaiokie kezkatu den norbaiti. Metafisikoen egiak dira. Garai batean soziologoek gizarte arauak, orekak, ordenak bilatzen zituzten eta gizarteak hetsiak bailiran ikusten, soziologia egia baten izateko. Gero gizarte horren kanpotiko eraginek haien erakuntza ederra desegiten zuten. Ez usteak, zalantzak jarraitzen du.

Nietzscheck zentzu on zuzenik ez dela zioen. Wittgensteinek eta Heideggerrek jende pentsaera egia bat, batasun bat dela zioten. Hori izan da eta izanen eztabaida handiena unibertsalik ez dela diotenen eta unibertsala baizik ez dela diotenen artean. Azkenean, jakingarri bakarra litzateke zenbateraino diren "unibertsalak". Beraz, lan honetan ez dut gehiago, zuzenean, adigai hori aipatuko, nahiz eta dakidan haren itzalean non-nahi ager daitekeela.

Zer aipatuko dudan gehienik

Euskal gizarterik ba al dago? Erran dezakegu, antropologia-ren argitan, piriniar zibilizazio baten barruan, euskal gizarteak bere ezaugarri markatuak dituela, Euskal Herri osoan elkarrekiko berezitasunak dauzkagula; baina alde batetik mendian zokoratuak baldin bagara, bestetik itsasora eta Ameriketara irekiak; alde batetik sinestez, ohituraz eta hizkuntzaz bat baldin bagara, bestetik gure herrian jende gehienak erdaldun ditugu; alde batetik aurretik aipatu ezaugarri berdinak baldin baditugu, bestetik egunerokotasunak Iparraldean apur bat frantsestu gaitu eta Hegoaldean espainoldu.

Nola ezagutua da euskal gizartea? Alde batetik, jakin gabean, euskal herritar askok elkarrekiko berezitasunak bizi dituztela eta bestetik ohiturazale eta denbora berean industriaren eta teknikan aurrerakoi samarra den herrian, elite bat beti ibili dela gizarte horren baloreak irakatsi eta zaindu nahiz.

Baloreak zer diren? Zer eginen dudan badakit, baina horretarako niretzat baloreak zer diren argitu beharko zait. Ez dut hitz hori XVIII. mendeko Egiategik bezala gerrako kemenaren aipatzeko erabiliko, ez eta ere nahasiko diruaren "balio" delakoarekin, gaurko euskaran batzuetan gertatzen den legez.

Beste arrisku bat ere badago, gaurko esanahiarekin ere errealitatetik ihesi doazen metafisika edo ideologia, logomakia eta sermoietan erortzea. Utopiak eta sistemak bazter utzirik, egunerokotasunetik abiatuz ibiltzen saiatuko naiz. Baloreak lirateke gizarteak, arauak ematean, legeak egitean, kontuan hartu behar lituzkeenak, gizarte orekarako baldintzak eta adigaiak, kontzeptuak. Balore hitza azken hogeitertean berpizten ari zaigu, "egia" dogma eta ideologiekkin gehiegi erabilia hutsal eta antzu bilakatu baikenuen. Baloreen krisialdia aipatzen da, baina ez da lehen aldiko gertatzen: garai bakoitzak, gizarte bakoitzak bere balore gorabeherak ditu, eta denbora batetik bestera igarotzean egiak aldatzen dira. Bidearen ez galtzeko, oinarrizko baloreen adigai sailkapena egin dut, eta horretarako hiru norabide nagusi bereizi.

Kontzeptuen sailkatze hori ez zait erraza izan, ezen, gizartearen konplexutasunarengatik, elkarren gainean eragin baitezakete. Jendea jaiotzean *senarekin* gizarteratzen da, baina gizarteak kultura bat, *ohiturak* irakatsiko dizkio. Nire ustez, gizarte guztiek tradizio bat daukate, beren nortasuna definitzen dutenak. Gero, gizarte horiek *balore orokorrak* topatuko dituzte; orokor diot, ezen mundukorrak inperialismo kutsu handia duelako, beraz.

Lehen sail batean, *senaren* edo *instintuaren* balore erroa, ukatzaileen eta jauresleen buruetarik urrun egonaz, oraingo argiekin, euskaldun eta kanpoko argitzaileekin, batik bat biologiarren aldetik aztertuko ditut.

Bigarren sailean *ohituraren balore erroak* ikusi behar genituzke, edo behintzat, denak ezin badira, adibide batzuk hobeki aztertu. Gure jende eta gizarte eta herri nortasunen ezagutzeko, oinarritzeko, kritikatzeko ohiturak balore eta eginbide arau izan daitezke. Hor ere, ohiturak hauskor direlako, bi gehiegikeria daude; batzuk atzera egin nahiz dabiltzan integristak ditugu, besteak iraultza bidez dena apurtu nahiz dabiltzanak. Jende eta gizarte berri bat sortzekotan nondik ibili ez da erraz ikusten, ezen herrien, nazioen nortasunak baldintzatzen baititu.

Aitor dezadan lehen bi sail horietan ikertzen nahikoa ibilia naizela, nahiz biologia, nahiz etnologia ikerketetan, baina hirugarren sailerako *gizarte balore (mundukor) orokor* erroen arloan gutxiago idatzi dudala; halaz ere, erakusten saiatuko naiz herri batetik bestera zer diren hedatzen diren gogamen "unibertsal" ospetsu horiek eta zein hedatzen ez direnak eta nola.

Duela bi urte arte, euskaldunok euskaraz bereizten genituen jendeari eragiten zioten bi indar nagusi: *ingurumena*, alegia, jende eta gizarte ingurukoa; eta *ingurugiroa*, inguratzen gaituen natura, izadia. Nahiz han ginen bi biologialariek protestatu genuen eta usadioa bezainbeste zehaztasuna aipatu, Euskaltzaindiak *ingurugiro* hitza baztertzea eskaini du; alegia, gaztelaniaren *medio ambiente*-ren kalkoa dela, eta *ingurumen*-ek ingelesezko *environment*-en itxura duela ikusi gabe onartu da. Idazleak aske garenaz, erabaki bitxi horri ez diogu amore eman beharrik. Gainera,

euskaratik hiztegi kalko guztiak kendu behar bagenitu, hizkuntzaren erdia zaborretara bota behar genuke. Ez zaigu, ordea, erraza izango zer den ingurugiroaren eta ingurumenaren eragina jendearen garapenean.

Ez naiz ikasketaz filosofoa, etnologicalari eta biologicalari baik. Filosofoek argi zabal itsugarria eskaintzen badute, nire kandelak ez du berbera eginen eta nolanahi gizarte jakintzetan bada-kigu, gauzak argitu arren, bakoitzak bere buruarekin, bere begiekin ikusten jarraitzen duela. Horregatik, antzinako eta oraingo pentsalariez baliatuko naiz, behin-behineko jendeaz daukagun jakiturian. Zertan ziren gure arbasoak eta zertan gauden ikusteko, ezen, Lockek zion bezala “nondik datozkigu ezagutzaren eta pentsaceraren ekaiak? Hitz batez erantzun nezake: esperientziatik” (*Essay Concerning Human Understanding*, London, 1699).

1990eko maiatzean, Baionan literaturari buruzko *Maiatz* aldizkariaren topaketetan, idazgaiei buruzko gazteekin eztabaida genuen giza baloreen ahultzeaz edo berrien eraiki beharraz. Batzuek, modernotasunaren izenean, balore barik bizitzea aldarrikatzen zuten. Mahai inguruan zegoen Eñaut Etxamendi euskal idazleak, gazte-gazteci erantzunaz, apologia labur hau haizatu zigun:

“Balore gabe ez du gizarte batek egun bat irauten, ezin dezake egun bat baino gehiago iraun: balore gabe bizitzea bizkarrezurrik gabe lasterka ibili nahia da”.

SENAZ

1. Senaren inguruko ikerketak

1.0 Sena zer da?

Ez da erraza mugatzea zer den sena edo *instinctus* delakoa. Ezaugarri argiena da *bizidun higikorretan*, izakietan, animalia eta jendeetan, ikasi gabe, *jaiotzetik* agertzen zaizkigun jokabideen multzoa. Beraz, jaiotzetik berez izadiari eta biziari egokitzeko *automatikoki* agertzen diren jokabideak lirateke senak. Sena guretzat ez da irudimenezko adigaia edo kontzeptua, baina *egunero-kotasunez* eta maiz elkar bizitzaren eraginaz baizik agertzen direnak; hutsean, ezerezean ez dira denak azaltzen. Askotan, jende eta abere senen arteko bestelakotasunak azpimarratzen dira. Animalietan, batik bat ehizetan, senak bizi-bizirik dirau. Etxe abereetan hazkuntzak, erreflexu ikasiek, gizonak behartuek, sortzarozko senak itsu ditzake. Jendeetan, oster, senak erdi estaliak daude. Heziketak gaineratu erreflexu ikasiek lausotuak, gizarte harremanek baldintzatuak, hala nola biologiazko funtzio zenbaitetan, jatekoen aukeran eta ernalkuntzan sena sakonki aldatuz.

Sena *ikasi gabeko erreflexu multzoa* da. Gero, inork ez dio niari edoskitzen, irensten, arnas egiten, hotzean dardaratzen, be-roan izerditzten, lo egiten ikasi, eta helduetan ere irauten dute senaren peko ikasi gabeko erreflexuek; beraz, senaren funtsa fisiologia

jarduerak dira. Haurra garatu gabeko *neotenia* egoeran sortzen da. Lehen zortzi hilabetetan, niniak ez du bere burua ingurumenetik bereizten. Bereizkuntza horren egiteko, bere gorputzaren eskema jarri behar du. Eskema irabazte horren lekua burmuineko tala-
moan dago. Zeinek ez du ikusi haurtxoa eskua luzatzenegi gauza baten hartzeko edo azkazalak luzeegiz umetxoa, ustekabea, aurpegia urratzen. Haurra ez da jende txikia, beste izaki bat baizik, bere gorputzaren ezaguera ez duena. Ezagutza hori, eskema hori jartzeko, zentzumenak garatu behar dira, ikusmena, entzumenak, ukimena eta usaimena erabiliko baititu. Gauzen ezagutzeko, edozein zentzu ona da; umetxoak lurra ahoan sartzen du, nolakoa den jakiteko.

Gero, bere gorputza ukitzeko jokoan, joko beharrezkoan, eskema egiten du; ikusmenak ere laguntzen dio, batik bat bere burua ispilu batean ikusten duenean. Bere gorputza deskubritzen duen denboran, gauzak ukituz ezagutzen ditu eta batzuetan hausten. Gauzen ukitzeko, giharrek ematen dioten muga ikasten du. Begien garatzearekin eta begiak eskuarekin lagunduz, urrun-tasuna eta erliebea ikasten ditu. Albokatzea, saiheskatzea, hots, ezkerra eta eskuina bereizten ikasi behar du. Edozelan, jende heldu batzuek ez dute bereizkuntza hori inoiz osoki menderatzen Geroago ikusiko ditugu erreflexu ikasiak, senaren aurka joan daitezkeenak. Nietzschek pentsatu gabe egiten ditugun ekintza guztiak, nahiz ikasiak izan, senean sartzen zituen; biologiak adigaia hertsatu du, erakutsiz, nahiz nahasian agertu, hor bi mundu desberdin daudela.

Sarritan, ikerketa honetan, gaizki/ongi gaia tartekatuko zaigu, baina, jarraitu baino lehen, Luis Haranburu Altunak senaz idatzia aldeztu nahi nizuke:

“Kristau edo jentil euskaldunok beti atxiki izan ohi diogu geure bizia nolabaiteko senari. Sena berez ez da ona eta ez txarra, seme, geure izaeraren parte dugu eta arrazoiez erabiltzen dugunean goi mailako portaerak eragiten ditu; aldiz sena berean uzten dugunean ezarrazoi askoren sustrai bilakatzen da, bai politikan eta bai norberaren baita sakonean” (Luis Haranburu Altuna, 1999, 50).

1.1. Erreflexologia

Erreflexuez Pavlov ibili zen esperimentu asmatzen. Abereen heziketan nola jokabide berri automatikoak sortu erakutsi zuen. Berak halakorik nahi ez bazuen ere, Ipar Ameriketako Estatu Batuetan *tabula rasaren* teoria. Behaviour-aren aldeko teoriariek dogma bezala erabili zuten. Haientzat, dena ikasia zen eta ingurumenari eta ingurugiroari zor zitzaien guztia. Gizabanako kontzientzian giza gogoaren fenomenoak, zenbakien mirespenez, fisikoki neurtu nahi zituzten.

1.2. Behaviorismoa

Psikologian hereditaterik, senik, ez legoke; beraz, zerik egiten du tximinoaren eta gizonaren bestelakotasuna: ingurugiroak? Erdizka, arrazoi dute, zoritxarrez, gizona baldintzapetuz, irakatsiz, “burmuina garbituz edo” molda litekeela diotenean. Nola argitu, ordea, fisiologian ematen diren oinarritzko erreflexuak, ikasi beharrik ez dutenak, animalietan eta ninietan inork erakutsi gabe egiten dituztenak?

Brentano eta Husserlekin, *Gestalt* formaren teoriak psikologia berria eskaintzen du: *Ganzheit*, orokortasun baten bidez, psikologia antolatuz. Aspaldian esana sakontzen dute: “Mundua den bezala ezin dezakegu ezagut, pertzepzioaz arduratu behar dugu”. Behaviorismoak ez zuen psikologia bere osotasunean ikusten, baina *Gestalt*tean, Höhler-ek osotasunari gehiengoa emanaz, molde bakar bat ikusiz, jende nortasuna zer den, gizabanakotasuna zelakoa den, ez du ikusten. 1920tik goiti, biologialariek diote ez dela bizidunen sena bere osotasunean edo zatitasunean ikusi behar, baina bizi giro bereziei lotua (Von Uxehüll, 1940).

Erreflexu ikerlarientzat, euliek, errautsaren estimulua dagoelako, beren hegoak artoski garbitzen dituzte, beren atzaparrak behin eta berriro igaroaz, baina, jaiotzez eta arraza berriz, hegalik gabeko euliak ezagutzen dira eta haiek ere –barren kitzikaduraz– keinuketa berdina egin dezakete, beren aurreko arbaso

hegodunek egiten zuten gisara, ingurugiro eraginik gabe (Kluyyer, 1947).

1.3. Etologia

Senaren ikerketa emankorrenak biologialariek eginak dira, psikofilosofoek ahaztu bideetatik; alde batetik, ehizak, piztia askeak zer jokaera duten ikusten bada, bestetik jaiotzatik bestee-gandik baztertu animaliek zer egiten duten; horrela, kabinetetako ideologia idealista edo materialistak bazterturik, behaketaz, oharketaz ikasitakoa eta jatorrizkoengandik bereizten dira.

Animalietatik jendetara tartea dagoela? Nork uka, eta askotan diogu, sen asko galdu duen animalia dela gizona, baina umearen jaioberriaren oinarrizko eta beharrezko ekintzak senezkoak direla. Umeekin, gizakiekin, patologiak zerbait lagun dezake: halaxe, 1953an, Kluyverrek erakutsi zuen nola lehen bi hilabete-tan kortexik, burmuin azalik ez zeukaten umeek kortexdun haurren iharduki eta erantzun berdinak zituzten; beraz, nahikundearen eraginetik kanpo daudenak.

Konrad Lorenz Nobel sariduna, etologia berrituz, bide aberatsagoetarik abiatu zen. Haren esperimentu eta teoriak azken laurogei urteetan egin diren jakingarrienak zaizkigu. Ez zaio jarraitzaile dogmatikorik oraindik agertu. Marka ona. Lorenzek berak ez zuen gizaki osoa eta animalia osoa azal zezakeen teoria orokor eta arriskutsurik sortu. Lorenzen bi aurkikuntza nagusiak, hegaztiekin abiatu esperimentueta oinarrituak, behaketa askoren bidez argitu zituen. Ez zen kabineteko asmatzailea.

Jendeetara itzuliz fetua, gizartearen, jende ingurumenaren eta izadi ingurugiroaren eraginik gabe, adibide ederra da: lau hilabeterekin, amaren sabelean, hatz lodia xurgatzen hasten da, baita, 4D ekografiek berriki erakutsi bezala, otoiitzean bezala eskuak juntatzen, hatz guztiak tolestean eta erakuslea zuzen uzten, hatz lodia eta erakuslea juntatzen zirkulu baten antzean (hori gizakiaren keinu berezia da). Sena garbi-garbian dakusagu.

1. Estimulu edo kinada bati erantzuteko egokimena genetikoki baldintzatua dela erakutsi zuen. Kasu! Ez da ekintza genetikoki baldintzatua dena, egokimena baizik (*Der Kumpfan in der Umwelt des Vogels*, Wien, 1935: *Lagunartea hegaztien bizigiroan*).

2. Kanpotiko estimulurik gabe, barren kitzikadura edo bulkada batek eraginik, erantzuna gerta daiteke: halaxe, jaiotzez gor eta itsu diren haurrek amaren bularraren bilaketa, eskuaren hartzea, narras ibiltzea, igotzea, barre egitea inori ikusi gabe, inori entzun gabe, barren kitzikaduraz egiten dituzte, baita barre eta negar egiten ere. Giza jokaeretan, giza joeretan, horrelakoak ugari dira, eta animalietan gehiago. Gainera, titidun, ugaztun guztien artean jokaera berdintsuak ikusten ditugu, baina gizakiek horien azaltzeko, horien ulertzeko sinbolika sartuko dute.

3. Animaliak direla-eta, barru beharrez, animalia batek ingurumenik gabe, erakuslerik gabe, jarrera keinu bat egin dezake, hala nola etxe katuak bizitegi bateko zur zoladura, zorua bere gorotza estaltzeko karrakatzen duenean. Sortzarozko erritu horiek ugaztun guztiengan aurki genitzake, hala ikusten ditugu txahala eta bildotsa titiaren, amaren erroaren bilatzen eta buru-aho ukaldika, ikasi gabe, esnea batzen.

Jokabide askotan, senezko errituak ikusten dira: ernal deian, sexu dantzak, elkar hazkatze edo agresibitatearen urruntzeko keinuetan. Batzuek diote kontzientzia berezagutzan dagoela, baina kontzientzia adigai lausoa da, eta animaliek, batik bat titidunek, ez al dute berezagutzarik, oroimenik eta pentsamendurik? Ikerketek diote baietz, baina, jakina, hor bereizitasuna badago: animalien pentsamendua irudiz, usainez, oihuz dabil eta ez hitzez eta ez adigaiez. Jendeetan, ordea, errituak badu sinbolikoki iraupena.

4. Noski, jaiotzeko erantzunetan, batzuek aurreprogramatu bezala dirudite: hatzaren xurgatzea, titiaren bilatzea eta abar; beste kasuetan, erantzuna ez bada berehalaxe agertzen, erantzuteko gaitasuna aurretik emana da. Beraz, lehenbiziko erreflexularien ekarpena gutxietsi gabe, Lorenzek uste du gauzak ez direla hain

bakunak eta ez dela, *tabula rasa* batekin, ez animalien ez jendeen erantzuna ezerezetik abiatzen; horregatik, lehengo eskema, *kanpo kitzikadura/erantzuna*, bakunegi zaio.

Lorenzek eskema aberatsagoa eskaintzen digu: enbrioitik, jaiotza orduan ditugun sen joerak kanpoko kitzika batek bezain-beste barrengo eragin batek pitz litzake.

Bai, nahiz ingurumenak, nahiz ingurugiroak alda dezake erantzuna, gehituz, beheratuz edo agortuz; izan ere, barren kitzika horrek ez dezake beti ekintza batera eroan, ez egite batera, sentimen batera, besterik gabe. Ez da, beharbada, Lorenz senaren ikerketan azkena izango, beste pentsalari eta ikerlaririk edukiko dugu, baina hemendik goiti adibide konkretuak ekarri beharko dituzte. Luzaro idatzi dut Lorenzez, Euskal Herrian gutxi ezaguna delako ere; ea geuk, euskaldunok, gai horietan, neurri horretako ikerlaria emango dugun!

Lorenzek zioen jendeen eta animalien jokabide batzuen zati bat baizik ez zuela ikertu. Batak ezkerreko ideologia usaina, besteak eskuinekoa bilatzen ibili zaizkio. Lorenzen lekua ez da erraz ikusten: mekanizistei esaten dielako bizidunak ez direla makina hutsak eta metafisikazaleei jendeen oinarrizko jokaerak animalien berdina direla. Bere ikerlanetan zehar, Lorenzek kanpokoari erantzutea eta barrengo kitzikadurari egitea aberastu eta konplikatu du. Bazekien zertaz ari zen, bere teoriak ez zituen jendeen gogo jardun guztietara hedatu nahi izan.

Filosofiak eta ideologiak beren fruituetarik ezagutzen dira eta jendeen kondairan, zoritxarrez, aplikatu diren ideologiak ez dira jakintzazkoak izan: erdi metafisika, erdi dogma baizik. Esate baterako, Estatu Batuetan, oztopo gabeko heziketa sisteman amildu ziren. Frantses Iraultzaz geroztik, banakoaren sasi eskubideak gorai patuz eta zorionaren eskubideak nahi duzunaren egite-ra uzten zaituelarik, eginbideak baztertuz, gazteriak, lehen Ipar Ameriketara, orain Europan, sekulako arazo batzuk eta gizarte elkartasunaren desegite batzuk ekarri dizkigu. Adimenak darma jendea, banakokeriaz, berekoikeriaz, hots, indibidualismoz, bere eta besteen kaltetan, senez agian egin ez ditzakeen ekintzetara.

2. Sen alde eta joera batzuez

2.1. Bizi nahia

Hau da niniak, seinak, jaiotzean daukana; alegia, lehenik automatikoki arnasaren hartzeko gosez eta egarriz jan-edan eskaera, geroxeago lauoinka ibili gura. Horietaz ez da eztabaidatzen, gaitz bat gorabehera, ia argi eta garbi daudelako. Kontzientziarik gabe, horien aurka ez du ume koskorak, urte askotan eta adimendua ongi garatu arte, ezer egingo. Dagoeneko, ordea, jan-edan senak, umeetan eta etxe abereetan laster alda daitezke kanpoko eraginez, bulimia edo anorexia sortzen dituztelarik. Halaber, biziaren kentzea, senaren aurka bere buruaz beste egiteko erabakia, ez da nerabetasuneraino agertzen. Gaurko gizartean, ordea, gazte horien artean gertatzen da, geroago eta gehiago, suizidio kopuru handia.

Biziaren beste muturrean, zaharragoen bizi nahia ez da bakarrik senetik heldu, gaixoegi ez denak hala nahiz iraun nahi baitu. Zaharren bizi nahi horrek Egiategi gogoetatsu uzten zuen. Horretaz 1785.ean Egiategi zuberotarrak lehen filosofia liburuan idatzi zuen, eta hizkuntza apur bat gaurkotuz eskaintzen dizuet:

“Bizia luzatu nahiz, ahalena ari girade, medio guzietaz errekeitatzen, osasuna ardura haietaz dugu laburtzen, Vestalen, suari atitxatzez beti bizi zenari, ezta gure gorputza pare” (*Filosofo heuskaldünaren ekheia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 189).

Biziaren eta bizitzaren luzatze nahi horretaz Egiategik gaineratzen du: Handikiek beren botereaz hanpatuak ez lirateke hil nahi. “Handiak nahi luke bizia bere botereari zehatu (luzean neurtu), beti gogoa du hartara, baina luzatu nahiak dio beti laburtzen” (Herioaz, aip. lib. 190).

Gaur ere hamaika diktadore eta harroputz ikusi ditugu azken oneraino botereari lotuak, hala nola Franco, Mitterrand, Stalin, beren botereaz ezin aseak, eta beste “atso santuagoa” apaltasun ezaz bere kargua ezin utziz. Bizi sena, nahiz gazteetan, nahiz zaharretan ikus daiteke, baina Egiategik XVIII. mendean

ez zuen gure begiz ikusten eta, orain bezainbat zahartzen ez zelarik jendea, bere sinplekerian, gizaldien txandakatze beharra eta mundua gazte eradukitzeko bide bakarra zaharren eta ihartuen hilik joatea baizik ez dakusa:

“Hil ezpaladi gizona, hil nahi lizatekeela, aspaldian probaturik dago, argia bezala ageri denean Eguzkia. Ezen munduko gauza guziak dabiltzalarik erdia narrasta, erran otoi, nolakoa lizatekeen lurra bezain zahar lizatekeen gizona, bost mila ta sei edo zazpi mila urte bizkarrean eta haritz suharra bezala zatika eror litekenean? Alfer lizatekelako halakoa Izadiak du kentzen eta beste bat haren lekuan jarten, landatzen den bezala haritz gaztea, zaharra zenen orde, ezen mundua balitz jende zaharrez beterik hain higuigarri (gorrotogarri) lizateke nola oihana haritz igarrez baizik ezpalitz landaturik” (*Herioaz*, aip. lib. 165).

Eta gure filosofoak ez du onartzen zaharrek biziari daukaten euspena, atxikimendua, eta, maiz egingo duen bezala, antzinako paganoak eredutzat emango ditu:

“Paganoetan zen jende suerte bat beren legetaz gizon berrogei urtetakoari debekatzen baitzieten dotoren (medikuen) ikustea, ziotelarik ahalke (lotsa) handia zela bizitzari hainbeste amorio erakustea. Kristietan aldiz laurogeietan, kasu berean, hamabi doktor deitu lezakenik dira munduan. Estekamendu (lotura) halakoa ez dea harrigarri?” (*Herioaz*, aip. lib. 166).

Egiategik, bizi nahiaz kanpo euspen edo atxikimendu horretan aurretik bizi gosea bazen, orain aberatsen kasua ikertzen du, eta gizarte eta kultura arrazoiz dakusa eta dio:

“Zü aberatsa zeren dolü (damu) düzü bizi galdüari? Zergatik düzü herioa higüin? Ordüz edo berandü, ikusi behar dükezü, zordün zira hartzailcari ez nahiz zorrik egin, azkenekotz itsusiago zaizü agertüko. Zeren dolü düzü zure palazio ederrari, zure zilarreriarri? Heetaz beste mündüan ez düzü izanen beharrik; zeren, arren, adio harez hain beldür zira, hain ta hainbeste enperadore, errege, printze eta Aita Santü, gizon bihoztöi eta kobartik egin bideaz zira beldur?” (*Herioaz*, aip. lib. 168).

Bizi senetik urrun gaude, jendeen bizia kulturaren indarrek baldintzatzen dutelako. Egiategiren garaian, jakina, ez zen ger-

tatzen gaur bezalako bortxazko sendaketa, arnas hartze behartua, erdi hilik dauden jendeen bizirik eradukitzeko, baina, orduan ere, halaz ere, zaharrek beren buruen erremediatzeko amorrua zeukaten.

Gaitzak menderaturik, eritasun osaezin batek zapalduarik zeudenen eta herioa deitzen zutenen aipamenik ez du egiten gure pentsalariak, ez eta, noski, horrelakoen askatzeko eutanasiarik aipatzen. Gaurko eztabaidak ditugu horiek. Halaz ere, hainbeste aitzakia dagoelarik zaharren eutanasiarako, jendetza berritu lezaketen haurren hilaurrarazteko ez dago horrelakorik. Biak ez badira lotuak, biak senetik urruti, kulturazko erantzunak dirateke eta mundu osoan ez berdinak.

Beraz, gizakien artean Osakidetzak, Medikuntzak, Sinesteek, Ohiturek, hots, zibilizazio aukerek bizi sena estal lezaketete. Adimena oker ala zuzen agintzen du: garai bateko okerra, makurra bestearen zuzena gerta daiteke, baina adimena sena baino hobe ote?

Haur txikiari, gehienetan, ez zaizkio ez biziaren gaitzak ez eta hil beharra ulergarri. Horiek mutil-neskatxetan hamar-hama-lau urteez goitikoetan agertzen dira. Pentsaketak, adimena senaren atsegina ilundu eta galaraz litzake. Lehen urratsa *tristezia* da, apika, hil nahiaren lehen urratsa, eta horretaz Egiategik idatzi:

“Zühür batek zioan gizona itsüa bezala mündüan zela sartzen, lanari orozbat lotzen, han züela bizi zeno harri bat lagüngai zitaionak doloreak eta tristeziak esküetan ezarten” (*Tristezia*, aip. lib. 231).

Goibeltasunaren lana erakusteko, arima ahuletan, arian ariz, bigarren urratsa *melankoliara* igarotzen dela. Idazleak ohi dituen konparaketak eta irudiak darabiltza:

“Arima flaküetan da sortzen eta gogoak herdoila düen bezala bürdina du jaten, poza dü ere haren garraztarsünaz bihotzetik akasatzen, melenkolia zaio gaüza güzietan jarten” (*Tristeziak*, aip. lib. 231).

Bizi nahiaren galtze horretaz luzaro jarduten du Egiategik eta malenkoniak sailkatzen. Lehen sailekoek beren zoritxarra jende gutzietan kontatu nahiz dabilta:

“Jende güziei beren minak bezala ditüzte eske eliza borteetan, berenak etorle eta joailci, banatzen” (*Tristeziatz*, aip. lib. 232).

Bigarren saileko dohakabeek beren zoritxarra gordetzen, isiltzen dakite:

“Bestek aldiz ditütelarik bihotzaren barnean kokatzen, ager ez daitezzen, düe begitartea estiran ezarten” (*Tristeziatz*, aip. lib., 232).

Hirugarren sailekoak ihesgileak dira; lagunarteari, jolasari ihesi dabiltzanak:

“Gora behera behetik gainera, eskün eta ezker, aitzina eta gibelera, inon ere ez daudelarik, joko eta lagüngoia güztei ihesi doatz” (*Tristeziatz*, aip. lib., 232).

Laugarren sailekoak, etsituenak:

“Zenbat ere bizitzaren eginbideak ahazterik, jan ezeta ere ez düte nahi, hortzüloan (hilobian) balira bezala, handik gogomen beltzak itsüirüdiak, desesperantza eta gogoaren mila egimen erran ezinak ditüzte metatzen” (*Tristeziatz*, aip. lib., 232).

Tristeziak ba ote duen sendagailurik galdetzen du Egiategik, eta ezetz erantzuten:

“Alferki filosofoak dirade eritasun haren sendotü (osatu) nahian ibili, batek ere ez dü kausitü. Peredikariek ere hartan düte gutxik obratu” (*Tristeziatz*, aip. lib., 233).

Noski, etsipenaren, orain depresio deitzen zaionaren ikertze horretan, gaur agerian dagoen irtenbidea Egiategik ez du aipatzen, alegia, bizi nahia galdurik beren burua hiltzen dutenena. Eta eskaintzen duen sendagailua ahula da: pozik bizitzea!

“Boztarioa (poza) da tristeziaren medika segürra” (*Tristeziatz*, aip. lib., 233).

Gure gizaldian bizi izan balitz, zer erantzungo zuen Egiategi batek 1948.ean Mirande zuberotar malenkoniatsuak gipuzkeraz idatzitako bertsoari:

*Aspertuaz urturik, txo! neure bihotza
bizi ontako neke ta negarrak aztu.*

*Eriotz samurrak danak eramango ditu
oetzat izango det bihar buztin otza...*

Euskal Herrian bizi naizenetik, leinu malenkoniatsuak badi-rela konturatu naiz. S. G.n honela, elkarren ondoz, amak, seme zaharrenak eta alabak, etsitu hiru jendeek, beren buruez beste egin zuten. Orain, horrelako melankolikoentzat gizarte langarik ez dagoenez, maiz depresiotik hurbil suizidioa dago eta lo sendaldiek eta litioak ez dira sarritan nahikoak.

Ez dut uste basapiztien artean bizi nahia erraz galtzen denik; leming arratoiez kanpo, ez da bere burua hiltzen duen piztiarik, eta kasu horretan goseak agindutako talde heriotza da. Bizi nahia bizidunen lorea bada, bere buruaren hil nahia gizonaren adimenaren, askatasunaren fruta genuke? Besteen hil nahia beste kontua litzateke.

2.2. Erasotasun sena

Erasotasun senak, agresibitatearen iturriak, eztabaida erreak piztu ditu, baita gizartean, errealtatean, su kaltegarriagoak izeki ere. Rousseau frantses filosofoaren gazte garaiko sasi monismo eta manikeismo azalpenek gure artean, oraindik, bizirik diraute. “Argien filosofia” horrek ez zituen ezagutzen geroztik biologiak eta psikobiologiak egin aurrerapenak eta orduko argi horiek gaur ez dute berdin ulertzen laguntzen: Rousseauren arabera gizarteak duelarik gizona gaiztotzen, jatorrizko erasotasun baten izatea ukatzen du eta ondoko ikasleek ukatzenago. Basa gizona ezin da gaiztoa izan, gizarte antolakuntza ez baitu ezagutzen. Indarkeria gizartearen eraginaz sortzen da, ez litzateke berezkoa, omen?

Kristautasuna ukatzen duten hainbeste materialista ideologiariek ez dute ikusten, Engelsek idatzi bezala, kristau eskema batean sartzen direla ukapenean eta bakarrik urruntzen irtenbidean, bide berdintsutik, uste du. Etnologialari “progreak”, Rousseauren ondotik, erasokeria gabetasuna basa tribuetan bilatzen ibili zaizkigu. Batzuetan, tribuen artekoa ez zen indarkeria, beren herriko emakumeen, abereen edo basa ehizen aurka ankerki, odoltsuki jokatzean agertu zitzairen.

2.2.1. Erasotasuna eta bere buruaren zaintzea

Jende banakotik estaturaino jendetzak muga ipini nahia darakutsa eta bere buruaren zaintzeko, bestea arrotz bezala baztertzeko. Hori umeeekin jolasean agertzen da: umeak bere inguruan klarionez zirkulu bat egiten du esanaz “nire etxean nago”, dagoneko bestea kanpoan dago, kanpotarra. Jarraian etxearen barruan bakoitza bere txokoa zaintzen saiatzen da, baina besteak onartu behar ditu. Etxetik kanpoko auzoak *arrotzak* dira.

Auzoa arrotza baldin bada, auzoen artean beste zirkulu bat sortzen da, auzunearen muga, eta beste auzotegikoak arrotz zirenez, gazteak, ez du aspaldi, auzune batetik bestera borrokatzen ziren.

Herriz kanpo joatean, herrien arteko muga borrokkak zeuden, hala nola Erdi Aroan euskalki berdineko nafar eta giputzen artean. Izan ere, probintziak muga dauka, eskualdeak bereak, estatuak besteak. Muga guztietan badago *arroztasun* bat eta, ukabilezko borrokkak ez badira, mingainezkoak eta interesezkoak daude. Gaitzespenezko xenofobian sailkatzeak ez ditu gauzak argitzen.

Jokabide horiek, animalien antzeko, lurralde-jokabideak dira. Ezezagunaren edo bestearengandik urruntasuna izatea berezkoa da eta bere nortasunaren gordetzeko erreakzioak ere senaren ondokoak dira. Jokabide horietan, badira ez fidatzeak sortu berezko erreakzioak, baina pentsaerak edo ideologiak erreflexuen mundura igaro nahi duena edota politika arrazoiengatik ezaba lezake.

Barregarria da ikustea Frantzian nola mugaz gabetzen ari diren jakobinoak oihuka dabiltzan, biluzik balira bezala. Non da gure moneta? Non da gure armada? Non dira hexagonoaren muga geometrikoak? Europak izutzen ditu. Ez da nahikoa ere erratea erasokeria ez dela jaiotzekoa eta bakarrik heziketak piztu edo iraungi lezakeela, hala nola gizarte oztopoak eta eginbideak kenduz. Ez da aski gaitzaren funtsa ukatzea, sendatua, osatua egoteko. Jende guztien barruan lotan dagoen zerbait dela –batik bat gizonengan– aitortu behar da; noski, gizartea desorekatzen duena erasokeria helburu eta egitasmo huts bezala ematea da, hori totalitarismoa edo inperialismoa da.

Maiz, estatu baten terrorismo horri isilpeko iraultza terroristak batek erantzuten dio eta ez dira beti borrokalariak hiltzen diren gehienak, hamaika zibil hilaz bestea izutzen baitu edozein terrorismo motak. Baina non dago ongiaren eta gaizkiaren muga? Erasotasunari buruzagitu nahi baikatzaizkio eta indarkeria hezi, aurreiritzi gabe, ikertu, gogoetatu behar genuke. Bi ikerbide desberdinetatik ibili behar genuke, bata patologian Freuden eta Yungen ekarpen balioekin, bestea fisiologian etologiak erakusten dizkigunekin; bi bideak ez nahasiz, ezen ezin esan daiteke, Freudzale zenbaiten gisa, gorputz sana gaixoarena bezala dabilela eta jarduten duela.

Freuden eta greziar zaharren “thanatos”, *hil sena*, gaitza izan daiteke. Erasokeria eritasuna litzateke. Hala eta guztiz ere, jende gehienok, erailketara iritsi gabe, bizirik irauteko erasotasun maila baten beharra daukagu; horrek ez du thanatosarekin ezer ikusteko. Hobe litzateke erasotasun hori izadiaren kontrolatzen erabiltzea, benetako, bakoitzaren kirol praktikaz gainditzea, baina estatuek ere, beren interesen zaintzeko, sen horien berotzen dakite.

Beste aurreiritzi edo ustekeria da –biologia zer den ez daki-telako– erasotasunaren ikuspegi eta sailkapen okerra egitea. Askok uste dute belarjaleak eta txoriak baketsu direla eta haragijaleak beti odoltsu, anker, gaizto, maltzur. Guk dakigularik, untxia (leunaren sinboloa) eta usoa (bakearen sinboloa), biak beren arteko harremanetan ezin latzagoak, gaiztoagoak dira. Askotan, frustrazioa, urritasuna, izialdura, indarkeria piztaile ikusten dira. Eskarmentuek, ordea, alderantzizkoa eman lezakete, eta, horrela, nini bati biberioia berak eskatu baino lehen edo hark luzaro eskatu ondoren emateak erasotasun egoera berdinerara daramala dakusagu.

Adibideak gertaldietan bermatuak ikus genitzake; zilegitasun eta askekeria osoko ideologian nagusi izan diren Estatu Batuetako gurasoek, “psiek” heziak, bulkatuak, eroanak eta aginduak oztoporen galarazteko asmoz, umeak zernahiren egitera utzi dituzte. Haur gehienekin balio duen erantzukizuna edozeinekin ez. Haur aski maltzurak bere burua betiko haurtasun batean edu-

kitzen du, gurasoak ustiatzen, beren nahiz bazterkin edo gizarteak marjinatu legez lasaiki lanik egin gabe bizitzeko.

Orain, kasu txarretan, utzikeriarekin, Frantziako errebaletan haurrek praktikatzen duten indarkeria, noizik behin armekin, kolejiotik lehen mailako eskoletara jaitsi da; emigratu guraso batzuek umeez gaindituak haien hezteko astirik ez dutelako eta frantses irakasleek ez dakitelako.

Jakina, herri behartsuetan eta hamar haur dagoenean etxean, ez nahikoa jateko, ez da gurasoa herri industrializatuetan bezala umeen zerbitzuko, baina, alderantziz, umeak oso gazterik ustiatuak. Herri horietan beste gisako erasotasunak daude jendarteko ontasunak ukitzen ez dituenak, baina jendeak jipoitzen, zapaltzen eta lanean hiltzen. Gizabanakoaren erasotasun joera batzuetan urritasunak, besteetan gizarte oztopoek edota amets asegabe-koek baldintza lezakete. Jende taldeak hartuz berdin. Gordetzaila vs aldatzaila, gutxiengo vs gehiengo, eztabaida irtenbide gabekotan indarkeria ager liteke. Konturatzen gara gehiengoek beren zapalkuntza, beren nagusitasuna zuritzeko, filosofia, ideologia, erlijioa darabiltela.

Claudius Adrianus Helvetius zentzuzaleak honela ikusi zuen gizabanakoaren arazoa: zentzua eta sentiberatasun fisikoa gure gogoeta guztien iturria litzateke. Etika gizabanakoaren ongizatean legoke eta bertutea geure buruarenganako maitasunean. Horrelako jende bati, nire ustez, erreka jotzea gerta balekioke, ongizatearen mugak ikus litzake, baita besteenganako ardurarik ez eduki izana deitoratuko ere. Alta, biharko gizarte gizabanakozale, berekoi, amerikar eta industrializatu herrien ereduak ez al da hori izanen?

Beharbada, gizabanakoaren erasotasuna eta gizartearena bereizi behar lirateke, sen berdinak ez dituztelako ukitzen. Gizartearen erasotasun erabilera maltzurra, hala nahiz, izu senaren bitetik dabil. Gizarte erasotasuna, sen ilun batzuen agintzailea, beldurgarriena dugu.

Estatuak, erresumak, geroago eta ankerkiago, geroago eta oldotsukiago agertzen zaizkigu: etnia bestelakotasuna dela eta,

amerindiarrak, armeniarrek, ideologia ezberdinaren izenean juduak, kanbodiarrak, tartariarrak eta ukrainarrak, erlijio baten akiakulan, besteak hilaz eta gerra zibil asko kontatu gabe, hala nola musulman integristena Darfuren eta Iraken edota serbiar kristauena, albaniar, bosniar eta kosovoarrekin. Bazterrik gabeko eta irudimen lazagarrizko indarkeria zabaltzen, hedatzen ikusten dugunean, animaliek beren senaz dituzten elkar hiltzeetarik, elkar zapaltzeetarik urrun gaude. Animalietan arraza barren-barreneko harremanetan indarkeria urrutiegi doanean, *gehienetan*, geldiarazteko erritugintzak daude.

Nola hezi senetik letorkeen erasotasuna? Grezian Olinpiar Jokoak egin ziren gerrateetan zuritzen ez ziren arazozen zuzentzeko. Gaur katarsia hori, garbiketa hori, ekonomia, kultura, jakintza eta kirol lehiaketekin erdiets omen genezake? Historian, kultura handiko herriak basaki jokatzen ikusi ditugu, hala nola Alemania, Japon, Kanbodia. Jakintza gaizkiaren zerbitzuan ere jar liteke.

Talde kirolak darakutsa, lotsagarriki, irabazten den futbolean, zelaietara doazen ikusleetan, huliganak eta erdihuliganak, *hincha* anitz baita, jokalaria ere oso basaki jokatzen direla. Gizabanakoaren *amateur* kirolean, apika, erasotasuna gaindi liteke, baina taldezkoetan gizonak zakur taldeen moduan dabilta.

2. 3. Besteen hil nahia, besteen hil beharra, erailketa

Besteen hil nahia, ordea, basa piztiekin jendeek daukagun senetik zerbait badu, apika. Zein piztiak ez du bere biziaren babesteko, jan beharrez edo beste kenteko animalia batekin erasokorturik, erailtzeko gogoia izan? Baina adimenak, pentsaketak, ekintzara igartzeko senak laguntzen du, baina erreflexuek eta heziketak beharbada erail nahian eragin gehiago daukate.

Basa ehizetan eta noizik behin etxe abereetan, ernal garaian, beren arteko borroka hilgarriak izan daitezke, baina urrixak ez dira berdin goxo “kanpotar” urrixa bat datorrenean, hiltzen saiatzen direlako (behiak, oiloak, untxiak, usoak). Egia da animalia

askeek, beren lurraldeak mugatuz, horrelako borrokak ekidin dizaketela edo sarritan heriotzaraino ez doazen borrokak eduki.

Gizartean, ordea, besteen hil nahia erakundetzen da, legez-tzatzen da, guda, gerrate, *estatuaren arrazoia* eta bizi kondanak eratu-z, zuzenetsiz eta heroiak gorai patuz. Orduan, senetik urruntzen gara. Ez ote zuen Periklesek erasokeria erasotasun bilakatzeko erail nahia, ehizan askatzea edota gerretan erabiltzea pentsatu? Eta Axularrek bere *Geron* gauzak garbiki esaten ditu:

“Egia hau ezaguturik Perikles famatu hark mantenatzen zuen, beti ere herritik kanpoan zerbait gerla. Eta urtero igortzen zituen untiak jendeez beterik gerla hartara. Eta heetan bulkatzen zituen, ediren (aurki) ahal zitzan alfer guztiak eta gero bizitzen zen bakean”.

Urrunxeago, etsaigoaren beharraz gorai pamera eginaz, dio:

“Lazedemoniako heek berek ez zuten desegin nahi izan hiri kontrast bat, beti ere kontra eta etsai izan zuten bat, erraten zutela, ezen hiri hura zela *iuventutis cotem*, gaztetasunaren zorrotzaria; zeren gazteek han, beren indar eta antzea frogatzen, zorrotzen eta erdoiltzetik begiratzen baitzuten”.

Argudio hori, apaiz baten lumapean, ez da argiegi, edota ulertu behar da, Jainkoa eta ongia zer den jakiteko, beharrezkoa dela deabruarekin eta gaizkiarekin ibiltzea? Senaren “euskaldun” ideia horietara itzuliz eta aspaldian indarkeria eta erasokeria dela eta hauteman nuena, *katarsiz* ehiztarien artean kirurgilari, sendagile eta dentista asko ikusten dela, biologialari eta naturalista gutxi.

Jakina, ehizan ibiltzea ez da beti jendearen aurkako erail nahiaren katarsia. Askotan, ehiza gizonen artean, andreengandik urrutixko bizitzea, kanpoan, mendian ibiltzea, aitzakia da. Gehienetan piztia haragijaleek halabeharrez egin behar dutena beharrik gabe eginez eta ohitura jarraituz egiten baita ehiza. Erailketa ez da bakarrik haserre bateko sena, edo gorrotoak gehi pentsaerak sortua, kulturazkoa ere bada. Eman dezagun Korsikan, nahiz frantses, nahiz korsikar nazionalista izan, nahiz zernahi izan, ia gizon gehienak kalera irteten dira pistola poltsikoan dau-

katela. Hori ez da senezkoa, ez genetikazkoa. Bakezale diren PNCKoei diote pederastak direla, armarik gabe dabiltzalako.

Pistola beste korsikarrentzat bigarren sexua da. Estatu Baturuetan berdin, konkistako garaietarik denek etxean arma baten edukitzeko eskubidea daukate eta, noski, beste herrietan baino automobil istripu gutxiago da, askoz gehiago tiroketaz, ezen arma bat daukanak egun bat edo bestez erabiliko du.

Andre chiztari gutxi da eta andre soldadu gutxi ere oraindik. Buru hotzez hiltzaile gehienak gizonezkoak dira. Geroago ikusiko dugun ama sen edo berzaintze sen lauso batek hori eragiten ote du? Hauek dira gure gogamenak, baina gu baino ospetsuagoak senaren ikerketan eta azterketan ibili dira. Ea zer argi eka-riko diguten!

2.4. Bizi eman nahia, ama sena

Bizi eman nahia eta ama jokabideak abere eta basa piztien artean senezkoak direla badakigu. Jendeekin, ordea, giza ernalketa, sendiak, ume heziketak, hamaika gauzak eraldatzen dute sena; ekonomiak, kulturak, ohiturak, sineste arazoek dena nahasten baitute.

Bizi emateko eginbidean, aurretik azter ditzagun erlijioak eta estatuak, arrazoi desberdinengatik, jendeen ernalkuntzan, jendeen ugaritzean, horrelako kontrola eduki nahi bailukete. Karl Marx bizi-emanguraren aztertzen ez zen gehiegi arduratu, nahiz horren inguruan garatu iritzi batzuen zapalkuntza erakutsi zuen. Biologiak zerbait dakien edonork daki bizi eman nahia ez dela jendeetan sen garbia, ez dela animalia gehienetan bezala, animalietan urtean behin edo birritan senak pizten duen su ernalkorra. Animalietan, automatikoki, behar denean, izadian ume gehiago edo gutxiago egiten dute. Basa animalietan –eta ez hala etxe abereetan– bizi-emangalea sendoa da. Adibidez, aintzira batean igel gehiegi dagoenean, hurrengo urtean emeek arrautzarik ez dute errungo. Jaiotza kontrol horren mekanika hau da: igel lagunek oihu zarata gehiegi egiten dutenean, arrautzokiak ez

dira garatzen. Baina eman dezagun “arrantzaleek” edo izadiaren baldintzek hilketa handiak egin dituztela; bizpahiru igel baizik ez bada gelditzen, isiltasunak emeengan arrautzokien garatzera eta, senez, errute ugarrira eroango ditu.

Halaber, hiritarrak, oihanetan, basoetan dabiltzanean eta txoriak kantan entzuten, sarritan ez dakite kantu horiek bizi eragina dutela. Adibidez, habia egin aurretik eta umeak hazi behar badira, jan eremua behar da, txori bikote bakoitzak kantu eginaz bere jan-eremua seinalatuko du. Txori “ezkongabeak”, arrotzak, eremu horien muga jan behar du, eta halaxe leku bat askatu arte. Beraz, oihana auzoguneka zatikatua da, baina, noski, janari berdineko txorien artean mugatua. Ale-jaleak beste ale-jaleak urrunduko ditu, baina zomorro-jaleari ez dio jaramonik egingo. Gizakiek ez badute beren esku eta jenio txarra hor sartzen, oreka hori gordetzen da.

Adimenak jendeetan gauzak okertzen ditu: behartsuenek, umeen hazteko eta hezteko baliabiderik ez dutenek, sarritan, erlijioagatik edo lanerako besoak izateko, ume asko egiten dute, gizarte aberatsetan erosotasunaren eta lanaren gainbaliatzeak amatasunaren beheliatzea dakarte eta horrekin antzukeria, gizarte horren berritzeko jaiotza kopuru txikiegia. Beraz, jendeen artean, adimenak bere lekua duela, bizi eman nahia gure mendean aukera daiteke.

Gizarte zaharretan egokiera hori gizonen erabakiz hartzen zen, eta sarritan emazteek bizia galdu arte ume egiten; orain, lanaren bitartez ekonomia askatasuna daukatelarik andreek, sarritan, haur egitea agintzen dute, horregatik herri aberatsetan demografia erortzen da.

Desiratu gabeko haurra eta ustekabeko ernalpena, bortxakariaren umea edukitzea, aski dira sen horren zalantzan jartzeko. Ama sena ez da beti galdua. Gehienetan, emazte izorragaiaren heziketak piztu dezake, baina denbora berean umea nahi bai eta aita ez, ama-neskatxa modan dago. Umea zakurra baino konpainia biziagoa da askorentzat, baina nahiz aita ezagutu ala ez, umea ez da, maiz, pertsona askea, “senez” edo zerbaiten frustrazioz amaren jabetasuna baizik. Aita eta ama erdua industrializatu herrietan ez-

tabaidagai da. Geroan nora joango den gurasoen eredia ezin esan, lurzabala aurrerakada itsuen eta atzerakada eroen artean dabil.

2. 5. Ongizate, atsegin, oinaze senez

Atsegin senak bi betebeharrak izan ditzake, bata oinarrizko beharren asetzeari; honela dakusa Egiategik bizitza: “Ezen zer da bizitzea, bilaiztea, jaikitzea, eta etzatea, jatea, edatea eta lo egitea” (*Herioaz*, aip. lib., 166).

Behar horietaz esan genezake atseginaren erosotasuna bilaiztea dela eta ahalik ezatseginak baztertzea. Deserosoak hotza, nekadura lehenik; ondoren gosea, egarria, azken horiek Juvenalen satiretako latinezko formula ezagunean, *panem*, “ogia”. Egiategi *circenses* delakoez ere arduratzen da, idazten duelako:

“Joküan, elestetan (hizketetan), tratüetan, saltzepenetan, erospenetan, etxe egitean ta haien barreiatzean, haserretan, auzietan, ezen haietan dago güzietan gizonaren bizitzea” (*Herioaz*, aip. lib., 166).

Beraz, atsegin hitzak estaltzen duen errealitatea bikuna da, bata sena daukalarik iturria: jan, edan, lo eta gorputzeko zentzuetan gehienbat isurkia, besteak: etxeak egin, auziak egin, beraz gogoaren eta kontzientziaren mahatsetarik, hala nahiz, egosi ardoa. Atsegina baino minago, garratzago, saminago, latzago da, jasaten ikasi ez duen mendebaldar batentzat batik bat, oinazea. Asiako gizarte aurreratu batzuetan eta Amazoniako gizarte “primitibo” direlakoetan oinazearen jasatea ikasten dute. Zer da mina, oinazea? Gerta daiteke jazoera batzuetan batentzat atsegin dena, bestearentzat oinaze izatea. Pavlov erreflexuen ikerlariak erakutsi zigun oinazea, ausazkoa ez bada, aldakorra dela. Atseginaren eta oinazearen mugak hurbil daudelako.

Hona Pavloven esperimentu bat: Zakur bati janaria eskaintzen zion aldikal atzapar azpitik elektrika zarrasta mingarriena ematen zion. Hasieran, zakurrak oinazearen ezaugarri guztiak zeuzkan (atzera egitea, zaunka egitea); gero, laster, baldintzatu erreflexuz elektrizitateak atsegin seinaleak eragiten zizkion (isa-

tsaren higitzea, ahogozoa elderrez isurtzea). Oinazea jatearen ekintza atseginarekin lotu zuen.

Horrelako frogaketak eta anatomiaren ikerketek erakutsi digute burmuinean atsegin eta oinaze zentroek elkar ukitzen dutela. Horrela, atseginaren berrikusketa egitera garamatzate eta masokista *vs* sadikoen kasuak beste begiz ikustera. Masokista bere buruaren erasotasunzalea litzateke eta sadikoa hurkoaren erasotasunzale hutsa, biak sen desbideratuak baina adimenak kontrolagaitzak.

Nolanahi, irrika eta beharra ez ditugu nahasi behar. Lehen a oinarrizko, ezinbesteko beharren betegarri delako eta bigarren mailakoak horien gainetik, eta irrika, horietaz kanpo, edo sobe-rakin izan daitekeelako. Oinazearen ezabatzeko, gure euskaldun arbasoek bazeukaten beren teknika. Herri askotan bezala, gu-rean, leku batean min eginaz beste mina galarazteko bidea baze-goen, honela egiten zuten hagin kentzaileek, baina hortik sotil-kiago, gure zaharrek “digitipunktura” zerabilten. Zuberoan, herri sendakuntzaz bildu albisteen artean, kontatu zidaten nola lokiak tinkatuz buruko mina eztatzen zen, nola oin-behatzak bihurtuz haginetakoa ematen eta ukaraian, eskumuturrean tinkatuz zint-zurreko min batzuk galarazten.

Yoga eta beste ariketen bidez, gizenik ez janaz, hinduistek ikatz gorrietan erretzeko ordaliak egiten dituzte, tranpatxoekin, dolorerik, oinazerik erakutsi gabe. Oinazea ez da beti bazterga-rria. Larregia ez denean, min sakon baten seinalea da eta hari bi-hurtzen delakoa. Kulturaz oinazea onar daiteke; sineste askotan, kristau, hinduista delakoetan, oinazea, birzigortzea, birzaflatzea, santubide eta gorputzetik askatzeko bidea izaten da, oraindik.

Oinazea beste ikuspegi batetik erabil liteke. Oinazearen ikas-keta, oinazeari irautea gazteen iniziatze ariketetan agertzen dira: gi-zon egin nahi den mutilak oinazea jasaten ikasi behar du, halaber gosea eta egarriekin. Horrela, “zibilizatu” izan samuraien moduan ala “basati” Amazoniakoen gisa, oinazeen probaketak jasan behar dira, hala nola azken herri horretan gosea eta zomorro ziztak pairatzea.

Biologia ikerkuntzek azken urteetan oinazearen arazo hori argituxe digute, burmuinak opio antzeko gai bat, *endorfina*, ja-

riatzen duela eta. Norbait sutan erretzen denean, hinduisten suguaineko ibileran eta sorginak erretzen zituztenean, ez ote ziren, eurentzat zorionez, honelako endorfinak, adrenalinarekin batean odolean isurtzen? Hala izan balitz hobe. Itxaroten dut, egun batean, morfinarik ez dela emango, baina jendea endorfina ekoizten zirrikatuko duen kimika-gaia edo janaria.

Mendebaldean eta besteetan ere, erlijioez kanpo, gure garaiak ez du beharrik gabeko minik onartzen, batik bat biziaren azkenean daudenak oinazeetan uztea. Mina gaitzaren deia darra bedi, baina ez du iraun beharrik gorputza eta gogoia indargetzen badizkigu, eta jendeek duintasuna galtzen.

Mina ez dutelarik osoki ezabatzen, Hiesaren eta minbiziaren azkenetan, sarritan sendagileak sorgogarrak eta morfina erabiltzera daroatza. Hiltzeko duintasunaren izenean, hiltzen laguntzea ere ematen da; legezko da herri zenbaitetan eutanasia hori. Eutanasiaren aurka daude erlijio asko, esaten baitute edo izaera edo jainko bat bere lanaren egitera utzi behar dela edo gehiegikerien beldurrez Europako etika agintariek ukatuz. Atsegin ala oinaze, arazoak biologizatu, sendagintzatu dira. Orain etika batzordeak eta ikerlariak genetikaren aplikazioak eta oinazeari buruzko iritzi aldaketaren gizarte ondorioak aztertzen dabilta.

Oinaze apur bat ez ote da atseginari bere gatza eta indarra ematen dion beldurra? Eta non gaude senaren arloan, jatorriz atsegina *vs.* ezatseginari erantzun bakunegia, gosea eta jangalea, lo egitea eta ez lo egitea, atsedena eta ezin atsedentzea? Oinarrizko atsegin sena ez dugu argi ikusten, gizarte eta ohitura balore batzuek estaltzen baitigute.

Gaurko erosotasuna ez da atzoko zoriona. Oraingo erosotasuna berekoia, jende banakoarena da, gizarte eginbideak eta elkartasunak oztopo gisa baztertu edo isildu nahi dituenak. Senezko atsegin garbirik ez da asko, non ez den zerbait jatean, edatean, txiza egitean, lo ederrean, orgasmoan, baina amets egiten diren helburuen betetzeak beste motako gogoaren atsegin hutsa eman dezake. Beste atsegin zenbait, hala nola gauza ederrek emanak, kulturaz eta ohituraz ikasten diren atseginen taldean sartzen

dira. Edatea eta jatea dela-eta gastronomia ohiturek egiten dute maiz bataren ona dena bestearen gaizto. Oihenartek atsotitza bildu zuen: "*Nafar ardoa bataren hon, berzearen gaizto*".

2.6. *Libidoa?*

Biologicalarien lekuan antropologialariak eta psikiatrak jendeen aztertzen hasi direnean, libidoa dogma bezala sartu ziguten, dogmatzat emanaz sexuaren lehentasuna eta noizbehinka atsegin guztiak sexualak zirela esanaz, umetan hasirik ahozkoak, uzki-koak eta sexuzkoak. Gaur biologian eta fisikan teoriak behin-behinekoak direlarik, gizarte jakintzetan ziurtasunez dabilta: ziurtasun horien sendotzeko eta gizakiek berek mugatu taula zenbaitetan sartzeko, beren arteko *adituen hizkera* darabilte giza jakintzen *kabineteetako guru* berriek, horrela ez direnei kritika egiteko gogamena eta ahalmena kenduz.

Noiz non jakin behar da nola idatzi aholkatzen digute. Nahiz ez den oro gizabanakoari lotu behar eta taldea kontuan hartuz Freud baino urrunago joan delarik Jung, gaixorik ez direnekin egin oharketek aski erakusten dute gazteen beste norbaiti lotzeko libido joera horrek urratsak badituela.

Umeak lehenik (urteetan egin nuen inkestaren arabera) ederreten du ama, gero bi gurasoak eta denbora berean animalia handiak (hartza, elefantea), gero bere adineko lagunak eta animalia txikiak (katua, zakurra) (Txomin Peillen, Bilbo, 1995). Jakina, Oidípoa ezagut dezakete gizon askok, zergatik denak ala ezagutu ez dutenak arauetz kanpoko gaixoak diren?

Hogeigarren mendeko berritzaile horien "psi" teoriak ez dira azkenean, zeudeneko, filosofietan eta mitologieta agertzen ez zirenak, zirenak gaurkoturik baizik. Psikiatrak antzinako kofesatzailearen lekua hartu du. Jakina, psikiatrak gauzak argi litzake baina jendea gutxitan senda; sarritan jakiteak pertsona desegiten du eta besteekin harremanak zailtzen dizkio. Psikiatria zaharrak gehienik garatu zuen adarra izan zen gogoaren ezongien erruduna ez pertsona berean aurkitzea, gurasoetan edo lagunetan baizik,

eta gaitz guztien iturri bezala ematea gizartea, gizabanakoaren izaerak, gaixotasunaren, kulturaren osagaiak eta eraginak kontuan hartu gabe eta gero azken organoen gaitzak larregi sartuz. Sermoi ilun eta patologia maniaz kanpo, Eduardo Gil Berak Freuden eritasun gauzak, karikatuzatu gabe, ikusten ditu:

“Arazo honi ekin dioten urrezko mokoetan, ospetsuetarik Feud dateke. Jakintsu horren araez jendetzaren erdia bekaizti dugu, bertze erdia dela bide. Emakumeek gizon izateko irritsa altxatua dute; zertaz eta gizonek baitute hagitz, miresgarri bixitito bat: zakila. Arraioa! Aldiro, zera bera gertatzen zaigu: arazoaren kokka erraz eta ageri baina guk deus ez genekien, holako jakintsunen bat azaldu arte. Zer ari zen bada jendetza denbora galtzen buruan mende harrigarri hau heldu baino lehen. Ez dezaket adi baietz honelako jakintsuak bakanka agertzen direla bai, baina hau ere...” (aip. lib. 101).

Irendu, zikiratu konplexuaren aipamen hori jarrai genezake. Freudek ezagutaraziz gero, apika, frustrazio hori deskubritu duten andereak badirela. Horretaz esan genezake OVNIekin edo Objektu Hegalari Ezezagunekin gertatua: duela hirurogei bat urte, estatubatuar marrazkilariak asmatu urte hartaraino, inork ez zituela ikusi, ez eta martetarrak, irrati emankizun batek New York izuarazi ondoren, haraino, ez zirelako aingeruak eta deabruak baizik entzuten eta ikusten.

Ondoren Eduardo Gil Berak gogoratzen digu nola Freudek Lebitikoan zikin-garbiekin egiten duen zerrendan bezala, arrak eta emeak direnak lerrokatzen dituela, honela sinbolikazko adibideak bere fantasmekin nahasiz. Freuden seigarren tomoko lista listoa bazter utzi eta, patologiaren bidez ezin dela fisiologia guztia azaldu gogoratu behar genuke. Nahiz ez zuen hori asmoa, Freuden psikologia ideiek zera darakutsate: giza sexubidea senide harremanek, hezierak baldintza lezaketela. Geuk gainera genezake bakoitzaren kulturak, bakoitzaren gizarte giroak, senarekin konfliktoan jarritz, psikosiak sortzen ahal dituela. Sexu sena jendetan ez dago libido ilun baten menpean, gizarteak eragin handia du horretan.

Ermita moduan edo bakartasunean luzaro bizi diren gizon edo andereek sexuzko libidoa gal lezakete. Oroitzen naiz uni-bertsitatean edozeinekin larrua jo nahi zuen gure arteko ikasleki-de neska harriduraz egon zela portuges batek, fraide egonak, esan zionean ez zuela emakume edo sexu atsegin beharrik. Beste munduko martetarra zitzaion. Gizarteak du sexubidea araukatu nahi eta sarritan erlijioak, horrez gain, haur edukitzea helburu ematen, ernalketa ekiditen duten erabilkak, preserbatibo edo beste onartuz edo debekatuz. Bide horren azken muturrean, Bogomilen kasua bazen, sektan gizonak zikiratzen zirelako. Urruti gaude delako sexuaren atseginetik edo ernalketaren beharrezko senetik.

Orgasmoaren, sexu atseginaren lortzeko zeharbide bitxiak aztertuz, sadomasokistena (alegia, edo besteak jipoituz edo beren buruak zaflaraziz baizik gozamina, orgasmoa lortzen ez dutenak), fetixistak (oinetakoak, jantzi zati bat gorde behar dutenak), ikuslekeriak (besteak musukatzen edo larru jotzen ikusi behar dutenak beren masturbazioz orgasmoaren izateko edo laguna beste batekin larru jotzen ikusi nahi dutenak), animaliekin bestialitatez gozatzen dutenak. Horiek denek eta beste askok darakutsate irudimenak dituela zentzuak berotzen eta jendeetan sexuaren organo nagusi agintzailea burmuina, garmuina dela –honela esaten nien antzinako nire biologia ikasleei–. Gainera, orgasmoa izatean, odola burura igotzen da eta buruak gozatzen. Nahi izanez geroz laurogei urteez goiti orgasmoa lortu daiteke.

Orgasmo gabe bizi? Bai, gai horiekin irudimena eta burua pausuan da. Irudimenarekin eta orgasmorik gabe frustrazioa da, baina gogoia besteetan daukanarentzat sublimazioa lehenik eta gero libidoaren itzaltzea. Libidoa dela eta ez dela, sexu bizian osagai gehiago daude. Beharbada, egun batean zenbat-nahi eder izan gure hurbilketak, hurrengo mendeek dena hankaz gora botako dizkigute.

2.7. Sexu senak, lotsak, tabuak

Ez da batere erraza ezagutzea gizartearen eraginez ez ote den sexubideetan debekua, tabua agertzen; izan ere, tabu horiek herri

batetik bestera, garai batetik bestera norabide gabeko ibileran jendeen arteko harremanak aldatzen dituzte.

Bai, herri batean erotikoa den ezpainetan musua (gure mendealdean), bestean adiskidantza soil seinalea ere (Errusian) eta barregarri Afrikako herri askotan. Afrikan eta Asian, baserri leku anitzetan, amak umeari aurrez mastakatu janaria emateko baitzion musua ematen, zinean jendeek hori ikusiz, irribarre egiten zuten, baina kolonizatzeak erotikazko musua hiritarren artean hedatu zuen. Beraz, sexu hurbilketak ere lurzabal osoan ez litezke erabat berdinak. Jestu bakun horretan, jadanik dena desitxuratua da. Sexu harremanetan bi jokabide, bi eginbide ziren neskentzat, gizar-teak edo erlijioak emanik, neskei ahalkea, lotsa erakustea, ahalikan gorputza estaliz (hori mendealdean duela berrogeita hamar urte arte), bigarrenik ezkontzaraino neskaso birjina egotea, kristau, judu eta musulman integristen artean jarraitzen duen bezala.

Duela 32 urte, 1968ko maiatzeko sexu iraultzatxoak hogeitau urte igaro ondoren, Frantziako ikastetxeetan egindako azterketa, zundaketa izengabekoak erakutsi zuen neska ikasleen artean %35ek dagoeneko sexu harremanak izan zituztela (1965ean egin inkestan %25 ziren). Iraultza ez dirudi hain handia izan denik. Geroztik egin inkestek erakutsi dute 18-22 urte artean %65 gazteek beren sexu harremanak abiatuak zituztela.

Garai zaharretan ikasle gehienak burgesak zirelarik eta gaur ikasleria herrikoiago delarik, kopuruekin zer atera? Azterketek erakutsi dute gazteak bikotekide aldaketan gehienak ez direla eskarmentu bila, baina lehenik beren buruaren aurkitzea, eta gero bikote aski iraunkor bat egitea. Sexu bizi berrian, mutilak "klasikoak" omen dira neskekiko, agian, neskentzat orgasmoa ez delako mutiletan bezala hain behar gorria, tirria eta obsesioa. Hala zion Etxeparek behintzat ez zuela ezagutzen "gizonik andereek bortxaturik". Birjintasunetik lotsara itzulitako bat eginaz, badakigu erromatarrek, kristautasuna baino lehen, "puditicia" edo lotsa bertuteari oroitarriak eraikitzen zituztela; hain zuzen, Nafarroan hiru honelako azaldu dira, gure hizkuntzaren hitz bakar batekin "*Losa*", "*Loxa*"

Hain zuzen, Joaquin Gomez Pantoja jaunak *Principe de Viana* aldizkarian artikulua eman zuen. "Nuevas inscripciones romanas en Navarra". Artikulu horretan iruzkintzen du nola Escaladak hauteman zuen grafia aldaketak euskal jatorria salatu eta nola bertute jainkotuari, euskal irakurketa eman zion: "*Unà línea diferente de interpretación es la propugnada por Escalada que relaciona el teónimo en cuestión con la voz euskérica Lotsa "vergüenza, miedo" por lo que la divinidad sería una personalización de la virtud, semejante a Pudicitia o Timor; esta hipótesis explicaría, incluso, la vacilación gráfica x/s que se aprecia en las inscripciones conservadas*" (aip. art., 13). Nafarroako zelai *Ager vasconum* eta mendi *Saltus vasconum* delakoen mugan, Leraten, Ziraukin eta besteetan aurkitu dira harriak. Ekialdeko euskalkietan orain lotsa "beldurra" da, eta *pudor* esateko "ahalke" dugu, baina antzina ez zen, beharbada, berdin. Gainera, bi adigaien muga ez da argi. Adigaia ez da zaharkitua; nerabetasunean, nahiz mutikoetan, nahiz nesketan, besteenganako herabetasunak, lotsak jarraitzen du. Senaren eraginez, apika. Birjintasunaren kasua beste bat da. Fakultateko neska ikasle haiei beren birjintasunaren zergatiaren galdera egin zitzaizenean, beren nortasunaren errespetuz hala zebiltzala zioten.

Jakina, gaizki irteteko, porrot egiteko beldurra ere hor zatekeen. Beraz, oraingo preserbatibo, pilula eta zapalkuntzen kondenarekin ere, sexu askatasun oso baten eragina izan arren, jokabide horrek amatasunaren beldurra galdurik, beste zio asko dituela jarraitzeko ikusten da.

Zer den sexu lotsa ez da erraz aztertzea. Sentimendua? Bai, urteekin baliteke, sentimendua pentsaeratik datorrelako; hastapen batean, ordea, badago gorago aipatu dugun bestearen arrotasuna, urruntasuna sortzen duena. Lotsa eta haren ondorioak berdefentsaren senak eta nahikundeak bulkatuak dira. Ausartzen direnen artean jakin-mina, aski gazterik, adina baino lehen, emakume eta gizon direla frogatu nahia, edo egun batez bakartasuneari gertatzeko beldurrak zio askoren artekoak dira.

Defentsa sen horretarik kanpo, gizarte legeek eta adimena-
ren garapenak, bakoitzaren egokieran, hautuen sentimena gara

lezakete. Bai adiskideak, bai maite kuttunak hauta daitezkeelako ideia gogoan sartzen zaigu. Aukeraren zio horrek sexu iraultzak ez duela sexu lotsa galarazi argi dezake. Hautua, ordea, ez da hain aske; heziketak, lagun harremanek, kulturak baldintzatuko dute. Azkenik, jende gogoaren jardunetan, praktiketan gertatu ohi denez, ekintza *vs* aurkaekintzaren arteko loturak agertzen zaizkigu, ez baita sexu lotsarik sexu lotsagabezia gabe.

Gazteek beren lehen urratsetan asmatzen dituztenak desiraren jarduera eta bestearen gogatzeko enjogitze edo sedukzioa dira. Gehienetan, Don Juanismo eta ninfomaniak kanpo, neskek badakite bestearen lasterregi gogatzek, sarri, uztea duela ondolik. Haatik tximista bezala maitemintzea gertatzen bada eta hala-hala adiskidantza arina gerta baledi, sexu edo sentimendu lotsaz biluzturik ager daiteke. Hori ere lehen goretsia zen lotsa, orain barregarriago bada ere batzuentzat, jarraitzen du.

2.8. Maitasun, laguntasun joerak

Joera horiek aurrean jartzen digute jende bakoitzak egun batean beste arrotz bat onartu behar duela. Harreman hori umeen bizirik edukitzeko oinarrizkoa da: hala, haurra amari lotzen zaio. Onarpen hori umearengan senezkoa eta beharrezkoa da. Niniak amaren ahotsa ezagutzen du, sabeletik irten eta haren berotasun edozein baino nahiago du.

Ereduak hartzean, haurrak besteekin harremanak behar ditu, baldin burmuineko gaitz handi batek autista edo osoki begetatiboa egin ez badu. Horrelako harremanak laster ez dira senezkoak, ezen senak jokabide berdinerara bultzatzen zaituelako. Burmuinaren garapenarekin, bakoitzaren erantzuna, bakoitzaren karakterra genetikari eta jende ingurumenari lotua dago eta ingurumenak laster bere eragina du. Irakur diezaiogun Egiategiri, maitasunaz zer dioen: "Amorioa da mündüko süaren hauspoa eta izaeraren obra handienak egiten ditüenak" (*Amorioaz*, aip. lib., 205).

Maitasuna, amodioa beharrezkoa delarik dio:

"Orozbat ari da amorioa mündüan, bihotzak harrapatzen ditü, lürrez edo morteroz ez diradeano, bere sü maitagarrian ditü

antsiaren eta erranpearen martilluaz jotzen, probarentzat otoitzen jarraikiaz ditü limatzen, bertütez ditü leuntzen eta hain eder dü obra egiten non lekü bailüke zerü enpiratüan” (*Amorioaz*, aip. lib., 205).

Amodioak senarekin daukan loturaren aipatzeko, Egiategik “indar” eta “su” hitzak darabiltza. Maitasunaren izaera honela dakusa Egiategik: “Haren lehen ürratsa doa zentzüek, irüdimenak eta gogoak eder edo maitagarri zitzaionak, pizten dizkionak, ordüan bihotza” (*Amorioaz*, aip. lib., 207).

Beraz, eman ditudan moduan, baina motzago, sena (zentzuak) eta irudimena (irudimen eta gogo) maitasunaren piztaile dira. Bien jokoan erakusteak beti maitasun-gaiari pentsatzeaz gaineratzen digu: “...ta edüki nahiak ematen dionak egarria, handik dago beti beha, beti gogomenak hartara” (*Amorioaz*, aip. lib., 207).

Adiskidegoaz mintzo delarik Egiategi, senetik kanpoko jarduera, jarduera bezala ematen digu. Gogoratzen dizkigu horretaz Aristotelesen sailkapenak: “Beharrak, plazerrak eta bertüteak egin ditüenak” (*Adiskidegoaz*, aip. lib., 212).

Adiskidegoa zorionaren osagaien artean ipintzen digu: “Delakoz adiskidegoa gure zorionaren parte gehiena” (*Adiskidegoaz*, aip. lib., 211). Egiazki adiskidetzea ere maitatzea da: “...egiazki adiskide diradeanak dakiela maitatzen” (*Adiskidegoaz*, aip. lib., 211).

Hala ere maitasun eta adiskidetasun bereizten ditu, horretarako andrezkoen eta gizonezkoen adiskidantzaz idazten duenean. Beraz, gorputz grinak edo sena bazter utzirik, adiskidantza heterosexuala izan daiteke, berak dionez “bizioa bereiz”. Ibn Hazm al Andalusik, adiskidantza motak sailkatzen zituen:

- helburu berdinetik datorrena, gogaide izatearena
- ahaidetasunetik datorrena
- ongi ezagutzen eta maiz ikusten denen artekoa.
- bestearengan ipintzen den konfiantzak emana.
- norbaiten babespean jartzekoa
- sekretu batekin lotuak izatea
- besteari nolana hiko atseginak ematea

Uste dut gehienetan kategoria horiek nahasian datozela, baina Ibn Hazmek dio maitasuna arimen batasunetik datorrela.

2.9. *Senak balore?*

Senen edo sen multzoen ikuspegi motza eman dugu, bakoitzarengatik ehunka liburu lodi idatz litezke, baina, ageri denez, gizakien senak estaliak daude, erdi aldatuak, okertuak. Maiz izadiaren aurrean, gure izaeraren aurrean, abereak eta ehizak baino gaizkiago jokatzen dugu. Basa animaliak ez dira belarrekin edo onddoekin pozoindatzen, etxe abereak bakanki, janari sena gorde dutelako; guk ikasi behar dugu. Katuak edo zakurrak, ikasi gabe, badaki zer belar jan behar duen purgatzeko eta guk ikasi behar, sena galdu dugulako. Azken jende janari sena da mineral gabeziak haurra lur jaten ematen denean.

Aspaldian dakigularik janari senaren galtzeak gorputzen gizenkeria ekarri duela, jokabide bitxi bat agertu da, instintoterapia. Nola daiteke galdu den sena erremedio izatea? Nola berreskura daiteke jendeen bilakaerak ezabatu sena? Instintoterapiak ez du biologiarekin ezer ikusteko. Gustatzen zaizkizun janariak baikik ez jan behar, gordinik, "naturalki", gatz, olio, espezia, azukre gabe, eta besteak baztertu.

Dakigularik gordinik jateak salmonellosia eta botulismoa ematen duela eta horrela, antzinako ohitura txarrekin gustukoa hautatuz, dietan sekulako desoreka sortzen dela. Basa ehizen gisa ere ez dakigu, senez, gure jan beharraren muga non dagoen. Instintoterapia aterabide itsua da.

Batzuek ere, bide beretik, senera itzuliz, piztien moduan jan, edan eta larrua jo daitekeela uste dute, baina besteen diruekin biziz. Animaliek beharrezko ez duten baldintza lana dugu eta lana ez da senaren alde. Egia da duela 50.000 urtez bezala bizi balira jende horiek ez zirela daukaten adinera iritsiko; jendeen patua da senetarik urrundu nahia. Gai honi buruz etnologia galdeketak egitean zer edo zer iritzi biltzen da, eta laurogei urteez goitiko jende zaharrei, aski trebeki itauntzen badiezu noiz utzi

dituzten sexu harremanak, badirudi gure galderak ia zentzurik ez duela. Zerbait garrantzitsuago dago, bakartasun hitzarekin lotzen dena askotan. Beren bizitzako gertaera nagusiez hain zehazki mintzo direnak horretan gehienak, denak ez, mutu eta ez lotsa-rengatik. Jendea geroago eta zaharrago bizi delarik, zahar biko-teak sortzen ikusten dira. Orgasmoaren fantasma ez da beti hain handia, handiago da bakartasunaren antsia. Bakartasun kezka hori bihozberatasun ezinbesteko eskaera baten oihartzun da: samurtasunarena.

Biziaren beste muturrean, haur txikiekin berdin. Ziurtasun beharraren, bizi senaren arrazoiz nabarmen da. Julen Ajuriagerra bizkaitar euskaldunak, haurren psikiatra ospetsuak, haurren nerbio eta buru gaitzen iturria bihozberatasun ezetik edo samurtasun ezetik zetorrela erakutsi zigun.

Nahikoa da ikustea gure ingurumenean umeak nola batzuek hazi egiten dituzten. Harriduraz ikusteko: hazten bai, baina hezten ez. Osasunaz, jatekoaz, edariaz, jantziaz eta kirolaz arduratzen dira gurasoak. Horiekin beren betekizuna betea dela uste dute.

Guraso-ume erlazioak mintzatuz garatzen dira eta gaur zela hitz egin, telebistaren aurrean denek mutu egon behar dutenean. Alderantzizko jokabidea eta heziketa ez da hobe. Umea panpina baten moduan erabiltzea edota bere sentimenduen monopolioa guraso batek hartzea.

Munduan den obra garrantzitsuena haurren hazi eta heziketa delarik, orain ere ikasi gabe, eta ahalaz inori galdetu gabe, sarritan, esperimentuak eginaz gertatzen da eta sarritan telebistan ikusi ereduak hartzen. Izan ere, irakasbide orokor baten ematea ez da aisa, haur bakoitza kasu bakoitza delako eta baldintza txarrenetan bizitu umeek, beren gurasoengandik edo guraso-ordeko batengandik samurtasun zerbait izan badute, garapen ona izan dezaketelako.

Maitasunak aurpegi ona du, ez du horregatik, bere nortasuna gorde nahi duen edozeinek, bestearen bihotzaren menpeko erori behar. Maitasunak askatasun apur bat eskatzen du eta beste adiskide batzuenaganako samurtasuna ez ukatzen. Adiskideak

izan genitzake, eta ebanjelioaren alderantziz esan dezaket jende bakan batzuk baizik ez ditudala maite: *denen adiskide dena ez da inorena*. Nolanahi, ez zaigu ahaztu behar gizabanakoa bi joeraren artean hartua dela: erasokor edota maitekor izatea. Heziketak horrelako joerak goritu ditzake. Batzuek, hala nola Cesare Pavese edo Jean Racinek edo Nietzschek, diote emakumeak joera pasio bihurtzen dakiela. Galdera, ordea, ez da egin: senez ala heziketaz?

Besteengandik zaintzeko edota nire gogoaren ez barreiatzeko, gutxienik neure buruari eska diezaiokedana beste horien ez gorrotatzea litzateke. Ondoren, maitasuna eta gorrotoa munduaren eragile handiak direlarik, ongi izatearekin batean ezin nitzake epaitu. Bakoitzak bere bidea badu. Lotsaz, ahalkeaz idatzia hona dator. Beren burua errespetatzen ote dute ala animala sen bati ematen, kirol moduan, edozeinekin larrua jotzea maitasuna dela diotenek? Samurtasunak, benetako maitasunak, bestearen errespetua eta bere burua apur bat ahaztea eskatzen duela uste dugunok ere bagara.

2.10. Jendea zer den senaren argitan

Biologian organo sistema baten jardunbideak beren batasunean ulertzen saiatzen bagara, horretarako badakigu ez dugula batasun hori mirari bezala ikusiko. Batasun horren barruan ugartasuna, oparotasuna eta osagai eta eragileen aniztasuna bilatu eta aztertu behar ditugu, gero osotasun batera itzultzeko eta hori bera senez jarduten dugularik.

Bestalde senek beren arteko eraginak dituzte, ohiturek mugatuak, kulturak mugatuak izan daitezke. Senaren iturriak ez dira beti argi. Aurretik, garbiki diot ez daudela izadiak edo jendeen izaeraz kanpo eta jendea ez dela ingurugiroaren eta ingurumenaren mekanika hutsa ere. Behavioristen “erdietsi ala ez erdietsi” ez da ikasbide bakarra; imitazioak, elkarren arteko ikasketek edo ikasketarik gabeko eskarmentuek eta albisteek beren eraginak dituzte. Sen bakoitzak eragile asko izan dezake, elkarrekin gurutzatuak eta elkar ahultzen edo elkar gotortzen. Eragile nagusiak eta kausak ordena

batean agertu beharra gerta daiteke, gero gauzatzean sen batzuen nahasketa gerta daiteke eta ohiturek senak iluntzea. Jendea berezko sen edo instintuen mendekotasunetik askatua ez da gorenetan bizi. Adimenak senak baino gaizkiago, ahulago, indargeago utz lezaketek.

Bibliak dio jainkoak gizonari utzi ziola lurra haren jabe izan zedin, baina, Izadiarekin zituen lokarri bakunak apurtuta, bere burmuinaren zaintzeko gai ez den gizonak ez du Izadian lan onik eginen. Teknikaren izenean eta harrokerian lurzabalaren nolana hika erabiltzeak gizona lurraren etsairik handiena bilakatu du, mundua pozoindatzen du, aurrerapenaren izenean urtero garapenaren ehuneko bat xede, bere erosotasuna geroago eta handiago nahiz.

Zuberoan bildu nuen herri apokalipsiak edo, "munduaren azkena" aurrerapenetik etorriko dela dio. Gizonek elkar ezin ikusiz, elkarrengandik ihesi ibiliko direla zuhaitzetara igoaz eta barkartasunean suak eta urak itoko ei dituela. Harremanen murrizte eta galtze hori, barkartasun hori lanean ari zaigu, telebista, informatika tresna onak garatzenegi badira, jendeek, pantailetan izan ezik, geroago eta gutxiago elkar ikus dezakete. Telebistak maiz etxeko hizketak galarazten ditu. Batzuk ez dira gehiago kanpoan ibiltzen erosketen egiteko, Internetez edo Minitelaz eskatzen dituzte. Benetako harremana al da, batzuek dioten eran, telefono mugikorrarekin esatea buruz buru ezinezkoak direnak? Ez al zen telefono zaharrarekin berdín egiten? Hala ere, ez dugu uste atzera egiterik dagoenik, sasi denbora zahar "hobe" batera itzultzerik, baina aurrerapenaren makina erotua gidatzeko ez ote dugu balore batzuez kezkatu behar?

Orain binomio txar batekin bereizten dira nagusi sortzaileak, ekonomia garatzaileak eta bestetik izadiaren menpeko erdi ekologistak, senaren "esklabo" direnak. Baina zer da sortzaile izatea sekulan ezer asmatu edo egin gabe? Batzuentzat Burtsako jokoetan aberastea.

Orain arte jende sortzailea makina eta tresna egilea izan bada, bihar zer izango da haren betebeharra? Nahiz komunista ondoko, nahiz liberalak izan industriatu herrien kalteak ikusi eta ez dituzte aldatu nahi. Ez da harritzekoa modernitatearen gizarte aldaketak ukatzen dituzten sekta integristak sortzea. Beraz, jen-

dea kultura-izaki bilakatu bada eta sen asko galdu, ez du horrek erran nahi adimena beti nagusi eta giza ohiturak beti animalienak baino hobe direnik.

3. Sen baloreen gizarte erabilera: heziketa

Gaizkigileek ere beren balore arauak dituztelarik, lagunarte bat, gizarte bat ezin da bizi oinarrizko arau bakunik gabe. Noski, denborarekin arau horiek alda daitezke. Betidanik, gizartea senen bideratzen, zaintzen eta erabiltzen saiatzen da. Lan horretarako, indoeuoparrek eta ondokoek hiru kasta nagusi antolatu zituzten. Badakigu indoeuoparrek hiru jardunbide bereizten zituztela eta hiru kastatan banatzen: opariaz arduratzen zen kleroa, guduaz nobleak eta lanaz zamatua herri xumea, populua. Sistema horrekin, garai batean, indoeuoparrek Afrikaz, Amerikaz eta Asiaren zati handi batez jabetzea lortu zuten. Hiru jardun horietarik bat nagusitzen bada, erlijioarenak teokrazia ematen du (ikus musulman herriak), noble kentearenak erregetza eta herri xume eta burgesenak errepublika.

Edozein nagusitasun izan arren, totalitarismoa, despotismoa hurbil dago: irandar eta afganiar teokraziak, Afrikako militarkraziak edo proletario hotsezko komunistenak. Hiru indar horiek, berriki, txandaka boterea hartu dute eta jendeen senak eta jokatibideak gogorki aldatzen eta ikuskatzen dituzte.

3.1. *Erljioaren garaia*

Erljioak senei moral bidez, ohituren arauak emanaz, ibili ohi dira. Erdi Aro guztian Elizak izan zuen egitekoa, XIV. mendearaino gizarte guduazale batean eroritako Inperio baten hondakinetan, gizarte bizigarria eradukitzea. Aro horren denbora gehienean hiru jokoera bitxi eduki zituen erakunde teokratiko horrek.

1. Goi mailako Eliza eskolatu eta Antzinateko testuen salbatzaile izatea.

2. Hiriak eta aberatsak kristautzea.

3. Herri xehea baserrietan, bere sorgindu pagano sineste zaharrekin X. menderaino bakean uztea.

4. Gizarte etikan, senak eragin “barbarokeria” apur bat kentzeaz kanpo, ez zen orduan Eliza beste balore askoren aldatzeko gehiegi ahalegindu.

Geroago, XIII-XIV. mendetik aurrera, heresia horien agertzeak dogma kezkek sortu zituen. Elizan eta Elizak bere auzitegiak zituenez gero, *Malleus maleficorum*, XIV. mendeko aleman fraide baten liburuan aurkeztu sorginkeriak, senaren desbideratzeak, galarazi beharrez dabil: sorginak erreaz. XVI. mendean ohiturak aldatu beharrez eta “senak hezi beharrez”, bainuetxeak zerratu ziren, antzetzalde mistoak debekatu. Horrela garatu zen Inkisizioa.

Andereen egoera geroago eta txarrago bilakatu zen. Baina protestante munduan berdin: *Stage Beauty* filmak darakutsa zer eskandalua izan zen, XVIII. mendean, andere bat andere roletan agertu zenean, ezen antzokia gizonen leku erreserbatua baitzen.

Katolikotasunak, ordea, protestanteen ondotik, eta Trentoko kontzilioa bukatu ondoren baizik ez du umeei doktrina bidez morala ere irakastea gauzatuko. Moralaren esku-hartze horrek ondorio batzuk izango ditu, alde batetik parrokia liburuak edukiz (bataio, eztei, ehorzketa agiriak), gizarte estatistikarako osagaiak bilduko ditu eta, dotrinaren erakusterekin batean, lehenik apaizak, eskola gabe zirenak, eskolatuko dira eta jesuitekin goi mailaraino; bestetik eta protestanteek hartu bideari jarraikiz, Europa guztian haurrek gutxienik dotrina irakurtzen ikas zezaten, lehen mailako herri eskolak sortuko dira.

Kontrarreforma katolikoaren tresnarik eraginkorrena, morala bezainbeste, Edergintza izan zen, ezen moral zintzotasuna predikatzen zen garai berean begien eta belarrien atsegina urrezko antzoki antzeko eliza ederretan, musika obra barroko miresgarriekin gordetzen zen. Ez uste, ordea, beldur senak, sexu senak edo beste ikasi gabeko erreflexuak aldatu ahal izan zituztenik.

Hamazazpigarren mendea ez zen “argien mendea” izan, urrezko mendea bazen. Epaile baten sineskorkeriaz, azken sorgin

auzi odoltsuenak Lapurdin ezagutu ziren. Ez zaigu ahaztu behar Descartes frantses logikazale, logikolari ospetsuak, egunero bere horoskopoa jakin nahi zuela eta orduan, halaber, Medicis erreginak egunero astrologoa kontsultatzen zuela. Ideien zapalkuntzak itxura berriak hartu zituen, jendeai, adibidez protestantei, bizi-bideak, karguak kenduz.

Eliza kietismo, jansenismo, jesuitismo eta teologien eztabaida horiek inarrosirik, bere zaintzaile egitekoaz aspertu zen. XVIII. mendean, 1789. urtea baino lehen ezagutu Argien Mendearrekin, Ilustrazioarekin bizi arauen askapen eta nahaspen handia baldin bada, "libertinajea", zuberotarrek dioten "botinajea" edo lotsabakoen bizi ezaxola, ez zen herri xumera hedatuko mende azkeneraino.

3.1.1. Egiategi eta erlijioa

Euskal Herria beti mundu atzerakoia bezala hartu ohi da, baina Jusef Egiategik bere 1785eko liburuan erlijio tolerantziaren aldekotasun ederra argudiatzen ditu:

"Eztakit arrazoan daudenez hotzki bizi behar giradeala gure errelijionean eztirenekin, ezi güziak girade Adamen seme ta aurride; errelijioneen banaitiak askazigoa desegin ez tiro (ahidetasuna desegin ez dezake). Uste badüt nere errelijioea anglesarena beno hobe dela, haren gogoan kinperra (alderantziz) dago. Enean (nirean) ezta legerik harenik güda dezadan, berean da hain gizon perestü nola ni enean, ni enean beno anglesa berean lealago. J(a)inkoak eztüanez nahi diერი güziek nork bere gisara lezen zerbütza, beren legeen arauera, nork daki?" (*Lehen libürüa*, 198).

Gerrateez, gerlez idatzi duenean, Egiategik jadanik erlijioaren izenean egindako gudak aipatu ditu:

"Errelijioaren astakürüan (aitzakian) zonbat gerla hari (jainkoari) arrotz ziradeanak ta kapapean zonbat latzkeria ta herio mündüan (...)" (aip. lib., 199).

Gero jarraitzen du, leku horretan Elizaren gurutzadak ahazturik, osoki baikor eta ameslari:

“Ezta erreligionerik gerla manatzen (agintzen) düanik, güziek bakea düe peredikatzten.” (aip. lib., 199).

Erljio askatasunaren aldarrikapen hau ematen digu gure zuberotar filosofoak:

“Dezan norberak jarraik zerüak eman dereion bürübidea ezi hau da gizonaren eginbidean adra xüxenena ta halako da Apostoliren irakastaldia. Kanon (ü)kaldiz paradüsiko bortak (ateak) eztirade porrokatzen ezetare heetan jendea bortxaz sareraziten (sarrarazten)” (aip. lib., 199).

Ez da proselitismoaren alde, uste baitu Jainkoak nahi balu erljio ugaritasuna geldiaraz lezakeela:

“Dezagün arren, Jüdioa, Kalbinista, Lutheriana ützt beren sinestectan, katolik(o)ak bezain kiristiak dirade bi azkenak; halakoak J(a)inkoak nahi ezipalütü hitz bakotx nahi bezala lütüke; Judioak eta turkoak beren erlijionen gozamen osoan dütu ützen (aip. lib., 200).

Bi lekutan, Luis XIV.ak protestanteei egin lotsagarrikeria salatzen du, ezen horrekin jesuitei atsegin emateko haien Nanteseke Bake ediktuak ematen zieten askatasuna kendu baitzuen eta Frantziako elitearen herena Holandara, Ingalaterrara, Prusiara, Suitzara joan baitzen. Hona holako salaketa:

“Gertaldi lotsagarri heen landan nola sar daiteke gizonaren hünean (muinean) Luis XIV.a bere konfessoreaz enganatürrik, Nantesko Edita errebokatzer a trebitü zen ta jesuiten amorioa-rengatik bere poterearen galtzera herena” (aip. lib., 207).

Egiategik Luis XIV.a kritikatu badu milioi bat protestante erbesteratu zituelako, halaber salatzen du Austriako printzea, Alemaniako enperadore izateko, protestanteen armaz konbertitzea. Egiategik, protestante hauek aipatzean eta beste lekuetan dio Prusian eta Polonian egon dela eta badakigu hori 1755. urteen aldexean Belako zaldunarekin gidari. Eta ezagutu zituen frantses iheslari protestanteen goraiipamena egiten du, baita aitortzen behin Konigsbergen tenplu batean sermoi entzuten egon zela. Gainera, Prusiako erljio askatasun eta bakea goraiatzen ditu.

Hemeretzigarren mendearen erdiraino Europako erresuma asko monarkiak direlarik, batzuk konstituziozkoak, besteak despotikoak, Elizak berriro bere ohituren eta senen polizia egitekoa hartuko du. Gizarte burgesak bere industriaren garatzeko ez du "sen desbideratuek" eragin ohitura txarrik nahi, langileen aldakortasuna, iheskortasuna eragiten dutelako. Burgesiak beharrezko zuen puritanismoa, gizarte arrazoi askorengatik sortua, arrazoi gutxiarekin erraz eroriko da.

Hamazazpi eta hemeretzigarren mendean dira beharbada Elizak azkarrenik, sendoenik izan, eta jendeak ez du sekulan hainbeste ezagutu erlijioaren edukia. Espainian, berriz, badirudi Primo de Riveraren garaian baserritarrak berriro, indarrez, elizetara bildu zirela. Francoren garaian Bilbo ezker aldeko obreroak mezetara etortzen zirenez kontrolatuak ziren.

Hamazortzigarren mendean, hamaseian bezala, Eliza bide labainean dago. Egiategik honela ikusten du: "Apaizak izan behar santuak, faltala direnien erorten hüskaldünek die erraiten, apaiz aipa ez" (Argitaragabeko 3. libürüa, 80. esaera) eta gaineratzen du "Zor zeien errespetü osoaz gozatzen ez tiradeanean berek die ogena (errua)" (Bigarren libürüan, 198); "Frairia barnetik / ta ez arropatik" idatzi zuen (Argitaragabeko hirugarren liburuan, 352. esaera).

Gizarteak mende horietan Elizari eman eta utzi zion, leporatu zion, ohitura onen eusle izan zedin. Morala akomodatuena eta baserritarrena zen. Hala ere, orduko hiri proletarioen bizitzak darakutsa ez zuela Elizak kausitu: jendeen metaketak, sorterritik deslotuak izateak, lan baldintza txarrek mendearen erdiraino gutxienik bizi arauak desegin zizkieten proletarioei, lizunkeria, alkoholismoa, hilketak miseria gorri horietan ugariago zirelarik. XX. mendean P. Lhande zuberotarrak Paris inguruko zinta beltz eta gorriez idatzi zuen. Laikotasunaren zantzuak Kristoren hitzez Egiategirengan daude: "Bihür bedi Coesari harena dena" (2.en libürüan, 202). Hirugarren liburuan dio, Erlijioa apaizen jokaerarik neur bageneza, Ebanjelioa ez litzatekeela hain mirari egilea, eliza gizonak gorteetan, justizietan, abokatu eta ararteko, lureko afera guztietan sartzen direlako. Mende hartako erokeria bakoitzak berea ez den ofizioa egitea dela dio.

Horiei erremedio batzuk ematen ez da Eliza bakarrik ibili, hastean ugazaben, nagusien "paternalismo" delakoarekin etxe bitzita hobeak egin ziren fabriken alboan, langile hobeagoak izateko. Denbora berean, langileek berek segurantzak, mutualak sortu zituzten. Estatu adituek egin inkesta latzak eduki arren, idazle zenbaiten obrek gehiago egin zuten gizarte legeak ager zitezten. Elizak ere azkenean sindikatuen aldeko apustua egin zuen. Hemeretzigarren mendean, proletarioen sen barbaroak hezteko eta kapitalista ekoizpenerako egokitzeagatik antolatu zen puritanismoa. Garai haietan, burges morala zeritzonak isilpean, itzalpean, burgesiaren zati handi batek aplikatzen ez zuelako, garai haietako lekukoak Balzac, Baroja, Clarin, Dickens, Flaubert, Zola eta beste ditugu.

Hogeigarren mende azkenean Euskal Herrian kristautasuna asko galdu da. Ez dut uste, garai batean, Hego Euskal Herrian Eliza frankismoarekin bat eginik ikusten zelako gertatu denik, ezen abade eta fraide askok beste biderik hartu baitzuten, baina erosotasunak eta ohituren aldaketek beren eragina izan zuten. Jadanik, honela aipatzen zuen J.M. Apalategik, 1975ean:

"Gazteengan erlijioa aldamenera uztea gauza nabarmena da. Meza otoitzak, sakramentuak eta elizako eginkizun guztiak, askok utzi ditu alde batera. Sozial giroan murgilduz gero erlijiozko giroa, pentsamendua (hots bitzita) baztertu egin dute. Ez doaz zuzenki apaizaren edo elizaren aurka: premiarik ere ez dute senditzen. Baina, bai erlijioaz eta bai apaizez ahazturik bizi dira. Jokabide hau gazteen artean zabaldua dago. Bestalde, gazte bakoitzari bakarka galdetuko bagenio erlijioaz zer pentsatzen duen, agian ondo hitzegingo liguke edo, agian ez liguke ezer csango, baina ez litzateke inoiz ere elizaz gaizki esanka ariko" (J.M. Apalategi, "Ataungo San Gregorio hauzoa" in *Gizarte*, 1975, 89).

Azken ikerketek erakutsi badute oraindik nonbait euskaldunen erdiak kristau edo giristino direla, gazteekin kopuru berdinak ez lirateke aurkituko. Argi eta garbi dago oraindik, ordea, erritu eta elizkizun batzuek beren garrantzia gorde dutela: bataioak, ezkontzak, hiletak edo ehorzketak.

Erritua sinestea baino garrantzitsuago da. Atzo oraindik mezetara igandez doan nire ahaide batek esan zidan ez zuela fedea-gan sinesten, baina hala hezia izan zela eta erritua jarraitzen zuela. Euskaldun asko mezetara doaz kantatzera, eta andere asko lagunen ikustera ere, merkatuetan baino lasaikiago elkar ikustera. Mezetan dabilen nire belaunaldiko gizon bati, klixe moduan, esan nion gure herrian bizi zen erdi-ero bat beste munduan sendatuko zela eta kristau hark “eztüü lurpeaz kanpo beste mündürik”.

Gizarte giroak ere badu bere eragina: gure familian, lehen-gusu txiki batek hamalau urterekin eskatu zuen bataiatua izatea, kurtsoko beste lagun guztiak bataiatuak zirelako, baina ez da horregatik mezetan ibiltzen; beste puntu batek euskaldunak elizari lotzen ditu: dotrinak. Inoiz mezetan oinik ipintzen ez duen andre batek bere umea dotrinara eta katoliko gazte eskautetara bidaltzen du.

Badirudi katolikotasunak bere indarra galdu duela, ez baitie gaurko jende buru-galdueri ziurtasun osoa ematen. Honela dute arrakasta handia senak hezten omen dituzten sektek, ebanjelikoak batik bat. Eta Opus Deikoek. Jende galduak ez dira beren askatasunaren gordetzeko gai eta gure munduak, geroago eta gehiago, horrelako jendeak gogobetzen ditu eta integrismo haie-tara eroaten.

3.2. Militarren garaia

Askotan aipatu da gurutzearen eta ezpataren arteko hitzar-men isila, baita islamaren eta Jihadarena, gerra santuarena. Monarkien garaian hori eman zen, beti fedea lotua baldin bazen errege eta armadarekin. Hasieran, Europako inperioek, Inglaterra, Espainia eta Frantzia koloniaz jabetzean, fedearen izenean edo aitzakian egin zuten eta geroago zibilizazio materialista baten hedatzeko, baina, urte askotan kolonialismoa zapaltzailea izan bazen, ez zen ingelesen pean eta frantsesen pean luzaro batera integratzailea izan, indigenak, batik bat musulmanak, beren “gorotzean” uziz. Aldiz, estatu nazio horien barrutian zeuden

herri txikiek (Irlanda, Euskal Herria, Britainia) konkistatzaileen inperiokeria asimilatzailea, irense maltzurragoa zuten jasan eta ez ekonomiazko kolonialismoa.

Amerikar iraultzak lehen haustura bat egin zuen, arrazoiaren izenean jende eta basatiak senetik hurbilegi zirelako menperatu, "zibilizatu". Geroago, frantses iraultzak areago, Elizatik urrunduz, armadari eta herriari gizarte erlijio berria eman zion, antzinako aberria, etnikoa zelarik, sasi unibertsala bilakatu estatu nazioaren moldean, inguruan konkistatu arrotz herrien frantsesetako horretarako Estatu nazioa eta aberria nahasi zituzten. Jakobi-noek bretoiei, korsikarrei, ipar katalanei eta ipar euskaldunei geure nortasuna galarazi nahi ziguten, eta nahi digute; lehenago, Barrère Konbentzioko diputatuak argiki esan zuen hori.

Frantzian, Estatu nazioa asmatu ondoren, "frantses aberriaren" erlijio berri horren hedatzea ez zen berehalakoan egin. Zegoeneko erregeek eta Napoleonek pentsatua, ipar Euskal Herrian 1914ko gerratearen ondotik baizik ez zen ongi gauzatu. Haraino, euskaldun askok bi aberri zuten, beren euskal txokoa eta lana eman ziezaiekeen Hego Amerikako herri bat (Iparraldetik jendetzaren erdia ameriketaratu zen).

Frantzian, behintzat Estatu nazio aberri erlijio berri horren hedatzaileak 1880tik aurrera III. errepublikako irakaskuntza berriko "errejentak" izan ziren, "errepublikaren husarrak". Irakaskuntza horretan, maisuak moral irakasle, senen hezitzaile, bilakatu ziren. "Nous ferons des hommes de ces petits animaux" (*piztitxo horiek gizonduko ditugu*). Beren bizitzan errejentek bes-teen eredu izan behar zuten eta, nahiz gizon, nahiz andre, irakasleei apaizena baino zorrotzago zen moral jokabidea eskatzen zitzaaien. Eskola zen sena nahasien hezteko lekua. Errepublikaren onetan, Frantziaren maitasuna eta askotan auzoen (prusiarren) gorrotoa irakasten zitzaaien, ondotik familiaren zintzotasuna, fideltasuna oinarrizkoa zela eta hausten nekeza den ereduia zela.

Lanaren balioa, familiarena, aberriarena bizitza zoriontsu baten izateko bide bakarra, ideia "aurrerakoi" hori, urte askotan ezkerrenak izango dira eta Petain mariskal eskuindarrak bere-

tuko duen lema “Travail, famille, patrie” (Lana, familia, aberria). Bigarren Gerratearen ondotik, hori dela eta, ezkerreko alderdie-tan asmo eta helburu horiek gaizki ikusiak ziren, faxistenak izan omen zirelako.

Gizartearen bilakaerak arrazoi eman diete, orain, nahiz hau-teskunde denboran oihu handirik egin ezker eta eskuineko jakobi-noek, eskoletan ez baita ia gehiago ez lanaren, ez familiaren, ez abe-riaren maitasunik irakasten. Bai, eskoletan hasten zen, kondaira faltsutu batekin, etsaiaren ezagutzen eta Napoleon eta armadaren ederresten. Armadak zer eskaintzen zuen senen hezteko? Gerra izan da “*mutilen indarkeria joerak*”, birilismoa eta benturaren lulu-ran, diziplinaz hezteko eta denbora berean gizonak hiltzeko luke-ten sen hori legezatzeko. Kanpoan egin gerlak, Periklesek zion bezala, maiz, lanaren ziurtasuna eta eskuen zikintzea nahi ez zuten zenbaiten ihesbideak ziren. Bai, haien aberria maskulinoa zen. Bide berdinetik, Umberto Ekok esan zuen “Besteek jasaten dituz-ten gerrate txikien bidez gure bakea erdiesten dugu”.

Europako hizkuntza gehienetan Patrie, Vaterland, Father-land, aiten herria da. Euskaldun zaharrek ama herria deitzen zuten. Sabino Aranak, ez jakinez, *aba*, arbaso esan nahi zuela, aitaren beste forma bat zela ustean, ustekabean izen neutroa sortu zuen: *aberria*. Nondik zetorren aberriaren adigaia? Egiategi ama herriaz mintzo denean, Zuberora du gogoan, ez Frantzia. Hama-zortzigarren mendean, aberria eta nazioa etniaren nortasunarekin lotua zen. Espainian ere nazionalismoaren ideologia hori berezi-ki Ameriketako urreak galdu ondoren, Unamunok, Ortega y Gassetek eta Menendez Pidak erein zuten. Gero, hortik hazi tzarra eman, frankismoak esan zuen, alegia, Gaztela hor zegoela-ko bere gudu gizon eta eliza gizonekin Espainiaren benetako baloreak gordetzeko, inperioaren ohorea eta elizaren handitasu-na; berriz, bazter herriak, Katalunia eta Euskal Herria, behe mai-lako ekintzetan, besteen hazteko eta lanean aritzeko on. Hala nahi zuen Quevedok bere olerki batean:

*En Navarra y Aragón
No hay quién tribute un real*

*Cataluña y Portugal
Son de la misma opinión
Solo Castilla y León
Y el noble reino Andaluz
Llevan acuesta la cruz:
Católica Majestad
Ten de nosotros piedad
Que no te sirven los otros
Así como nosotros.*

Azorinek, “*Una hora de España*” idazkian, baditu horrelako kontakizunak, batik bat inperio eder horrek gudu bat galtzen duenean. Halaber, euskaldun aberats edo liberal askoren laguntzarekin –hala nola euskal herritarren *Institución Romana del Pirineo* delakoarekin–, hispanitatea, *El Día de la Raza* eta euskararen debekatzearekin euskal munduaren etnozidioa ospatzen zuten.

Antonio Otero de Vedrayo galego idazleak baditu lerro gorrak horretaz: bere egurrak erretako eta ate eta leiho itxitako Espainia gela hotzean, teologialarien eztula eta panoplietan zinzilikatu ezpatei egiten diren guda eresiak entzuten direla:

“Cando a Espana queimaron a sua lenha na chimenea, inde quedaron unhas brasas lucindo o quentando avastedada da fria sala; pecharon portas e fiestras por onde aposentouse un cronico catarro de teologo e un canto eterno de heroismo de espada pendurada na panoplia”.

Etnien aberastasun eta askatasun zentrifugo horren hiltzeko, diktadore odoltsuek sarraski ederrik eragin dute: Napoleonek bere familiakoei tronu emateko, esklabotasuna berriz legeztatzeko, Hitlerrek nazismoaren hedatzeko, Mussolinik faxismoaren zabaltzeko, Francok eliza atzerakoi baten alde, eta odoltsuena Stalinek komunismoaren inposatzeko, azkenik Maok eta Pol Potek nekazari komunismo ero baten alde. Militarrak ez bakarrik kanpotarren aurka, baina herritarren senen menperatzeko erabiltzen dira. *Tranquilitas ordinis* ez da sentimendu onekin lortzen, ez baita behin ere, inon ere, bake osorik izan.

Hau da Estatuaren terrorismoa, isilpekoaren alderantziz, legezkoa dena; bestea oinarri gabeko erokeria edo sen desbideratu baten fruitua litzateke. Orain Birmanian, Iraken, Israelen, Palestinan, Etiopian eta Sudanen, Aljerian eta Ruandan, sistema horiek jende zibiletan egiten dituzten kalteak argi dira. Militar eta zentralista sistema hori esportatu dugu. Orain Afrika beltzeko herri gehienak militarrek zuzenduak edo atzetik aginduak ditugu. Militar horiek, Napoleon eredu, gehienak Frantzia ikasiak, beren gisako ideologiarik ezean, beren buruen handitasuna eta familiaren aberastasuna gogoan bizi dira. Suitzako eta Frantziako bankuek badakite horien berri. Antzinako Amin Dada, Mobutu, eta Bokassa horiek Napoleon zuten eredu eta gaizki ulertu komunismo batekin beren herriak suntsitzen ibili (Modibo Keita, Malin).

Gizon guztien senak berdinak izan arren, burmuinak aski berdinak izan arren, herri bakoitzak bere ingurugiroaren eta ingurumenaren arabera ohiturak moldatzen ditu. Eliza katolikoak eta marxismoak erabili orokortasun, bateratasun, unibertsaltasun adigai laino horrekin besteen sineste eta gizarte bestelakotasuna ukatzen da. Aberri zibilizatzaileen kalteak neokolonialismoak sortu ditu. Afrikarrak, amazoniarrak gure medikuntzak hartzera behartzen ditugu, berenak osoki txarrak bailiran. Ospitalea eta eskola eskainiz kristautzen, beren sinistek oro okerrak, senaren ekoizpen hutsak ezertarako bailiran.

Herri horien ahuleziaz baliatuz, Afrika beltzari Europako mintzairak inposatu dizkiegu eta herrian bertan hamaika kolaboratzaile beltz aurkitu. Afrikan, Magrebekoak bazter utzita, batik batik Ekialde Afrikako hizkuntzak, dezente idazten direnak, % 90 liburu europar hizkuntzetan argitaratzen dituzte.

Frantses bihotz eta esku zabalek Afrikako lehen mailako eskoletara frantses idatzi liburu zaharrak, beren frantses zibilizazio miresgarria aipatzen dutenak bidaltzen dituzte. Malin behintzat egin berri diren hango kulturazko, hango hizkuntzazko liburuak ikusi nituen. Senaren menpean bizi omen diren herriak, salbaiak, basatiak dira, beren senei emanak direlako, askatasunik

gabekoak eta gure garapen ederretik kanpo gelditzen direnak. Ideologia horrekin badira munduaren bi argi, I.E.B.ko “*Land of freedom and democracy*” delakoa eta “*Pays de la liberté et des droits de l’homme*” bestea.

Armada zaintzaileak baditugu herri nahasien desbilbatzeko, errusiarrak eta angloamerikarrak Afganistanen, eta frantsesak Boli Kostan, Kaledonia Berrian, Komoreetan, Txaden; estatubatuarak Ertamerikan eta Bolivian, Iraken eta Afganistanen; txinoak Tibeten eta Sin-Kiangeko Ugurian, marokoarrak sahararrekin, turkiarrak kurduekin. Mundializazioaren izenean zer ez da egiten? Alegia, bakea bermatzen, senaren erasokortasuna heziz, baina nola daiteke beste gisaz handiek geroago eta arma eraginkor gehiago egiten dutelarik, eta 2002. urtean munduan diren hogei-ta hamar bat gerrate txikiei armak saltzen?

Beraz, Estatu Batuak bezala frantses inperialismoa III. errepublikarekin hasirik, askatasunaren izenean kolonizatzen edo asimilatzen ibili zaigu eta horren ganean eraiki da nazional-jakobinismo zibilizatzailea. Espainian, berriz, inperialismoa kristautasunaren zabaltzeko hasi zen. Liberalekin, nazio kontzientziaren lekuan, nazio harrokeria profanoa sortu zen. Pruden Gartzia-ki tesi ona idatzi du horretaz:

“La unidad política y la unidad lingüística se funden en un único paradigma histórico. En nuestra opinión, el factor clave que empuja a Pidal a subsumir todas las lenguas peninsulares en un único proceso que culmina con el triunfo absoluto de una de ellas (y la extinción progresiva del resto) no es el resultado de una investigación científica, sino de una opción nacionalista establecida a priori. Esta opción también aquí debemos repetirlo, no tenía por qué ser absoluta: Pidal podría haber optado por circunscribir *el español* al *castellano y dialectos afines* (de hecho desde un punto de vista científico ésa era la opción más razonable) pero ello significaría olvidarse de la dimensión *nacional* del mismo y toda la retórica nacionalista inherente (*única lengua nacional, lengua de un pueblo que realizó un plan histórico más vasto y expansivo etc.* Tal como hemos visto en esta investigación, nunca lo hizo: en Pidal idioma y

nación siempre van unidos” (Prudencio García Isasti, *La España Metafísica*, Iker 16, 2004).

Nire ustez eta Frantzia gertatua gogoan, ezker eta eskuineko jakobinismo eta nazionalismo gogorak hedatzea kolonien galtzeekin lot genezake. Denbora berean, Pidalék ez dirudi onartzen duenik *pueblo españolaz* kanpo besterik badenik penintsulan. Santxo Handiak zioen “Rey de las Españas” zela, eta XVII. mendean frantsesez ere, oraindik, “les Espagnes” pluralean idazten da. Frantzia sozialistek erabili zuten azken batean “les peuples de France”. Nazio bat, hizkuntza bat frantses iraultzalarien iturritik letorke. Prudenek argiki azaltzen dizkigu espainol nazionalismoaren ardatzak:

1. España es eterna, no tiene principio ni fin. Su unidad e individualidad son indiscutibles
2. Los deseos secesionistas que le sacuden obedecen a una suerte de *enfermedad metafísica* inherente a los españoles de todas las épocas, y se manifiestan periódicamente en todas sus regiones. Este *defecto ibérico (la torpeza para la federación)* fue diagnosticado ya por Estrabón, es siempre coyuntural, pasada la crisis se renueva el impulso unitario.
3. La unidad lingüística (*espiritual*) de España es condición indispensable para su unidad política. Si se quiebra la unidad lingüística, España se desintegrará.
4. La hegemonía de la lengua y cultura castellanas en España se debe a un proceso *natural*, y no a una supuesta imposición imperialista.
5. España tiene una vocación imperial y universalista que le empuja a proyectar su lengua y su cultura en todo el mundo. Europa y América han sido y son sus dos grandes líneas de expansión” (op. cit. 548).

Zer kontraesanak espainol ideologia horretan laugarren puntuatzen *“una supuesta imposición imperialista”* jakin ondoan, bosgarrenean *“una vocación imperial”* irakurtzen denean!

Penintsulako herrien bereizi nahia horrelako krisi laburra omen daiteke, indarrez krisiak laburtzen dakitelako espainol zentralistek, eta laster berrehun urte izanen ditu euskal arazoaren

borrokak. *Enfermedad metafísica* ez al da besteen diferentziak ukatzea, ez errespetatzea, hori baita psikiatren arabera eromenaren ardatz bat?

Jakina, nazionalismo handiek horretarako indarra daukate-lako honela dabiltzalarik, txikiak leku horretan berbera egin leza-kete eta apaltzaileen kolaboratzaile, euskaldunok Ameriketara jakin dugu amerindiar "basatien" zibilizatzen. Ikusi dugu nola arroztasuna, beste edozeinengandik zaintzea oinarritzko sena den, eta beti auzoaz burlatzen dela, bere buruaren goresteko. Hori herri xeheari, gutxi eskolatuari barka geniezaioke, baina maila horretan frantses elitea ikusi dugunean alde batetik arrazismoa mugatzea beltzen, juduen eta arabeen ezinikusian eta bestetik normaltzat hartzea herri auzoen arteko gogo-mugak sendotzeko europarren arteko ezinikusi xenofoboak isiltzeko. Hemeretzi-garren eta hogeigarren mendean, ipar eta hego euskaldunen arteko leizea sakontzen, lekuko euskaldun elite berak ibili zaizkigu.

Aberria estatu-nazioek eman militar itxurarekin, ez da beti senen sublimatzeko bidea. *Kirolak* Olinpiar Jokoetakoak, grezia-rraren garaiko beren arteko gerrate odoltsuen ekiditeko sortuak izan baziren, erromatarrek laster ulertu zuten beren gisara kirolek gudariak prestakuntza onean edukitzeko balio zutela. Lehen kris-tauek berriz, gorputzaren erdeinuz, Teodosioren bitartez Jokoak debekarazi zituzten.

Hogeigarren mendean, Europak Olinpiar Jokoak berpiztu zituenean, herrien hurbiltzeko tresna izan zela uste zen eta kirolak ez zuen dirubide izan behar. Gaurko senen sublimatze hori, marka hausteko aitzakian, dirubide eta herrien nagusitasuna era-kustekoa bilakatu da. Dudan jar genezake kirolaren integratze eragina bazterretan ikusi eta bizitu ditugunak aztertuz. Milaka jatorrizko musulman kulturagabetuak ez dira Frantziako hirietan integratu nahi, eta joko moduan asteburu guztiz kale-borrokan dabilzan "beur" gazteek, nahiz ez %1a izan, besteei kalte egiten diete. Tapie izeneko gaizkigile bat ministrotzat hartuz Mitterrandek, kirolak salbatuko zituztelakoan, hiriko errebaletan baloi banatzen ibili ziren: baloiak saldu zituzten droga erosteko eta

gutxiengo amorratu batek bazterren apurtzen eta erretzen jarraitu. Hau Frantziaren arazo berezia da.

Mundialean Frantziak magrebtar bikain bat ekiptoan sartu zuen, eta ahalegindu zen azken partiduan musulmanak bi golak sar zitzan, ustez eta horrela gazteak baketuko zituztela, baina Frantzia-Aljeria partiduan musulmanak, zein zen beren bihotzeko aberria erakutsiz, “Marseillaise” himnoari txistuka eman ziren, eta, magrebtarrek galtzen zutelako, zelaia inbaditu zuten. Talde kirola senen eztitzaile? Nekez. Asteroko kirolak, sasi-aberri chauvinistek *buligan*, *fan*, *skinn-head*, *hincha* eta horrelakoak berotuz, kirol zelaia eta inguruneak, lekuka, borroka zelaia bilakatu ditu, ikusle erdi mozkorrek eskupean aurkitu edozein jaurtikari botatzeko aitzakia dutela. Senen askagarri txarra?

Aberri militarren azken arnasa? Ez, komertzioaren diru lotsagarrien erabilerak hor daude, jokalarien bizkarretan, zelaie-tako paretetan salerospenen markak irakurtzen. *Circenses* horiekin diru ederrik egiten da; drogaren ondotik kirola munduko industria handiena? Biak herri xehearen opioak, telebistaren aurrean futbol zelaietako eserlekutan egonaz gorputzaren banako garapena ez dute laguntzen. Nolanahi, herri xeheak normaltzat hartzen du kirolari batek Lehen Ministroak edo ikerlari batek baino hamar aldiz gehiago irabaz dezan. Kirola, bai, baina baldin denok praktikatu behar genukeen higieñarekin ikustekoa badu.

Euskarak dio “besteen zorriak ikusten ditugula eta gure lepoko txerria (lepo hazitua) ez”. Guk ere, euskaldunok, nolabait arrotzasunaren sen hori berotu egin genuen, maketoen eta koreanoen aldeko aiherrarekin. Beren herritik deserrotuak zetozenak euskal gizarteak ez ditu beti begi onez ikusi.

Jakina, herri txikia garenez, ez dugu geure onurako euskal inferiorrik bildu, baina besteei, espainolei, frantsesei urte eta arima irabazten mundu guztian laguntzen ibili gara. Geu ere, euskaldunok, besteen kultura eta sinesteak desegiten ibili gara, erdaldunei lurrak irabaziz. Lope de Agirrek, Pedro de Urtsuak, Juan Angel Mitxelena batzuekin amerindiarren eraiketan jardun zuten. Zein aberriren izenean? Zer geratzen zaigu? Osoki gurea ez

zen zibilizazioa bestetaratu dugulako harrotasuna, bai espainol, frantses eta Erromako ideologiak banatuz, koloniak “beren basatasunetik” atereaz, eta Joxean Artzek zioen:

*Pago-errekako
nere aspaldiko lagun bat Donostia, Londres, Paris eta
Bruselasen
bere ikasketak (hemengo aitak ordainduak)
egin ondoren,
mixiolari bezala
urrutiko Afrikako lurretara dijoa
hango jendeari
erakustera
millaka urteetan sinistu dituzten jainkoak
gezurrezkoak dituztela:
beren ohiturak basatiak
badirela beste batzuk
nere lagunak daramazkinak
egiazkoak eta zibilizatuagoak direnak (Isturitzetik
Tolosan barru, Usurbil, 1970).*

Basatasunetik atera omen gara, baina gure mendebaldar ideologia ezinduak diruz eta armaz besteei txertatzen gabiltzalarik, ez gara benetako zibilizatuak, barbaroak baizik. Europar herri handi zenbaitek ahaztu dute greziar eta erromatarren kopiazaile hutsak izan direla eta beren hizkuntza mintzaira moduan inposatu den latinaren kreola dela. Zorionez, X. menderaino ez dugu euskaldunok ez errege, ez jainko, ez jaun en irudirik, ez eta beharrik izan ere. Basatitasunak eta animismoak beren abantailak dituzte eta besteak ez dituzte onartzera behartzen. Auzitegietan ez dabiltzanak ez dira konturatzen senaren erreinu basatia beren gizartean daukatela. Europar aberriek munduari basatasuna kendu nahi diote eta zibilizazioaren egiazko baloreak irakatsi. Hori bera bota zigun behin Gaignebé Parisko dorretik etnologia egiten dabilenak, alegia, kristautasuna iritsi arte euskaldunok ez genuela zibilizaziorik, ez eta mitologiarik ere, jainko

irudirik ez geneukalako. "Beraz, musulmanek eta juduek ez luke-
te mitologiarik". Herri handien argiek gure iluntasuna argitu be-
har omen dute.

Bai militarren konkistaz, kolonizatzeaz eta inperializatzeaz sor-
tu estatu-nazioetan eta mentalitateetan, ordea, politikan ez dute
militarrek Europan antzinako esku sartzerik. Espainian ez da
fidatzeko. Noiz arte? Ez al dira berriro moral araudi berri baten
izenean, Balkanetako eremuan, gerra gizonak nagusi bilakatuko?
Zer egin armadaz? Antzinako moduan, herriko gaizkigileen kan-
poko gerletara bidali, edo langabeziaren kopuru itsusia estali na-
hian? Orain, estatu gehienetan, ofiziozko armada nagusitzen da.
Hor lanbide bat ikasten dute eta, goizik jubilatuz, beste lan bat
hartuz, pentsioaren gainetik, bigarren diru iturri ederra edukitzen.
Ala munduan zehar, itxes eta miseria handien alde, jendeen la-
guntzaile joan behar ote? Nolanahi, armadun izaki, egun bat edo
bestez erabiliko dituzte, gerra txikietan, ahalik eta kanpoenean.

Estatua=aberria berdintze hori, Europa egin behar denean,
ez al da zaharkitu den tresna? Ezin berehala erantzunik eman.
Hain zuzen, gutxiengoek daukagun nortasun erreflexua, identi-
tate eskaera ukatuz, antzinako inperio frantses eta espainolean
zentralistek beren frantses edo espainol nortasun zapaltzailea, es-
kuinetik ezkerrera, aldarrikatzen dute. Frantzian behintzat,
berrehun urte igaro ez bailiran, XVIII. mendeko ideiak eta iraul-
tza eredutzat eman nahi dizkigute.

Eta gazteei zer egitasmo ederra eskaintzen zaie? Punck,
Skinn-Head edo Beurak horien guztien ahoetan gorrotoa baizik
ez dago: andreenganako erdeinua, lanaren arbuioa eta familiaren
ezinikusia, non ez den diru eskatzeko. Nora goaz? Frantses auzi-
tegiek diote gurasoak kondenatuak direla, behartuak haien biz-
kar bizi diren seme heldu alferrak etxean edukitzera. Jende ho-
riek, hil arte, seme alfer batekin bizitzen eta hazten irauin behar
dute. Urrunago ikusiko dugu zehazkiago horren kaltea.

Eliza eta Armada ez badira, gehiago, gizarte arauen zaintze-
ko eta erakusteko gai, zer da gizarte orekaren eusteko, lotzeko
indarra? Zoritzarrez: dirua. Euskaldun zaharrek ziotenez, adiskide

eta etsairik handiena datekeena. Aberriaren ideologia horiek ukaldi gaitzik hartu duten herrietan, Ipar Ameriketako Estatu Batuetan Vietnameko gerraren ondotik, Frantzia Aljeriarekin, 1968an lehenik Estatu Batuetan, gero Normandian eta Britainian, ikasleen jazarpenak izan ziren. Eta Txekoslovakian herri oso batena.

Telebistaren bidez geroagoko jazarpen luzeena eta zarata-tsuenaren Parisekoak famatu zen. Orduan egin ziren galdera askok ez dute erantzunik ez eta irtenbiderik izan: *Lana*, *Familia* eta *Aberria* zegoeneko lokartuak ziren adigaiak auzitan jarri ziren. Baloreen isilpeko krisia ekarri baitzuten, senaren balore idealizatu batzuk berpiztu ziren, eta balore orokor, unibertsal, sasi Heren Mundukeria, lauso eta ilunak aldarrikatu.

Zer egin? Tai gabe, gelditu gabe, han-hor gerra txikien suak iraungitzen ibili, bake osoaren itxaropenari ametsik egin gabe.

3.3. *Familiaren sena*

Neotenia, animalia askotan eta jendeetan, garatu gabeko kume baten sortzea da. Eta bere jabetasuna luzaroenik ez daukana haurra da. Gorago ikusi dugu haurren neoteniak dakarren ikasketa luzea. Ahulezia horren ondorioz, kanguruarekin hasiz tximino kumeraino, hasieran, senetzko lotura bat bada amaren eta umearen artean. Familiarik gabe edo helduen laguntzarik gabe, sortu berria hil liteke, izaki neoteniakoa ez baita, jaiotzean, oraindik izadiari egokitua.

Garai txarretan, familia zen aterpe leku eta elkartasun leku, baina denbora berean uztarri estua. Pixkanaka, pitzatu, erdibitu eta zartatu egin da, batzuentzat, eredu. Europako XX. mende erdiko *hogeita hamar urte ederrak* deritzen urteetan andre asko geroago eta gehiago lanean jarri ziren. 1968ko maiatzeko mugimenduak emakumeak askatu behar zituen, eta orduan andreak gizontzen hasi, ez bakarrik azalezko jantzian, alkandora, praka, gorbata eta txaketa lanerako erosago, baina gizonak ihakindatu, haien akatsak hartu: tabakismoa, alkoholismoa, droga. Dibortzioa eta abortua garatu ziren laster eta demografia erori. Bene-

tako feminismoa litzateke andere eredu benetan aske baten sorrzea, hala diote andere askok.

Orduko aldaketa guztiak ez ziren txarrak, baina gizonaek andrezkoekin zituzten harremanak ez dira hobetu. Pilulak erraztasuna ekarri zuen, baina mutilek andre askoren errespetua galdu. Gainera, senetzko artasuna gizontasuntzat hartuz, andre berrien askatasun apurrak geroago eta lausotzenago dio matxoari bere irudia eta, gihar indar abantailatxoaz baliatuz, andrezkoekin indarkeria erabiltzea bultzatzen. Andre batzuek uste zuten berdintasuna zela uniformetasuna. Orain badakite ez dela hori, ezen azken "tasun" horren pean hierarkia eraikitzen da eta gaitasun berdineko andrea beheago egoten: hor dago benetako erronka.

Hogeita hamar urteren buruan, jendea jaiotza kontrolari egin behar zen, eta umerik ez egiteko hainbeste tankera dagoelarik, fetua hilautzerainoko bidea ez zen zerratu. Nahiz ez diren ezkontzen, orain bikote asko ez dira hobeki akomeatzen. Ezkontutako hiru bikotetatik bat dibortziazten bada, ezkongabe direnak askoz gehiago bereizten dira. Bestalde "umea bai eta gizona ez" dabilta andre gazte asko. Neskak bizitzeko nahikoa diru irabazten duenean, gizon bati haurra eragiten dio eta gero aita baztertzen. Sarritan, horrela abiatu harremana ez da sana, eta burutik gaixo diren batzuek, haurra beren jabetasuna balitz bezala, gaizkian ere alde jartzen dira, beste muturrean haurra ardi bat balitz bezala hiltzen. Azken urteetan, ez askotan, baina horrelako kasuak gertatu dira Espainian eta Frantzian, guraso batek bere bizpahiru ume hiltzeraino. Berriki espetxeetan egin inkesta batek erakutsi du presoen %42 guraso bereizien seme-alaba direla. Ez dakigu, oraindik, zer emango digun aitarik gabeko gizarte horrek.

Ikusten dugu aita askok ere umearen erantzukizunik ez dutela nahi, edota aita kaltegarriak direla; gaurko gizarte egiturak ez baitie eskatzen. Ikusten dugu umeak hezten, familiaren antolatzen, ez dela inon ikasten den ofizioa. Hurren dakusaguna da aitarik gabeko, gizon eredurik gabeko ume askok gizarte harreman arazo bereziagoak dituztela. Beren buruak gutxiengotzat hartzen dituztelako ote?

3.3.1. Talde sexu harremanak

Elkarte edo erkidetzarik sortu gabe, badira aspaldidanik eta ezkutuan, isilpean, bikoteen arteko behin-behineko harremanak. Modanago jarri ziren 1968tik goiti. Horretan dabiltzanentzat, ez dago maitasun beharrik; bikoteak, aspertu gabe, bere sexu harremanen jarraitzeko, "senari jarraituz", besteekin gurutzatu behar du. Lagun berarekin jo gura ahultzen dela eta, irudimenak, irakurketak, irudiak, filmak aski ez direnean, beste biderik hartu behar da. Lehengo modari jarraituz, bilera batean, hitzordu batean, ezkonduen artean, *wife swapping* edo emazte trukaketa egiten da.

Ezkongabe bakartiak edo bikoteak geroago eta ugariago agertu zirelarik, izena eta izana aldatu zen eta *swinging* esan zitzaion, alegia, *balantza*. Lehen frantsesezko *partie carrée* edo *libre-échangeisme*-ren ordean *group-sex* izena hartu zuen.

Sarritan, orain, harreman horietan emakumeek dituzte beren lagunak hautatzen. Talde horietan sekulan ez da politikarik, erlijiorik edo etxeko bizitzarik aipatzen. Oso gaizki ikusia da prostituta baten ekartzea. Hitzorduz, telefonoz antolatzen dira *partyak*, baina noizik behin, gauaz, automobil argiekin keinu eginez batzen dira. Hori egiten dutenek pentsatzen dute, behar bada, kanpoan larrua jotzea dela kanpoan jatetxera joatea bezala: *etxeko bazkaz aldatzeko*. Eskarmentuz ikasten dute baten bat sentimenduz arrotz bati lot daitekeela edo beste batek orgasmo hobia ematen dionean, "behor edo garaino hobia" aurkitzen duenean, lagunaz aldatu; beraz, bikotearen sendotzeko, bermatzeko, ez dirudi bide ona denik beti. Mota askotako harremanak sor daitezke: ezkonduak beren artean edo ezkonduak ezkongabeekin, sogileak, ezer egiten ez dutenak edo voyeurismoz masturbatzen direnak, edo beren onanismoa ikusgarri ematen dutenak. Geroxeago, goatekearen hastean, musika bat ipintzen da, edari batzuk hartzen, dantzatzen, pelikula bat ikus daiteke berotzeko edo sex-shopetako sexu birtualean ibili. Horrelako filmak hotel handi gehienetan diru truke telebistan eskaintzen dizkizute.

Jendeen sexubideak ez dira osoki genetikoki eta senaren bitartez antolatuak: noizik behin genetikako sexua eta buruan

garatzen den desioa ez dira bat etortzen eta orduan homosexubi-
deak eta transexutasunak agertzen dira, garai batean zapalduak
edo isilduak zirenak, orain modan daudenak.

3.3.2. Sexu erkidetzak

1968tik goiti komunitate saioak eman ziren. Nornahik nor-
nahirekin sexu harremanak eduki zitzakeen. Umeak elkarrekin
hezten ziren; ume haien aita-amak erkidetzako edozein eta guz-
tiak ziren. “Senaren, animaltasunaren berezkotasun garbira”
itzultzea omen zen, baina ekonomia arazoez, lanaren banaketak,
bekaizkeriak aitzakiei metatuz, komunitateak hauskor bilakatu
ziren. Hori eskaintzen zutenek, senaren adigaia aztertu gabe eta
aurreko heziketaren emaitzak gogoratu gabe, komunitate bizitza-
ra sartzen ziren. Bakoitza bere kondaira desberdinarekin eta hain
zaila zelarik bi pertsonen artean sendi baten antolatzea, hainbes-
te zeudenean nekezago, ezen arratoien modura bizitzen eskain-
tzea primate bati ezinezkoa da, tximino handiek ere familia egi-
turatua daukate. Gelditzen den sexu erkidetzak bakarra Danimar-
kan turismotik bizi da.

Komunitatean denak aita, denak ama direla esanaz umea-
rentzat nahasgarria da, batik bat gizarte osoa eredu horretakoa ez
delako. Horrek sekta sistema baten antolatzea ekartzen du eta ba-
rruan egotea bultzatzen, ezen haurrak kolejio eta lizeoetan sartzen
zirenean gehiengoaren ereduaz ezagutzen zuten eta arazo larri-
dunak ezagutzen zituzten. Erljio antzeko sektak erkidetzak horien
lekua hartzen hasi zaizkigu. Claudi Molinièr idazle okzitanoak
Las fols del desir liburuan ziurtasunaren arraildura hori darakutsa.

Azkenean, 1968ko sexu iraultzalari erradikalenek zer helbu-
ru zuten, zer desegin nahi? Monogamia eta heterosexutasuna. Zi-
legi behar zuen izan edozein jende edozeinekin, intimitatea utzi
eta sexu harremanak agerian eta aldarrikatuak izan ziren. Patriar-
katu eta matxismoaren aurkako erreakzio sana zatekeen, baina
ameslari horiek uste zuten jendeen arteko bestelakotasunak eza-
batuko zirela, gizon eta emakume estandarrak sortuko, beren

mentalitateak, beren kulturak, beren hizkuntzak, beren erlijioak bazter utzita normahirekin bikotea edo hirukotea edo laukotea egingo zutela, iraunkortasunari kasurik egin gabe. Helduen eskubideak aipatzen ziren, baina haurrik gertatzen bazen, oztopo eta ez aipa.

Irabazi baikorrenak, hala ere, izan ziren eta izango dira familiaren antolakuntzan. Lehen aita familiaren buru baldin bazen, erantzukizun berdintasunez familiak bi buru ditu herri batzuetan eta lituzke besteetan. Hor ere hogeita batgarren mendeko aldaketa izan behar luke: aitek beren erantzukizunak, eta etxeko lanetan beren egitekoa har dezaten.

Ez da erraz, geure buruarekin beti akomeatzen ez garelarik, beste batekin egitea. Bi sen indar nagusi agertzen dira, bata bestea bezain azkar, jende harremanetan, erasokortasun joera eta adiskidantza joera, beste indarrak beste. Horiek, mundua mundu deino, bikoteen arazo sortzaileak izango dira: erasokortasunak bultzatzen du besteari nagusitu, buruzagitu beharra, agindu nahia eta adiskidantzak bestea nolabait berbera dela aitortzea. Gaurko arazoen gehitzea Ameriketatik etorri zaigun gizabanakoaren ereduari, indibidualismoari zor diogu eta sexu atsegin askea eskatzearekin errespetuaren galtzea.

Emakumeek kanpoko lana irabazi dute baina gehienetan etxekoa ez galdu. Bestalde, soldata berdintasunera ez dira iritsi eta oraindik lanbide batzuk emakumei itxiak, mugatuak dira edota heziketaz ez dituzte gogo onez ikasten, hala nola esperimentuzko, izadizko eta fisikazko ikerketak; aski da Nobel saridunak zein diren ikustea.

Aitor dezagun ezkontza ez dela beti izan irtenbide sanoa, bakoitzaren askatasuna eta erosotasuna muga dezakeela. Antzinako ezin bereizte latzetik nolana hika haustera gehiegikeria litzateke? Zahartzearekin bere bakartasuna deitoratzen badu ere, hedonismoaren, zorionaren izenean, bakoitza bere aldetik doa. Horretaz, iraunkortasunaz, luzaro hitz egiten digu Jusef Egiategik:

“Aspaldian erranik dago fede onaren arauak jarraiki balitü jendeak, ezkontza sakramentuä alfer zatekeela, gizonaren eta

emaztearen artean hitzemanetz, aingerüen gisara baitziren elkarrekin biziko” (*Ezkontzaz*, aip. lib., 107).

Eta gaineratzen du:

“...orai aldiz sakramentüaren indarrak behar dütü eta legetzaz arrimatürrik, delakoz mündüa galkidatu eta jendea gaiztotü...” (*Ezkontzaz*, aip. lib., 107).

Gizonak familiaren senik ez du, legea hor ez badago, umearen eta amaren bazter uztera gerturik dago, eta XIV. menderaino sarritan gertatzen zen Elizak sakramentu-lege hori behartu arte. Egiategik ezkontzaren akatsak honela arakutzen ditu, familia senaren fruitu hutsa ez bada, aukera badagoela, eta ongi pentsatuz egin behar dela erakutsiz:

“Erromeria da Ezkontza, hiru ostatü baizik bidean eztuena, lehena deitzen da plazer faltsüak, bigarrena garbaia edo dolüa, hirugarrena lazeria” (*Ezkontzaz*, aip. lib., 108).

Egiategiren arabera, gizarte harremani eta ezkontzari batik bat kalte gehienik egiten diona dirua da:

“(Ezkontzak) ...oker gertatzen, dütüelako zekiñantzak egin emaztegaiak, ez zenbat balio düen bena zenbat dirü pisü düen gira arrangüratzen” (*Ezkontzaz*, aip. lib., 114).

Ezin bereziaren oinazeak honela aipatzen ditu:

“Bizia bezain lüze den igüinan (gorrotoan) hartara doanak du hautüan (aukeran) züzen zerbait, baina hartakoz (ezkontzara) bortxatzea ezta odolgarriago, ezen ez zaküan bi gatü etsai ezar-tea” (*Ezkontzaz*, aip. lib., 115).

XVI. mendean *Refranes y Sentencias* bilduman irakurtzen da “*Naibako ezkontza/nekea ta kaltea*”. Senak, naturak, ostera bere eskubidea daukalarik, honela dio gure filosofoak haur egiteaz kanpo andrezkoek betekizun zerbait daukatelako:

“Zü aita ta zü ama züeri naiz mintzo: ez dezazüela züen haurrak amorio ez düenetara ezkont, begotze Izairiari bere züzenak” (*Ezkontzaz*, aip. lib., 115).

Egiategi ez da horretan mugatzen eta ezkondu ala ez, gaur, jende batzuek beren hurrez izan behar lituzketen gogamen

luzeak eskaintzen dizkigu. Bi kapitulu luzeetan, “*Aita amen eginbideaz*” eta “*Haurren eginbideaz aitamengan*”, idatzi zituen. Horretarako, bigarren gaiaren berme, Alberto Magno, Aristoteles, Herodoto, Platon, Solon eta Tertuliano aipatzen ditu. Bi adibiderekin geratuko gara:

1. Haurrek, nekez oraino ibiltzen direnek, ikusten ta entzützen ditützenetarik deus ere ez die galtzen (122. or.).

2. Bi urteetako haurrak hamabitakoaren ber errespetuak, ber errekeitüak behar ditü (122. or.).

Gaurko egoerak darakutsa familiak jende ernal sena kontrolatzen duela edo galdu duela, baina hori datorkio ez bakarrik Elizaren eraginaz, Erroma paganoan ere ezkontzaren oinarria errespetua baitzen, eta horregatik andreei ez zitzaieela eskatzen ez berek orgasmoa izatea ez senarrari mota guztietakoak ematea. Horrela garatu zen Erromako garaietarik XX. menderaino etxeko ohetik kanpoko meretrizen, prostituten beharra eta ohitura.

3.4 *Lana, senaren hezteko?*

Animaliek erreflexuen bidez lortzen dute eguneroko bizitza; gizarteak du sortu lanaren beharra. Lanak sen “basatietatik” urruntzen duela? Lana alfertasunak dakartzan bizioak ekiditen dituela? Bai, baina aurrerapenaren eta ekonomia garapenaren uhinak garamatza *izatetik edukitzera*.

Europarren hogeigarren mendeko urrezko hogeita hamar urte ospetsuekin, lehenik etxean gehienetan dirurik ez izatetik edukitzera igaro ondoren, aberastasun berri horrek kontsumerismoaren beharrak gehiagotu zituen: zer atsegina zuten lehen belaunaldiko telebistadunek, ontzi garbigailudunek, lehen automobil herrikoiak erosten hasi zirenek!

Denbora berean intelektualak existentzialismoaren ukapen-tan zebiltzan eta 1968ko ikasleak, sabela beterik, erosotasuna ezaguturik, ez ziren nahi gurasoen bide horietarik ibili. Orduan Parisen agertu zen lema lanetik metrora, metrotik telebistara, telebistatik ohera; horixe zen kaletar gazteen geroa. *Metro, lan, lo*, “*Metro, boulot, dodo*”. Ohetik metrora, metrotik lanera eta atzera.

Kontsumerismo horri, erosi zaletasun horri, gizarte onzale, erosotasunzale honi kritika egiten zitzaionean, denbora berean gizarteak eskaini arau guztiak eta lan alokatua ere suntsitu nahi ziren, hirurak ama-alaba bailiran.

Antzinakoek hainbeste kritikatzten zutelarik lanaren ziurtasun eta bizi gutziko leku berean egotea, orain gazte zenbait lan-gabeziak urduritzen, arranguratzeko ditu. Frantzia nahiz lan baldintzak askoz hobetu, zaharragoen artean lanaren erdeinua modan sartu zitzaigun, balio-kentzaile, kaltegarri, alienatzailea zelakoan. Gazte askoren ametsa da lan gutxi, diru apur, baina larunbat-igandeak jai eta oporrak. Inoiz baino diploma goragoak dituzte gazteek. Elektrizista, iturgin, hargin, okin, harakin gabezia handitzen da. Inork ez du horrelako ofiziorik nahi. Etsipenak eta irakaskuntza sistemen ezegokitasunak, batik bat emigratuen haurrak, huliganismora, ganberrismora eta eskolaren ukatzera bulkatzen ditu. Frantses erreformatzaileek kanpotarren integrazteko "beren patois" edo azpi hizkuntza (arabiera, berbera, txinera) ez ditzaten etxean erabil baina frantsesa etxetan inposatu nahi lukete.

Lana erreflexuez baliatzen da, ez du senari gehiegi dei egiten, itotzen baizik, ikasi erreflexuei bai: beraz, lanean %10 adimena bada, %90 erreflexua eta ohitura da. Lana dela-eta, orain arte, euskaldun munduan lan egin gabe egotea desohorea zen eta nahikoa diru zeukatenek pentsioekin edo errentekin, ohorearengatik, lanean jarduten zuten eta hil arteraino jarraitzen.

Lanaren aldeko jarrera hori, beharbada, halabeharrez, gure herria hain aberatsa ez zelako garatu zen, baina Hego Ameriketara, euskaldunen langile porrokatu fama hedatu zen, herri haiek beren kopurua baino anitzez handiagoa delarik euskaldun ondokoen garrantzia ekonomian. Hegoamerikar idazle idealista zenbaiten lumapean euskaldunek euren herrietan eduki duten eta ondokoek daukaten itzala begi gaiztoz eta gaitzespenez ikusi zuten. Askotan, beren idazkietan, "vasco bruto" eta "vasco avaro" delakoen txisteak errepikatzen dituzte (ik. Borges, Sarmiento eta beste).

Oraingo euskaldun gazteentzat ez da agian lana horrelako erakarle handiena, alde batetik langabeziaren kezka daukatelako, eta gazte direino aisialdiak erakargarriago. Iparraldean euskaldunak frantses gorpulean sartuak dira. Frantzia da munduan langile bakoizka lanordu gutxienik egiten duena, ekonomiaren garapen aldetik Europako hamabostetan hamahirugarrena, eta gizarte saria azken mugaraino eraman duena.

Kanpoko komertzioarekin, Frantzia noizbehinka bakarrik salbatzen da. Berriki, sozialistek aipatu dute hamazazpi eta hogeita bost urte arteko gazte gutxiei zazpiehun eta berrogeita hamar euroko soldata “pentsioa” ematea, lan egin ala ez. Jakina, horrek ez ditu lanera erakarriko jadanik isilpeko lanez edo drogaz edo gurasoen diruz bizi direnak. Hegoaldean ere gazte adituenak kanpora joaten hasi zaizkigu eta malgutasunik ezaz eskolatu asko urduritzen eta goganbehartzen.

3.5. Diruaren baloreak ala balioak

Diruaren nagusitasun hori zeukan beldurrez gogoan, duela berrehun eta hogeitaz Egiategik idazten zuenean: “Halarik ogen dügü (oker gaude) esanaz bürdintsü mendean garela, gaudelakoan ürrezkoan ta zilarrekoan leporaino ehortziak” (Bigarren liburua, Euskaltzaïndian digitalizatua).

Bai, gaur gure industria eskualdeetan hasirik nekazaritzan ikerketaraino, emankorra, diru-emaile ez dena ez da ezertarako on. Nekazariak lehenik *agrikultore*, gero *lurgin ekoizle* bilakatu dira, nagusiak eta ugazabak *enpresari*, irakasleak *pedagogo* eta bakoitzak ez duelarik bere lanbidearen harrotasunik, nola bereizi kalean zabiltzanean beren ofizioko arropa galdu dutenak, polizia eta bonberoa bai, militarra eta apaiza ez.

Diruaren eta itxurakeriaren garaian gaude. Dirua, aspaldian jendeen hezteko asmatu omen zena, gaurko jainkoa bilakatu da eta bere tenpluak Burtsak ditu. European ia jende asko lanaz baino gehiago diruaren mozkinaz bizi da; aldiz, Heren Munduko herri txiroetan, hil arteraino berentzat eta guretzat lan egin behar

dute ez delako han zahar pentsiorik. Ametsa eduki genuen ezkerreko ideologiek, jendeen arteko bakea eta zoriontasuna ekarriko zutela, dirua eta kapitala zelako kaltegarria. Noski komunismo-pean herri batzuk miseria gorritik bizi neke baina hobeagora igaro ziren. Komunistek dirua ez zuten galarazi eta nire ustez diruaren eustearekin ametsa ito. Diruari buruz Egiategik dionak zerbait ikusteko du garaian ezagutu zuen Zuberoarekin, baita, apika, zeukan kristau latz eta etsitu iritziarekin ere; bietan diruak egin ditzakeen kalteak ikusten ditu:

“Ûrrezko kopa da kozüa (kutsua) edanarazten düena, ordüan zilarrezko zübia da leizera züzen doana; baina zer dirade aberats gehienak gaizki halakatü direnak: zeken, asemagur, desleal Jainkoaren eta jendearen aldera, fede gabeak” (*Nekeziatz*, aip. lib., 45).

Ez du hobeki ikusten behartsu eskalea gure filosofoak, behartsu hori aberasten denean, aberats berri egitean:

“Bertütea ta eskelegoa bakanki dabilta lagün, handik eskale aberastüa nekez gizon perestü anima ederrarekin ezpada sortü. Ezen beharra delako beti eskari, hartako gogoia düelarik, garaitzen badü ere gaitza, bertzaren zolan (hondoan) beti ere dago ondakina.” (*Nekeziatz*, aip. lib., 45).

Behartsua beherago ibili arren, Egiategik zuribideak aurkitzen dizkio, lehenik bere egoerarengatik, lan egin arren, gaizki egitea duelarik irtenbidea:

“Behardünak eskalegoaz etxaldea düelarik ingüratüririk, etxea haur bilüsiz beterik, arka hütsik, abainak solairüan, zordünak zain, algoezila atean, auzietaz nekatüririk, abereak deuserezttüririk, handik beharra bizioen ama da gertatzen, honek ongi egin ezinari, gaizki egineraziten” (*Nekeziatz*, aip. lib., 45).

Gizarte justuago baten alde ibiltzen zarenean, haren salbatzeko inguruan aizolbe hesia landatzen duzu, zeure herria zerratzten, baina orduan protekzionismo edo berzaintze horrek kalte egiten: 1976an Leningradeko pintore batek esana gogoan dut: “Dirua daukagu, baina zer erosi ez. Hamabost urteren buruan, ia

automobilaren erostekoa badugu, baina eska eta bost urte itxaron behar eta abar. Plangintzen eta bulegokraziaren ezgaitasunaz ga-bezia dabil edonon”.

Ihardetsi nion, ulertu nahiz, *gerrate hotza* zelarik, beste arrangurak bazter utzirik, ez zela erraza hainbeste kilometro muga zeukan Errusia herriak armadan diru gehiegi ez igortzea, ez eta komunisten itsasargi betebeharrez, denbora berean, espazioan kurritzean dirurik ez xahutzea.

Haatik, hogeita hamar urte bakezkoren ondoren, itxaron zitekeen Sobiet Batasunean jende bakoitzak bizitzeko 7 metroko bizi gela edukitzea baino zerbait gehiago, ezen bizi senak jendea bultzatzen du auzoarekin urruntasun apur bat izatera. Horrelako gauzak beren garaian idatzi nituen, baina euskal mundua kontrolatzen zuten marxista berrientzat antikomunismoa zen Izvestia eta Pravdak ere deitoratzen zituztenak aipatzea. Hori bizkarreratu zidaten euskal idazle ospetsu bik, I.S. eta R.S., uda batez Zarautzen elkarrekin egon ginenean. Ez gaitu harritzen frankismoak marxismoari sehaska prestatu badio. Gaur, merkatu askatasunaren izenean, ekonomia ireki orokorrak antzinako baloreen lekua hartuz, bidegabekeria sortzen dabilkigu. *Quousque tandem...* noiz arte iraungo du? Txina handia merkatu sistema liberean sartu zaigu. Izutzen gaitu, sistema horrek zapalduak zapaltzenago dituela dakusagu, ingurugiroa kutsatzen ere, baina noiz arte? Egiategik herri barruan ikusten zuena eta kondentatzen mundu osora hedatu da, eta Euskal Herri barrenera ziona zoritxarrez denetara heda genezake munduko aberatsenek Afrikan, Asian, Ameriketean obratzen dugulako:

“Orain zenbat dirade soberakinaz aski ez dūenatarik: zūei naiz mintzo jaun aberatsak, zūen palazioetan, arraina bezala ur gize-nean jaten dūzūe, bestek erein dūen ogia, edaten ardoa, besteak landatu dūen mahastitik; haragiak zaizkiete mahaieratzen gerturik jakinik bage zeren errekeitūa dūen ukan. Ehiza guztiak zūentzat dirade habiatzen ta ūme egiten. Nork eman dizūe haiek gūztiak? Behardūnek. Ta zūek gor ta mütū heceentzat. Nor da arren gizonago? Balūte haiek bizi doia ta zūetarik deusere beharrik zer izango zinake?” (*Nekeziaz*, aip. lehen lib., 46).

Oi! Zer egitasmo ederra Estatu Batuetatik datorrena: zoriontsu izateko, ahalik garapen iraunkoritsu baten bidez, ahal bezain aberats egin, eta berak benetako lanetik ala besteen bizkar eraiki dolarraren bidez bizi dira! Senen onuretan diruaren erabilera eskaintzeak, gaur, ustelkeriaren globalizazioa dakarkigu. Senaren ikerketa horrek ez gaitu jendea animaliangandik bereizten lagundu. Non dago bestelakotasuna? Jendea idiaren edo txerriaren gisa diruz gizentzeko egina bada, senaren inguruko irtenbideak urrun daude eta horien hezteko gudagizonen eta erlijio gizonen erabiltzeak jendea bere senetik urruntzen baizik ez bazuen, zer esanik ez gaurko merkatu gizarteak esklabotzen duena.

Liberalismoaren zainak. Gaurko ekonomia aztertzen badugu, politikaren, erlijioaren lekua hartu duela argi da eta hori indibidualismoaren gainean garatuz. Indibidualismoa zor diegu lehenik kristautasunari, berezitasunak ezabatuz beste loturak deserrotu nahiz “bat egin behar baita *Kristoren baitan*”, halaber komunismoak *gizon berria* molde berdinetik denak igaroak sortu behar zituen, kolektibotasunaren izenean indibiduo neutro sustrai gutxikoa prestatuz. Nazismoak erro guztiak moztuz “ariar ona” eta “etnia garbiak” sarraskiz sortu behar zituen.

Banakoa taldearen aurka jarritz, ekonomia ari zaigu *eragin-korki*ago azken gizarte loturen desegiten. *Homo oeconomicus occidentalis* horrek beste ideologietan bezala bere geroa finkatua, mugatua du eta beti gehiago ekoiztea xede. Indibidualismoa XVIII. mendean agertzen da, Hobbes eta Rousseau aita ponteko dituela. Adam Smithek honelako hiru osagai aurkitu zizkion ekonomia liberalari:

—Geroago eta kanpotikago diren kultura loturak mozturik bere moral berezia sortzen duela

—Ekonomia berez orekatzen da, barne koherentzia badu. Inork ez du kudeatu beharrik.

—Ekonomiak, eginbideak bazterturik, naturatik datozkion eskubideak ditu, eta horrek jabetasuna legeztatzen. Eta horrela dabilta, gizartea desafiaturik, estatubatuar enpresa handiak.

Hiru ardatz ditu globalizazio liberal delakoen ekonomiak

1. Bakoitza bere zokoan gaizki ibiliz, gizartearen ona sor liteke. B. de Mandeville holandesak, "Erleen alegian" (1714), *The Fable of The Bees* delakoan azaldu zuen. Gizartea erlauntza da; bakoitzak bere gisara ongi ala gaizki eginik, gizarteak ezta sortzen du. *Private vices, public benefits*. Horretarako, salerosleak politika, erlijio, kultura harremanen gaintik dabilta. Gizarteari hala egin kalteek ez dute garrantzirik, sistema ona denez gerroz, besteen errespetua gal liteke. Jendeen arteko, hurbileko harremanak eten ahala, ontasunen arteko sareak tinkatzenago dira. Urrunago joanaz, Hobbesek dio frustrazioek, oztupoek pasioak eta gaiztakeriak ereiten dituztela eta gizartearen orekarako monarka baten botere oso eta indartsuak baizik ez duela balio. Gaurko egoerak darakutsa ustelkeria demokrazietan bezainbeste dagoela diktaduretan. Ideologiaren gaintik, demokraziak, ekonomiaz, diktaduren adiskide dira.

2. Garai berean, Quesnayk, "*Utz egitera, utz igarotzera*" lema asmatu zuenak, fisiokraten eskola sortu zuen. Salerosle banakokerian oinarritu arrazionaltasun baten bidez, orduan auzitan zen laboreen salketa, eta banaketaren zailtasunak konpontzeko aipatu zuen: nekazariak uzta, eskulangileak tresna, salerosleak dirua dartzela; beraz, harentzat ekonomia nekazaritzan oinarritzen zela. Lehena izan zen, baloreak ahazturik, lur-langileentzat, diruz bizi direnentzat eta eskulangileentzat balioen ontasunen taula eraiki zuena: *Tableau économique* (1758). Lerroka eta zutabeka jarri aberastasunak erabiliak dira eta batetik bestera dirua kurritzen. Quesnayk sistema horrek barne koherentzia duela erakutsi nahi du, batasun hori izadiarena dela, jainkozkoa dela. Benetako kulturadun gizona ez da hor agertzen. Protestante itzalpeko pentsaera hori, Descartesaren ametsak eta hodeiak utziz, lurrera jaitzi zen.

3. Locke, epistemologiaren gurasoetarik izan dena, anglosaxoien neutrotasunaren eta pragmatismoaren irizpidetik dabil. *The Essay Concerning in Human Understanding* (1689). Nondik datoz gizabanakoaren eskubideak? Berezko egoeran, lanak *jabetasun kenezinaren* zuzenbidea oinarritzen du. Gizartea bigarren mailakoa da eta jabe eskubide hori legeak eta estatuak zaintzen

dute. Jendea ez da baloreduna, kulturaduna horientzat: langile, ekoizle, kudeatzaile da, besterik ez. Lanaren arabera neurtzen da jendea. Zenbat balio du? Ez zer baloreekin bizi den.

Hemen agertzen da frantses iraultzak hedatuko duen adi-gaia: giza banakoaren estatutua bere ekoizpenari mugatua. Mundua gauza egina bilakatua da, kantitatearen erlijioa sartua da; horretan eraikiko da eta iraungo dute industriek eta kapitalismo liberalak. Ekonomiakeria gizabanakokeriari lotua da.

Bestalde, gizarteari egiten zaizkion kalteak sendatzeko, osatzeko, estatuak ordaindu behar ditu. Gizarte politika sortu behar du. Estatu-probidentzia bizi dute europar askok. Zerbait gaizki denean, herriak, eskualdeak edo/eta estatuak konpondu behar dute, eta lehen jendeek egiten zutena orain administrazio erdi elbarrituek egin behar lukete; hori da estatu-nazioen azken zuri-pena eta izateko azken arrazoia.

Merkatu zibilizazio horrek gizarte mota bat galarazi du, benetako laboraria, nekazaria. Lurra mekanizatu da, kimikatu da eta beren makinaren gainetik jadanik lur enpresari gazte batzuek ez dute beren lurren egoera ikusten, ez dira abereei hainbat interesatzen mekanikari baizik. Errentagarritasunaren izenean, bizi naizen Zuberoko Santa-Grazin hogeita hamar urtez, baserri (etxalde) txiki guztiak desagertu dira, (80tik 50) jabeak behe mailan ez zirelako bizi nahi. Akuran edo erosirik ia denek, Europako goi-mendi subentzioak lagun, hamabost hektareaz goiti daukate. Errentagarritasunaren izenean, direla 60 urte gari ereintza eta erlauntzak galdu ziren, direla 50 garagarra, direla 40 artoa, direla 30 alorretako patatak, direla 20 urte etxe guztietan untxitegiak, gehienetan oilategiak eta sagardiak. Nekazari huts diren bakanek behiez kanpo, ardi asko dute (ehunetik goiti beti) eta erdi nekazariak behiak bakarrik.

Horrela, jakituriak galtzen zaizkigu; gazteek doi-doa dakite zer den lizarra, haritza, pagoa eta pinua, baina ingurugiroan dituzten landareak, izanik ez eta izenik ez dakite: ahabiak, astigarrak, lerrak, masustak, oilakaranak, sahatsak, zuhandorak, zumarrak zer? Gure Sentako auzunean inork ez ditu gehiago in-

txaurrak eta gaztainak biltzen. Herriko sagarrak lurlean usteltzen dira eta *goldenak* merkatuetan erosten, arrautzekin batean.

Jakituria hori eta izadiaren errespetu hori asko galdu dira: ez dago nekazaririk, lur ustiatzaileak dira (*exploitants agricoles*) eta, jadanik, izadiaren oreka eta garbitasun apur bat atxiki behar luke tenak kutsaduren sortzaileetan bigarrenak dira. Agertzen ari zaigun *jende berriak*, batik bat hirietan; ez du besteen errespeturik, baina denbora berean sustraiak mozturik, masan galdurik, bere buruaren kontzientzia, bere irudia eta bizi nahia galtzen du, ez dago ez gurasorik, ez auzorik, hori frantses jakobinoek “komunitarismoa” deitzen dutelako; Europako herri askotan, ez da mendebaldeko kultura berririk sortu, ez eta herri kontzientziarik. XIX mendean, gure karlista kontserbadoreak liberalismo horren aurka jarri ziren.

Gizabanakoa askatu behar lukeen ekonomiak askatasuna kentzen dio, eta gizabanakoa Nortasun Agiriko zenbaki bat bihurtzen da; hor ezin da egin, greziar zaharrek zioten “*Notis eoton*”ik, ezagut ezak heure burua, horretarako kulturazko baliabideak kentzen ari direlako. Ez dela bihurtzerik, buru ematerik? Ez dakit. Nolanahi, Munduko Merkatu Ekonomia horrek harritzen nau: kulturen gainerik, sinesteen gainerik, jende harremanen gainerik dabilen merkataritza zibilizazio honi nola aurka egin? Europa berri bat bilakaera itsu horren galga, freno a izan daiteke? Ala itxaron behar dugu, iguriki behar, mendebaldar ideologiaren aurka diren musulmanek, bihurtuz, beste bide latzatorik erakuts diezaguten?

Sistema liberal hori, zoritxarrez, burugabeko olagarroa dugu. Ez du nagusirik, buruzagirik, nahiz dakigun Estatu Batuetarik, kristautasunez estalirik, ideologia lauso baten bidez, malzurki datorkigula.

Zoriontasunaren, erosotasunaren izenean, gauzen menpeko jarri nahi gaituzte. Esklabotasun horren sarea kazetari handi, telebista eta politikari teknokrata indartsuak dira, nazioarteko bankuak. Estatu Batuek munduan zehar eskupean dituzten Heren Munduko gobernu kolaboratzaile aberastuak, herri ekonomia horren bazterretik, sasi-berdintasun baten izenean, sasi-aska-

tasun baten izenean ustiatuak, sustraigabetuak, batean lanez, besteetan gosez zamatuta bizi dira. Naziek eta komunistek porrot egin zuten totalitarismo unibertsalistak eztiki menperatzen gaitu, mundua supermerkatu bilakatzen ari da.

Estatubatuar ekonomia edo hango etxe erosketak ezteuz de-
nean, Europako Burtsak erortzen dira. Txarrena ere mendebal-
dekeria hori, euroamerikarkeria hori, mundu guztian banatzen
dugula: berdintasun baten izenean, ahulena ahulago jartzen,
itsuenak itsuago egiten gabiltza. Ez dago herri bat munduan, non
ez den Afrika edo Amazonia zoko-zokoan, estatubatuar jantzi,
janari eta edari, zine, telebista, *Disneyland* eta *Mac Donald's* hots
ekoizpenak irensten ez dituen. Halaxe, europar gazteak ere,
eskuan *coca* bat, *walkman*ean *Michael Jackson* mesias berriaren
meza entzuten. Koloregabeko gaztea da edo behintzat *jeans* bake-
ro uniforme urdinen kolorekoa.

Euskaldunok badugu hor zer pentsa. Ez da aski Porto
Alegre joatea, gero Karrantzaren paisaia legez desegiteko eta
progresoaren izenean industria adoratzailerik izateko: pozik, urtean
ekonomia hazkundera ehuneko horrenbestez gehitu delako.
Euskal ekonomista batzuek pentsatzen zuten ekonomia krisialdi
baten ekiditeko erronkak lehiakortasun eta mundializazio bideak
direla, hala egiten du Mondragonek. Euskal ekonomiaren etorki-
zunean ardatza industriak izan behar zuen. Bestalde, neokapita-
lista horiek enpresa kapitainik ez izatea deitoratzen zuten. Eko-
nomia Babel dorre hori noraino igoko da? Guk ez dugu ikusiko,
baina hurrengo gizaldiek kondenatuko gaituzte, *geozidio* bat gau-
zatu dakegulako.

Hölderlinek eta Heideggerrek aziatu, iragarri, Mendebalde
zahar baten ilunabarra heldu zaigu; eskaintzen diguten berria ez
zaigu komeni. Baloreak berriz gogoetatu behar ditugu. Nazioa
eraiki behar dugula diogu? Baina besteak irudi izateko, merezi al
du? Unibertsaltasunaren beldurrez, ez guke geure euskaldun-
goa itxi behar. Maiz idatzi dut, bisitatu ditudan munduko beste
herriez zerbait berri emateko; *Jakinek*, adibidez, ezezkoa eman
zidan Vietnamez idatzi nituen hiru artikuluei: geure zilborrari

begira gaude euskaldunak. Zorionez, kanpora begira daude euskaldun batzuk, *Argia* bere Neteko berriekin, *Maiatz*, *Napartheid* eta *Susa* aldizkarietako lagunak ere, ezen ia beti beren argitalpenetan munduko beste idazle askeen aipamenak, itzulpenak ematen direlako.

3.6. *Basa-gizonaren irudia: euskaldun hutsa edo "El vasco bruto"*

Gure bestelakotasuna onartzen ez zuten inguruko herriek, gure hizkuntza inolaz ulertzen ez dutenek, sekulako xenofobia erakutsi digute eta erakusten dute: euskalduna basakeriaren umea omen da. Hona bi adibide, bata oso zaharra, frantses batena: lehen Aymery Picaud frantsesak, Santiagora doala, XII. mendean euskaldunak nola ikusi zituen bere *Codex Compostelanus* horretan:

"Hec est gens barbara, omnibus gentibus dissimilis retribus et essentia, omni malitia plena, colore atra, visu iniqua, prava, perversa, perfida, fide vacua et corrupta, libidinosa, ebriosa, omni violentia docta, ferox et silvestris, improba et reprobata, impia et austera, dira et contentiosa, nullis bonis inculta, cunctis viciis et iniquitatibus edocta, Getis et Sarracencis consimilis malicia, nostra gente gallica in omnibus inimica.

Pro uno nummo tantum perimit Navarrus aut Bascos si potest Gallicum. In quibusdam horis eorundem, in Biscaglia scilicet et Alava dum navarri se calefaciunt vir mulieri et mulier viro verenda sua ostendunt. Navarri etiam utuntur fornicatione incesta pecudibus: seram enim Navarrus ad mule sue et eque posteriora suspendere dicitur. Nec alius accedat sed ipse vulve etiam mulieris et mule basia prebet libidinosa."

Hura da giza basatia, beste jende guztietarik oso bestelakoa, ohituraz eta izaeraz; zein-nahi gaiztakeriaz betea, kolore beltzekoa, begi izu edo ohilak ditu, okerra, faltsua, gaiztoa, hitzik gabekoa eta ustela, emakoia, mozkorra, indarkeria guztietan jakituna, anker eta basati, zuzentasun eta gizontasunik gabe, fedegabe eta gogorra eta liskarzalea, batere onik gabekoa, bizio eta gaiztakeria guztietan ikasia.

Godo eta mairuen berdin-berdinak gaizkigile gisa, gure jende frantsesari gauza guztietan etsai. Txanpon sos txar batengatik bakarrik nafarrak edo euskaldunak frantsesa, ahal badu, hiltzen du. Haien zenbait lekutan, Bizkaian eta Araban, nafarrak beren artean, berotzen direnean gizonak emazteari eta emazteak gizonari bere lotsariak erakusten dizkio. Bai eta nafarrak beren abereekin dabilta izorkerietan, zeren gauaz, diotenez, nafarrak bere mularen edo behorraren ipurdian lo egiten du, berak eta ez besterik inork izarra ez dezan. Bai eta emakumearen edo mandoaren aluari musua zikinki ematen (Aymery Picaud, *Codex Compostelanus*).

Gure arbasoak, beraz, Senaren eragabekeriaren umeak omen ziren, baina idazleak ez du kontatzen dena ikusi duela: noski, gure izterbegiek, gaskoi txistosoek, gaur ere horrelakoak kontatzen dituzte. Beste karikatura euskaldun ondoko den Carlos María Larralde uruguaiarrari zor diogu, 1966an *Un vasco en el Uruguay* eleberria argitaratu zuena. Euskaldunen arrakastaz eta aberasteaz bekaitz diren kreolek gure emigratuez kontatzen dituzten txisteak eleberriarren ardatz eta piper-gatz erabiltzen ditu. Liburuan tarteka ez balira, hemeretzigarren mende azkeneko errealitateaz lekukotasun jakingarriak, eleberri honek ez luke irakurtzea merezi. Halatan ere, osoki irakurri eta aztertu dut. Argitaratu dudana *Bosquejos vasco-uruguayos* (Zarautz, Dakit, 2000) liburuan aipamenekin eta idazle ez den baten eleberria zenbateraino baliagarri den ikus daiteke.

Eleberriko pertsonaia nagusia hamasei urteko Martin mutila da, Montevideoko portuan lurreratzen dena. Itxuraz tontoa, baldresa, euskararen kutsuarekin ezer ikusteko ez duen jende beltzen gaztelania hizkuntza batean hitz egiten duena. Uruguaitartzearekin eta deseuskalduntzearekin bere basagizon itxura galtzen du, gizon ederra bilakatzeko. Harrigarria da eta sinesgaitza euskaldun baserri batetik duela ehun urte baino gehiago atara mutil batek ez dakiala zer den Eliza, apaiza, Jainkoa eta Kristo! Horrela, "idazleak" bizpalau txiste kontatzen ditu. Sinesgaitz ere zaigu euskal mendietatik irten mutilak ez dakiala aizkora baten erabiltzen!

Hizkuntzarekin parada ederra da txistek kontatzeko: hogei urteren buruan gaztelania ongi ikasi ez duen (!!) Don Pedro euskaldun ostalariak honelako irtenbidea dakusa.

“La verdad ser que lo único que faltar a nosotros en nuestros pueblos de origen ser escuelas y enseñanza de español. Nuestra gran dificultad en esta tierra ser idioma” (*Un Vasco en el Uruguay*, 69).

Ez zen hain handia izan hizkuntza zailtasuna, euskaldunak beste etorkin asko baino hobeki atera baitziren. Montevideoko euskaldun industria gizon batek, Don Manolok, eleberri berean, luze eta zabal gogoratzen ditu euskaldun arrazaren kalitateak eta baloreak:

“Una civilización que, a fuerza de presionar, clavó en la mente de los individuos que la integraban un concepto definido de los derechos humanos, de la dignidad humana, de igualdad, de justicia, de libertad, de honestidad, de franqueza, de equilibrio mental” (aip. lib., 189).

Eleberrian zehar euskalduna ez dela beti zintzo, zuzen, egia-ti ikusten da, baina goiko erretorika teoriakoa da, eta azkenean gure Martinen zintzotasuna azaleratuko da. Martin euskaldun eredu gisa, langile, hitzezko eta elkartasunezko gizona izango da. Hala ere, “vasco bruto” horrek baditu animaltasunak?, senak? emaniko kalitateak, eta gorde behar lituzke, ezen Martinek, gaztelania ongi ikasi baino lehen, dio:

“Qué bruto el vasco! Si con nuestro esfuerzo estar ayudando a hacer este país. Traer trabajo; traer ahorros, espíritu ahorrativo, industria y comercio... Llegar a hacer también democracia y hombres todos con mismos derechos.” (lib. aip., 69).

Badakigu noraino joango den Carlos María Larralderen tesia, baina berak Martinen azken hitzekin eta “vasco bruto” izanak ikasi duen gaztelania zuzenean dio:

“Y los vascos como yo, por nacimiento y como tú por sangre, debemos honrar esta República y hacerla más República y más libre y más nuestra, ilustrándonos. La raza nos hace intelligen-

tes; honremos a esta raza haciéndonos ilustrados, capaces, útiles y aportemos esos atributos; inteligencia, capacidad, salud y fortaleza para contribuir al engrandecimiento de esta patria que cimentó Artigas y conquistaron los Treinta y Tres Orientales.” (aip. lib., 194).

Euskaldun basagizona, “vasco bruto” hori, ezin daitekeela gizondu, hizkuntzaz espainolduz eta bizimoldez uruguaitartuz baizik, erakutsi nahi digu bere eleberri tesian egileak, baina, kontraesanez, euskaldun kalitateak ez lituzke galdu behar. Ohitura-renak? Senarenak? Ala, gehiegi zehaztu gabe, luze aipatzen zaigun euskal zibilizazioarenak?

3.6.1. Basati izateko eskubidea

Ameriketean egoten naizen aldikal, hango amerikar zaharren, amerindiarren egoera kezkarri zait: behartuak dira zibilizatze-ra, erran nahi baita beren hizkuntza eta kulturen uztera. Halaxe, Kanadan gutxiengo diren Quebecarrek Kree edo Kazka gutxiengoko amerindiarren hizkuntza eta kultura eskoletarik baztertute. 1960.eko urteak arte, haurrak gurasoei kentzen zizkieten eta barnetegi frantsesetara eramaten; batzuek, lau urtetan “bildurik”, beren hizkuntza ahaztu egiten zuten eta denbora berean beren kultura. Eskandalua zelakoan, handik goiti eta 1960-1990 urte horien artean, alegia guraso amerindiarrak lanik gabe edo aita mozkorra zelako, haurrak zurien “etxe normaletan” adoptarazten zituzten. Gero, horrelako amerindiarrak Montrealen dabilta arlote gisa, esteiari gisa, ia lanik gabe, baztertutak eta hortik alkoholizatuak. Azken hamar urte hasi zitzaizkigun amerindiar jende horiek antolatuz jazartzen, beren herrian, beren hizkuntzan eta kulturen bizitu nahiz.

Kanadakoan basatasuna ez zen hain handia, ezen beste kanadarrek adina bazekiten bizitzen eta frantsesa edo ingelesez zerbait zekiten. Amazonian, berriz, oraindik badira amerindiarrak basoari, oihanari egokitutak, oihana dutelarik etxe, eskola eta bizibidea. Baina “basatien” eskubideak ezin onartzu, eta ehiztariak ez

duelako lurren jabetasunik, brasildar sasi-langileek eta baserritarrek hiltzen dituzte; berriki, Aniomani amerindiarrekin gertatu sarraskiaren ondotik, erreserbak eta FNAi babeslea sortu ziren. Hala ere, mundializazio txarra hor dago eta Salesiarrak eta Jesuitak herrietara etorri eta umeak urte baterako, familiatik urrunduz, barnetegietan “biltzen” dituzte, portugesez edo gaztelaniaz eskolatzeko. Eskola dohaineko hori uzten dutenean, ez dira gai oihanera bizitzera itzultzeko, ez eta eskolatu diren hirietan duinki bizitzeko, Québecen bezala azpiproletariatua handitzeko baizik.

Biarritzen, mediatekan, pelikula bat ikusi genuen: Zenoma amerindiarrei buruz; hogeita hamar urte haietan urtero bisitatzen dituen zinemagile baten pelikula zen, nola oihanean sistema zaharrean bizi diren amerindiar ehiztari biltzaile horiek.

Galderen puntua iritsi zenean, andrearekin urduri eta etsipenez egon ginen. Han zeuden “euro-français moyen” delakoek egin lehen galdera. Dirurik erabiltzen ote dute? Eta nola irabazten? Erantzun zitzaizen beren ekoizpenak trukatzuz ehizean eta arrantzan beharrezko zituzten armak eta labanak eskuratzen zituztela. Bigarren galdera, hari berdinetik zihoan: haurra lasai eta tapagai lu estu bat sexuan bizi zirenak ikusi ondoren, galdera bitxia. Nola egiten dute hurrei jantzi erosteko? Erantzuna izan zen ez zutela jantzi beharrik eta nagusiek bazekitela gerri inguruan jartzen zuten oihalaren chotzen. Hirugarren galdera, agian maisu laiko baten ahotik atera zen. Eta ez dira eskolan ibiltzen? Ihardetsi zitzaion haurrak lapurtzen zizkietela eskolatzeko. Beren ahozko literatura oso aberatsa zela eta oihanean bizitzeko nahikoa helburu eta arrazoi ematen ziela; bestalde, gurasoekin ikasten zituztela basoko eskola, oihanean bizitzeko eta irauteko teknikak, erran nahi baita, kasu berdinean europar bat bost egunen buruan gosez eta egarriz hilko zela, edo sugeek, beste piztiek hila. Zer bizi tristea duten? Erantzuna, zu eta biok baino askoz alaiago dira, anderea. Eta nola egiten dute sendagile gabe? Badakite xaman jakituri az sendatzen, andrea; kasu gogorra bada, hirira doaz, baina geroago eta haur gehiago daukate, helduek zuriekin zituzten

lehen harremanetan ehunka gaitzez hiltzen baldin baziren lehenago, orain osasunez kontraeusten direlako.

Aizu, Cardini jauna, jende horiek ez dukete erlijiorik? Ihar-despena: anderea, ez gurea, baina Zenomak animistak dira, eta, gauza eta izaki guztiek arima zerbait dutelako, badakite Izadiaren errespetatzen. Eta, jauna, noski Brasilek baketu ditu, beti bezala tribuak elkar hiltzen baitziren? Ezetz. Guduka bakarrak bi jenderen arteko auzi batzuetan gertatzen dira, batek bestea hiltzen du, baina ez da inor mendekatzen. Mendekua European aleman eta frantses tribuek gehiago eta neurri handiagoan erabili dute. Biarritzeko burgesen ahotik beste galdera asko izan zen, denak ideologia eta mendebaldekeriaz beterik.

Pelikulak ongi erakutsi zuen Zenomek zenbat sare eta zepo egiten dakiten, zein trebeak diren munduko ehiza teknika harri-garrienak erabiltzen dituztela, baina ikusleei betaurre gabeko, telebista gabeko begiak, entzuleei telefono gabeko jendeak, beste mundukoak zitzaizkien.

Muineraino inperialista garen europarrok ez dugu ulertzen beste gisaz bizi daitekeela, merkatu zibilizaziotik ia kanpo, eta, modernotasunaren izenean, etnozidioak obratzen. Basati bizitzeko eskubidea ez da legeztatua.

Senek oraindik zenbateraino ikusteko duen jendeen bizi nahian, bizia eman nahian, bere burua hil nahian, besteen hil nahian, sexu senean ez da erraz ikusten. Halaber, senaren eta ohi-turen arteko muga ez da beti garbi. Hala ere, piztiekin erkatuz noraino atzeratu den sena gizakietan ikusi dugu.

Senen garrantzia, jendeen harremanetan zer indar duen apur bat erakutsi dugu eta nola senezko den ninitik senak kontrolatzen dituen pertsonara igarotzen garen, nola familia eta erlijioa, aberria eta armada, eskola ere, senen hezteko erabiltzen diren.

OHITURAK

1. Ohiturak zer diren

Ohituraren mugatzea litzateke hondartza batean harri eta hondarren zenbatzea. Nolanahi, definizio antzeko zer edo zer eman behar. Aurretik, hondartzan urrats batzuk egin ditzagun. Ohiturak zer diren? Erritu, mito, sineste, teknika berezi batzuk gizarte antolakuntza bati lotuak. Ohituraren mundua askok *herrikoitzat* hartzen dute, nahiz burgesek ere beren ohiturak izan. Hamazortzigarren mende azkenetik dator *herrikoi* etiketa; orduan, erromantizismoarekin, herri abestiez eta dantzez arduratzen hasi zen. Britainia Handian, *fólklóre* hitzarekin batean, herri ohitura “hoberenen” biltzen hasi ziren, baina argitaratzean, nahiz Mac Phersonek, nahiz La Villemarqué zeltek, eta geroago Azkuek, testu hobetuak eta berek asmatuak nahasian eman zituzten. Garai berean, Wilhelm Von Humboldt, Boucher de Perthes eta beste bidaiari batzuk bizi moldeak, jaiak kontatzen eman ziren.

Ohitura gauza hedatuagoa da, ezen, sorkuntzaren berritasunez kanpo, *kultura osoa* har baitezake, bere nortasun ezaugarriekin, beste balore orokorretarik kanpo; hain zuzen, ohiturak dira gaurko globalizazioari gogor egiten diotenak eta herri baten bestelakotasuna egiten dutenak. Ohiturak ere idatziz bil eta *finka* daitezke; adibidez, euskal ohiturak foru idatziz legeztatu ziren. Lehen ohi-

tura ikertzaileek jantzei, kantuei, dantzei eta kirolei garrantzia eman zieten, gero jan-edariei, etxegintzari eta lan munduari eta azkenik gizarte egiturari.

1.1. Ohituren zahartasuna, antzinatasuna

Gizarte bizitzean ohiturak zer diren mugatzean, antzinatasuna, zahartasuna lehen irizpidea da. Jendeen oroimenak maiz zahartasun hori finkatzen du, baina herrien geografia eremua txiki, beren oroimena lauso, ohitura asko XIX. mendera arte edo eta XX. mendekoak izan daitezke. Adibidez, zuberotar ohiturazko tragedia edo pastoral delata eta, ohiturazko osagaiak maiz ez dira hain zaharrak. Barkoxtar pastoral errejent batekin Atharratzen, euskal bilera batean, eduki nuen eztabaida gogoan dut.

1. Ohiturazkoa eta oinarrizkoa dela zioen barkoxtarrak neska pastoralak eta mutil pastoralak bereiz egitea, neska-mutilen pastora-la ohituraz kontrakoa zela. Erantzun zitzaion Erregeren garaiko lege debekua zela eta XIX. menderaino antzeztalde misto guztiak, Elizaren moral aitzakiaz, eskumikatuak zirela. Beldur horrekin, honela eman zirela pastoralak. Bestalde, gaineratu genion apezek ez ezagutuak izateko –kofesio ukatzen baitzieten– jokalariaik, geroztik galdu ohituraz, XVIII. mendean aurpegia mozturoririk agertzen zirela. Hala idatzi zuen Egiategik 1785. urtea baino lehen.

2. Barkoxtarrak orain dagoen txaranga militarra ohiturazkoa zela eta ez zela aldatu behar, zioen, baina ez zekien ez zela hain zaharra, XIX. mende hasieran bi biolin, txirula bat eta ttuntun batekin ematen zirela pastoralak. Euskaldun gazteen intsumisioaren sendatzeko, frantses agintariak aholkatu zuten prozesioetan eta antzerkietan eta inauterietan gazteak militar jantziz eta musika militar zoritxarrezko horiekin ager zitezen, eta hori 1840tik goiti hasi zen.

1.2. Ohituren bakartasuna, baztertasuna

Zenbaiten ustez, Euskal Herriko ohiturak herria mendian zokoratua izatetik letozke. Hori diote kanpotarrek eta gogozkatu gabe errepikatzen euskaldunek. Gure kondaira berreskuratu dugunaz:

1. Euskal Herria ez dago Pirinio mendien gorenean, ez eta zoko batean, itsasoaren bazterrean eta mendiak errazenik pasatzen diren bidean.

2. Euskal Herriko bideak, Europa osotik lurrez penintsulara joateko, erosoena dira; hortik igaro zaizkigu iparralde herrieta-ko barbaroak, gero Santiago bideko otoizlariak, eta orain turistez kanpo Afrikatik sartzen edo Afrikara itzultzen diren milaka jende. Kanpotar asko gure artean geratu dira eta guretarik askok bide horiek hartu erbestera joateko. Honela, geografia egoera horrekin, teknika eta kultura trukaketa ugari eta berrikuntza askok euskaldunen ohiturak aldatu eta berritu dituzte.

3. Hala ere, kultura zioengatik, hizkuntzarengatik beste mendietan, batik bat Pirinioetan, beren nortasuna galdu dutelarik, gurean erromatarrek ez dizkigute ez hizkuntza ezabatu, ez eta ohiturak osoki aldatu ere: beraz, gure foruek, gure mitologiak gutxi dute ikusteko erromatarrek Okzitania Ekialdean eta Frantzia gehienean sartu dituztenekin.

1.3. Ohituren aldakortasuna

Kultura ohiturak. Nahiz pastorala nonbait XVII. mendekoa izan, 1905ean bakarrik eman zen euskal gai batekin eta geroztik ia denak halakoak dira. Ohitura, bai, berria ere. Beharbada, aldatu ez balitz, pastorala hilko zen. Baina aldatzeak ez ditu beti ohiturak salbatzen, aski da ikustea nola modernizatuegiz katalan *pastoreta* hil den, aldiz finkatuegiz bretoi misterioak berdin desagertu. Ausaz, moralaren izenean, pastoralak bezain zahar ziren *astolaster* ohiturazko fartsak galarazi ziren.

1.4. Ohituren bestelakotasuna

Zuberoara etortzen den edozeinek berehalaxe hautematen du kanpandorre edo zeinutegi bereziak badirela, pareta bat hiru trianguluz eta hiru gurutzez egin kalbario batez gainkatua. Eliza mota hori Zuberoan XVII. mendean Kontrarreformarekin eraiki ziren. Formula ez zuten zuberotarrek asmatu; Gaskonian,

Eugenio Goyhenechek erakutsi bezala, bada horrelako dorre bat (*campanario de espadaña*) XIV. mendekoa, eta bizpahiru hama-seikoak. Gaskoien berezitasuna da hiru trianguluak berdinak direla; zuberotarren ekarpena izan da erdiko triangulua, Jesusena, handiago egitea. Bestalde, Gaskoniako trianguluak aski astunak eta motzak dira eta Zuberoakoak luzeago eta dotoreago.

Zuberoan luzaro errepikatu eta hobetu da kalbario eredua. Bai, egiazko kultura ohitura gehienak ez dira ezerezetik abiatzen. Gure hilarri biribilak ere ez ditugu asmatu; zaharrenak, nahiz eta bakan-bakan aurkitu, Espainiakoak dira. Euskaldunok harrizko dintel batekin apaintzen eta geure estiloa sortzen jakin dugu.

Askotan, ohitura orokorra izanik, errituan ez da berdin; jakina, guk europar Donibaneko suak dauzkagu, baina Eskandinavian hortik kanpo mastak altxatzen dituzte. Britainiako Hezurtegi eta Kalbarioen osagai errenazentista edo gotikoak nonahi aurki genitzake Europan, baina ez bretoiek elkarretara bildu dituzten gisara eta neurrira.

Mezako sagan inarosten ziren txintxek, nahiz Inauteriko dantzarien zangoetan berdinak izan, ez zuten esangura berbera; mezan jainkoa deitzen zen eta dantzan txintxekin deabrua urruntzen.

1.5. Herriaren oroimena

Frantzian modan dago "*la mémoire populaire*" herri oroimena, baina fida gintezke osoki hari, berrogei urte baino zaharrago diren gauzentzat? Nik diot ezetz. Herri auzoan, Gaskonian, ezer gaineratu ez dietelarik, 1850etik goitik Poloniatik ekarri mazurkak, polkak eta aleman baltsak uste dute oso zaharrak direla eta benetako gaskoi dantzak. Ohitura, zaharragoentzat, beren gaztaroan egiten zena da.

Askok, herri oroimenaren hutsune horiek betetzeko, historia hobetsi dute, baina herri bakoitzak bere aintzarako historia idazten du eta guk, bi herri lapurren artean hartuak izanik, geure kondairako dokumentuak bakan ditugu, askotan sakabanatu edo

erre dizkigute; gainera, historia ez da batere objektiboa eta ez da beti ohiturei eta gizarte osoari interesatu.

2. Ohiturak eta animaltasuna

Jendeen senaz eta gizakiek animaliekin ditugun lokarriak aipatzeak ezker eta eskuineko metafisikarientzat oraino biraoa dirudi. Horrela, harroputz batzuek, biologia zer den jakin nahi ez dutenek, giza bilakaera zer den ulertu gabe, Darwinnek gizona oraingo tximinoetatik zetorrela esan duela aldarrikatzen dute. Eta hala balitz ere zer? Euskaldun olerkari bat Darwinnez eta animaltasunaz idazten hasi zenean, irakurri ez zuenarekin ez zebilen zuzen, baina Euskal Herrian ohituak gara dantzari batek onomastika egitera, kartero batek historiaz idaztera eta poeta hutsak biologiaz. Halakoek beren garaian Galileo kondenatuko zuketuen. Jakina, eskolastikak espezien arteko, kenteen arteko mugak ipini zituen. Bizidunen ez aldatzea ontologikoki oinarrizkoa eta besteak baztertzeoaren logika hutsekin, jakintzari bidea moztu zion. Gaur ere ez ote gabiltza, unibertsalen aitzakian, gizon eredu bakar baten sortzen?

Mutur batean, espiritualistek gizonaren animaltasuna ukatzen digute; bestean, biologista zenbaitek gizonaren gizontasuna, baina: "animalia osoa gizonaren barruan baldin badago, animaliek ez daukaten zer asko gizonak edukitzen dituela", zioen Lao-Tseuk. Jakina, jendeak eta tximinoak ez gara jatorri-adar berdinekoak, enbor berdinekoak bai, ez gailur berdinerara helduak: adigaiekin, animaltasunetik urruntzen gaituen leizea sakondu dugu, baina ardi baten eta tximino baten artean leizea handiagoa da.

Gure konpainian hezi tximinoak Izadira itzultzen direnean, hiltzen ez badira, basa-tximinoekin asko ikasten dutelako frogak ditugu. Darwinen ondotik, zertan den jendeen eta tximino handien arteko leizea, ez gorputzean jakina, guk bezala odol motak dituztelako, bederatzi hilabeteko haurdunaldia, emeek hileko

odolak, sexu bizi jarraitua guk bezala, esku bat eta genetikoki geneetan oso arte txikia dagoela, baina arte hori burumuinean dagoenez, leizea da.

Amezlan jaunak tximinoei gorren, elkorren esku keinuzko hizkuntza irakatsi zien. Tximino horiek lortu zuten edozein jenderekin bezala galdera eta ezezko perpaus bakunen egitea, baita S.V.O. arrunta ere. Adibidez, txinpantze batek buruzagiaren besoetan katua ikusi zuen lehengoz eta keinuz esan: “ni besarkatu katu” (ez dute, agian, espainolen gisa, tximuek ergatiboa ezagutzen). Bakanki, azken garaietan hitz elkartuen egitea erdietsi zuten: lehenbizikoz uraren gainean txoria ikusi zutenean, urtxori keinua asmatu zuten.

Jakina tximinoak mugatuak direla, jakintsuena berrehun bat keinu-hitzetara iritsi da. Animalien pentsaeraz, ohiturez, ikerketarik egin da. Esate baterako, Gardner senar-emazteek beren txinpantzeekin erakutsi zigutena jakingarria da: Gardner senar-emazteek tximinoak beren haurrekin hazi eta hezi bazituzten eta bi urtetaraino jende umeak baino lasterrago esnatu baziren, adin horretan gelditu ziren eta jendeen umeak hitz egiten hasi. Patterson andereak, bere alde, emaitza berdinak izan ditu, baina txinpantze horiek, ez batenak, ez besteenak, umerik izan ez zutelako, ezin dezakegu esan tximinoek beren ondokoei irakatsi liezaieketen horrenbeste. Haien adigai edo irudi-kontzeptuez ez dakigu ezer. Esperimentu horiek, aitor dezagun Ipar Amerikan eskandalu gorria piztu zutela, hain dira herri hartan kristau integrista talde txikiak indartsu: ebanjelikoek eta beste genesisia eta Biblia eskuan biologia egin nahi baitute.

Gizonaren gaitasuna, goientasuna, zati handi batean, bere hizketa eta moldapenetik dator; jakina, genetikak eman dizkion oinarrizko gaitasunekin dago. Ez da frogarik titidun argienak gai direnik jendeekin ikasia beren umeei irakasteko. Jendeak ikurak baditu, hizkuntza, idazkera, informazioaren gordetzeko eta hobetzeko, sailkatzeko ahalmena. Gizonaren sormena ez da bakarrik lo zeudenak iratzartzea, garatzea, baina osagai arrotzekin, desberdinekin, nahasiekin osotasun berri baten egitea.

3. Ohituren sortzea

Hogeigarren mendean, Euskal Herrian hainbat ohitura sortu da: kantaldiak, bertsolari txapelketak, trikitixa lehiaketak, euskal Rocka. Herri batek ez badaki kanpokoak moldatzen, haren ohiturak museora doaz eta telebistak erakusten digu, denen gisa izateko, nortasun gabeko kultura mundial ez ipar amerikar hobereana, txarrena baizik hartu behar dela. Hala, Filipinetan ia ez da hango kanturik hango hizkuntzetan entzuten, iparramerikarra aberastasunaren, indarraren eredia delako, denetan angloamerikarren produktu txarrenek hangoen musika hil dute. Vietnamen, nahiz amerikarrekin borrokatu diren, jendea amerikartzen ari da, bizimoduak eta aisialdiak telebistan ikusi pelikula arruntenetan hartuz. Jakina, txarrenean ere badago zer balio duena, baina kultura eredu ugartasuna eta bestelakotasuna dira dogma guztiei ihes egiteko bidea.

4. Ohitura zapalduak

Ingelesek kultura eta zibilizazioa bereizten zituzten. Kulturaren sartzan ziren bizitzeko behar-beharrezkoak ez direnak: dantzak, jokoak, kantuak, kirolak, literatura, musika, plastika, sines-teak; aldiz, zibilizazioan, jatea, edatea, berotzeko, etxe egiteko jantzeko, sendatzeko teknikak. Banaketa horretan, elkarren arteko harremanak daude, gorputzarena eta gogoarena bereiztea ez baita erraza. Eta non sartu litezke erlijioak, hizkuntzak, legeak? Biak nahasian dituzte. Ohiturak ez dira ez osoki kultura horretan, ez osoki zibilizazioan. Ohiturak maiz kontserbatzailetzat jotzen dira. Herri handiek eta gehiengoek diote herri txiki eta gutxiengotuek beren ohiturak utzi behar dituztela; horretarako, frantsesek duela gutxi "citoyenneté" hiritarzaletasuna adigaiak erabili dute, eta "identité" nortasunaren aurka jarri, frantses ez den nortasunen ghettoetarik ateratzeko. Halaber, espainolek ere euskal komunitarismoa gaitzesten.

Identitate erreflexua bakarrik gutxiengoek genuke, baina haiek, beren identitatea inposatu nahi digutenean, “citoyenneté” hitzaz estaltzen digute. Gaurko Europan, Frantzia batik bat eta Espainia ere uniformizatzearen alde daude, eta berena utzi gabe besteen nortasunaren galarazten zekitenek hizkera berri bat asmatu digute. Euskaldunak izan ala afrikar, frantsesentzat berbera, eta entzuten dugu:

1. Euskaldunek ez dute kulturarik, beren idazkerarik, beren alfabetorik ez dutelako asmatu (Paueko Alain B., Zuzenbideko unibertsitaria).

2. “Esan nion Leizaola jaunari euskaldunek beren ohitura basati eta hizkuntza atzeratua utziz hobe zuketela espainol zibilizazioan parte hartzea” (Sánchez Albornoz).

3. Afrikarrek ezin dute beren hizkuntzetan pentsatu, nola-nahi ez dira gai pentsatzeko (F. Krutwig) afrikarrak jakintzarik hizkuntza argi batean, beraz frantsesez idatzi behar dute (A. Touraine). Goiko arrazek behekoak zibilizatu behar dituzte (Jules Ferry, ezkerreko errepublikarra). Frantses hizkuntzan, aski da gurutzegrametan saiatzea ikusteko bere adieretan eta homonimietan ez dela eredu, hizkuntza hori baino anbiguoagorik ez dago, non ez den errusiera; lausotasun horregatik erabiltzen zen frantsesa diplomazian. Eta hori afrikarrei eskaintzen?

4. Gure kultura, gure teknikak, gure erlijioak hobeak direlako, afrikarrei, amerindiarrei gainjarri behar dizkiegu, beren ohitura txarrak kendu. “Ezin da jendeen erdia, ilunpean utzi” (Baionako lege jardunaldiak, 1990eko apirilean). Beraz, ohiturazale diren horiek ere frantses kultura (omen ohitura gabekoa) onartzen zuten. Ez zekusaten zer kalte egin zezaketen, zer nahaspila sor Afrikan hangoei beren ohiturak galaraziz. Aspaldian idatzi zen “*L’Afrique noire est mal partie*” eta “*Le portrait d’un colonisé*”, baina “*le pays des droits de l’homme*” eta “*la patria del Quijotek*” herriak mundua zibilizatu behar dute. Ez uste herri handia izan behar dela horrelako gogoeten edukitzeko. Groenlandian, Daniarrek berriki adibide ona eman digute. Han bi egunez ikusi ditudanak jakingarriak izan zaizkit.

Lehenik, ehizaz bizi ziren Inuit jendeak daniarrek kokatu, lekutu dituzte, arrantzale bilakatu eta ordaintzen dira arrantzara joan daitezzen. Beren kulturatik gabetu horiek, alkohol merkeen saltzea garatu delako, gizonak diru hori edaten xahutzen dute.

Bigarrenik, Danimarkako etxeen antzekoak egin dizkiete, etxe berotuak eta kanpoan egiten diren hotzekin askok tuberkulosia bildu. Azken eritasun horren berotzailea alkohola delarik.

Hirugarrenik, hasieran cowboy jantziak (bakeroak) gazteen artean modan jarri, hotzak neguan anorakera eta larruzko jantziak itzuli arte.

Laugarrenik, protestantismoa inposatu dute beti bezala, eskolaren eta medikuntzaren trukean.

Hala ere badira daniar batzuk eta hangotarrak Inuiten kultura balioez arduratu direnak, haien ohitura, sineste, teknikak bildu eta mantentzen saiatu. Hizkuntza bera, latin grafiaz, irakasten da eta badute hain gutxi direnentzat aldizkari elebiduna, *Paarisa* eta *Samatiak* egunkaria, han erosi nituenak. Eskolan, irratietan, leku ederra dauka inuit hizkuntzak, herriak autonomia edukiz geroztik herritarrak bihurtu eta bere kulturaren alde itzuli direlako, kantu zaharrak bilduz, berriak eginaz, dantzak irakatsiz.

Herri batzuetan, gaurko industria eta merkatu gizartera egokitzen direnean, lekuko kulturak amore ematen du amerikar azpikultura bat hartuz. Hizkuntza eta kultura batzuk besteak baino sendoago dira, Asiako Bharat-Indietan, Japonian, Singaporen, Taiwanen, Vietnamentan mendebaldeari teknikak hartzen jakin dute eta hein batean beren ohiturak gordetzen. Esan dezakegu eta, New Yorken 2001eko irailean gertatua baino lehen, herriak berez globalizazio mota bati bihurtzen hasiak zirela.

Garai batean eta, Frantziako aberria zer zen ahaztu zuten euskaldun askok zernahi estakuru eta aitzakia bilatzen zuten soldaduskaren ez egiteko eta frantses "coopération" neokolonialistan sartzen: irratiek neokolonialismo zibilizatzaile helburua gazteei eskaintzen zizkieten, armadaren egiteko ordez, Afrikara joatea hangoei gure teknika, ohitura eta hizkuntzak irakastera, hots, misiolari laikoak. Malin ikusi nuen zer kalte egin

den, eta nola neokolonialismoaren kontra jarri diren berriki Maliko emakumeak.

Frantziak –Estatu Batuek bezala– askatasunaren argia, zibilizazioaren argia izan nahi du. Hemezortzigarren mendeko Iraultza etengabea aipatzen digute eta, okerki, beren ilustrazio edo “*Lumières*” delakoekin lotzen. Beren ohiturak ez dituzten jendeekin, frantsesak bi moduz portatu ziren: antzinako kolonialismoan ez zituzten gizarte egiturak aldatzen eta frantsesa eliteari baizik ez irakasten; denbora berean, benetan konkistatu eta eskupean zituzten bere inguruko auzo nazio txikien asimilatzen lan gaitzik egin zuten. Frantses errepublika inperialista bere alsaziar, bretoi, katalan, korsikar, euskaldun, flandestar eta okzitanoei hiru balore gisa behartu hartzera: Liberté, Egalité, Fraternité.

1. *Liberté*. Askatasuna, bai frantses aitortuz geroz. Parisen, Europako itsasargi, munduargi den horretan, irakasle lankide batek, G. Echaudemaison gaskoi frantsestuak, esan zidan: “zer-gatik hasi zarete, hilik zeuden hizkuntzen berpizten, Frantziaren desegiteko?”.

2. *Egalité*. Berdintasuna. Ez da eskubideen berdintasuna, denak berdin izatea da, denak hizkuntza berdinekoak, denak ohitura berdinekoak, denak lege berdinekoak, uniformizatuak, hots, ez integratuak, asimilatuak baizik. Besteak zu bezala ez direla ukatzea ez al da arrazismoaren ideia traketsena? Horrekin, ezkerreko Chevènement-etik eskuineko Pasqua, De Villiers eta Le Pen-eraino jakobinoek edo Juaristi, Sánchez Albornoz edo Savater, Semprún laguntzaile espainolistek polizia eta lege indarrez buru gainetik behera jotzen gaituzte. Berdintasun horren ize-nean, herri bezala askatasuna galdu dugu.

3. *Fraternité*. Anaitasuna. Bai, Frantziak Ipar Euskal Herria askatu eta zibilizatu omen du. Hala zioen nire lankide komunistak, historia geografía irakasten zuenak eta Lapurdiko Kanbon jaio erdaldunak. “Gu gabe, oraino idiekin ariko zineten lanean eta ez traktoreekin.” Nire erantzuna ez zen haren mailakoa izan. Erantzun nion Ameriketatik itzuli euskaldunek eta Alemanian preso egonek gure nekazaritza gaurkotu zutela Massey-Harris eta Klaas makinekin eta traktoreekin eta ez Renault delakoekin.

5. Ohituraren aldekoak eta etsaiak

Ohituren etsai eta desegileak Euskal Herrian frantses jakobino diren euskaldunak izan ditugu. Historiaren eta ekonomia-
ren ideia fimiñorik ez daukaten soziologo batzuek euskal familia
eta ondarearen ezin zatitze hori bidegabekeria hutsa bezala sala-
tzen digute. Marcuse amerikarraren asmoen ondotik, frantses
eredua eskaintzen digute, ondarearen barreiatzea, jendeen saka-
banatzea, “aita-amak eta haurrak” sendi eredu motza emanaz.
Argi dago J. Egiategi, M. P. Arrizabalaga eta besteren ikerketen
arabera, euskal familia ez zela ez Elizak ederretsi ez eta soziolo-
goek kondenatu hura: aitzin-iritziak utzirik, dokumentuetara
itzuli behar da. Lekuan lekuko aldaketak baziren, eta badakigu
sistema osoki hetsirik ez dagoela.

Euskal familiaren jorratzaileek familia zabalagoaz badakite
baliatzen beren frantses ereduko gauza txiki hori desegiten de-
nean. Izan ere, ohitura guztiek badituzte beren akatsak, eta ez
dago akatsik gabeko familia eredurik, baina frantses eredu hori,
azkenean, Ameriketatik joan den mendean ekarriak, familiaren
zartatzea ekarri du. Langabeziak, ostera, beste balore batzuk de-
sestaltzen dizkigu, hala nola Euskal Herrian beti ezagutu dugun
aiton-amonen eta osaba-izeben elkartasuna, kanpoan, kalean,
Egoitza Finkorik Gabe (S.D.F.) bizitzen ez bukatzeko. Zorionez,
bai, gizarte egiturak legeak baino malguago dira. Legeak ohitura
onen ondotik dabilta eta ohiturei malgutasuna kentzen.

Legeak eta arautegiak ez dira beti errespetatzen. Adibidez,
frantses legepean bizitu arren, ipar euskaldunek eta alsaziarrek ez
dute ohitura eta mentalitate berdina: euskalduna ehizan amorra-
tua da, ehiza galarazteraino, geroari pentsatu gabe; alsaziarrak
erreserbak egiten ditu, eta beren herrian ehiza ugari dago. Ohi-
turaren izenean ere, Europako legeak izan ala ez, Ondarroatik
edo Lekeitiotik Britainiaraino doaz arrantzaleak.

Frantzia Baserri kodea (“Code Rural”) badago, nekazariek
zikindu errepideak garbitu behar lituzketela, errekek ere garbitu,
simaurrik ez ipini bide ertzetan eta erreka ondoetan eta abar. Behin

Santa-Graziko zuberotar bati, zinegotzi bati, aipatu nion; ez zekien bazenik ere horrelako legerik. Ohituraz ere, kontzientziaz baino gehiago, euskara iritsi zaigu, kontrabandoz, hogeigarren menderaino, legearen izenean, hainbeste maisu erabili delarik euskararen galarazi beharrez Frantziaren edo Espainiaren handitasunerako, gure laborantza behartsuak besoak behar zituen lanean eta ez eskolan.

Zer zioten Elizak eta Armadak ohiturez? Gehienak ohiturazale, baina kontserbatzaile. Ohitura ezin zen aldatu, bere egonkortasunak berena ziurtatzen baitzuen. Bestalde, aberri bakoitzak bere ohiturak ederresten zituen eta besteenak gaitzesten. Lan erraza, auzoen arteko ezinikusiak oroitzen baditugu.

Tradizionalista edo ohiturazale hitza darabilten jendeak Ertamerikako militar batzuk izan dira, baita gehiago erlijioak beren moral kode eta ohiturekin; hala dira Amish protestanteak, Lefevreren katolikoak, Bushen ebanjelikoak, Jehovaren lekukoak eta areago Xaria lege gogorra aplikatzen duten hainbeste herri: Afganistan, Arabia, Iran. Sarritan, horrelako ohituren izenean, militarren eta erlijiozale mota horien artean lokarri estuak daude. Horiek guztiek, ohiturazale integristek edota ohituren etsaiek ulertzen ez dutena da geografia eta klima bati, demografia eta teknika ezagutza maila bati erantzuteko direla ohiturak berritzen, antolatzen edo gordetzen. Ohiturei eraso handienak nazioarteko merkataritzak eta diruaren mendekotasunak egiten dizkie. Garaikide eta moderno izateko, non-nahi Coca-Cola, fast food-a eta amerikar musikak, jantziak, joko berriak nagusitzen dira. Antzina, herrialde batek bere nortasuna bere jantzi, jan moldeetan agertzen zuen. Euskadiko Irratiari zergatik kantu gehienak ingelesez botatzen zituzten galdetu genienean, "gazteen demanda" zelako egiten zutela, erantzun ziguten; gero, Euskadi gazte-irradi amerikartua egin zen. Munduan ehunka musika mota dagoelarik, eta estatu-batuar musika onak ere, angloamerikarra modernotasunaren seinale bilakatu da eta Vivendik amerikartze hori hedatu nahi du.

Ohituren ikertze honetan, Afrika eta Amazonia dira erakuspen hitsenak, deitoragarrienak, misiolariak, irakasleak beren desegite lana jarraitzen dutelako: zibilizazioaren izenean eta europar

“argi” batek esan duelako zibilizazio guztiak hilkor direla, europarrok zibilizatzearen izenean hiltzen ditugu besteenak. Afrikar kolonia ohien egoera lotsagarria da. Diruaren indarrek hango nekazaritzak kolonia garaian baino gaizkiago edukitzen dituzte. Europarrentzat probetxugarri eta emankor diren uztetara bulkatuak, jende beltzen ziren janari eta ereintzak galarazten, erdigosea eta mendekotasun berria ekarriz. Garai batean kotoiaren uzta bakarrari lotu zirenek, salneurriak jaitsi zirenean, erreka jo zuten, halaber aratxidekin. Afrika laguntzen dela? Bai, beren berjabetasunaren izenean Europak bidali subentzioak funtzionario eta diktadore batzuen gizontzera doaz. Harrigarriagoa, Afrika labore eta janari-edari inportatzailea bilakatu da. Europartu hango elite beltzak ezin dira bizi gure ogi, gure ardo, gure gaztarik eta Mercedes beribilik gabe.

Batik bat estatubatuar politika laguntzaz eta militar aholkuz, boterean “zuritu” diktadore beltz batzuk eradukitzen dira. Azken urteetan gertatu erresistentzia baten bidez, hango hizkuntzek doi-doia burua eraiki dute, baina idatzian oraindik frantsesa, ingelesa, gaztelania eta portugesa nagusi, alegia afrikar hizkuntzak ugariegi direla, nahiz jende bakoitzak bizpalau ezagutu. Afrikarrei buruan sartu zaie ohitura zaharkitu, atzerakoi batzuekin bizi direla. Halatan ere, han-hor, familia eta bereziki herrixka elkartasun egiturek, hirietan auzotegi erakundeek, animismoak, beren musikek eta dantzek oraindik diraute.

6. Ohituren ukapen zuzena

Estatu Batuetatik etorri zaizkigu ukatze batzuk. Europar ezkertiar edo ezker antzeko taldetxoek, gose handi batekin eta Europarren ahuleziaz baliatuz, Marcuse edo Illitchen irakaspenak nolanhika onartuz, heziketa eta familia antolakuntzak zalantzan jarri zituzten.

6. 1. *Sexubideak*

Sexutasunaren Agiria izeneko aldarrikapena Parisen 1968ko maiatz ospetsu hartan idatzi zen. Existenzialista zenbaiten ideiak

(Simone de Beauvoir), Marcusenarekin eta Marx eta Hegelek joan den gizaldian familiaz, lantzean behin, zuzenez esanak nahasiz, aldarrikatu zutena hauxe izan zen nagusiki: baloreak gezurrak direla, gezurra familia, gezurra heziketa eta eskolak, gezurra kultura ere eta xehekiago hona zer:

—Sexubideak, orain, zapalkuntza sistemaren osagaiak dira.

—Moralaren bidez, sexu energien (senen?) desbideratzeak, zikiratzeak, endakatzeak sexubideen kapitalismo batera eroan gaitu.

—Bikotea iraunkorra datekeen erakundea bilakatzea gizakien alienagarria da, ezen bi jenderen artean sortu lokarriak, kapitala bezala, lapurreta hutsak baitira.

—Burges familia eredia ez da onargarria. Beste eraketarik izan liteke, horien artean familia zilborrestea motz lezakeena.

—Ernalketa haur edukitzeko zepo hutsa da, gaur senar-emazteak haurren biktimagintzan kideak baitira.

—Izpiritu alienatuen gogoan liluraz gordetzen den ezgauza da familia.

—Ez dago ez aitarik, ez amarik, jende bakoitza senarra, emaztea eta haurra delako.

Bitxi da zein diren “judu-kristau” ohituren aurka amorratu ki mintzatu Bednarik, Bettelheim, Marcuse, Mendel, Mitscherlich. Aitaren aurkako jazarpena aldarrikatzen zuten, aita askok ia beren rola galdu zutelarik, eta abereen gisa, taldean bizitzea eskaintzen. Nahiago ditugu filmetan Woody Allenek amerikar familiez egun umorezko azterketak beste profetenak baino.

Ez da aisa jakina, batez ere gizarte eta jendeen jakintzetan, bakoitzak bere gizartearen kontuak garbitzea. Gizarte berezi batetik lurzabalera balio lukeen legea ateratzea ez da jakintza, unibertsalkeriaren dogmatismoa baizik: monarkiak, monoteismoak baztertu ondoren monozibilizazioak, pentsamendu zuzen baka-rrekoak eskaintzen zaizkigu eta liberalismoa askatasunarekin nahasten.

Jakina, goian aipatu ikerlari horien azterketek Ipar Amerikarako balio zuketean, baina ondorioek argi erakutsi dute

eskaintzen zutena ez zela obratzen, eta “komunitate” erkidetza delakoek familiek baino arazo gehiago sortzen zutela. Teoria horien ahulezia handiena da sekta moda guztien argudio bilakatzeko direla, baita laxokeriaren aurka egiteko integrismoak sortzen. Illich eta Bettelheimen ondotik, Estatu Batuetan haurren zapalkuntzaz asko hitz egin zen eta orain Europan modan.

Nik uste, zapalkuntza bada milioika haur txikik jasaten duten miseria eta bortxazko esklabo lana da ez sabela bete, erosotasunean bizi diren estatubatuar ume zorro handiez jardutea. Sendi askotan, Ameriketara, dena zilegi eta debekurik ez zela behar, belaunaldi berri bat agertu zen. Gurasoek aske utzi haurrak, arazo eta buruhaustez zamatua, argienak izan ezik, gaixotzen ziren, hortik suizidioak.

Biologialari ez ziren ikerlariek eta gurasoek –izadiaren ize-
nean– animalien gisa aske uzten zituztenek ez zuten ikusi nahi animalien artean ere gurasoek umeei heziketa bat ematen diotela: ekintza guztietan mugak daudela, oztopo eta zailtasunen gainditzen ikasi behar dela; hots, predikatzen zutenean, ez zekiten benetako animaltasunaren eta jendetasunaren aurka joaten zirela. Gizarte desegite horren aitzakian, puritanoen haize integristak piztu ziren eta, alderantziz, andreekin eta umeekin, beste mutur gogorrera doaz guraso batzuk. Bai, sena non dago hor, ohitura zer da, buruak berotzen direnean? Malraux-ek esan zuen XXI. mendean “ce siècle sera spirituel ou ne sera pas”. Baina kezkatu gaude: ez ote da izango sekta eta integrismo mota guztien mendea? Euskal Herrira itzuliz, J.M. Satrustegirekin bidea har dezagun:

“Gai izkurturik baldin bada herri jakintza mailan, sexu heziketakoa dugu bat. Puntu trakets eta labaina bezala hartu ohi izan da eta ezin zen hortaz hitzik egin onezko jendeen artean. Galderarekin bakarrik, lotsa gorriak zimurtzen zituen ezpainetan erantzun guziak. “Tabu” ilun horren eltze mutuan erraz sundurak sartzerik ez zegoen. Gordailu kutun ezin esana bezala zedukan, norberak bizigintzaren iturrirako bidea” (J.M. Satrustegi, *Euskaldunen seksubideak*, Jakin, Oinati, 13).

Eta gai hau ukitu zuelako, XX. mende hasieran Lafittek Etxepare medikua zentsuratu zuen:

“Bizkitartean ez dut uste baden mintzai bakar bat eskuara bezain minbera denik, derabiltzagunen erraiteko; lotsa da; nahia-go luke egon ixilik. Eskualdunak, izan dadin gizon ala emazte, badu halako herabe bat amodiozko zerez mintzatzeko. Bakan adierazten ditu, erdi hitzez orduan ere, ardurenik ez jakinarena egiten duelarik. Hortan, goraki diot eta atseginekin, gizonago da frantsesa baino (Etxepare, *Buruxkak*, aip. lib. 14).

Jakina, sexu arazoen isiltzearen eta askatasunaren izenean jendartean dena erakustearen bi mutur horien artean ikertu behar luke jakintzalariak. Satrustegik *Euskaldunen sexubideak* liburu horretan ohitura zaharrean bizituek zer dioten beren lehengo sexubideez kontatu zigun; beste liburuan, *Ekaitza* delakoan, aldaketaz mintzatu zitzaigun.

6.2. *Obituren hiltzeko: masa kultura*

Gaurko gizarteari kalte handiena egin diotenak ez dira goian aipatu pentsalariak, baina haien dizipuluek eta ekonomiaren onuretan horien baliatzen jakin izan duten “circenses”eko oste komunikabidetako aprobetxategi sotilak. Erabilka eta teknika antzetsuak erabiliz, modaren korrontean bizi diren komunikatzaile arrain gizen horiek dinamika guztien beren onurako zikitzen dakite.

Mass-medietako saiak azalezko adiskidetasun beharrezko batean dabilta eta nola diru egingo duten gogoan; harreman irudipen horretan, besteenganako eta komunitatearenganako axola eta begirunea galdu egiten dituzte. Adibide ederra da ikusi duguna, Kopenhagen ikus daitekeen lurzabaleko herri aske bakarra, urtean milioi bat turistaren dirutik bizi dena, antzerki ederra, baina bakarra.

Antzina informazio urriegiz zeudelarik, gaur gehiegiz, hala-ber ezjakinetik komunikapenera igaroarazi gaituzte. Ikusgarriaren mende gezurtia, batik bat, telebistako albistea da. Jende

gehientzat irudiak objektiboa dirudi: telebistan ikusi dut, neure begiz ikusi dut, sinesten dut eta horrekin kritika itotzen da: ez al da hori gertatu, nahikoa beltz zen Ceaucescu errumaniar diktadorearen aurka Timisoara (Temezvar) delako herrian gertatuak “muntatu” zirenean? Golkoko gerratearekin berdin. Jendeak ez daki, zuzenean zerbait gertatzen bada ere, kameramanak nahi duen ikusgarriaren zatia hauta lezakeela. Zuzenean emana ez denean hainbat txartoago: muntaketa egitearekin, ebaki, antolatu, azeleratu, baretu litekeelako irudia.

Jendeak uste du asko dakiela telebistan ikusi duelako, baina elur hotzean haizearekin ibiltzea eta telebista aurrean eserita bero-pean egotea ez da berdin. Ez da bizitzen ikusten dena, beraz, ezin da iritzi onik izan, ahalegina, nekea, dolorea elite baten gauza bilakatzeko delarik, marka bat, erronka bat. Horiek aski ez bailiran, umeei japoniar marrazki bizidun askorekin, telebista ikusgarri latz, bortitz, odoltsua eskaintzen dizkiete eta helduei hirugarren mailako pelikulekin; halaxe, jendeak uste du beste herrietan gauzak gaizkiago dabiltzala eta “bai, herri honetan, sistema honetan, zoriontsu bizi gara” aitortzera daramatza. Eta ez aipa “reality show”en apalkeriak, irudimena, kritikaren zentzua kentzeko eginak. Jendea irudiekin sorgortzen da eta kontzientzia ona ematen zaio.

Sogileak uste du, telebistan zerbait ikusi duelako, parte hartu duela, zerbaitekin harremanak izan dituela, baina bere bakartasunean itxita dago. Bera mutu eta telebista hitzegile, eta alboan dauden lagunak isildu behar telebista horren entzuteko. Endekatzearen bilakatze satorra hasia da.

Telebistaren kulturak, sarritan, irudi faltsuak, ikusgarri mo-zorroituak ematen dizkigu eta, Dallas serie ospetsuaren bidez, Iraultzak baino hobeki eta gaizkiago, mundu guztiko proletarioek indarkeriaren eta berekoikeriaren irudietan bat egiten. Errealitate apurto horren emateak, irudien ugaritasunak, geure sustraitarik, geure ohiturengandik moztu ere gintzake. Ipar-merikar ereduak, gogamenetan, bizimoldeetan sartzen zaigu. Txarrena da albiste eta berri guztiak maila berdinean tratatuak direla, kritika gurak itoaz, eta jendea bidegabekeriari ohituz.

Publizitateak lagundurik, gure bizitzaren hipergauzatze batera garamatzate. Publizitatearen emaitza zepo traketsa eta malzurrena da, ez duelako inolako benetako jakingarritasunik, benetako xehetasunik ematen ez duelako. Saldu nahi dizutena normaltasunezko eta beharrezko erakusten digute. Askotan, badirudi publizitateak bere buruaren publizitatea egiten duela eta suge ospetsuaren antzean bere isatsa jaten. Komunikabide horiek artaldetzera garamatzate, eta kalean ere gaudenean, bakartasunean amiltzeko, *Walkman* delakoaren bidez jendeak kontaktuari ihes egiten dio. Interneteko bideojoko asko ere horrelako engainuak dirateke.

Denekin, jendea kontsumitzaile eta jasankor bihurtzen da, ez eginkor. Sortzaileak geroago eta gutxiengo itxia dira, besteak geroago eta bakarrago *mass-media* horien esku. Horrela, edozein pentsalariren hitzaldiek baino hobeki, tresna horiek ohiturak desegiten, nibelatzen dituzte. Ziurtasunik gabeko mundu batean amets droga bilakatu da.

Herri iritzi, zundaketa eta ikus-entzuleen estatistikek, lane-tik landako eskarmentuaren, bizitzaren lekua hartzen dute. Ez dakigu zer diren gauzak, baina zer pentsatu behar dugun bai. Ez gara lagunekin bizi komunikatzen ez badugu. Futbola dela-eta, kale desertuetan gaindi, hitzaldi eta kontzertu desertuetan jendea bilatzen dugu, gero harekin hitz egiteko. Alferretan.

Hemeretzigarren mendeak argazkia eman zuen, hogeigarrenak urrutiko begia omen den telebista, irudi gauza hutsa. Hau ez da halere neutroa, ez da eragindua, eragintzailea baizik. Irudiak erakusten omen dituelako, giza harremanen eta ikuspegien moda bereziak gainjartzen dizkigu eta eragiten. Lurzabal guztiari telebistak, zine arruntak, orokortasun eta objektibotasunaren ize-nean euro-amerikar aurpegia nagusitzen dio edo hobeki mozo-rroa jartzen. Mundu ekonomiaren garatzeko, homogeneotasun hori non- nahi sartzen du. CNN da Biblia berria, edo hala zen Al Kaedak bere gisako Korana asmatu arte?

Gertaeren oharketa orokorra txikitzen, galarazten digute eta urruntasunaren bidez zartarazten eta sorgortzen zaituzte. Askotan

pelikulek, publizitatearen etenekin, beren mezu indarra ere gal-
tzen dute. Halaxe, oso ona zatekeen kultura tresna, txit kaltegarria
bilaka daiteke. Jende ikus-entzule gehienik den orduetan emanki-
zun txarrenak eskaintzen dituzte, eta gauean, berandu, balio zer-
bait daukatenak. Hori ez da kultura baten hobetzea. Telebistak
eman irudia da hala nola zerutik edo automobil laster baten lei-
hotik bizi den gertaera, ikusten den izadia, hiri baten ezaguera.
“Telebistan ikusi dut eta ez dut ikustera joan beharrik” hori da
bakoitzaren bizitzaren eskarmentuak eta ikuspegiak baztertzea.

Zer helburu, zer asmo, zer egingai eman gizarte bizitzari,
irudien bidez komunika daitekeela uste dutenei? Ez da publizita-
teak ordaindu hainbat telebistengandik filantropiarik itxaron
behar. Telebistak asmatu ikurrek, hark aukeratu zeinuek, sistema
bat eratzen dute, zeinetan sartuz gero zeinua adierazia dela sine-
tsarazten den. Eta ikur horiek azalutsak baizik ez dira. Noski,
ezin dugu eskatu antzinako bizitza latza itzul dadin, nahiz mun-
duaren erdiak gabezia ezagutu, gu ongi bizi gaitetzen; hori ezagu-
tu, baina ahaleginaren, lanaren baloreak ezabatuz doazelarik,
beribil berriaren erosteak, lanpostu gorago baten irritsatzeak,
telebista berriaren erosteak bakarrik kitzika gintzake, ala? Zer
ideal gazte batentzat? Gainera, ez al zaie, etxe askotan, hamar
urterekin telefono mugikorra, hamalauetan bideojokoak ikuste-
ko ordenagailua, hamazortzi urterekin beribil lizentzia ordain-
tzen, automobila hemeretzi urteetan, apartamentutxoa hogeie-
tan. Beraz, gurasoek diru daukateino, zergatik lan egin?

Hortik dator *gizon normalaren* eskema, adinkal: hau erosi,
hori egin, hori eskatu, hori eduki behar, honela jantzi, marka
horretako oinetakoak, besteen *looka* edukitzeko eta ezin erosit
hamar urterekin lapurtzen hasi. Jadanik Sokratesen garaian ato-
posak, sailkatu ezinak, gauza horiei bihurtzen zirenak, ez ziren
onartzen eta dakigularik komunikabideek iritzi publikoa nola
erabiltzatzen duten, Gil Berak umorez dioena aipatuko dugu:

“Musika eguna, ingurugiroaren eguna, amaren eguna, emaku-
me langilearen eguna, zuhaitz eguna, aberri eguna; mahai-in-
guruak, ihardunaldiak, topaketak, hauteskundeak, hamabor-

tzaldiak, osasun publikoa; zer den eta ez den jan behar; ez zaitzez droga; egizu irri; protsimua maita, preserbatiboak ez ahantz; kondena ezazu hori; lauda ezazu hura. Hau da gizon normalak behar duen airea” (*O! tempora O! mores*, 96).

7. Ohituren kritika Euskal Herrian XVI-XVIII. mendeetan

7.1. *Jusef Egiategik*

Egiategi gai horretan zehatza eta zorrotza zaigu. Bere garaian, demografia eta ekonomia arrazoiengatik ohiturazko euskal sistematik urruntzera zihoan gizartea. 1780. urte inguruan idatziak gaur ere balio luke eta orduko gizartearen aldaketa txarren iturriak aztertzen trebea izan zen gure zuberotarra. Egiategiren lehen kezka zen nola etxaldeak eta ohiturak diru-gosez hiltzen ziren, eta zelan baserriek doteen goranzko harrigarria ezagutu zuten adierazteko, idatzi zuen:

“Noizpait berrogeita hamar luis arranta (errenta) züana aberatsen herrokan zegoen. Gure errege jaunen andere alabek sei mila luis züen dotea. Halako bat Paueko prokuradoreak ez lüke nahi. Giradea (al gara?) antzifiakoak beno aberatsago? Ez, bena bai eskeleago eta ürgüllüan hantürik. Eta halere girade (gara) harrez janik seguro, zapartatüko” (*Lehen libürüa*, 1785ekoa, B. XIV, 114).

Bai, hitz mingarritz dio Egiategik harrak hanpatuta dugula eztanda egingo, diru urguilu horien guztiengatik eskaletuko eta hilko. Denbora berean, gure filosofoa ohitura onen jarraitzaile sutsua, amorratua dugu. Egiategi bere belaunaldiarekin ikusi dituen ohitura aldaketen etsaia da, eta nola gehitearen (luxuaren) erruz etxeak erortzen eta jendeak eskale bihurtzen diren, zeren doteen dirua ez da gauzen hobetzen erabiltzen, ezteien handikerian baizik:

“Zorigaitza gehiteaz da egünkal eta lainoa bezala menditik ordokiara eraitsi. Jendea itsütü eta aberastarzünaren üdüriak (itxurak) dü eskeletü, hantik etxeak zatizka erorten, doteak ezteietan janik” (*Lehen libürüa*, B. XIII, *Ezkontzaz*, 114).

Hementxe agertzen da, eta gure egunetan jarraitzen du, Zuberoan euskaldun eztei handien egiteko harrokeriazko eta zein gehiagozko ohitura. Gaur, ordea, dirua mendietan korritzenago da eta ez dituzte ezteiek etxeak suntsitzen. Gainera, orain gonbidatuei, opari orde, ordaintzea eskatzen zaie eta ez beti kopuru txikiak. Zuberoako erdaldun astekaria den “Miroir de la Soule” delakoan, XVIII mendeko ohitura horren oihartzuna dakusagu, “frantses ezteiak” berrogei lagunekin, “euskaldün ezteiak” berrehunekin. Hamazortzigarren mendean, nekazariak, laborariak, aberatsak ihakindatuz, oker kopiatuz, nola janzten ziren filosofoaren lehen liburuan irakur daiteke.

“Orai laborarisetan zeta behar du zerbaitetan agertü andregaiän, jaungaiän aldiz oihal ederrena: noizpait beren abercena etxen irünik, erüleak züan egiten eta urdin kolore zen tindatzen, orai(n) nekez düe lanean, hetarik jaunzten” (Lehen libürüa, *Ezkontzaz*, 114).

Egiategik ez zuen Larramendiren Batzar Nagusietako hitzaldirik entzun eta gutxiago irakurri, hogeigarren mendera arte argitaratu ez zirelako, baina jesuitaren hitz berdinxkak darabiltza. Gure gaurko hitzez, antikontsumerista dela esan genezake.

Hamazazpigarren mendean zen Zuberoan doteen eromena sartu. Orduan, frantses lege gizonak hasiak ziren gure foruen *hobetzen* eta itxuragabetzen. Hasieran, Foruek doteak, ezkonsariak, bi aldeetarik emanak eska zitzaketen.

Sistema zaharrean, doteak ez ziren oso handiak eta helburu finkatua zeukaten: haurren heziketan ezkonberrien laguntzeko, baita batzuetan eskolatzeko ere; gainera, alargunak, gizon ala andere, bere dotearekin, haurrik baldin bazuen, nahi zuena egin zezakeen, halaber bere-bereak zituen ontasun eta lurrekin. Zoriturrez, frantsestearekin, gizartearen ingurumeneko suan, diruaren olioia jaurtikitzen denean, dena erretzen da edota, filosofoak dioen eran, elurra bezala urtzen.

“Doteak nahi dütüe ezkontzetan handi eta urtzen dirade elürra bezala (...) Haurrik ezpada sortzen eta anderea hiltzen, dotea behar da ützüli, etxalteari behar zati handi bat ebaki, oso

rik egonen zena, doterik hara ezpaliz sartü” (Lehen libürüa, *Ezkontzaz*, 114).

Dotea eman bada haurrak gogoan, alde txarra du: umerik ez denean jaiotzen edo anderea hiltzen, itzuli behar dela. Itzultzeko hori alde batetik ez zen hain txarra, ezen neskak edo mutilak dotea eman ondoren, orain Indiako errepublikan gertatzen den gisan, etxeko norbaitek hil bailezake. Gizarte hartan Egiategik dakusana da ohituratik urrunduz ez dela beti “umea gogoan” ezkontzen. Zeri begiratzen diote etxekoek? Ez edertasunari, ez zuhurtasunari, ez nobleziari, ezkongai diruduna ala lurduna denez baizik:

“Prima (etxalaba) ezpada andregeia, izanik ere Venus bezain eder, Minervaren iraziak, Dianaren noblezia sorik, (begiradarik) ihork ez dio eginen” (Lehen libürüa, *Ezkontzaz*, 114).

Gurasoez mintzo, oso gogorra da gure filosofoa eta gaur maila horretako kritikak bakanak dira, nahiz dakigun gizarte aldaketan gertaerek eragin handiagoak dituztela. Hona zer dioen:

“Saltzen dirade alabak ahalik merkeena eta semeak ahalik karioena” (Lehen libürüa, *Ezkontzaz*, 114).

Europan ez bagina, balirudike esklabo edo beso merkatu batean gaudela. Ez du aspaldi baserrietan dotearen, ezkonsaria- ren eskatzea galdu dela, geroztik beste gisaz agertu bada ere.

Gauza txar guztiek beren alde onak dituztelarik, andregai askok harekin nortasun eta askatasun handiagoa zeukaten, batez ere kanpoan lan eginik *berek irabazi dotearekin* etortzen zirenean, orduan, jatorrizko etxeak itzultzea ezin eskatu. Gainera, euskal- dun foruek andereei beren jabetasun bereziak edukitzeko zuzen- bidea ezagutzen zieten. Gehitearen, luxuaren kalte eta gehiegike- ria horiek askotan aipatzen ditu baita, nobleez idaztean, Egiategik; Larramendiren gisa, berrikeria horien jorratzaile errea da:

“Diamantez eta ürrhez dirade estalirik nobiak, noizpait koton (kotoi) soinekoekin eta ürrezko kürütxea lepoan ederki zirade- nean noblezian, gizonak arauera” (aip. lib. 114).

Egiategik familiaz jarduten duenean, ez du ezkontzaz ametsik egiten. Badaki zergatik ezkontzen direnak elizaren aizolbean jartzen diren. Erdi Aro zaharrenean, elizatik igarotzea beharrezko ez zenean eta erreinuak horretaz axolatzen ez zirenean, andreen egoera ez zen oso eroso: gizonak, emazte eta haurrak utzirik, ihesi joaten ziren. Gauzak horrela ikusiz, gizartearen utzikeriek, gizartearen eskusartzeek baino kalte gehiago egin dezakeela ikusten dugu, nahiz Rousseauk beste gisaz ikusi. Gizona ez da berez ona, ez txarra; baldintzek, ingurumenak, alde batera edo bestera bultzatzen dute.

Beharbada, eta hori luzaro azaltzen du gure zuberotar filosofoak, jendeen hitzetan sinets baledi, ez litzateke lege, ez sakramentu beharrik. Baina ezkontza garai hartan jadanik legeztatua zenez, Egiategi kezkatzenago zuena zen maitasun ordez dirutasuna zela ezkontzaren zaina:

“Noizpait bospasci urteren amorioak ezkontza egiten eta aldizkoaren zainak egiten; orai(n) ikusi eta mintzatü bagetarik ezkongaiak dirade ezkontzen”(aip. lib., *Ezkontzaz*, 114).

Egiategirentzat, maitasunak ezkontzan ezinbestekoa izan behar luke, lokarri horrek sendotasuna eduki dezan, eta izaerari, naturari, bere eskubideak utzi behar zaizkiola:

“Zü aita eta zü ama züeri n(a)iz mintzo. Eztezazüela züen haurrak amorio eztüenatara ezkon. Sorte gaitza züentzat lizatekeena beren lükie, jarraiki badüe beren gogoa begotza izairiari bere züenak. (...) Har beza nahi düana” (aip. lib., 115).

Antzinako atsotitzek Egiategik idatziak zehatz ditzakete, guztiz bikoteak nola egin behar diren. Atsotitzek diote lagunaren, ezkontidearen hautatzean begiek iruzur egin diezaieketela neskei, diote gure idazleek, XVI. mendean bildutakoetan:

*Neska senhar ederzale
soinaz egur ekarle (Zalgize, 150. atsotitza)
Ago neskatxia ago
ukenen dun haritz eta pago (Zalgize, 34. atsotitza)*

Andra ederra
etxean gerra (Refranes y sentencias, 1596koa, 131.
atsotitza)

Mutilari XVII. mendean Oihenartek aholku hauek ematen dizkio edertasunaz susmoak erakutsiz

Ohaidea ederariaz
ezkontidea zuhurariaz (Oihenart, 250. atsotitza)
Emazte ederrak duenak etxean
bere etxea etsaien artean
edo mahastia karrikaldean
eztago arregura gabe bihotzean (Oihenart, 651.
atsotitza)

Garibaik eta Oihenartek berdin edertasunaren arriskuak aipatzen dituzte, baita neska aberatsegiarekin ezkontzea ere; Oihenartek dio doteagatik ezkondu zaionari damutuko zaiola, jarraituko duen andre berriaren gaitz edo gaitzespengatik:

Emaztea hartzen duenak ezkontsari hutsagati(k)
biharamuna du dolu-eguna, gaitz darraikonagati(k)
(Oihenart, 136. atsotitza)

Garibairenak darakutsa nola andere diruduna eroa edo eskandalu egilea den:

Andere eder eta aberatsa
edo ero edo zarata (Garibay)

Emaztegaiaren hautatzean denbora eta begi ona eduki behar da:

Urhea, emaztea eta oihala
egun argiz baizik har eztitzala (Oihenart, 465. atso-
titza)

Nondik-nahi, egun batez ebatzi, erabaki behar da:

Zalduna senartzat kausitu ustean
zabar bila nendin ezustean (Oihenart, 705.871.
atsotitza)

Eta hor ere gure antzinakoen iritzia zen ezkontzeko garaiak zeudela, ez beranduegi, ez goizegi:

*Beluko ezkontzea deunga
goxetikoa ez oba
aldian gauzak daude
aroari jarrain gakioza (Refranes y Sentencias, 440.
atsotitza)*

Jakina, ez dira falta euskaraz beste hizkuntzetan bezala mutilzaharren atsotitz gaiztoak

*Andrea, sua ta itsasoa
guztiz da gextoa (Refranes y Sentencias, 135. atsotitza)*

Edo ezkontzan erreka jo dutenena, nekea eta kaltea eta garbaia aipatzen direlako, batik bat gogoz kontra egiten denean:

*Naibako ezkontzea
nekea ta kaltea (Refranes y Sentencias, 289. atsotitza)*

Halako batek euskaraz Etxahun Barkoxekoaren bertso saminenak eman dizkigu. Gizarte guztiei familiaren, etxearen, bikotearen arazoaz gaineratik, demografiaren garapena kezka zaie; gure antzinakoek bazekiten haurrak, beharrezko izan arren, ez zirela gizabanakoaren atsedenerako. Umeen haztea dela eta, zioten:

*Haurrak hazi,
nekeak hasi (Oihenart 214.atsotitza)
Haurreki(n) dena etziten.
beti mantarra xahurik ez jeikiten (Oihenart, 222.
atsotitza)*

Umeen heziketan zer ez den egin behar atsotitz askok zioten:

*Haur maitte
haz haite
esteiari (arlote) biga haite (Oihenart 193. atsotitza)
Ama gupidatzuak
egiten (di)tu haur zakartzuak (Oihenart, 21. atsotitza)
Eure haurra haur deno ezak gaztiga*

eztakia gero esteiari (arrote) higa (Oihenart, 169. atsotitza)

Gero atsotitzak aurkaritzan agertzen dira:

Haurrik eztuenak, ez haur minik.

Baina, alderantziz, etxea dela eta:

Ezkontzea baino

etxaguntzea lenago (Garibay, 5. atsotitza)

Etza(g)i etxerik

eztauenak haurrik (*Refranes y Sentencias*, 463. atsotitza)

Etxe utsa ergarri

ta betea pozgarri (*Refranes y Sentencias*, 443. atsotitza)

Asiako batzuetan, alabak erailtzen omen dira, guk ez. Hobe da alaba baten izatea, seme gehiegi baino:

Semez elirik ez (*Refranes y Sentencias*, 235. atsotitza)

Alaba gehiegi ez da behar:

Arreba biz etxea bete (Oihenart, 486. atsotitza)

Besteek diote, zahartzaroan bakarrik utzia ez izateko, alaba bat beharrezko dela:

Ogasun ezein baño obea

zarzaroko alabea (*Refranes y Sentencias*, 531. atsotitza)

Hortxe daude gure zaharren iritziak, erdi kritikoak, beren garaiko ohiturei eskaintzen zitzaizkien arauak.

7.1.1. Auzikeria, ohiturak eta familia Euskal Herrian

Ohiturarengandik izan zen etenik handiena, jatorrizko euskal foruetarik urrunduz, justiziaren jardunbideetan gertatu zen. Arrazoi du Egiategik: Iparraldean, frantses lege sistema sartu zenean, lege-paper metak, bat batean, ugaritzen, loditzen eman ziren. Aurretik, euskal legeekin, Maulen bukatzen ziren Zuberoako auziak; gero, frantses legearekin, foruaz kanpo, dei egin zezaketan

XVII. mendez goiti Bordelen eta Pauen. Barkoxe Peillen etxeko artxiboan XVII. mendetik goiti gorde duten papertza bat-batean hazi, hantu egin zen Bordeleko legearekin. Herrien auzikeriaz eta batik bat nola Zuberoan auzietan argaldu den, Egiategik idazten du:

“Erradazü Züberoal herri hain kütoa (oso txikia)/zenbat abokatu ta proküradore zure bizian düzün gizentü/ ta zenbatez hek zütien ahültü” (Bigarren liburua, 52. gogamena).

Euskaldun jendeen, banakoen auzikeria gorrotoarekin lotzen du eta igoriaren, gorrotoaren kapituluan gaineratzen euskaldunek joera hori, enjogi hori, hartu dutela eta sendagailuen beharra dagoela:

“Gü baliman heüskaldunak hartara ihor beno enjogiago giradealako, medika sendagarriak beharrago gintüke (genituzke)” (Lehen liburua, Igoriaz, 225).

Gizarte antolakuntza eta familiarena desegitenenik direnean, baita ondorio latzenak ekartzen, gerrarekin konparatzen du auzikeria Egiategik. Jendeen gogoetan liskarrak egiten dituen kalteez idazten du: suak, mehatxuek, trumoi-ekaitzek, itsasoaren leizeek, arranoen atzaparrek, balenaren tripek, basa animalien orroek, sugeen pozoiek euskaldunetan ezin geldiaraz lezaketela auzikeria.

Auzikaria, auzizalea, beti lehen omen dago, besteen onaren egarriz, engainua, mendekua, gezurra, desleialtasuna erabiliz; azkenean geldituko zaio damua, garbaia, txirotasuna, lotsa eta desohorea lagun. Hamazortzigarren mendean gauza latzagoak gertatzen omen ziren, aitamen arteko, guraso-umeen arteko, anai-arreben arteko auziak eta ezinikusiak, gaur berriz piztu diren gaitzak. Gaur, sarritan, gizartearen desegitea emakumeen bizkar jartzen bada, garai hartan emakumeek eskubide gutxiago zutelarik, gauzak ez zirela hobekiago ibiltzen dakusagu.

7.2. Ohituren kritika Euskal Herrian XX. mendean

Ohituren kritika 1949an eraberritu zen, *Gernika* aldizkarian Jon Mirandek *Euskaldungoaren etsaiak* eta *Abertzaletasunaren*

inguruan argitaratu zituenean. 1948-1962 urteetan, Arestirekin batean, gizartearen kritikarekin, euskal literatura modernitatean sartu zuen, ondotik Martin Ugaldek eta Joan San Martinek 1965 hasi eta saiakeran Frederik Krutwigek gaztelaniaz eman zigun *Vasconia*, konpilazio eta sintesia, baita kritika gogorrak. Ildo beretik, duela berrogei urte eta 1968ko maiatz haizeak putz egi-ten hasi baino lehen, *Igela* satira aldizkaria 1962an “*euskaldun itsusiaren*” kronikarekin gure ohituren kritikan saiatu zen. Joxe Azurmendik Miranderen pentsaera ongi aztertu zuen, batik bat *Mirande eta Kristautasuna* 1976an idatziz.

Geroztik, gogorkiago eta lazkiago ibiliz, *Pott*, *Susa*, eta gogorenak orain: *Napartheid*, *Putz* eta *Ostiela*. Urte haietan, ordea, euskaldunak manikeismo giroan bizi ginen, alde batetik onak geu, bestetik txarrak kanpotarrak. Pastoraletako “turkoak” bezala ziren, koreano, maketo zikin, ezjakin, erdaldun itsusi horiek (Iparraldean hiritarrak) eta bestetik “kristauak”, onak, zintzoak, garbiak, argiak eta ederrak: geu, euskaldunok. *Igela* aldizkariak, bere garaian, ez zuen oihartzunik batere izan. Urrungo neska andrearen fama, Parisetik etorri behar zuen argiak. Orduan, Parisera, Meka Berrira, euskaldun ikasle asko marxismoaren ikas-tera agertu zen. Gaizki irentsi ezkertiak inportatu zizkiguten. Euskaldun gizartearen kritika bat abiatu zen. Askotan, aski zorrotza eta zehatza zen *Zabal*, *Hitz* eta *Zehatz* aldizkarietan, baina gizartearen aldaketarako bide bakarra eskaintzen zuten.

Laster marxokritikak azaldu ziren Frantzian, eta Euskal Herrian gogorragoak oraindik, Rikardo Arregiri erantzunaz, Txillardegik, benetako sozialismoaren beharraz, esan zuenean: “marxismoa modan zen”. Gero, Joxe Azurmendik, Gurutz Antsolak, Paulo Iztuetak eta Jokin Apalategik abertzaletasunaren eta marxismoaren arteko ezinikusiak aztertu zituztenean, orain ito- tzen gaituen erosi zaletasun eta sasi-mundukor baloreen aurka-koa hasi zen. Horrelako aldaketa sakonak gertatu ohi dira dikta- tura bat erortzera doanean, eta, Espainiako kristau-faxismoa ge- nuelarik aspertzeraingo nagusi, erreakzioz gazteria ezkerrera joan zen, eta, eredu abade eta apaizgaitegietan ikastea izan zelarik, berehalaxe falangismoa galduxe eta apaizgaitegiak hustu ziren.

Ohituren kritika baino zehatzago, ohituren aldaketa aztertea jakingarriago izan da. Etnologialari batzuk zer gertatzen zen, zer aldatzen zen, zer gordetzen zen erakusten ibili zaizkigu. Horrela, jadanik aipatu J.M. Satrustegi zenaren bi liburuak leku-ko ditugu: *Ekaitza* eta *Euskaldunen sexubideak*, ezen epaitu gabe aldaketak eta zoritxarrez aldatu ez direnak kontatzen baitizkigu.

Orain, unibertitate horietan etnosozioologia garatzen ikusten dugularik, sarritan, bi ikerlari alderdikoi mota ditugu: kabinete espekulazio lanetan dabiltzanak, argi bakarrak: Parisko Ballandier, Bourdieu, Savater, Semprun, Touraine, savateristak eta besteak delako maisu horien erakuspenak errepikatuz, gure gizartearen alde edo etsai agertuz, azkenik benetako antropologoak terrenoan aztertzen dabiltzanak. Lehenek, beren hizkuntza erretorika berriarekin jendea liluratuz, “*happy fews*” bakan batzuentzat idatziz, ez dute biltzaileentzat erdeinu baizik. Niretzat bigarrenak gizartearen margolariak dira eta lehenak kabineteetako arte kritikak bailiran.

Euskaldun sendiaz, familiaz, antzina asko idatzi zen. Gehienetan eta Le Play segituz, Pierre Lhanderen gisa, *Autour du foyer basque* delakoan bezala, miresteko, goresteko eta kristau eredu baten emateko. Eredu hori zen Sabino Arana Goirik euskal gizarte osoari eskaini nahi ziona. Engels, Marx eta Marcuse irakurri ondoren, gure ikerlariek euskal familia munduko txarrena, zapaltzaileena eta bidegabekeria anitzen iturria dela idatzi ziguten: besteak kontserbatzaile gaiztoak dira, gure aurreko guztia txarra da; aurrerakoi izateko, ohitura baztertu behar da.

Nola daitezke giza jakintzalari izan horrelako jarrera osoak hartzen dituztenak? Maiz, gure nortasuna ukatzen duten kanpotar ikerlari amorratu eta jakobino zenbaiten morrontzan dabilta gure euskaldun batzuk, beren karreraren onetan, eta gainera duela ia berrehun urte, orduko gizartearentzat frantses Iraultza burgesak eskaini baloreen izenean edo neofrankisten lerroetan jarriz, egiten, eta horiekin nora doa familiaren irudia?

Haustura eskaintzen digutenak profeta askoren gisa dabilta: egin nik esaten dudana, nik ez badut ere egiten. Marx hain

zorrotza familiarekin, familiaren sosekin, burges bizitza goxoa gogoko zuen. Halaber, badakit ohiturazko euskal familiaren etsairik handiena den soziologoa astero bere euskal familia baten habiara itzultzen dela eta noizbait bere erdal ezkontza hautsi zenean euskal familian bere aterpea idoro. Gauza bat predikatu, beste bat egin; Rousseau ere honela ibili zen. Aipa ditzagun Ipar Euskal Herriko “antropologo” baten ikuspegiak. Hona haren analisisa, Foruetan eta ohituran agertzen den sendi *egitura zapaltzaileari* egiten diona. Bazter utzita, errepublikar frantses euskaldun horrek hartzen duela desafio gisa Frantziako argiari guk euskaldun ilunek ilunpekeria horietan jarraituz egiten duguna. Euskal ohiturazko familia bidegabekeriaren iturria omen da, zapaltzailea da; hori esan dezake gizarte antolakuntza guztiez bere buruaren ona baizik ikusten ez duenak. Hona haren argudioak:

1. Etxearen jabetasuna ume zaharrenari uzteak gazteagoak (*les cadets*) sakrifikatzen omen ditu.

Erantzuna. Zaharrena etxean ezkontzen bada, Foruari jarraikiz, beste etxe bateko “kadetea” rekin egin behar du, bi etxalde bi etxerekin ez nahasteko; beraz, gazteagoek ere, herritik gehiegi urrundu gabe, irtenbide hori dute, “primu” edo “prima” batekin ezkontzeko parada.

2. Nolanahi, etxean egon nahi direnak ezkontzetik baztertuak direla. Erantzuna. Umeen kopurua. Erdi Aroan, haurren heriotza tasa handiengatik, Euskal Herrian bataz bestekoa etxekal bi haur izanki, gazteagoek, gutxitan, etxetzeko arazoak zituzten; bestalde, Iparraldean bederen, etxeak txikiegi ziren bi familia teiltatu baten pean edukitzeko.

3. Joan behar dutenek ez dute morrontzaz, abadetzaz, sero-ragoaz edo soldadugoaz beste irtenbiderik, beste soluziorik. Erantzuna. Demografia garapena hamazazpigarren mende azkenean eta hamazortzian gertatzen da, etxekal hiru umetara doa. XVIII. mende azkenean, Ipar Euskal Herriko jendetzak goiena jotzen du. Historiaren ezjakiniz, ekonomia egoeren ezjakiniz, demografiar arduratu gabe, honelako astakeriak idazten dira. Orduan, garai haietan, bi aterabide zeuden gorago aipatu

morrontzez kanpo, lehena luberrietan etxaldea sortzea, eta orduan laborari ia guztiak karriketean, herri koskorretan bizi zirenak mendian sakabanatzen dira eta Baigorriko kadeteak, frantses iraultzaren “argiak” iguriki gabe, etxe bakoitzean batezbesteko hiru haurretara pasatzen denean, gazteagoen “cadet” delakoen arazoa planteatzen da. Baigorriko auzo-lurrak Nafar mugaraino labakitzen, luberritzen dituzte, Alduden eta Bankan etxeak egiten eta Ligi Larraine eta Santa-Graziko mendixkak etxetzen.

XVIII. mendean, burdina, zura, larrua, oihala lantzen da Euskal Herritik kanpo saltzeko, euskaldun asko oihalgintzan, olagintzan, eskulanetara ematen da eta ez uste lur lanean bakarririk. Bestalde, lurrik gabeko euskaldunak ugari ziren, eta haiek ez zeukaten primantzarik inori emateko. Duela berrogeita hamar urte, zaharrek erranik, bagenekien seme gazte bati borda bat ematen zitziola, etxetzen zuela edota borda horren alboan auzoen laguntzarekin etxe bat eraikitzen, batak hondarra (harea), besteak gisua, karea, harria, teilaturako zurajea edo lana ekarriz. Halaxe, Larrainen zegoen Ligetxehiri etxeak, 1770ean Ugarren Ligetx-borda etxetu zuen, Ligin Oistehiriren Andozeko Oixteborda etxetu zen halaber Idiarteak Idartborda eman. Zer familia zapaltzailea! Zer ohitura zaharkituak! Elkarrekin lan egiteak, elkar laguntzeak marxista bat alaitu behar luke. Nor doa berdintasunaren aurka, frantsesa ala euskalduna? Gaur, errepublikaren lanaz utziak diren etxeetan, erregeen garaian jende soberakin zati bat kokatu zen eta Zuberoan XVIII. mendean Basaburuko mendiak orduan baizik ez ziren etxez estali. Bigarren lan aterabidea zen Nafarroara, Gaztelara eta Andaluziara etxegintza lanetara, zurgintzan, hargintzan, teilatu maiasturu lanetara joatea. Iraultzaren garaian, ipar euskaldunak eta biarnesak Espainiatik bota zituztenean, 30 000 bat itzuli ziren. Handik landa frantseskeria gerrateek langile belaunaldi bati kalte handirik egin zieten.

Pentsatu ote du etnosozioologo frantses euskaldun horrek zer gertatuko zen frantses legea Iparraldean aplikatu balitz: hots, haurride, senide guztien artean etxe eta lurren banatzea? Nekazari gehienek dirurik ez zeukatelarik eta lauzpabost hektarea lur, XIX.

mendeko lauzpabost seme-alaben artean banatu balute, Pirinio erditan gertatu den bezala, mendia hustuko zen eta nekazari gehiagok eta aspaldianago giltzak asunetara botako zituzten eta gure herria orain gertatzen ari den gisa lehenagotik deserto bilakatuko. Etxeko alaba eta seme zaharren ez ezkontzeaz zer esan? Zegoeneko menditar etxeetan aitona-amonak zeudelarik askotan, zelan izango zen teilatu beraren pean beste familiarik. Jakina, Bizkaian eta Gipuzkoan, Ameriketako diruarekin eraiki etxe handietan, hiru sukalde egon zitekeen, eta ezagutu ditugu. Iparraldean, Marie-Pierre Arrizabalagak erakutsi bezala, Saran maiorazkoko, primu aberats asko beren zuzena utziz, Ameriketara joaten ziren aberastera. Halaber, XIX mendean, Alduden primu guziak migratzen. Eta orain nor egon nahi da nekazari?

Noski, baina marxista batek aztertu behar zukeen zergatik herriko jauntxoak Europa guztiko baserrietako emigratzearen aurka ziren, eta burgesen eragina ezagutu. Badakigu Euskaldun burgesek Europako langileria merkeenetarik zeukatela, eta Ameriketarako joanarekin, peioen kopuru jaistearekin, soldatak altxatu beharko zituzketela. Ez du erran nahi Ameriketean askoz hobeki ordainduak zirela.

Langile xumeentzat, jauntxoan mailara iristeko bide bakarra ez zen laborantza, baina Ameriketean aberasteko ametsa. Emigrazioa, gainera, Ipar Euskal Herrian Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu da gehienbat, ezen burgesek urrean eta poltsan sartzen zituzten beren maizterren bizkarretik atera diruak. Maulen eta Hazparnen, XIX. mende azkenean nekazaritzak errentagarri izatea utzi zuenean, burges txikiak eta eskulangileak industria txikiak sortu zituzten. Ez du euskal familiaren egitura industria ezaren errua, egitura berdinetan, Gipuzkoan eta Bizkaian, mendi tarteetan industria sortu baita.

Zuberoan kontatu didatenez ere, geroago jauntxoak nekazari seme-alaben emigratzearen alde agertu ziren, beren industria txikietan espainol merkeagoen erabiltzeko, artamendatzen zieten gazteei Parisera eta Bordelera morrontzara joatea. Zuberotarrek esan didatenez, gaur ere halakoxe legoke egoera, haurrideek etxeko

primari (neskari) edo primuari (mutilari) beren jabetza zatia uztea. Ez ziren nagusi zaharrak besterik gabe kanporatzen, etxearen gozamina gordetzen zuten. Joaten ziren senideek musu-trukean "abandonuz" utzi arren, bizitza guztian etxondoan aterpea eta babesba daukate, eta ez bakarrik oporraldietan, baina erretiratu ondoren, alargundu ondoren, zahartzarora, beren bizitza jaiotetxean bukatzeko. Gainera, pentsiorik ez zen garaian, etxeke jabe zaharrak etxean egoten ziren. Beraz, inor ez zen etxearen jabe zaharrak bizi zireneino, jabe bakarra *jaunkidetz*a zen, lauren artean, jabe zahar eta jabe gazteen artean. Geroztik, Basabürüan hamaika adibide ikusi ditut berriki. Hori oraindik ere gertatzen da. Bestela ere, beren partea eskatzeko orde, hirietan egon direnek eta familiatu direnek etxean egon denari erretiroko beste etxe baten egiteko lurra eskatzen diote. Horren aurka, berriki Frantziak lege bat asmatu du: SRU legeak (orain PLU), alegia etxe berrien azpiegiturak kostatzenegi zirela, bazterretan egitea debekatu zuen. Azken garaian, ohiturazko familia zabalaren elkartasuna oso lagungarria egin da, langabezia giroan eta Baionan ere horrelako kasuak badira. Zahar franko, ahal dutenean zahar-etxe batera lasterrago eta gaizkiago hiltzera joateko orde, haurride, lehengusuen etxetara erretiratzen dira.

Ez dut horrekin esan nahi euskal etxe jabetzaren eta familiaren egiturak ez duela akatsik eduki eta edukiko. Ikusten delarik bikoteak aisa dibortziazten direla, norberatasun giro batean, jende asko behar denean teiltupean atxiki bakean, anitzez zailago da. Egia da lehenago baserrietan horretara gerturik eta heziak zeudela, familia zabal batean sartzera prestik. Euskaldunei eskaintzen zaien eredia Ipar Europa eta Ameriketako da, alegia, frantses umoristak aipatzen zuena: aita, ama, neskamea eta lauak (Papa, maman la bonne et moi). Aldiz, euskal baserrietako euskal eredian familia zabalaren gainetik zegoen etxea eta etxeke elkartasuna. Euskal sistemaren ahuleziak ematen ziren Europa osoko baserrietan: ahal bezain goizik dirua ekar zezaten etxera, haurrak ez ziren eskolatzen, osaba-izeben edo burgesen etxetara, lanera, morrontzara igortzen ziren.

Geroago, batez ere XIX. mende azkenean eta XX. erdiraino, diru hori etheen *hobetzen* erabiltzeko ordeztu, haurren eskolatzen erabiltzeko ordeztu, Burtsan akzioak erosi eta 1917ko errusiar iraultzarekin askok galdu zuten. 1929an areago. Izerdiak akzio bilakatu eta urtu egin ziren; hori zen itsukeriaz familiaren zapalkuntza bat, itsukeria bat, eta ez bakarrik Euskal Herrian.

Zapaltzaile bai: gizarte osoarekin batean, ohituraz, nahi ala ez, dotrinara eta mezetara behartuak baitziren gazteak; bai moral burgesak hori eskatzen zuelako eta garai batean 1920a baino lehen ez baitzen lanik ere erraz aurkitzen ofizio mezara ibiltzen ez zenean. Fabriketara lan egiteko ona zinen. Baina gaur ideologia erdi erori batzuk ez al dira halaxe behartzen, jakobinismoan, sasi-marxismoan, edo sekta batean umeak heziz. Ez al da hau kulturaren eta ohituren arteko beharrezkotasun latza? Bai, gero erantzukizunaren eta askatasunaren ezagutzeko aukerak baldin badira.

Gizartean jendeak seinaleak behar ditu, baina gazteek ohituren iraganaldia ez badakite, orainaldia faltsutua bada, nola izan dezakete gero argirik? Jakina, euskal sendi ereduak ez genduzen beste behartu nahi, besteek guri gainjarri nahi diguten gisa eta eredu hori baserriko ona bazen, noski, hirian ezin da berdin-berdina bizitu. Txarragoa gerta daiteke horrelako ohiturazko familia zabaleko baserrietan, nahiz familia moderno txiki batean: hirietan ere sarritan intzestuak eta adin txikikoen gaineko abusuak ezagutzen dira. Paris ondoan, Issy Les Moulineaux hirian, etxeko norbaitek izorra jarri neskak, beren intzestuko umeekin, andre-soil etxe batera etortzen dira, beren ipar eta erdi Frantziako, frantses eredu "miresgarrian" dabilzan familietarik ihesi eta ez euskaldun ereduak.

Zuberoan bi intzestu kasu kontatu zizkidaten: batean mutil batek aitona tiroz hil zuen neska ilobasoa bortxatu zuelako, S.G. herrian; beste kasu batean, semeek aita kondenatu zuten alaba bortxatu zuelako eta aitari lepoa aizkoraz moztu, G. herrian. Beraz, euskaldun gizarte zaharrean ez du irudi intzestuak onartuak zirenik. Orain hirietan, kalean, gizarte modernoan, horrelako kasuak gertatzen dira, ohituraz kanpoko sendietan, aitaizun

batek, sarritan amaren kidekeriaz, aita ordeko batek edo amaren behin-behineko lagunak umea bortxaturik.

Gure etxeetako egitura horrek, ordea, zenbaitetan neska-mutilen harremanetan arazo latzagoak eman litzake. Euskal Herri osoan, nahiz baserrian, nahiz hirian, badaude euskaldunen artean harreman nekeak. Jose Maria Satrustegik *Euskaldunen Sexu-bideak* liburuan neke hori aztertzen du, geroztik hark eman amaren eragin kaltekorraz semeengan, maiz, andreekin eta neskekin hitz egin dut. Zer zen ohiturazko amaren eragina eta zer den oraindik ere? Denek aho batez Ipar edo Hego Euskal Herrian diote sentimenduen aldetik amak semeari eskatzen diola senarrak ematen ez dion samurtasuna; bai lagunekin arratsero etxetik kanpo dabilen euskaldun senar eredu hori ez da Espainia osoan ezagutzen. Neskek diote errazago dela Gasteizen galego edo andaluzekin ligatzea eta ibiltzea euskaldun mutilekin baino.

Ama guztiak, jakina, ez dira horrela Euskal Herrian, baina nahiz baserrian, nahiz kalean, fenomeno hori nahikoa ikusten da. Gero, erdaldun familiak ez dira euskaldun familien moduan ibiltzen, senar-emazteek, beti ez bada, lantzean behin dakitelako elkarrekin kalean ibiltzen. Espainol lagun taldeetan aspaldianagotik dabilta neskak mutilekin.

Euskal Herrian, eskola mistoekin gauzak ari dira aldatzen, baina orain arte, Iparraldean ere, *neskatila-lagunak*, *mutil-lagunak*, *etxeakoandre-lagunak* kuadrillan dabilta. Ezin daiteke esan, ordea, horixe dela gaur Euskal Herrian ezkontza kopuru ahularen eta jaiotza txikiaren iturria. Alderantziz, ohargarria da Europako jaiotza beherenak direla Hego Euskal Herri aberatsean.

Ohiturazko zerbaitek ere ez ote du hori laguntzen? Ez ohitura hain zaharra, baina dirudienek euskaldun ohiturazko familia osoki lotua zegoen erlijio, sineste eta praktikekin: biak hain behera jaitsi ondoren, sinestegabetzeak ezkontza eginbide ikustea galarazi luke? Ala bakarrik zurtasunaren zurikeria agerrarazi?

Euskal ohiturazko familiari egin zaion kritika batik bat base-
rri edo laborari etxalde delakoari egin zaio, baina benetako akatsak ikertu gabe; hemendik aurrera, Hego eta Ipar Euskal Herrian

%7ra jaitsi ondoren nekazarien kopurua, haien bidegabekeriak ere desagertzera doaz, soziologo frantses jakobinoei gai bat kenduz.

Orain, zuberotar mendietan, etorkizuna geroago eta ilunago egiten ari da. Badakigu etxajaunen zahartzearekin laster %9tik %7ra eta gutxiagora ere jaitsiko dela. Esate baterako, Barkoxe Zuberoako lurralde aberatsena delarik, duela bost urte mutilzahar bazkari bat egin zela eta hor 85 mutilzahar azaldu; 65 baserri ja-beak ziren, beraz segidarik gabekoak. Irrati batek galdetu zienean beren egoeraz zer zioten, beren bizitza antzina baino askoz erosoago zela aitortu zuten, baina geroaren eta ondokoen axolarik ez zutela. Herri bat basamortu bilakatze horretan ohiturazko sendiak ez du ahalmenik izan, ez da gai izan bihurtzeko, irauteko irtenbide eta sendagailurik aurkitzeko. Baserri munduan egia da ez dela nornahirekin ezkontzen, eta mirarizko norbaitik ez dagoela.

Bestalde, gaurko laborari-etxea, baserria, errentagarri izan behar duen enpresa bilakatu da eta orain, hainbeste diru dagoelarik, mendietako baserritarren artean zergatik ez dira ezkontzen? Lanbide gaizki ikusia zen, bai, lehen bizibide behartua zen, baina gaur, nahiz nekazaritzan lan asko eginaz aberats daitekeen, neska-mutil askok beste aukerarik daukate, baita oinarriz bost asteo oporrak, larunbatak eta igandeak jai nahi dituzte, eta hori base-rian nekez.

Egiategi utzirik, gure garaietan diruzko ezkontzak ez omen dira orain hainbat egiten; maitasunaren sutan edo sexuaren erakarpenean egiten omen dira. Baina, diruz ala maitasunez eginik, ezkontzak “oker gerta” daitezke Egiategiren hitzak hartuz, ezen gaur dakuskigu antzina baino dibortzio gehiago eta ezinikusiak gehiago. Ezkontzen eta ezkondu gabekoen harreman hausteak, nire ustez, Europa mendebaldean gizabanakoaren kulturari sartu garelako eta diruen eta sexuen gainetik ezkontzak berekoikeriaz, bestearekin egunerokoan ezin konpontzeaz gertatzen dira.

Gainera, ezkontzatik kanpo bizi diren bikoteak ez dira hobeki akomeatzen, ez eta gutxiago bereizten. Orain, jendea maitasunezko ezkontzen egiteko aske dago, eta zer? Lehen baino hobeki? Horretaz, Julio Caro Barojak “*Los vascos*” liburuan azter-

keta bat egin zuen, euskaratuko duguna, eta iruzkindu zuena ez zen Egiategi bezain erromantikoa:

“Gure norbanakako ametsari jarraikiz, batzuetan, interesezko ezkontza moralik gabeko jendeen ekintzatzat jotzen dugu, baina ezagutu beharko zaigu hautu askea ez dela inoiz izan, ez eta izango, eta gaur, kasu hoberenetan, maitasuna ikus-esparru estu batean garatzen dela” (J.C. Baroja *Los Vascos*, Madrid 1981).

Jendea jende da; sarritan bere buruarekin akomeatzen eta adiskidetzen ez delarik, beste batekin eta beste batzuekin egitea ez da batere errazago. Horretan, famili ereduak ez dute errurik, ez dute ogenik.

7.3. Emakumeez eredu zaharrak eta zaharkituak

Hogeigarren mendeak Europa mendebaldeari ekarri diona izan da andreak etxeko eta morrontzako lanetik goragokoetara igotzen jakin zutela eta, jakina, antzinako molde zaharra hautsi. Horretaz kezkatu zeuden *ohitura zaharrezaleak* eta halakoa genuen Lontzi Aba idazlea, bere bertsoetan zionean, andreak lehenagoko jardunbideetan eduki nahi zituenean:

Emakumea, emakume

*Emakumeak esaten eutson
senarrari bein etxean:*

*“Gure Bakarnek beingoan daukoz
ogei urte ganean”.*

*“Ikastetxean beti urten da
azterketetan goi-goitik,
eta liburu baten be eztago
berak ikusi bakorik.”*

*“Abestuten lez soinu-soinuak
ondo baten jotzen daki,
ta belbillak lez berein ibilgai
erabilten dauz ederki”*

*Orain orduan, diñotso ben-ben,
senarrak Bakarnerentzat*

*etxe lanetan aitua dan bat
aurkitu daigun senartzat.*

*Jana gertutzen, jantziak josten
ta seinzain ondo egiten,
dakienen bat egin daigun
bioen arte aurkitzen.*

*Emakumea buru-belarri
sartzen danean jakintzan,
gauzarik asko azpikoz gora
maiz dago sendi bizitzan.*

Ez zekien gure abadeak ez zutela egun batez ez senarrak, ez emazteak, josten, kuzinatzen, harria egiten, arropak zuritzen jakin beharrik: horretarako, aski aberats zirenentzat, makinak izanen zirela eta enpresak.

Bestalde, dioenean “emakumea buru-belarri/ sartzen denean jakintzan/ gauzarik asko azpikoz gora/maiz dago sendi bizitzan”, nik dakidanez ez zuen estatistikarik egin jakiteko emakume jakintzalariak sukaldariak baino etxe nahasleago ziren. Nahiz, orduan, Hegoaldean Francorekin, nahiz Ipar Euskal Herrian, Pétain sistema kontserbadore faxistak nagusi, erreformatzaile uzkurra agertzen zaigu *Aintzina* aldizkarian Mayi Etcheguri eta Lontzi Abaren eredu zaharretik doi-doia urrunduxeean, *Eskualdun emaztekiaren eginbideak* idazlanean:

“(..) erran zaharrak diona emaztekiari (emakumeari) buruz” Ez bazara zeruan distirari bat izaten ahal, izan zaite, bederen, etxean argi tiki bat”. Horra nun den gure eginbidea, denen ahaletan dena: behar dugu argi bat eta indar bat, gure etxea izan dadin zimendu azkarren gainean establitua. (...) Ezen “Amak egiten du edo botatzen etxe bat” (Mayi Etcheguri “Eskualdun emaztekiaren eginbideak”, in *Aintzina*, Baiona 1942, 6).

Idazleak, etxean egonaz, emakumeari euskal aberastasunen zaintzea egozten dio. Zein dira aberastasunak?

“Lehenbizikorik badugu gure fedea, fede azkar (sendo) eta kartsua, nor nahiren eta zer nahiren kontra zaindu behar duguna!”

“Badugu gure ohitura zaharren errespetua, familiaren eta etxearen amodioa, bihotzean hain barna sartua nun denek, diruari atxikienik ere, beren intresak ahanzten baitituzte etxeren zutik atxikitzekeo lanjerean (arriskuan) denean” (aip. art., 6).

Urrunago irakurtzen da zein diren “ohidura zaharrak” eta mus jokoaren eta pilotaren goraipamenak susmoa ematen digu artikulu honen idazlea gizonetzkoa dela. Baina jarraitzen du guretzat gizon ala emakume, gaur ere, minbera den hizpidez:

“Badugu oraino gure mintzaira ederra, arbasoek moldatua mendez mendez eta guri utzia beren pentsatzeko manerarekin, guk ere maíta dezagun eta heda gure ahal guzietan” (aip. art., 7).

Aurretik irakurri duguna demokristauak kutsatu erregionalismoaren fruitua da, baina erreformatzailea ez da iraultzaile eta, bere lana euskal burgesiari buruz ere zuzendua denez eta sindikatuak Iparraldean aski berriak, morroiei (sehiei) eta langileei ugazaben errespetua gogorarazten die:

“Sehiek eta langileek badute *toki anitzetan galdua den* nausiaren alderateko errespetua” (aip. art., 7).

Gero sexuaren bertutea edo fideltasuna aipatzen zaigu, Euskal Herriko baserrietan emakumeak besteak ez irudi balira:

“Emaztekiek badute(?), hirietan arrarotzen ari den bertute haundi bat: onestatea” (aip. art., 7).

“Badute” formula horrek, “badugu”ren ordeztu gizon idazlea salatzen du. Ondotik, euskaldunen kultura topiko ospetsua agertzen zaigu: hitzaren errespetua:

“Denek badugu eman hitzaren atxikitzekeo nahi azkar bat: egiazko eskualdunen artean ez da eskribu eta sinaduren beharrik; guk hitz emana ezda gehiago gurea eta ‘Agindua atxikidute zaharrek erraten’ (aip. art., 7).

7.4. Ohiturak eta andreak erlijioen ikuspegiz

Gizonetzkoek eta emakumezkoek, nahi ala ez, kromosoma formula bestelakoa daukagu, gizonena XY eta andrena XX. Gure

bigarrenak, Yak, adartxoa eskas du X izateko, eta hortik datorkio gizonari ahultasuna, eta jaiotzez andreari iraunkorrago izatea.

Bestalde, androgeno-estrogenoen oreka desberdinak dagoneko bereizten gaitu gorputzez eta apur bat gogo joeraz; horregatik, beharbada, hiltzeko sena gizasemeen artean gizalaben artean baino askoz handiagoa da eta biziaren errespetua andreen abantaila. Hasieratik horrela bideratuak garenez geroz eta sexu aldaketak ikusiz, genetikak bere eragina badu, baina heziketak ere, ezen, heziketaren bidez, jaiotzeko mutila neskatu litekeen eta alderantziz neska mutildu, itxuraz, ekanduraz behintzat.

Ohiturak eta erlijioak gizarte eragin handia dute, andereen begirune eta balioa finkatzeko. Egia da askotan erlijioei eskatzen zaiela heziketa moral baten ematea, gizarte orekaren kontrolatzea, baina ez da hain aisa zein den erlijioaren eta herri ohituren muga jakitea. Dirudienez, Ekialde Hurbilean, Islama baino lehen ere, anderea atsegin eta haurgile animalia esklabo zen, baina inolaz ere ez gizonaren berdina. Horrek apur bat kutsatu du kristautasuna.

Ikus ditzagun adibideak. Idatziz jarriak izan baitira. Hamurabiren legeetan, Biblian, Suraten idazkietarik hartuz. Judu zaharren artean aitak beren alabak ohaidetzat har edo esklabotzat sal litzake eta patriarkek hala egiten zuten (*Exodoa*, XXI, 7). Emakumea gauza bat da animalien parean: Dekalogoko lege gizonak debekatzen du norbaiten neskamearen, emaztearen, idia-
ren eta astoaren ebastea (*Exodoa* XX,17, *Deuteronomioa* V, 21).

Juduen artean, errabinoek diote andreek ez dutela arimarik, eta geroztik musulmanek. San Agustin afrikarrak berdin deabruaren bizilekua dela eta abar. Anderea ezgarbia da Biblian, odoletan denean zazpi egunez zikina. Haren kontaktuak edota hark ukitu gauzena egun oso bat kutsagarri da (*Lebitikoa*, XV 19-24). Haurra erditu ondoren, emaztea aste betez ezgarbia da, 35 egunez bere burua garbitu behar du mutil batentzat eta zikinago den neska jaioberriarentzat 66 egunez (*Lebitikoa* XII, 2, 6). Orduan, debekatua da ahaide den bati horrelako andre bat besarkatzea, hurbiltzea, berarekin bakarrik egotea (*Lebitikoa* XII, 2,6).

Gorputzaren atsegin guztiak eta denen gainetik sexuzkoak Sabbath egunean debekatuak dira. Jon Done Paulok gaizki ikusten zuen Korintiarrek judu ohitura horiek ez errespetatzea (Korintiarrei epistola). Juduak jarraikiz, Tertulianok idazten du: “Emakumea, deabruaren atea haiz, hik dun Satanen zuhaitza ukitu, eta hik jainkoaren legea bortxatu” (*De cultu feminarum*, I,1). Israeldar zaharrek, hala nola Abrahamek, senarra emazteaz asperturik zenean, kanporatzen zuen esanaz: “Ez haiz gehiago nire andrea” (*Deuteronomioa* XXIV 1, XXV, 5, 10). Babilonian, sekulan andre batek horrelako zerbait erran balu, legeak eskatzen zuen zangoak eta besoak loturik emakumea ibaira jaurtia izan zedin. Akadiarren artean, hizkuntzan gaitzespenezko atzizkiak femeninoak dira. Koranen, 4. Suratak, 2. paragrafoan dio: gizon batek bi andre balio duela. Kaldearren artean, Hamurabiren kodean, munduko zaharrena dena, hiru urtez alaba salgai, bahigai, diruaren berme izan daiteke. Asiriarren artean, aitonen alaba ez direnak merkatuan enkantean sal daitezke.

Ez da Islama bakarrik gaitzespen eta apalketa ohitura zaharagoen bermatzailea izan, baina greziarrak eta apur bat erromatarrak. Ez dugu aipatuko Txinako baserrietan nesken eta andreen oraingo egoera. Primitibo deritzen gizarteetan ez da horrelakorik hainbeste ezagutzen.

Koranak garai bateko arabiar pagano ohiturak berreskuratu baditu, ekonomia eta gizarte arrazoiengatik izan da; denbora berean, Ekialdeko herri horiek salerosle gizarteak zirenez, munduko hiri zaharrenak andreen esklabotasun giro horretan eraiki ziren. Beharbada, Europa mendebaldea salerosle handien herri bilakatu balitz, berdin egingo zuen. Salerosketen eragina emakumeen estatusen nabarmen da, ezen greziarrak, heladetarrek, jatorriz indoeuropar izan arren, hiru funtzioeren sistema galdu zuten edo ez zuten garatu, denbora berean emakumeak Ekialde Hurbilean bezala etxe barruan ginezeo delakoetan zerratzen zituztelarik.

Erromak, ostera, gudari herria zena eta konkistatzaile handia, hiru jarduketak gorde zituen (gudaria, apaiza, langilea) eta denbora berean andreak kanpoan ibil zitezkeen. Patriarkatua zen

naski Erroman, baina emazteak, amatu ondoan, *matronaren* errespeta igarotzen ziren eta Erroman erran daiteke Euskal Herri zaharrean bezala andreak zituztela etxeak egiten. Bestalde, esan genezake, Asiako herri askoren alderantziz, Erroman alabak ongi ikusiak zirela, ezen errainek ez baitzioten aita bati aliantzarik ekarzen, aldiz suhiek bai, eta hala aitari gizarte harremanak hedatzen.

Ezin ditugu guk Asiako herriak eta Afrikakoak gaitzetsi, ez eta behartuko gure gisako ohituretan bizitzera, eredu bagina bezala. Berek aldatu behar lukete, nahi badute, eta gure giza eskubide asko haientzat, une honetan, ez dira ezer. Beldurra ematen diegu gure gizarteen bilakaerarekin, baina harritzen gaituena guri inposatu nahi digutela emakumearen erdeinu hori izu berdina sortuz: Frantzian islamistek eskatzen dute Xaria aplikatzea eta islam gizarte eta lurralde bat sortzea. Jadanik Frantziako musulman errebaletan neskak iraintzen eta jipoitzen dira burua estali gabe ateratzen direnean eta Aljeriako herrixketan, aurpegia agerian dabilen andreak, noizbehinka harrikatzen edo zintzurra moztuz hiltzen. Demografiaren aldetik daukaten indarrarekin, Europako kulturarentzat beldurgarria da, baitiote “mendebaldea gure emakumeen sabelarekin garaituko dugu”.

Ez genituzke, jakina, Europan onartuko senar-emazteen arteko harreman bitxiak, Babilonian hasirik gaurko musulmanetaraino iritsi zaizkigunak. Ezkontzaren hauste hori Europan onartu dugu, baina, legez eta andreak horretarako eskubide berdina duelarik. Gaur, musulman herri askotan eta hinduisten artean ere, ezkontzaren haustea gizonak erabakitzen du, arrazoirik eman gabe egin daiteke “*gizonak andreaken gorputzean edo gogoan zerbait lotsagarri edo ez gustukorik aurki baleza*”. Zenbait aldiz kanporatzeko gutuna ematen dio eta dirurik gabe jatorrizko etxera itzultzen. Badira, ordea, musulman herriak legezko dibortzioa ezagutzen dutenak. Txarrago Indietan, hinduistek dotea bildu ondoren, ustekabea, andre berriari jantzieta sua lotzen zaio eta “gaixo senarrak” beste emazte bat bilatu behar.

Gure ohitura berrien aterabidea hobe ote? Ez al du gure zurikeriak dibortzioan kalte gehiago egiten? Hautsitako gogo

lotura sakonak zauri sendagaitza utz lezake. Azkenik zeren ize-
nean musulman erresumei jar genitzake geure ohiturak eta haiek
guri? Ez dut hor unibertsaltasunik ikusten.

7.5. Araztasuna, birjintasuna, ezkongabetasuna

Ekialdetik etorritako birjintasun ohitura neoplatonzaleen
kategoriekin garatu zen; alegia, arima eta gorputza bereizteare-
kin, gotortuko zena. Plotinek honela idatzi zuen: “*Arima bat
zikintzen da gorputz batean jaitsiz*”. San Jeronimok zioen: “*Ezkon-
tzaren zuhaitza birjintasunaren aizkoraz egotziko dugu*”. Eta, ese-
niarrei jarraikiz, lehen kristau fraideak ez ezkontzeko eta aratz
egoteko botoak egiten hasi ziren. Apaizek X. mendetik goiti bai-
zik ez zituzten ez ezkontzeko botoak eman. Jon Done Paulok
korintiarrei idatzi zien:

“Uste dut on dela emakumeen ez ukitzea; hala ere, lotsaga-
betasunaren ekiditeko, bakoitzak emazte bat izan dezala, eta
emazte bakoitzak senar bat, nahiz Jainkoari agradenik zaion
jarrera ez den ezkontza, baina ez ezkontzea” (*Korintiarrei epistola
VII, 8*). Biblian (Samuel 19, 21,24) juduak mendebaldar eta
indoeuroparren ohitura askeak larrituak ziren eta beren Lebitikoa
harresi moral baten antzean eraiki zuten. Luzatu gabe, erka di-
tzagun Homero eta Samuel:

Arete, Alkinoosen
emazteaz mintzo:

*Begiak jainkoa balitz bezala
hartaratuak,
hitz batez agurtzen da herrian
dabilenean;
hain da zentzuduna, hain du
noblezia,
haren ongitasunak gatazkak
baketzen ditu.*

Samuel Daviden emazte den
Abigailez mintzo:

*Nire jaunaren oinak
garbitzeko esklabo hutsa
eta neskamea izango da.*

Erromatarrak emakumeen tratuan Ekialdearen erdibidean
zeuden, eta aitak, gizonak, lehtasun gogorra zeukan. *Pater fa-*

miliasen eskubide horiek erromatar kodea edo antzekoa darabilten herrietan iraun zuen, aitak familian besteen hiltzeko zeukan zuzena galduz. Tazitok dio, *Germania* liburuan, emakumeen eraginaz harritzen delarik: “*Inesse quin etiam sanctum aliquid et providum putant, nec aut consilia earum aspernatur aut responsa neglegunt*” (gainera uste dute haietan zerbait sakratu eta iragarle dagoela, horregatik ez dituzte haien aholkuak eta erantzunak erdeinatzen).

Euskal Herriak foruetan, agian, duela bostehun urte emakumeari eman eskubideek germaniar andreak antzinatean zeuzkate- nen antzekoak dira; erromatarrenak baino hobe: andreak bere jabetasunak eduki ditzake, alarguna jatorrizko etxera jatorrizko dotearekin itzul daiteke, ezkongaien baimenik gabe ezin zen ezkontzarik egin. Badirudi XVI. mendetik XVIII.eraingo, eta oraindik lekuka XX. menderaino, ezkondu baino lehen haurra edukitzea ez zela gauza arraroa. Iparraldean, Maite Lafourcaden eta beste zenbaiten ikerketaz, Lapurdin %30a. Zuberoan, esan didatenez, hala nola Madalen Salaberriren lekukotasunez, XX. mende osoan, neurri berean, ezkondu gabe amatzen ziren neskak. Argi dago baserrietan ezkondu baino lehen andregaia emankorra izango zenez frogatu nahi zutela eta Baionako apezpikuek mendeetan zehar ezkontza-saio ohitura horren aurka idatzi zutela. Mutilek, denbora berean, ezkongaitarako etxean morroi sartuz, guraso- gaiak eta etxaldea neurtzen zituzten.

Biarnesen artean ez zen horrelakorik ematen, lotsagarria zitzaien, beharbada protestantismoak gehiago ukituak izan zirelako. Oroitzen naiz entzunik, biarnes nesken ezpainetan, euskaldunak likitsak, lizunak ginela, ezkongabea neska-mutilak erraz elkarri ematen ginela. Duela berrogei urte zen; orain, denetan pilularen erraztasunekin, non-nahi ezkongabea sexu harremanak ematen dira.

Ezkongabea saioak Euskal Herrian ez ziren harrigarri; Zuberoan behintzat, ohituraz, ez gaizki ikusiak. Neska bati gertatuak aipatzen nizkionean, amak erantzuten zidan irribarrez: “Haur baten sortzea beti alagrantzia dük. Ez ziek bizier baizik agitzen”. Euskal Herrian, baita Europa guztian, ekialdetik Elizak sartu nahi izan zizkigun arau batzuk:

—Gizona etxeko buru bakarra da. Andreak senarra jarraiki behar du, eta luzaroan ez du boto emateko zuzenbiderik ere. Frantses iraultzak eta Napoleonek ez zuten ezer aldatu. Ez du aspaldi Frantzian kode zibilean hala zela eta berriki frantses legeak dio senarra eta emaztea familiaren buru direla. Halatan ere, Santa-Graziko alkate ezjakinak, Iparraldean, udalean ezkontzen baita, formula zaharra errepikatzen du. Hark egin ezkontzak ez luke balio.

—Ez du aspaldi emakumearen adulterioa gizonarena baino zigorgarriago zela, zeren emaztearena non-nahi ziurta zitekeen eta senarrena bakarrik bere etxean. Frantzian, duela hogeï urte, elkar adituz dibortzia zitekeen, baina berriki, kasu horretan gas-tuak direlako, berriro modan jarri da bestearen erru frogatzea jak-kipenik ez ordaintzeko.

—Gaitasun eta lan berdinean, maiz emakumea gizona baino gutxiago ordaindua da, eta guk beti Koranak baino hobeki egi-ten al dugu? Eta ez al du gizonak, gizartean, oraindik sarritan bi andre balio?

—Lebitikoaren zikintasunak kristau elizkizunetan oihartzu-na du, ezen erditu ondoren emazteak apaizaren benedikapena hartu behar du, Elizan berriro sartzeko.

Elizak, ordea, ez zuen mendebaldean pentsamendu berdina izan. Hasieran, Elizako aitak eta San Agustin jarraikiz, fraide ikuspuntua zen nagusi; alegia, emakumeek ez dutela arimarik eta haien gorputza deabruaren egoitza dela. Alabaina, garai batean, apaizek lasaiki andreak bazituzten. Kataro eta bogomiloekin Eliza, gizartearen orekaz berme zena, kezkatzen, arranguratzen hasi zen, ezen jende horiek amatasuna ukatzen baitzuten eta gi-zartea antzutzeraz eramaten. Garai horretan, sodomia praktika-tzen zutelako sasi-aitzakiarekin sarraskitu ziren. Horretarik lan-dan, Elizak amatasuna goraiatu zuen eta, XII. mendez goiti, horrekin batean Birjinaren jaurespena garatu. Ezen amatasuna bai, baina sexubideak haurren egiteko, ez atseginaren hartzeko. Atsegina berpizkundeko eskaera izango da XV. mendetik goiti. Bernat Etxepare eta Joan Perez de Lazarraga ditugu Euskal

Herrian horren lekuko, beren maitasun olerkietan ez baita trobadoreen “platonkeriarik” ez eta amatasuna gehiegi aipatzen (“Handi eta txipi oro haietarik girade... Amagatik andre oro behar luke goratu”, in *Emazteen fabore*) eta amodioa errekeritzen duenean olerkariak ez dela haur egiteko. Gogora ditzagun haren bertso batzuk:

Gizonaren errua:

*Anhitz gizon ari bada andreez gaizki erraiten,
arhinzki eta desoneski baitituzte aipatzen
ixilika egoitea ederrago lizate;
andreek gizoneki(n) beizi(k) hutsik ezin daidite (Bigarren ahapaldia, in *Emazteen fabore*).*

*Nik eztanzut emazteak bortxaturik gizona
bana bera zoraturik andreari darraika:
zenbait andre hel baledi oneriztez hargana
zein gizonek andreari emaiten du ogena? (Errua?) (Hamabigarren ahapaldia, in *Emazteen fabore*).*

Andrea atsegin emaille:

*Iduri zait emaztea dela gauza ezitia,
donario guzietan guziz gauza emea
gauzaz eta egunaz ere badu plazer handia;
harzaz gaizki erraitea bilania handia (Hamalauugarren ahapaldia, in *Emazteen fabore*).*

*Munduan ezta gauzarik hain eder ez eta plazentik
nola emaztea gizonaren petik buluzkorrik;
beso biak zabaldurik dago errendaturik
gizon horrek dagiela harzaz nahi duienik.
Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
ainguruiak bano hoboro ez lerrake gaizkirik,
bana dardo ematurik, zauri'ere sendoturik,
bere graziaz ezarte'ntu elgarreki(n) baketurik.*

Noski, garai haietan ez ziren andreak alfer bizi, non ez ziren aberats okituak, baina etxetik urrun ere ez zebilen, orain bezala,

lanean. Horregatik, “Emazteak etxean” irudia, topikoa, agertzen da:

*Haren eskuz osoan behar soinera eta jatera,
eri denean andre gabe galdu gizon egurra;
hil badadi, hura nola nor doake gainera?
Ordu oroz behar'ugu; ezta heben zer duda (Zazpigarren
ahapaldia, in *Emazteen fabore*).*

*Emazterik ezten lekuian eztakusat plazerik,
ez gizona, ez etxea behin ere xahurik (garbirik),
etxean den gauza oro gaizki erregaturik;
parabizuaian nahi e'nuke emazterik ezpaltiz (Zortziga-
rren ahapaldia, in *Emazteen fabore*).*

Uste dut Etxepareren garaian ez dakigula zuzen nola tratatuak ziren andreak, haien gaizki erraileak bazirela eta beti izango direla, zeren andreak egiaz gaizki tratatuak diren leku eta denbotetan haien konplimendu ederrik idatz daiteke, eta, alderantziz, gaizki erran ongi tratatuak direnean. Bestalde, *egia* da, *eginarekin* lotuz, legeek, foruek, auziek darakutsatela Pirinio osoan emakumea beste herri askotan baino hobekixe errespetatua zela. Andreenganako begirune hori ez zaio, agian, euskaldun gizonaren esku eta bihotz zabaltasunetik etorri; nire ustez, euskaldun emakumeak zerbait askatasun izan badu, erantzukizun astunari zor dio: mendi herrietan, batik bat, gizonek hilabeteak eta noizik behin urteak etxetik kanpo igarotzen zituztelako, bai erran deza-kegu ekonomia arrazoiengatik emaztea zela etxearen ardatza.

Horregatik, Elysée Reclus frantses geografoak idatzi zuen:

“Les anciens Basques reconnaissent à la femme les mêmes aptitudes que l’homme pour fonder la famille et la maintenir dans la prospérité alors que presque tous les peuples de l’Antiquité avaient pour la femme un sentiment qui tenait du mépris” (Préface, *Itinéraire des Pyrénées* (Guide Joanne) ed. Hachette Paris, 1862; Antzinateko herri guztiek emazteengan erdeinu kutsua zuen iritzia zutelarik, antzinako euskaldunek familiaren sortzeko eta zaintzeko gaitasuna emazteari gizonari bezainbeste ezagutzen zioten; tx.p.ek itzulpena).

Isaure Gratacos etnologiako ikerlariak, Pirinio erdiko Couserans eta Comminges-en ehun bat berriemilerekin egin bilketaren ondoren, erakutsi zigun Pirinioaren erdian mendebaldeko Europan inon ematen ez den ohitura eta egoera izan zuela emakumeak, eta egoera horrek frantses iraultzaraino iraun zuela:

“Il est un fait que les femmes des Pyrénées de la zone centrale et occidentale ont eu jusqu'en 1791 du moins, un statut et une position sociales uniques dans toute l'Europe” (Isaure Gratacos, *Fées et Gestes, Femmes pyrénéennes un statut exceptionnel en Europe*, Privat, Toulouse, 1987, 9).

Egoera horren baldintzetan, etxeko ondorea alaba batek seme batek bezainbeste eduki dezakeela da:

“*L'aîretera*, le droit d'aînesse et tous les avantages et fonctions attachées à la primogéniture s'appliquent aux femmes dans les Pyrénées centrales et occidentales, fait unique en Europe” (aip. lib. 79).

Hogeigarren mendean emakumezkoek burua eraiki baitute, Nietzschek jadanik ukatzen zien berdintasunaren izenean gertatu da. Batzuek diote emakumeak kanpoan lan egiteak eta gizon kargu zirenak andreek hartzeak familiaren eta lanaren desarautzea ekarri duela, baina ez ote da hori gizonek beren familian eta beren lanean lehen zeukaten erantzukizun apeta galdu dutelako gertatu?

7.6. Ohituren aldaketa Egiategiren zahartzaroan, 1780. urtearen inguruan

XVIII. mendean, Euskal Herriak sekulako ekonomia eta demografia garapena ezagutu zuen. Horrelako kasuetan, gizartea laster desplomatzen da. Aurrerakuntza Egiategiren begietan eztabaidagarria da. Zuberoan hobeki bizitzeak eta aberasteak ez omen ditu ondorio onak ekarri. Jendeak dirua duenean sarri diru gehiago nahi; diru gehiago denean gaizki erabiltzen: gaur ere, hori alkoholismoan, droga adikzioan xahutzen. Egiategik idatzi “*Aberastarzun guzien giltz bakoitza*” Gipuzkoako diputaziotik

galdu etxe ekonomiako liburuan dio bere zahartzaroan emakumeen alkoholismo berria gizarte gaitza bilakatu dela.

Gure filosofoa, agian, gazte denborako nostalgian dabilela eta adinaren bizkar jarri gabe, berez ezezkorra dela uste genezake; baina administrazioaren dokumentuek berbera diote, nahiz jende gutxiago bizi XVIII. mendearen hastean, jendea langilea osasunez sanoago eta aberastasunek hala-hala itsutua zegoela. Bestalde, zuzenbide edo foru ohituren galtzea salatzen du. Antzinako justiziarren alde dago:

“Züberoan intzaurtze (intxaurrondo) baten pean Mauleko hirian, kürütxe marmol (t)xuriz dena orain leküan, kostümaren (foru epaitegia) kokatzea zen ordüan norbere herrietan arau-jakintzaz” (*Bigarren liburua*, argitaragabea. Euskaltzaindian dagoena digitalcan).

Manuel Larramendikoak bere *Sobre los fueros de Guipúzcoa* delakoan hala-hala dio, jurisprudentziaren aurka hitz eginaz eta justizia bakunago baten alde. Larramendi irakurri gabe, Egiategik ere jurisprudentziaren gehiegikeriak salatzen ditu. Euskal Herrian, ideia horiek airean zeuden; alegia, lege gehiegik legetasuna kentzen duela eta dirudunaren zuzenbideak hobeki artatuak direla. Nola alda azken hori baldin boterean dauden “handien” eta politikero ustelen onuretan bada?

7.7. Ohiturak eta mitologia

Mito gabeko herririk ez dago, baldin edozeri, edozein ohi-tura berriri, izen hori ematen ez bazaio. Mito gutxi batzuk mundukorrak dira, herri bakoitzean beren beharren arabera moldatuak eta bakanki hutsetik sortuak dira.

Mitoen edukia, ikertu nahi duenarentzat, eskubide, teknika, komertzio, ohi-tura osagaien altxorrak dira. *Herri* batek bere nor-tasunaz, bere berezitasunaz definizioa ematekotan, mitoak gure kondaira zaharrenetik datozela aitortu behar du. Geroaren eta ohituren irudimengintzan, mitoak ezinbestekoak ditugu.

Iraganaldiaz eta orainaldiaz mitoek sinboloak eskaintzen dizkigute, eta guk gure gizarteari egokitzen zaizkionak hautatzen. Mitoek kosmogonia bat, munduaren ikuspegia eskaintzen digute, ez bakarrik jende ingurumenarena, jendearen jatorriaz, baina izadiaren ingurugiroaz ere eta nola jokatu Izadiarekin heziketan. Jakintzaren argien hautatzen mitoek lagunduko gaituzte. Mitoak ipuin moduan gordetzen dira, baina oroitu behar dugu, zer kontestutan sortu diren, noiz nola kontatzen diren (ik. J.M. Apalategiren artikulua), ia denak baserri mundutik gizartea bizi zenean sortuak. Mitoak, jakina, ez dira egiak, ez eta dogmak, nahiz ekintza batzuen bideratzeko baliagarri izan; beti egongo ezberdintasuna ipuinetan kontatzen denetik egiten denaren artean. Jung-ek *arketypen* deitzen zituen herri sineste motakoak baizik, eskemak, gure gogamenaren geometria bakunena, unibertsalakerietarik aterpetzen, babesten gaituztenak. Gainera, besteengandik bereizteko, urruntzeko edo hurbiltzeko, nortasunaren gordetzeko, mitoek beste kulturei bestelakotasun muga bat jartzen diete. Jose Maria Satrustegik horretaz idatzi zuen, gaztelaniaz, eta euskaratzen dugu:

“Mitoak ez du azken denboretan fama oso ona eduki. Hitz hori kalean dabil, andeatua, hautsia, balio gabeko diru baten gisa. Gizarte modernoak ez zuen haren hizkuntza ulertzen jakin, eta harekin bidegabeko izan zen.

“Euskaldun herriaren haustura sakonenaren aurreko gure biziko partaideak gara, gure nortasunaren antza irudikatzen duten ezaugarrien biziraupena galzorian jartzen duten gaitzaldia delarik horren ondorioa.

“Joera berritzaile eskatzaile handienekin bere oinarritzko ezaugarrietan osoki bat egin lezakeena arbasoen iragan horrekin hautsiz, hutsean, ezerezean jauzi egitea arriskatzen dugu.

“Mitoa ez da nahikeriazko ekoizpen iragankor edo ganorabakoa gizonak munduaz eta izadiko indarrez daukan ikuspegia eta honela deskubritzen zituen tekniken transzendentzia jatorriaz salatzen ditu jakituriaren goi mailakoarekin bat etortzen delako.

“Mitoa antzinetatik datozen herrien moralak, etika eta gizarte jokabideak bulkatzen dituen ereduak, hortik dator haren azter-

tzaren garrantzia” (J.M. Satrustegi, *Mitos y creencias*, Ed. Txertoa, Donostia, 1980).

Irudimenak ipuinetan jadanik mitoa edertzen du: badakigu oraingo euskal artistak mezu hori ulertzen saiatu direla eta Greziako mitoez bezainbat edo gehiago geureak erabili behar ditugula; hala, Gelos margolariak, Basterretxea zizelkariak, Oteizak, Txillidak eta Zumetak, gure pizkundearen sinbolotzat, gure mitoa eraiki dituzte. Bide horretan, Agosti Xahok euskarazko *Azti-Begia* olerkiarekin lehenbiziko urratsa eman zuen, geroago *La philosophie des religions* delakoan garatuko zuena eta Jon Mirandek urrunenik eraman nahi izan.

Jose Inazio Hartsuagak bere tesian hain ederki azaldu puntuak laburtuz, gure mitologiak, gure arketipoak gure balore zenbait erakuts litzake: *Emakumezkoen garrantzia*. Jainko arrik ez bada euskal mitologian, hiru erdi jainkosak ditugu, lurra, eguzkia eta ilargia, Lurraren bi alaba nagusiak eguzkia eta ilargia izaki. Esan behar da mundu osoan, beste mitologia zaharretan, agertu direla, han hor. Duela 15.000 urte Akitanian agertu ziren lehenengo ama-jainkosen, lur jainkosen estatuak desagertu badira, sinesteak, Andere edo Mariren sinesteak, orain arte iraun dute gure herrian.

Artzain nengoela, Elixagaraiko osabarekin, aste baterako, Aspildoiko olan, Barandiaranen *Mitologia vasca* liburuko lur, eguzki, ilargiaren inguruko sinesteak kontatu nizkion osabari eta erantzun zidan euskaldun zaharrek arrazoi zutela: lurra, ilargia, eguzkiaren gorestea, ezen ziur gaude badaudela eta ongi egiten diezaguketela ere bai.

Euskal mitologiako izaki mitikoak gizonen artean bizi dira eta bi sexuetoakoak dira; beraz, euskaldun zaharren erlijioak, Greziakoak bezala, dirudienez ez zuen sazerdote beharrik. Gizonek “beste izakiekin” harreman zuzenak eduki zitzaizketen. Euskaldun andreak sinesteak zaintzen zituzten eta hilekin harremanetan jartzen ziren. Etxekoandreak ziren hilen, elizako betekizunen zaindari, eta apika garai zaharretan sineste zaharren begiratzailerik.

Izaki mitikoekin ez zuten betekizunik, trukean ziren harremanak eta harremana hausten zenean, indoeuropar sinesteetan ez bezala, ez zen zigorrik. Hala dabilta auzoak ere herrietan.

Bekatuaz. Semiten eta indoeuroparren alderantziz, gure mitologian ez dago edo ez da gorde jatorrizko bekatuaren aztarnarik. Gure mitologiak erakusten digu, eta Pirinio guztian, berandu arte, ez genuela monarkiarik eduki eta horregatik jainko-errege itxurako Zeus edo Jainko Aita bizardunik ez dugula ezagutu. Bizi ematearen eta joritasunaren inguruan eraiki ziren gure sinesteak.

Gure gizartearen beste ezaugarria da elkartasun ohitura. Mariren mandamenduetan agertzen dela: “lagunt beharretan dena”, eta beste gizarte lokarri batean: “atxik hitza hitz”. Bestalde, orain haur liburuetan berrogeiez goiti dira euskal mitologiaren notinak umeen irudimena berotzeko eskaini direnak. Mitologia gure gizartearen huts eta beteen ispilua da eta Kondairarekin, historiarekin batean nora joan eta nola erabakitzen lagungarriak izan litezke. Horrek ez du esan nahi mito batzuk ezabatuko ez direnik eta berriak sortuko, baina ordu da jakin dezagun geuretik pentsatzen, nahiz gauza jakingarria beste herrien pentsamenduen euskaraz ematean, frantses/espainol kulturen morrontzatik irten behar genuke.

7.8. *Ohitura, forua eta kondaira*

Foruaz

Forua jokabide onen eta txarren bilduma denez gero, Egia-tegik kritikatzan du. Ohiturenganako ezaxola edo gaizki aplikatzea, baina halaz ere ederresten ditu:

“Heüskaldünak beren lege zaharretan botzik (pozik) bizi dirade” (Iehen libürüa, *Rertüteaz*, 37).

Foruak pribilejio ere deitzen ditu, eta jarraitzen du:

“Pribilejioak zaharrago eta gomendarriago izan behar zaizkü, zeren gure antzinekoen bertüteri zor baititügü eta txipitze edo galtzarekin heenganik endekatüak baiginate” (Bigarren liburua, argitaragabea, 958. gogamena).

● Ondotik, gure filosofoa kezkatu agertzen zaigu: “Zuberoako legebiltzarrak, *Zinbideta* galduz geroz ez baitira agintariak, eus-

kaldunen nobleziaz eta foruez (*Traité sur la noblesse des Basques*) Sanadon frantses apezpikuak idatzi liburuaz baliatu, erresistitzeko. Frantses errege zentralista azken foruak murrizten eta kendu nahian dabilelarik. Ausartzia handiegia ote litzatekeen galdetzen du: Estatuengandik ez duenean eskuzabaleko idazle horrek eskerron seinale fimiñoena jaso. Zuberoako sindiko diren Onizeko jauna eta Arthez jaunarengandik ere ez eta itxaron zitekeen laudoriorik.

“Azti horiek liburuia erdeinatzen dutelarik berek hobea egingo dutelakoan ote?” Jarraitzen du Egiategik argitaragabeko bere bigarren liburuan idatziz Nafarroa Beherea zalantzan aurkitzen dela, ohiturazko legeak ia kendurik, auzoen gisa zuberotarrek foruetan astinaldi eta inarrosaldi ederrak hartuko dituztela eta gatazkarako gerturik jartzeko ez dutela kontu handirik egiten. Jendaurrean Sanadonen liburu hartaz kasu gutxi egiten dutela erakutsiz.

7.9. Egiategi eta historiaren kezka

Egiategiren garaian euskarari ez zioten, oraindik, gure arbasok burua eraiki, Euskal Herriko foruak eta kondairak erdal erromantzeetan idatziak ziren, gutxi batzuk zekiten erdaraz edo latinez eta hori kultura baten akats handia zen.

“Legeak eta kondaira mintzo arrotzetan ohore gütik antzinekoeri dio egiten, ezen mintzoa (hizkuntza) ez dakianari, bata ta bestea dirade koloreak itsüari” (Bigarren liburua, argitaragabea.)

Zoritxarrez, gure egunetan, gure euskal unibertsitario asko itsuari kolore ematen dabilta, beren arteko hizkuntzak erdarak direlarik. Antzina foruak, batik bat, Bordelen edo Pauen eta Euskal Herritik kanpo zeuden epaitegiatarako erdal hizkuntzetan egitera behartuak ziren.

Gaur, aldiz, zuzenbidean indar bat egin bada, lotsagarria da nola historiak unibertsitatean edo Eusko Ikaskuntzan argitaratu bildumetan %95 artikulua erdaraz izatea, hor gatzelaniaz bakarrik argitaratzen duten euskaldun unibertsitarioek merezi duten “Ikatza” irabaziz. Gero Egiategik Historiaren garrantzia azpimarratzen digu: “Ezkribazaleen erregea da Kondairalaria ta Kon-

daira jakintza güzien giltza” (Bigarren liburua argitaragabea, 319. gogamena).

Historiak ohiturekin daukan loturaz idazten digu eta azpimarratzen ohiturak zuzendu daitezkeela:

“Kondaira da denboraren argia, bizipenaren gidaritza antzinatearen mezüa, zühürtarzünaren araua. Harez da, besteren kostüz jakintsü gertatzen, hilen bertütetzaz, beren aitürak (ohiturak) züzentzen ta zorigaitzeri esküan hedatzen ikasten” (Bigarren liburua, argitaragabea 320.gogamena).

Sanadon frantsesaren liburuaz Kondairaren betekizuna zehatzago azaltzen digu eta iruzkintzen du:

“Nola jakingo lükete euskaldunek zertako mendietan bizitzera behartüak izan diren. Zer izan ziren? Zer obra eder egin düen? Eta dio ez lükela jakinen kondairalari zahar eta berriek ez baltie heetaz hitzegin, hala nola ‘Euskaldunen nobleziak’ libürükkan agertzen den bezala”.

Sanadonen liburuaren azalean gaineratua: (“Herritar horien historia orokorrerako erabil dadin, nazio haren adiskide batek egina eta euskaldun militar izan zen J. P. Bela baten oroitidazkietarik hartua”).

8. Ohituraren betekizuna eta eginkizuna

8.1. *Heziketa, sena eta ohiturak*

Bere bizi eremuaren ezagutza, baliapena eta hautematea edukitzeko, garatzeko, gizonak ikasi egiten du, animaliak baino gehiago ikasten: heziketa horretan ohituren finkatzeko garrantzitsua eta ohargarria da. Bistan da, abere aurreratu edo konplikatu batzuen artean, arratoitik tximinoraino, aurrerapenaren, aitzinamenduaren eskarmentua dagoela, baina ikasi gutxi metatzen dute eta mututasunez nekez transmititzen. Eskuaren trebetasun motzaz eta mintzoaren ezaz mugatuak dira. Ez dirudi ohiturarik dutenik.

Gizonak, sinbolikaren bidez, ikasia hurrengo belaunaldietara igaro lezake eta hori ohitura bilaka, eta tximinoek badirudi ezetz. Bestalde, argi dago eskarmenturik gabe, probarik gabe, jendeen gogoia nekez garatzen dela eta gizarte giroa behar duela; horrela-ko zerbait darakutsate erdi-basati aurkitu umeez.

Sinbolikaren mailan, ez dakigu gogamena ala hizkuntza den lehen. Arrautza ala oiloa? Beharbada, hizkuntza baino lehen irudi gogamena egon zitekeen.

8.2. Adigaiak eta ohiturak

Adigaiak edo kontzeptuak jendearen bilakaera bideetan agertzen dira. Europar ikuspegi batetik gabiltzanoi ohituren egitekoa ahaztu zaigu, bai lekuak, bai gizarteak adigaiak baldintzatzen ditu eta ohiturak ugaritzen, nahiz europarrok sarritan gure ideiak unibertsalak direla diogun. Horrela, ohitura orokor batzuk lurzabal osoan ikusten badira, beste asko ez eta guretzat adigai direnak besteentzat ez: hala, txineraz “izan” aditzik ez dagoenez, Sartreren “izakeriaz” idatzi izan, ez-izan, eta ia-izan nahasferiak ez dira ezer.

Giza jakintzan, askotan, gainean jartzen diguten teoria ingelesena, amerikarrena, frantsesena da eta haien ingurumenetik ikusia. Adigaiak eguzkiaren argiak dira, lurzabalean zehar barreia daitezkeenak, baina bakoitzak bere aurpegiak baztertu, hartu edo egokitu dezakeena; aldiz, abereen senezko aurkikuntzak, asmaketak, beren hiltzearekin itzaltzen diren su txinpartak dira. Gizonen abantailak ez dira, ordea, hain handiak beti, ezen indar eta agintea nahiaren kontzeptuaren gauzatzeko sarraskiak, gerrak, zapalaketak, ezinikusiak, miseria gorriak, goseak eta bidegabekeriak jarraitzen eta zurrizten baitira.

Adigaien izaera ez da Izadiak eman sena bezain orekatua. Izadiaren eta Gizadiaren kalterako adimena baitarabilgu. Horregatik batzuek, XVIII. gizalditik goiti, Izadia eta Kultura etsai bezala jarri badituzte, Kultura edo, hobeki erran, garapena nagusitu da, baina Izadiak begirunerik ez badu, Kultura kaltega-

rria bilaka daiteke eta lurzabal honetan bizidun asko behin betirako galaraz.

8.3. *Adigaien edo kontzeptuen agertzea*

Adigaiak, ikusi dugunez, sakabanatuak dira. Oroimenik gabe, tximinoak espazioaren kontzeptu baten erdiesteko gai dira, hala-hala gor-mutuen hizketa ikasiz, gauzak erakutsi gabe, ekintza bat, ariketa bat adieraz lezaketela (leihoa, atea, ireki, zerratu), ideia orokorra ere (giltza), baina abstrakzioaren lehen pausu horretarik goiti ez doaz, ohituraren mundura igotzeko, sinbolikaren giltzarik ez.

Adigai guztiak ez dira ohituretan baloratzen. Jakintza orokorreko kontzeptuak egunerokotasunarekin kontraesanetan gerta daitezke. Ohiturek sarritan ingurumenarekin daukaten lotura handiegitik askatzeko, jakintzak (*zientziak*) beharrezkoak dira. Antzina, horretarako, Greziak, Indiaren ondotik, espazio objektibatzearen bideak hartu zituen. Nolanahi, adigai berri asmatzaile guztiak, balore mundukor hotsezko sortzaileak, ez dira beren herriko ohitura ingurumenetik askatuak. Jung Suitzako protestante heziketakoa zen, Freud Austriako judu bibliazalea, Descartes frantses sineskor eta katolikoa. Beren jakintza beren heziketaren bidetik edo aurka egiten eman ziren. Goetheren, Nietzscheren mirespenean hizkuntzaz biltzen zirenak heziketen bestelakotasunak elkarrengandik bereizten.

Gizarte batek bere kultura garatzen duenean –kosmogonia bat asmatzen duenean bezala– apurka gauzak bere gisara sailkatzzen ditu, adigaiak irakasten. Adigai horiek aski neutroak baldin badira beste herrietara heda daitezke (Grezia) edo beren herrian kokaturik gelditu, herriari egokituak direlako (Israel, Islandia). Ohiturak herri bati egokituak, bai, baina garai batean egokia zena gero desegoki eta deseroso gerta daiteke. Kondairak erakutsi digu Erromako inperioa bere ohiturak galduz erori zela, aldiz, inperio espainola bere ohitura zaharkituak gordez desegin.

Ohitura ezeztu, baina halaber, aurrerapenaren izenean, teknikariek eta teknokratek galarazi ohituren lekuan ez dute beti

zerbait eskaini. Aitzinamendu edo aurrerapenaren berrikerietan, munduaren heren bat bizi da Burtsaren gorabeheri begira eta ez beti gogoz ongi bizi eta besteak anitzetan oinarrizko beharrak bete gabe gorputzaz askozaz gaizkiago. Aurrerapenaren izenean, errusiarrek, amerikarrek, europarrek herriak kolonizatu ditugu eta batzuen txirotasunaz baliatuz geure ohiturak, geure sinesteak, geure hizkuntzak sartu dizkiegu.

Mendebaldekoek gizon estandarra lurzabal osora hedatzen dugu eta Eduardo Gil Berak idatzi zuenez, XX. mendeaz mintzo: “Mende honetako asmamen nagusia dugu «gizon normala”. (Ed. Gil Bera *O tempora! o mores!* Pamiela, Iruñea, 1989, 93. orr.)

Gainera nezake, Grezian ere, Sokrates pozoindatu zutenean, gizon normalaren irudia hautsi zuelako gertatu zen, eta frantses iraultzak, halaber, erregeek konkistatu herrien irensteko. “Le citoyen français” estandarra asmatu zuen, hizkuntza bakarra eta pentsabide bakarra lege.

8.4. *Ohituren aldatzea*

Gai horretaz 1973an J.M. Satrustegik argitaratu zuen *Ekaitza* (euskaraz) eta gaztelaniazko hitzaurrean idatzi:

“La transformación que se va operando en la generación actual resulta vertiginosa y provoca, con frecuencia, crisis violentas que tienen repercusiones directas tanto en la vida social como en el mundo de las creencias y valores del espíritu”. (J.M. Satrustegi, *Ekaitza*, Jakin, Oñati, 9).

Ez da krisia, gehienetan, beroaldi, jazarraldi gabe egiten. Belaunaldi bakoitzak badu bere gisako harrokeria, bere gaztaroen aurretik zegoen guztiaren gaitzestea, baztertzea, ezabatzea. Aldatzen dena askotan azalezkoa da, modazkoa zena, beste moda batek aldikatua, hala nola jantzietan, musikan, hizketan.

Ohituren sakonkiago aldatzeko, etxekoen eta eskolen irakaspenak behar dira eta kanpotik ekonomia baldintzen kanbioa; hori egin lezakete guraso eta irakasleek ezтики, erreformatzaile gisa, eta orain geroago eta gehiago komunikabideek eraginik. Iraultzaileek,

ostera, gizartea osoro berritu gura dute, ezkerrekoek sasi-berdintasun baten izenean, eskuinekoek sasi-elitismo baten izenean; biek boterean irautenegi badute, politika Nomenklatura bat sortzen dute. Biek totalitarismorako joera eta tiraniak ere eman ditzakete.

Belaunaldien arteko ezin ulertuak ohiturengatik dira. Baina ezereztasunzaleak, nihilista direnak, ez dira konturatzen zahar maltzur batzuek erabiliak direla, gobernua hartuko dutenek, eta historiaren gurpilar bi belaunaldik baztertu baloreak errotaren ibileran berriz agertzen direla. Ohituren aldatze hori isilpekoa izan zen, baina 1968. urtean oihukatzen ziren esloganak, idazten zituzten panfletoak, berrogeita hamar urte goizago surrealisten esanak ziren.

Aitor dezagun, orduan, ohituren hipokresia zerbait galdu zela, baina laster kritikatu zuten kontsumerismora pozik itzuli ziren orduko gazteak eta beren ekoizpenak salgai bihurtu. Ez zen gehiago "Che" rik izan, baina ministro eta diputatu Régis Debray, Cohn-Bendit eta beste.

Orain, borroka marxistaren aterabide gabe, bakartasunaz izutuak, talde ohitura berria azaldu da, izurritearen moduan lehenik Estatu Batuetan, eta hein txikiagoan European. Horretaz, Gotzon Garatek han ikusia idatzi zigun, *New York! New York!*, eta Euskal Herriaz *Izurri berria*. Euskal Herrira bizitzera etorri behar nuen, eta Patxi Altunarekin Donostiako Gastronomiaren leiho batetik behean neska bat mutil bati morfina edo beste botiga baten indizioa egiten ikusteko. Gai horiekin, *Hogeita hamazazpi ordu* euskal filma daukagu. Bai, zer eskaintza daukate ilusio gabeko gazteek ideologiak eta erlijio handiek porrot egin ondoren, kontsumoaren bidea, drogaren bidea, sexuaren bidea, baina beldur izateko da egun batean, sekten bide itsua ere nagusi daitekeela.

8.5. Kulturazko ohiturak

Zibilizazioa, gorago aipatu guziez idaztean, teknika, gizarte egituraketa eta besterenak izan bada, kultura ingeles adierazi estuan, atseginezko eta aisialdizko jardueretara muga genezake: *antzertia, arte plastikak, dantza, kirola, literatura, musika, zinema,*

nahiz eta garai batean horien artean Euskal Herrian larregi gainbaloratu ziren hizkuntzaren beharrik ez zuten herri kulturaren osagai dantza eta kirola.

Kirolek horrelako lehentasuna dutelarik, guretu dugun *pilotaren ohitura* azter genezake. Hiztegiak salatzen duenez, kanpotik etorri zaigu kirola. Grezian, Erroman, bazegoen. Frantsesek Erdi Aroan leku irekian *longue paume* edo bota luzea jokatzen zuten eta trinketen antzeko saletan *courte paume* edo bota laburra delakoa. Euskaldunok jokoak ikasi, aldatu, ugaritu eta berrikuntzak ekarri genituen. Pilota eta eskularrua eta sarea ez baditugu asma-tu, gureak dira xistera, gurea da pareta bakarreko frontoia, ezker pareta, jai alai. Beraz, adibide horrekin argi dago ohitura bat ez dela onddoa bezala goizetik arratsera sortzen. Alderantziz, gainera genezake ipar amerikarrek, gure jai alai eta trinketak kopiatuz, XX. mende azkenean *squash* delakoa “asmatu” zutela.

Ohitura bat mailegu batetik abia daiteke. Kanpoan zerbait hartzen da, aldatzen edo hortik abiatuz beste zerbait asmatzen. Hori batik bat ohiturazko kulturari, aldaezin hotsezko kultura horretan aurki genezake. *Euskal dantzak* adibideak eman litzake. Zuberotarrek hain zahar direla uste duten dantza zaharrenak XVII. mendekoak dira, gehienak XVIII. mendekoak. Euskaldunak boluntario edo mertzenario gisa erregeren armadetan sartzen ziren, hala nola “Légion des volontaires du Royal-Cantabre” horretan.

Armadan, frantses dantza klasikoa (italiar eta alemaniar dantzekin gurutzatua) ikasten zuten. Herrira itzultzean, ikasiarekin, ordea, besoen erabilera debekatzen zuten euskaldun dantza zahar-rak topatzen zituzten, eta zuberotar dantza klasikoa egileek besoekin ez dute keinurik egin behar, ez eta gerria baino gorago altxatu; asko kostatzen zaie dantzari klasikoei zuberotar dantzen ematea. Euskal dantzak, agian, eman zailak direlako, ez dira dantzariak eskuekin lotzen Britainiako Jabadao, Kataluniako Sardanetan bezala; zerbait lotura denean, ia beti, makila baten edo eskuzapi baten bitartez egiten da.

Zertarako dantzatzen zen lehenago Euskal Herrian ahaztu da: naturaren babesa lortzeko, eta orain beti bataren edo bestea-

ren gorputz edertasunaren erakusteko, bestearen enjogitzeko, lerdentasuna eta sotiltasuna erakutsiz erabilia litzateke. Euskal Herriko eta Pirinio erdiko dantza jauzietan, ingurua bitxiki beste europarren alderantziz biratzen da, frantses *ronde* delakoetan erlojuaren orratzen norabidean ematen dira eta Euskal Herrian alderantziz; gainera, eskuineko oinarekin abiatuz, klasikoen alderantziz. Guk asmatu ala besteek galdu, ez da erraz esatea. Lehenik fandango-jota Aragoitik eta gero trikitia Italiatik sartu ziren Hegoaldera, baina herriko dantzetan besoen erabilera debekatua zelarik, XIX. mendean dantza horretarako besoak altxatu ziren; hala eta guztiz ere, geroztik euskaldunek gaineratu zutena arinarina izan zen.

Ez da horrelakorik Euskal Herrian bakarrik gertatzen, gaskoiek beren “gaskoi dantzaldietan”, jatorria ahaztuta, Poloniako mazurka eta polka zaharrak ematen dituzte. Ekuador, Kolonbia eta Peruko kreol askok uste dute, eta hala zioskun, Alfredo Bryce Echenique perutar idazleak, berena dela *bals* dantza, eta beren folklore bakarra dela, nahiz balsa Austriatik etorri zen, herri oroimenak galdu baitu.

Europar, Espainiar agertu ziren lehen hilarri biribilak, disko antzekoak, baina gehienak gaur Euskal Herrian daude, ezen euskaldunei, antza, hori gogoko izanik, besteek ozta-ozta erabilia hedatu zuten. Disko antzeko hilarriak, ordea, Euskal Herrian, batik bat Iparraldean eta Nafarroan, beste inon eman ez den harrizko zizel lan dintel batekin apaindu ziren, eta eraldatuz hilarri mota hori ere geurea egin dugu.

Musikaz baliteke zer errana: gurea Europa mendebaldeko eskolakoa da, zelden antzekoa kantuetan sarritan, baina dantzetan non-nahitik etorria eta kalitatezkoa hautatuz, Alemaniatik, Austriatik, Italiatik, Espainiatik, Frantziatik. Euskal ohiturazko kantuetan, herri musika gehienetan gisa, abesti batean neurria alda daiteke eta nota tonu laurdenetan eman. Hitzak daudenean, silaba bakoitzerako nota bakar bat bazen. Euskaldun kantuak bere testuetan ez du auzokoen bidea jarraitu: gaskoiek artzainkeriak, “pastourelle”, artzain-artzaintsen arteko amodio eztabaidak

dituztelarik, euskaraz ez dago horrelako bizpahiru baizik eta espainol eremuan Lazarragak XVI. mendean egin artzain eleberria idatzi zuen.

Gure abesti zaharretan, penintsulakoetan ere, eta frantses “chansonnette”en alderantziz, ez dakigu gehienetan, maitalearen ofizioa: idealizatu da.

Ohituraren indarra arte plastiketan agertzen zaigu, euskaldunak luzaro figuratiboak izan direlako, baina puntu berezia da ez direla, gehienetan, espainolen gisa beltz zale, kolorezale baizik, eta beharbada Parisen ikasi zutelako eta agian paisaia Gaztelan baino koloretsuago delako, euskal inpresionisten eskola bat izan da. Horiakin ororekin, joan den mendean, XX. mendean, kulturaren ohitura berriak sartu zitzaizkigun Euskal Herrian, bertsolari txapelketak, dantzaldiak, kantaldiak, Euskal Rocka, telebista eta zinema.

8.6. Ohituren dinamika

Ohitura herrian eta herri auzoetan mailegatu jakiturien bilduma litzateke, baina gure gaurko lan honetan ez dugu egunero-kotasunez, ozta-ozta, automatikoki egiten ditugunak aipatuko. Guretzat, belaunaldiz belaunaldi jakinaren gainean helarazten diren ohitura eta ekanduak izango dira. Nahiz kontserbatzaile amorratu batzuek bestela uste, badakigu, nolana eta haiek nahi ala ez, ohiturak aldatzen direla, garaiari egokitu behar dutela. Ohituren mundua ez da gehiena genetikatik etorria, genomaren bitartez, baina adigai bidez jende ingurumenarekin eta ingurugiroarekin egokitua.

Hamazortzigarren mendean, Argien Mendean, “Ilustrazioan”, batik bat Frantzia, erlijioak zeukan indarra galduterik, baloreak apur bat eztabaidaturik eta frantses iraultzak okerturik, Europa guztiari frantsesek gain jarri nahi izan zizkioten ohituren aurkako aldaketak: gizonen eskubide aldarrikapena, andreak ahaztuz, izan ezik, egutegi profano berria, hamar eguneko asteak, elizen debekatzeak, Goien Izakiaren (l’Etre suprême) jaurestea,

denek lurra jo zuten. Frantses iraultzak demokrazia maltzurrena eman zuen, erresumak 25 milioi bizizale zuelarik, emazteak hauteskundetarik kanpo utzi zituen, baita 7.300.000 gizon helduetarik zerga ordaintzen zuten 4.300.000 bat hautatu. Zer “suffrage universel” miresgarria Iraultzaren seme Robespierren Terreur edo Izuteak ekarri zuen, iraultza askok bezala, iraultzalarien alderdi bakarra, diktadura; azkenean obratu zena burgesak aristokraten lekuak hartzea izan zen.

Aitor dezagun Rousseau suitzar eta argien mendeko filosofoak ez zuela demokrazian gehiegi sinesten: “Gobernu hori ez da gizonena, Jainko herri bat balitz, demokratikoki bizi liteke, baina betegina litzatekeen gobernu ez da gizonena” (J.J. Rousseau, *Le contrat Social*). Rousseauk uste zuen Frantzia demokraziatik hurbilena izanen zela baina indarkeriarik erabili gabe.

Marxek komunismoa, berez, Alemanian garatuko zela uste izan zuen. Biek zer seme izan duten ikusi balute, beharbada Voltaire iraultzaren aurka izanen zen eta bitxiki Rousseau totalitarista protestantea, alde, ezen Robespierren eta haren diktaduraren inspiratzailea izanen baita.

Askatasun uniforme baten izenean zapalkuntza den jakobinismoa eta estatu-nazioaren asmoak ilustrazioaren azpi emaitzak dira, gero Europako gerla nazionalista hilgarriak ekarriko dituztenak. Geroago, Frantzian Joseph de Maistre hargin beltzak (frazonak) eta Alemanian Herderek ohituren balioa eta balorea sustraituak izatetik zetozeala aldeztu zuten. Apur bat errotua ez dena ezin dela iraunkorra izan.

Geroztik, alderantziz, Alain Tourainek azaldu digu ohiturazko kulturak ez zircla gai gizarte aldaketan eraikitzeke, baina, ez al da txarrago frantsesen sistema komunitarioa, musulmanen ez integratzea ekarri duena?

Orduko pentsaera horrek zehaztu zuen zenbateraino ohiturak baikorrak, dinamikoak eta irekiak izan behar duten; ez dela behe-kulturarik ez eta goi-kulturarik, ekoizpen txarrak eta onak baizik; ohiturazale eta aurrerakoi izan litekeela. Ikuspegi bakar batean mugatzeko ordez, Biologia, Etnografia, Geografia, Historia, Psikologia, Soziologia ezagutu behar liratekeela. Bai, giza

eta gizarte jakintzek, aditu zenbaiten bolizko dorreak ez badira bilakatu nahi, elkarren arteko trukaketa beharrezkoa lukete.

Ez zaigu ahaztu behar nola eskuineko ideologia zenbaitetan zioten baserritarra, laboraria ez zela eskolatuegi behar, kaltegarri zitzaiola, bere ohitura zaharren jakitatean utzi behar zela. Napoleon I.ak hala uste zuen, "Lycée" delakoak elite batentzat antolatu zituenean. Burges zahar batek zioetan behin, ez du aspaldi, oso pozik gogoratzen zuela Baionako lizeoan ikasle gutxi izatea eta eguna danborrada militar batekin hastea. Napoleon I.arentzat lehen mailako eskolak Elizaren eskuetan utzi behar ziren, haurrek dotrina ikas zezaten. Beraz, jende ikasi batzuen ohiturazaltetasuna oso susmagarria da. Sabino Aranaren kasuan, politikazko joera zen, kristau morala gizartearen orekari eusteko bide bakarra zelako.

Batzuek liokete ohiturazale sentimendu hori beti eskuinetik datorrela, baina kontura gaitzen apur bat durduzatu ondoren, marxista zirenek ez zituztela, Txinan eta Kanbodian izan ezik, ohiturak osoki baztertu. Sobiet Batasunean errusiar folklore ohiturak ziren baloratzen. Gure herrietan, iraultzalari moduan eta modan dabiltzan gazteek ez dute pentsatzen pilota, sagardo edatea, talo jatea, trikitiak edo bertsolariak eskuinaren ohiturak direnik, eta amerikar kapitalismoak bidali ohitura berrietan murgilduak daude gure marxista batzuk. Euskal Herrian ohiturak ez dira eskuinaren monopolioa. Ohituren berritzea ez dela ematen gure herrian? Bai. Oraingo bertsolaritzak ez du asko ikusteko antzinakoarekin, trikitia XX. mendeko ohitura aski berria da. Zuberoan pastoralak iraun du, bi egun luzetatik hiru ordura jaitsi delako, santuak eta frantses erregeak ahazturik Euskal Herria aipatzen dutelako. Zer esanik ez, Euskal Rocka ohitura berria da, agian denborarekin aldatuko dena, dagoeneko hitzak behintzat sarritan euskaraz direlako, geure egin duguna. Ohituren balio berria hartzea gertatzen zaigu: ez du aspaldi ikusi dugun bezala, gure luginen, marinelen eta eskulangileen sineste zirenak bildurik, sinesleak urriturik, altxor horretaz haur ipuin idazleek, margolariek, olerkariek, zizelkariek, zinemalari batzuek sinbolikaren munduan sartu dizkigutela.

Beraz, etnologia ere ez da beti hilerri eraikuntza. Ohitura baten berriztatzea baino gehiago, askotan, erabilpen berria gertatzen da: sinbolo eta ikur anitzekin gertatu ohi dena. *Lauburua* deritzon euskal ikurrari gertatua jakingarria da.

Hasieran nolabait Europa erdialdetik (Mazedoniatik?) atera esbastika hori, bere bi itxura lauki eta biribiletan, Txina bazterretik Euskal Herriraino, denetan hedatu zen. Hitlerrek ospe txarra eman zion. Santa-Graziko Ibarburu etxean 1779.ean grabatu hiru lauburu ikusi nituen, “on hotsezko” bat eta “txar hotsezko” ezkeraldera biratzen direnak bi (txar, diote Hitlerrez gero).

Lauburua guri, agian, erromatarrek ekarri ziguten, ez baitu lekukotasun zaharragorik, eta orduan, hasieran, zeruaren itxura zeukan, izar konstelazioen mugimenduaren irudia, geroago eguzkiaren esanahia eman zitzaion, baina kristauak, “Sol invictus” hori kristautuz, Kristoren irudi egin zuten eta eliza jendeen hilobietan agertu zen; gero, bere adierazia galduz, hilarrietatik atalburuetara igo zen eta hor, sarritan, eguzki babeslearen, eguzki-lore babeslearen lekua hartuz. Azkenean, gure nortasunaren gurutzeta daukagu euskaldunok, etniaren seinale.

Berreskuratze berak gertatu dira sineste eta ikur paganoetarik kristauek, hala nola hilarri biribilekin, Eguberri eta Donibanerekin Europa guztian gertatu zen bezala, eta ohituratik beste egoera ezagutu batera igarotze horrek salba ditzake ohitura zenbait; anitzetan, oinarrizko esanahia galtzen da, mitoa ahazturik, erritua keinu ikusgarri hutsa bihurtzen; hala gertatu da Inauteriko jardunbide batzuetan.

Ideologiak hil omen direlarik, eta Ipar Korean, Kuban, Txinan sasi-marxistekin, islam herri askotako sektarioek eta mendealdeko hamaika kristau sekta txikiek alderantziz diote. Yen, Dolar, Euro jainko berriei Merkatuaren Erakunde Mundialak (MEM) jainkotzat harturik, gazteei zer balore eskaini? Ohitura guztiak baztertu behar direla, senari osoki eman edo unibertsalakerietan ito eta zer? Ikusten dena da, asmo handiek galdu badute, egitasmo txikiek arrakasta dutela. Frantsesek besteei ukatzen dien “communitarisme” eta “réflexe identitaire” neochauvinismo, neo-

jakobinismo batekin irрати eta telebistetаn predikatzen дute, *l'exception française*, jakobinoek Europa egiten ari den garaian Espainiako neofrankisten belarri ona daukate. Haiek “la Hispanidad” helburu dutelako.

Ohituren mundua ez da hil, aldatu egin da. Ez dakiguna da oraingo gazteek ez ote dituzten beren baloreekin ohitura berriak emango. Neorromantizismo bat duela hamar urte abiatu zen eta erdi lotan dago. Zer baldintza berrirekin antolatuko dira bihar sendiak, herriak, federakuntzak? Zer izango da telebistaren “mezitajearen” kanpoko kultura? Agian, guk ez dakigularik, ohitura berriak agertzen ari zaizkigu. Gaur hirian, mendi eta hondartzetan gazteek zer dioten bilatu behar. Jakingo al дute Estatu Batuetatik etorri moden gainetik beren etxeetan, auzuneetan eta herrietan beren baloreak sortzen?

Nork daki? Dakigun bakarra da gazteek ez dutela aurreko ohituretan dena erabat baztertzen zeren hamasei urteetan utzi dena, maiz, geroago berreskuratzen den. Horretan, ez dira beren aurrekoen beste gisaz jokatzten. Iragankortasuna, iraunkortasuna, aldakortasuna, horiek dira ohituren zetabe, galbahe eta iragazkiak, irin horietarik egingo dira biharko gizartearen kultura ogiak. Ohiturak arau sistema baten barnean daude; guk arau sistema horri, San Agustinen aurka eta Julianoren alde, *etika* erran geniezaioke. Honela zioen santuak:

“(..) qui de moribus, quæ pars ab eis philosophiæ vocatur ethica quam nos moralem dicimus sollertissime disputarunt” (*Contra Julianus*, libri sex, cap. XV. 76). (Ohituraz hain ederki jardun dutenak filosofian etikatzat dituztenak guk moralizat direla diogu).

San Agustinek kristautasuna gabe gizarte orekarik ez zegoe-la eta bide bakarra zela frogatu nahi zuen.

9. Kultura zer den

Ohiturez mintzo hainbat bider, kultura, hitz hau erabili ondoren mugatzea komeni litzateke. Guretzat kultura izpirituaren

obretara prestatzeko ibili den ikasbidea, egin diren ikasketak lirajteke. Beharbada, hitzari mugabide zabalegia ematen diot. Kultura ez da jakintza zehatza bezalako eraikuntza, ikasbidea da, ulertzea, gozatzea, sorkuntzara bulkatzen gaituena, baita izaditik urruntzen, animaltasunetik urruntzen gaituena eta horrela zibilizazioaren adigai zabalagotik aldentzen.

Kulturaren sar litezke filosofia, estetika, etika, literaturaren eta benetako kirolaren baloreak; horregatik, kultura espazioan eta denboran kokatzen da; horregatik, kultura osoki unibertsalik ezin da izan. Hizkuntzak du gehienetan gordetzen eta baldintzatzen edozein kulturaren ikuspegia. Kulturak ugaritasunak, aberastasunak dira. Ekonomiaren nagusitasunean, politikoaren nagusitasunean eraiki komunismoak, faxismoak eta orain kapitalismoak kulturen ugaritasuna, kalitatea ere kaltetzen dute. Horretaz argiki idatzi zuen euskal literatura modernotasunean sartu zuen Jon Mirandek:

“Egiaz abertzaleen artean, azken urteotan, euskaldun kultura asko aipatzen entzuten da. Baina zer diogu horrekin? Beldur naiz anitzentzat euskaldun-folklore erran nahi duela. Artean zer da folklorea? Bere etimonaren arabera, german eta saxon herrietan herri batek bere gogozko eta lanezko esperientzietan, ohituretan bildu dituen jakitateak dira, eta bere metafisika gogoeta eta mitologia erakusten dizkiguten ipuinak barne diren bezala, joko eta lanaren tankera zaharrak teknikaren aldetik barnean daude. Hala mugatu folkloreaki –Kondairari eta Euskal Ekonomiari bezala– interesatzea komeni zaio, naski, bere herria osoki ezagutu nahi duen euskaldun bati, kontuan hartuz gainera bere jakin egarria asetzeko nahiko elementu eman izan zaiola Azkuc eta beste ikertzaile batzuen lanen bidez: hala nola Julio Caro Baroja edo J.M. Barandiaran. Baina Frantzian eta orokorki latin herrietan, herri baten jolasketak folklore izendatu ohi dira, hala nola kirolak, kantak, dantzak eta jauziak, eta hala euskaldun kultura hedatzea eta gordetzea aipatzen denean, herri kantak, dantzak, kirolak gordetzea eta hedatzea da. Naski gure kiroletan edertasun, jaukaltasunik bada; berdin dantzetan, eta gure bertsolarien kopletan umore. Baina euskaldun kultura hortara mugatzea edo kulturaldetik garrantzi berezia

daukala sinestea, frantses kulturak Bécaud-en kantetan duela bihotza eta ipar-amerikar kulturak baseballean erraitca litzateke. Zer da beraz euskal kultura? Egjaz ez da zuzen, nire ustez, euskaldun kulturaz mintzatzea, kulturari bere adierazpen osoa ematen bazaio bederen. Europar kultura bat badago, gurean, beste herrietan bezala tokiko ikurra eta usaina duena, edo, nahi bada, europar “kultura ziklo” bat badago eta herri bezala haren barnean gaude, ez jende, ez frantses edo espainol herri-tar legean. Euskaldun kulturaren alde lan egitea helburu de-nean, europar kultura hortaz jabetzea on da.

Baina euskaldun folklorea eta kultura nahastea, eta lehen hori bakarrik gordetzeko lan egitea eta hala euskaldun nazioaren gogo bizitza salbatzea, ifiora eramaten ez duen bazter bide itsua da, desilusio garratza ezpada; zeren gogoko ala ez, “gorde-tzaile” eta “begiraleek” jarraituriko ohiko joko, dantza eta kan-tak bazter utzirik, euskaldun herriak bere kondairan beti egin duen bezala, berriki egin edo kanpotik etorritakorik hartuko du, eta molde berri horiek euskal folklore bilakatuko.

Herri batek bere folklorea egiten du; gauza argia da, nire ustez, eta alper irudi zait lehenagoaren, antzinaren maitale esteta eta intelektual batzuegandik inposatu nahi izatea. Tamalgarri dena, hainbeste borondate on eta talentu, borroka antzu ba-tean higatzen ikustea da.

Nahikoa eta aski da begien irekitzea, ikasteko nola gurea be-zain apala den egoeran bizi ondoren, azken ehun urtetotan herri batzuek beren etnia-nortasunaren errespetua irabazi du-ten, izan dadin politika jabetasunarekin edo gabe, beren ohiko dantza eta kanten alde lan egiteaz oso bestelako bidetatik, hala nola fintar, flamendar, galestar...

Aitzitik beste batzuk gu bezala folklorc erdi-hil bat begiratzen alperretan nekatzen dira, artean beren herri nortasuna egiten dutenak galtzen direla: hizkuntza, lege ohitura eta gizarte ohi-turak, arraza batasuna eta abar. Hala Irlandan, non eta aber-tzale kar batekin hasi baitziren joan den mendean, gaeliko atle-ta-kirol, gaeliko dantza, gaeliko “hurling”, gaeliko hizkuntza hiltzen ari zen bitartean.

Ondorio bezala, gaur, herri aske den batean herri kontzientzia egiazko baten hutsunea eta bere ondorengoeekin: kanpotar

zapalketaren denboran baino ingeleste sakonago, ekonomiaren gelditze, erbesteratze, herria jendez hustutze, eta abar. Zoritzarrez, gaeliko idatziriko liburu batean hori guztia garbi agertzen da; askatasuna geroztiko liburua, gazte batek idatzia bera: *Saoirse gan, Sö Joritze gabeko askatasuna*), Seân de Frêne, Dublin 1960. horrela izanen ote da Euskal Herrian?” (Txomin Peillen, *Jon Miranderen lan hautatuak*, Gero, Bilbo, 1976, 40-45).

Euskal kultura mugatu nahi bagenu, erran genezake europar girokoa dela, baina bere geografiak, bere historiak eta batik bat bere hizkuntzak bere bestelakotasuna emanik. Euskal kultura ez da hain exotikoa, baina ez eta ere ingurukoen irudikoa? Biarnoren eta Euskal Herriaren mugan bizitu naizelako, badakit zer mundu desberdinetan gabiltzan. Baina kultura baten barruan ohiturak ez dira, Txinan bezala, bat-batean aldatu behar, edo itsutuki gorde Yemen herriaren gisa. Beharbada, kultura ezaugarri horiek globalizazio berdintzaileari bihurtzen lagunduko gaituzte. Europar kulturaz, ordea, hau esan zuen duela hamabost urte Maria-Antonietta Macciocchi eurodiputatu eta idazleak:

“Europarren kultura larrialdiek beren zainak intelektualen lagunartean sartuak dituzte. Mendebaldeko intelektualak Europa Erkidegoak eurokratek orain apal jarri badituzte, lehengo hamarkadetan Heren Mundu eta sobietar marxismoak liluratuak izan dira. Europa ez da gai bere kultura espazioaren zehazteko”.

10. Gure oinarrizko balorea: euskal hizkuntza

Euskara dela eta, ezagutu ditu gure hizkuntzak etapa mitikoak, edo hobeki erran mitifikatuak: tubalismoa, abarkismoa, sabinismoa, exotismoa eta euskardarismoa.

Tubalismoa. Historian kantabrismoa izan den bezala, tubalismoa hizkuntzalaritzan nahasgarria izan da. Alegia, Bibliari jarraituz eta Babelekoaren ipuina gaizki ulertuz, euskaldunok Tubal burdinola gizonaren ondokoak ei ginen. Hori izan zen gure hizkuntza ulertzen ez zuten eta gure gaizkiz mintzatzen ziren eta

direnei lehen erantzuna, ez ginela jende basatiak eta euskara ama hizkuntza zela. Argi da ez zitzaiola eta ez zaiola euskarari oso antzekorik aurkitu. Antzekorik izan bazen, akitaniera izan ezik, lehen indoeuropar uholdeak hil baitzituzkeen. Bestelakotasunaren ezkutu horren atzean, XV. mendetik XVIII.era apologistak ibili zaizkigu, erdaraz, euskararen alde, euskaraz idazteko orde.

Hamazortzigarren mendean, lehenik Etxeberri Sarakoak euskaraz, ondoren Larramendik gaztelaniaz eta geroxeago Egiategik euskaraz, argudio horiei gure hizkuntzaren nobletasunaren alde jarriz erantzun zieten; baita, gure hizkuntzaren garbitasuna erakusteko, mailegatu hitzak latinari eta inguruko hizkuntzei geuk eman genizkiela frogatu nahiz ibili.

Dagoeneko argi dago eta argi zen ere geroago Sabinorentzat euskararik gabe ez dela Euskal Herririk eta erdaldun “estado vasco-español” hizkuntzazkoa edo “basque-français” frantses mintzairazko baten sortzeak ez duela ez bururik, ez hankarik. Geroztik hizkuntzalaritzak erakutsi bezala, gure kultura arbaso horiek ulertu zuten hizkuntza batean edo bestean pentsatzeak ez darabala ez kultura, ez gogamen berdinetara.

Abarkismoa. Onar dezakegu Peru Abarkan agertzen den kaletarrak ez zeukala, anatomian, baserritarrak bezainbesteko lexikoa, eta hiritar horrek euskara mordoiloa zerabilela. Hortik etorri zen euskara baserrian ikasi behar zela, besterik gabe. Baina, Gortebeiko Artzainen Esaundak irakurtzen dituzunean, erdal joskera agertzen da, baita aditz gehienak gaztelaniaz emanik. Badira nekazarien artean ongi hitz egiten dutenak eta ere gaizki. Orain, zer esanik ez, erdaraz bakarrik eskolatu zirenengandik ez dela beti ongi ikasten. Gainera, zer balio du baserritar baten hiztegi soilak, oraingo euskaldunen %90a kalean bizi bada? Modernotasunaz hitz egiteko eta unibertitatean irakasteko, non dago abarkismoaren beharra eta laguntza? Beharbada, Gotzon Garatek hizkuntzaren joskera zuzen eta aberatsa ezagutzeko egin zuen aldetik.

Sabinismoa. Urrutiago joan zen: baserria ez zen bakarrik hizkuntza iturri, baina gure kultura baserritartu behar genuen. Azkuek eta Barandiaranek bildu herri jakintza aztertuz ikusten

dugu ezin dela askotan esan zerbait kalekoa ala baserrikoa den, ezen aspaldian baserritarrek erdaraz edo euskaraz beren munduaz kanpoko gauzak, itzulpen bidez, ezagutu zituzten. Ohiturari aldakortasuna ukatuz, sabinismoak kalitatezko osagai batzuk salbatu zituen, baina besteak ere alferretan gorde.

Exotismoa. Batik bat, euskararen adiskideen artean eta bitxikeriazaleen artean garatu da. Inoiz harremanik eduki ez dugun hizkuntzekin euskara batu egiten da. Exotismozaleek, ingeniariak batik bat, hitzen konparaketak darabiltzate, eta hiztegia delarik hizkuntza batean aldakorrena, suntsikorrena, horien fantasiek ez dute balio. Euskara ez da hiztegian afrikar hizkuntzen, georgieraren, hititeraren, japonieraren, malgaxeraren, mongolieraren, piktoaren edo indoeuroparraren mota bat.

Ahaidetasuna baldin badu beste hizkuntzekin, joskeran izango du euskarak. Jendeen burmuinak oro berdín eginak direnez, hitz elkarlotzearen atzizkizalearen bidea (aglutinazio bidea) hartzen duten hizkuntza guztiek irtenbide berdínak aurkitzen dituzte. Orduan bai, esan daiteke japonieraren eta kategoría horretako beste zenbaiten gramatika euskararenetik hurbil daudela.

Euskardarismoa. Barkatu hitz itsusi, hori baina ez du egoera ederra erakusten, diglosia baizik. Aski da unibertsitateko idazle batzuen idazkiak edo administrazioko batzuenak irakurtzea ikusteko, populismoaren eta ulergarritasunaren izenean, garbizalekeria zaharretik *euskainol* mordoilozaletzura igaro gara.

Maiz, Iparraldeko batek gaztelaniazko hiztegia hartu behar du "euskara batua" omen den lan baten irakurtzeko eta hala-hala Hegoaldeko batek frantses edo gaskoi hiztegiak behar lituzke Iparraldeko *bascofrançais* galo-euskara horren ulertzeko. Erdal hitzaren onartzea komeni da eta egiten dut, baina erdal hitzekin batean erdal morfosintaxia sartzen zaigu.

Euskal idazleek ere euskaraz baino gehiago erdaraz irakurtzen dutelako, formula osoak ematen dizkigute euskarazko atzizki txikiren batekin. Barkatuko nioke jende arruntari, jende zaharri entzutea eta behin entzuna *A ver asunto hortaz akordatzen zeran* edo *Lait pour fromage'a* *promozionatu behar da*, baina orain

jende alfabetatua, ikastolatik pasatua badago, eta horiek idatz dezakete: *Ea gertaldi hortaz gogoratzen zaren edo Gazta egiteko esnea ezagutarazi behar da.*

Hiztegi elebidunek kutsatzen gaituzte. Erdarazko *hitz bati* euskarazko *bat* eman nahi diogu. Zergatik ez bi? Bestalde, erdal-dunak guk hitz batean esaten duguna saiatzen ote dira beren biak edo perifrasiak utziz egiten? Erreferentzia frantsesa denean, frantsesen kategoria berezietan sartzen dira eta gaztelaniarekin berdin. Ez gara konturatzen horrela besteen baloreak, besteen txokoko adigaitxoak irensten ditugula. Gaurko euskal literatura idazleak horretaz konturatu dira eta erdararen morrontzatik atera nahi dira; zoritxarrez, diglosian pozik dabilta gure hegoaldeko unibertsitario batzuk.

Jakina, ez da itzultzen den testuaren edukia traditu behar, baina gure hizkuntza desegin gabe. Harritzen nauena da Iparraldean, frantsesa dakienik ez balitz bezala, hainbeste frantses liburu itzulirik ikustea, inoiz frantsesez egin ez dutenen hegoaldekoen lumapean. Noski, gaztelaniatik itzuliak izan litezke errusierazko, alemanezko, ingelesezko, frantses hotsezko liburu horiek.

Euskaltzaindiak erabaki zuen grezieratik edo gaztelaniatik etorri hitzak “o”z bukatuko zirela eta latinezkoak “u” batekin, baina Iparraldean euskara batuan idazten omen duten batzuek ez dute “-ismo” atzizkia erabiltzen, “isma” baizik. Xehekeriak direla? Noizbehinka, erdal joskera eta hiztegia baldin bada, zergatik euskaraz idatzi? Pixkanaka joera horiek galtzen ari dira eta euskal idazle handienek badakite euskaraz gauzak nola esan erdal jergan erori gabe. Horretarako, oso estimagarriak izan dira Gotzon Garatek egin saioak. Idazle askok adjektibazioa Hegoaldean eta Iparraldean gaztelaniaz egiten dute, buru gibelean, buru barruan daukatela abstraktuago dela maiz antilingua den erdarazkoa. Zein da argiago? *Problema laboralak* ala *Lan problemak*? Gainera, fiabarduretan sartuz, euskarak bereizten ditu *Laneko problema* bereziak eta *Lan problema* orokorrak. Zer argia den *forma tipologikoaz*, *elementu folklorikoaz* eta *sistema sozialaz* idazten duena! Kode-trukaketan, jatorrizko grafia errespeta balezate?

Euskaltzaindiak hitz maileguak nola idatz eta hiztegia morfo-sintaxiarekin nahasiz, protestatu nuelarik, espainol adjektibazio errazaren bidea zabal-zabal ireki zigun. Zein da argiago: *prebisio meteorologikoa* ala *eguraldiaren iragartzea*? Gure hizkuntzan artikulua bat edo haren izenburuak ez badu *-al*, *-ario*, *iko* edo beste hispanismo bat edo *-el*, *-ika* galizismo bat ez da serioa, ez da abstraktua! Euskaldunok ez ginen eta ez gara erdibidezaleak, eta oroitu behar da garbizalekeriaren apostoluek maileguak eta “h” letra komunismoaren tresnak zirela idazten zutela eta idazleak salatzen (Ion Oñatibia, Justo Mokoroa, andereño zaharrak eta beste).

11. Manuel de Larramendiren lehen egitasmoa euskal aberriaz

Egiategi erreformistak ez zuen Euskal Herri osoarentzat egitasmorik izan, Larramendik bai, bere *Conferencias curiosas politicas legales y morales, sobre los fueros de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa* (1983), Tellechea Idigorasek argitaratua delakoan irakur daitekeen bezala, baita lehenagotik ere, *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria; Question decidida si las provincias de Biscaya, Guipuzcoa y Alaba estuvieron comprendidas en la antigua Cantabria* (Madrid 1736) eta *Diccionario trilingüe* 1745eko delakoetan.

11.1. Baloreak

Lehen balorea. Euskaldunok antzinako menperatu gabeko kantabriar ondokoak ginатеke, beraz herri gotor, askea. Kantabrismoaren mito zaharra errepikatzen du, nahiz ehun urte lehenago Oihenart zuberotar kondairalariak ezbaian ipini zuen. Mito horrek hogeigarren menderaino iraun behar zuen, eta arkeologiak gaur erakusten digu erromatarrak, adiskide izan gabe, Euskal Herrian ere kokatu zitzaizkigula.

Bigarren balorea. Hizkuntza dela askatasun horren ikurra:

“Pero retirado a estos Montes Cantabricos como a ciudadela inexpuñable ha sabido mantenerse libre contra toda invasión de idioma extraño; y apesar de los siglos y de los estragos y ruinas de tantas lenguas dominantes se conserva hoi como reliquia preciosa de la primitiva poblacion de España y de la inconcusa libertad de los Españoles” (*Diccionario trilingüe, Prólogo*, 1745).

Euskarak intsentsu gutxiago eta zentzu gehiago hartu balu, ez zen inoiz gaixotuko, eta erlikia baino gehiago bizia beharrago zukeen. Berbaldiaren azkenean badakusagu ez zela Larramendi Iparraldean ibili eta espainoltasuna errebindikatzen zuela; geroxeago, Iparraldea kontuan hartuko du.

Hizkuntzari intsentsu ematean, honelako osagaiak goren dizkio: besteak baino adeitsuago (alokutiboa), besteak baino zehatzago hitzetan, hitzen sortzeko gaitasuna, arau zuzenak edukitzea. Argudio horiek herriko erdaldundunei eta espainolei zuzenduak ziren, baina gipuzkoarrak bere iritzia gaztelaniaz eman baditu, lehenagotik Etxeberri Sarakoak euskaraz eman zituen eta ondotik Egiategi zuberotarrak ere gure mintzairan. Haatik, Larramendik bere hitzaldi batean idatzi zuen lehen mailan haur guztiek euskara eta latina ikasi beharko luketela eta goragoko ikasketetan gaztelania eta frantsesa.

Hirugarren balorea, odol garbitasuna. Nahiz Gaztelako erregeek mozarabeen eta judu konbertituen aldeko susmoz asmatua, euskaldunek ez dutela esklabotasun odolik frogatzeko darabil Larramendik. Ez ote da galderaren okertzea, juduen “jende berrien” ez aipatzeko.

11.2. Politika antolakuntza

Larramendik Batzar Nagusietan egin laugarren hitzaldian, “*Junta general de Guipúzcoa, segregada de Castilla, raros dictámenes de los caballeros junteros*”, gipuzkoarrak abisatzen ditu foruen gartzeko galbidez, eta, Borbonek foruen murrizten eta korrejidooren bidez mugatzen jarduten zutenean, bera Baionara joango zen bost

urtetarako, azken Ausburgoko erregina alarguntsaren, Ana Neuburgeko andrearen arimazain. Hor, edo lehenago agian, “*Sobre los fueros de Guipúzcoa*”ko hitzaldietan, Borbonen politika jorratu ondoren, deskubritu zuen Iparraldea eta “zazpiak baten” lehen egitasmoa planteatu, “*Provincias Unidas del Pirineo*” izenarekin.

Euskal Herriarentzako egitasmoak jesuitek Hegoamerikan mende bat eta erdiz eraiki zituzten amerindiar erkidegoen osagaiak ditu, *luxuaren aurkako neurriak*:

“Nuestras pragmáticas se reducirán a condenar sin excepción alguna todas las modas de Castilla y demás provincias de España y Francia en orden a trajes y vestidos, telas y demás superfluidades y monerfas; y en los estados de sus altipotencias las Provincias Unidas del Pirineo, decretará la sencillez y naturalidad que ha de guardarse en todo” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*. 60).

Bitxi da nola Egiategik gorago ikusi dugun luxuaren erabilez kezka berdina duen, baina euskaraz esaten. Oraindik Gipuzkoako Batzar Nagusietan bakan batzuek ez zuten euskararik jakingo eta Larramendiren baldintzetan, politika jende guztiak euskara jakitea agertzen da. Orduko eskaera, gaur oraindik aberzaleek ere betetzen ez dutena. Larramendiren mezua Bizkaian baizik ez zen gauzatu, Batzar Nagusietako agiriak XIX. mendean bi hizkuntzetan idatzi zirenean. Zergen erreformatz dio:

“Las rentas sean del Rey, sean de la República se recojerán de manera que cada pueblo lleve su riesgo y entregue su contingente en el lugar señalado, a un tesorero, sin más ministros de rentas en quienes se hundiría lo más de ellas” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*, 60).

Justiziaren erreforma, erromatar legea eta jurisprudentziaren baztertzea, foru askeago eta erreformatu baten alde:

“Pero allá se avengan en Castilla con sus jurisprudencias romanas, con sus leyes del Fuero Juzgo, de las Siete Partidas, y de la Antigua y Nueva Recopilación. Allá se avengan con la práctica de sus tribunales, en que hallan lugar tantos pleitos, diabluras y enredos, que tienen consumidos a nuestros pue-

blos, y lucios y gordos a los abogados, escribanos, procuradores y otros holgazanes. En su lugar pondremos una justicia más sencilla, natural y pronta, que a pocos pasos dé a cada uno su derecho. Tenemos Fuero, y en él leyes sabidas y comunes a todas estas Provincias, que hablan sobre la nobleza, libertad de pechos, libertad de comercio por mar y por tierra” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*, Tellechea Idigoras argitaldaria, RSVAP, Donostia, 1983 60).

Egiategiren obran, ikusi dugun bezala, foruen goraiamena eta jurisprudentziaren kondena argi dago, baita abokatuek eta prokuradoreek zenbateraino Zuberoa mehetu zuten eta berak ederki gizendu, Larramendiren ereduana baina euskaraz esana. Egiategi, ordea, euskal kontzientzia oso baten gogoetan ez zen hain urrun joan.

Zazpiak bat

Hau da lehenbiziko nazio eskaintza:

“¿Por qué tres Provincias en España (y no hablo ya del Reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla: Guipúzcoa, Alaba y Bizcaya; y otras tres dependientes de Francia: Labort, Zuberoa y Baja Navarra?” (*Sobre los fueros de Guipuzcoa*, 60).

Zergatik bat egin?

Zentralistek, Borbonek, Espainiakoan eta Frantziakoan foruak kentzen dizkigutelako:

“El abandono injusto de Castilla nos ha puesto en estado de mirar por nuestra subsistencia y libertad, ni parecerá extraño que nos valgamos de ella para dar un pesar a Castilla y otro a Francia, en deste de los daños que nos han causado. Las Provincias de Labort, Zuberoa y Baja Navarra (salvo siempre su fidelidad) lloran sepultadas recientemente sus libertades, derechos y posesión antiqúisima a violencias injustas del poder. El Señorío de Bizcaya gime también, bajo el yugo que le van poniendo como a nosotros. Solicitemos a unos y otros, y nos llamaremos las Provincias Unidas del Pirineo” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*, 58).

“Y haremos una República toda de Bascongados, y en su origen primitivo españoles. Si pareciese más conveniente, elegiremos rey, y si no fuere bien, haremos electivo el Reino, y con alternativa entre nuestras Provincias unidas, estableciendo las condiciones que ha de tener nuestro Rey, de educación marcial, magnanimidad y coraje para dirigir y mantener una empresa heroica” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*, 59).

Gerrarako hezkuntza aipatzen duenean, badaki Larramendik Frantziak eta Espainiak ez dutela Euskal Herria bakean utziko eta horretarako jende guztiak militar armatuak, arma erreserbak eta kortsario marina baten egitea beharrezkoak direla dio (op.cit. 9. orr.). Urrunago dio ez dela gerrateren beldurrik izan behar: “todos serán leones dentro de casa: los montes, barrancos, precipicios, están de nuestra parte” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*. 61).

Erregea balitz, baldintza batzuk errespetatu behar lituzke, ez bakarrik militar hoberena izatea:

“De esta suerte si elegiéremos Rey, será y se llamará Rey de Cantabria, y se le dará el Reino con los pactos y convenciones que habrá de jurar y no le será lícito quebrantar: e introduciendo el *Pacta conventa de Polonia*, no nos quebraremos la cabeza sobre si será Monarca nuestro rey y si nuestro gobierno se ha de llamar monárquico o aristocrático o cosa semejante, o si mixto como el de Inglaterra” (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*, 60).

Europaren orekarako, Larramendik nahiago luke Ingalaterrak egin lezakeen babes eskaintza, ezen Gaztelarekin ez duela konpontzerik ikusten, ez eta Frantziaren aizolbea eskatuz, Frantziaren eta Espainiaren artean gerrak sortu bailirateke:

“Algunos se inclinan a admitir la proposición de Gran Bretaña como ventajosa. Dicen que Inglaterra es nación algo soberbia a la verdad, pero bizarra en los nobles, generosa y fiel en sus tratos y comercios con los naturales y con los extraños. Que Guipúzcoa asegura así su libertad y sus fueros sin riesgo de que se los quebranten” (*Sobre los fueros de Guipuzcoa* 56).

Gero dio, azkenean, Ingalaterra taktikaz Gipuzkoari baizik ez zaiola interesatuko, eta hobe dela agian, independentzian, hiru

handi horiengandik berezirik ibiltzea, nahiz baldintzak, orduan, gogorrakoak izango diren. Berjabetasun egitasmo horren oihartzuna Garate lapurtarrak Napoleon I.ari bidali gutunean entzun daiteke, lapurtarrak zazpi probintziekin euskal erreinu berri baten antolatzea, “Fenizia berria” eskaintzen dionean, Napoleonen Jose anaiari emateko, baina enperadoreak Jose botilari Espainia guztia eman nahi izan zion, bere amildegia irekiz.

Hurrengo urteetan, karlisten eskaerak askoz ahulagoak izango dira eta Euskal Herria bat egiteko bidea moztuko. Larramendi ameslari hutsa ikusten bada ere, bere garaian, bere egitasmoak bere logika eta egingarritasuna edukiko zuen, frantses iraultzak eta euskaldun gehienek ezaxolak horrelako asmoak lurperatu ez balituzte.

12. Euskal sabindar nazionalismoa

Hemeretzigarren mendean, alde batetik karlismoaren lur jotzeak eta bestetik herriaren industriadun bortitzak eraginik sortu zen Sabino Arana Goiriren ideologia. Bera epaitzeko, sarritan, oraingo irizpideak, oraingo aurreiritziak erabili ditugu. Aitor dezagun hasieran ideologia hori erreakzionarioa zela, osoki, ohi-turazale amorratua, erreakzionario hitzaren esan nahi bikunarekin. Euskaraz bereiz genezake alde batetik atzerakoitasuna, antzinako egoera edertu batera itzuli edo egoera egonkor batean jarraiki nahi duena, eta bestetik buru-emate edo bihurtasuna, egoera basati bati erantzuteko aurkaekintza. Bien artean zegoen Sabino. Gure Hego Euskal Herrian industriak proletariatu behartsua, eskolagabekoa, miseriaduna ekarri zigen. Proletariatu horrek, gainera, ez zituen ez euskal baloreak, ez euskal hizkuntza ezagutzen, kanpotarra zen, maketoa zen; horregatik, Sabino Aranak, lehen urrats batean, euskal nortasunaren harresia eraiki nahi izan zuen eta horretarako euskaldun odolaren aurkaritzaz erantzun. Horrela, bi aitaita eta bi amamek euskal deiturak zeuzkatenean, jende hori euskaldun jatorra zen eta nazionalisten artean ibiltzeko gai.

Noski, odol garbiko euskaldun horiek, haren ustez, base-
rrian aurkitzen ziren, eta berak nekazari etxe batetik hartu zuen
andrea. Ez zen berehalaxe konturatu, ordea, odolaren zer hori ez
zela euskaldun balore zaharra, baina, XVI. mendean juduak eta
mairuak Espainiatik kanporatu ondoren, “limpieza de sangre”
espainolen asmakizuna. Gainera, dakidanez, euskal foruetan
horretaz ez da ezer irakurtzen. Denborarekin, Sabinok ezaugarri
hori utzi zuen, ikusi zuenean Bizkaiko ugazaba euskaldun abi-
zendun liberal handiek ez zutela ez euskal hizkuntzaren ez eta
euskal baloreen axolarik.

Sabinismoaren bigarren osagaia izan zen: nola kanpotarrak
maiz jainko gabe zeuden, eta euskaldun baserritarrak garai haie-
tan jainkozale, bere leman eta ideologian kristautasuna sartu
zuen, eta EAJren, JELzaleen leman J hori Jaungoikoa da. Hori
alde batetik, Sabinok miresten zuen Ingalaterrako erregeren
frantsesezko leman zegoen *Dieu et mon droit*, Jainkoa eta nire
legea, baina bestalde ez zen aukera txarregia izan, ezen bide
demokratagoan EAJ demokristaua bilakatuko baita eta kristau
sindikatuak den ELA sortuko.

Bere teoriaren hirugarren osagaia lege zaharra izan zen,
oraindik EAJko leman dagoen “lagi zarra”, hots, karlistek galdu
edo galarazi zuten forua, gehi autonomiaren edo independen-
tziaren asmo berriak. Sabino Aranek forua aztertu eta Ingala-
terrako *Habeas Corpus* demokratiko zaharrarekin berdindu zuen.
Euskal nazio baten asmoa ez zen hain argi-argia izan pentsamen-
du horretan. Sabinok, Larramendiren *Sobre los fueros de Guipúz-
coa* irakurri izan balu, zehatzagoa izanzen zen asmoa, baina ez ote
zen beranduegi abiatu?

Burujabetasunaz kanpo, Sabinok demokrazia kontserbadore
batzuk gogoko zituen, baita antikolonialista zela erakutsi, Kuba-
ko independentistek zorionezko telegrama bat bidali nahi izan
zienean eta horregatik giltzapean egon. Ez zuen bere burua erre-
gezale agertu.

Bosgarren ezaugarria, edo balore oinarritzkoa, euskara izan
zen. Euskara zela euskaldunen hizkuntza, ez besterik. Ez da zori-

txarrez oraingo nazionalista askoren buruan sartu. Elebiduntasuna eskatzen duten askok ez dute euskara ikasi nahi izan, eta dakitenean ere “euskaltzaleek” eta “euskaltzainek” beren artean erdaraz hitz egiten. Andima Ibinagabeitia, nire adiskide minak, nire adiskide zenak, bereizten zituen *abertzaleak*, aberria maite eta euskaraz hitz egiten zutenak, eta *nazionalista* erdaltzaleak, beren aldizkarien gehiena gaztelaniaz edo frantsesez idazten zutenak. Gure nazionalistek, txekiarrek nola salbatu zuten beren mintzaira eta nola irlandarrek galdu ikasi behar zuketena. Sarritan, hala nahiz, ahazten zaigu zer indar izan zuen erdal pentsaerak, ez bakarrik hasierako “odol garbitasun” arazoa espainola delako, Sabinok euskal baloreei egiten zitzaien bidegabekeria ikusi bazuen, denbora berean maketoei euskaldun nagusiek egiten zizkieten bidegabekeriak sozialista lagunekin ezagutu eta ukitu zituen. Sabino Arana bere azken urteetan “espainolista” bilakatu zenean, Luis Arana anaiak haren lekua hartu. Euskal Herrian ez ditugu falta horrelako erreak, mutur batetik bestera dabiltzanak, ETAtik neofrankismora joanak, eta ez gehienetan Sabino Aranaren gisa idealismoz.

13. Hogeigarren mendeko abertzale ametsak

Askori ahaztu zaie, urte luzeetan, eta 1936raino, Luis Arana Goiri anaia izan zela anaiak sortu alderdiaren lemezain. Luisek Alderdia utzi zuen, ezker eta errepublikarrekin euskaldunek gerra egitea gaitzetsi baitzuen. 1951n hil zen. Alderdiko Joseba Arregi agintariari entzun genion EAJ ez zela alderdi konfesionala, baina kristau baloreen alde. Hori hitzekin jokatzea da. Jakina, alderdi horretan ez dutela eskatzen mezetara joatea, hori European, Poloniän izan ezik, aspaldian galdu delako.

Gure baloreak, gure ohiturak, zenbaitetan bide okerretik ere baldin bazebiltzan, Sabino Aranak suspertu, biziarazi zituen eta gero ikerlariak bide hobea erakutsi. Hizkuntzari bere duintasuna emateko ahaleginak traketsak, desegokiak izan baziren, galdera

bat ekarri zuten, euskararen gaurkotzea, arautzeko beharra eta ikastolen sortzea.

Hemeretzigarren mendean dauzkate beren erroak abertzale amets horiek. Iparraldean emigratzearen bidez garbitzen ziren arazoak, Hegoaldean gehiago gerratez eta gogor eginaz. Hego Euskal Herrian krausisten 1868ko inarrosaldiak eta Borbonen Berritzapenak karlisten sentimenduak berotu zituen, autonomiaren alde eta balore berrien aurka 1872ra arte gudukatu ondoren. 1876an ekonomia hitzarmen zerbait (Concierto económico) salbatu bazen, orain berriki arte, autonomia handiena galdu zen. Geroago, Espainiak gerrateak galduz, 1917an krisia abiatu zen, 1923an Primo de Riveraren lehen falangearekin garatzeko. Espainiako bigarren errepublikak 1931tik 1936raino ez zuen penintsulako nazionalismoen arazoa konpondu. Gerrate zibilak euskal kulturaren berreskuratzeko bideak moztu zituen. Berrogei urteko diktadurak Hegoaldeko ohituretan eta erresistentzian eragin handia izan zuten. Badirudi hegoaldekoen eta espainolen arteko harremanak amaigabeko karlistada batean jarraitzen dutela.

Iparraldean frantses erresistentziaren eta leialtasunaren ze poan erori ziren, eta horregatik euskaldun kontzientzia nekez garatu. Bestalde, Frantziaren peko euskaldun herriek ez dute hegoaldeko ekonomia garapenik ezagutu.

Sabino Aranaren ondotik, euskal gizartearen antolakuntzarako ez da helburu gabeziarik izan. *Sabinoren seme legitimo* eta zuzenek (EAJkoek), behintzat, ez dute, urteetan, Frantziarekin eta Espainiarekin istilurik ez edukitzeko, ausartzia handirik izan, Ibarretxek urrats on bat eman arte, horien formula beti “hiruak bat” izan zen, Araba-Bizkaia-Gipuzkoa, eta bereiz Nafarroako Mendia, Iruñerria, Erribera, eta oraindik urrutiago Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Larramendiren edo Garaten utopia eta xedetarik txit urrun daude oraindik. Argi dago ekonomiako eta industriako handikiekin ibili beharrez horrela dela, eta ez dela harritzekoa aldakortzaile eta eskuin kolore liberaleko zerbait izatea abertzale horiek.

Gainera alderdi horren zaleek oraindik hemeretzigarren mendeko asmo eta sineste batzuk jarraitzen dituzte, karlista liberalak balira bezala, baina karlistak eta sabinistak industria handiaren eta hirigintzaren aurkako baldin baziren, oraingo sabinista abertzale horien baserritar zaletasuna ez da Sabinorena bezain sakona eta ekonomian garaile den liberalismoaren alde direla argi dago.

Beste muturrean, herri eraikuntzarako, ezker abertzaleak eredu zentralista bat eskaintzen digu, zazpi probintziak (edo lauak gehienetan) uniformizatu nahiz, batasuna eginaz, eta errepublika sozialista, independentea eta subiranoa sortzea. Ez zaie irudi nahikoa denik hauteskundeetan ibiltzea: atentatuak ere erabili nahi dituzte.

Iraultzalari horiek, gehienetan, botere zentralistek eta inperialistek, hala nola Espainiak, Euskal Herriari jasanarazten dioten zapalkuntza eta instituziozko biolentziari erantzuteko, biolentzia armatuaren bidea dakusate. Horien geroa litzateke mugen ipini beharra, Europarekin haustea, euskal armada edukitzea eta, gutzat arriskua, haraino erabili indarkeria barne politika tresna erabiltzen jarraitzea. Bide horretarik ehun eta berrogeita hamar urteko borroka daramate txetxeniarrak, hurbil ehun urtekoa kurduek eta irlandarrek alferretan. Erresistentzia batzuen erdiespena gertatu bada, auzoko eta kanpoko beste erresuma batek lagundurik gertatu da, hala nola Aljeriarekin.

Erdibidean, beste batzuek, errealismo hotsez, hiru euskal lurralde daudela ikusirik, Iparraldea, Nafarroa eta Erkidegoa, hiru nortasun ezberdinekin, federakuntza asmoa daukate. Horrela, herrialde bakoitzaren nortasuna errespetatuz, Europakoek edo hiri nagusi zentralistetakoek gu nola bizi garen eta biziko garen ez dezaten erabaki, egitasmo baten inguruan bateratu daiteke, batik bat elkarren arteko ekonomia, gizarte antolakuntzak eta kulturak kudeatzeko. Horretarako, Udalbiltza baino gehiago litzatekeen Dieta moduko biltzarra sortu behar litzateke. Sozialdemokrata horiek, demokristauen alderantziz, pentsatzen dute globalizazioari eta liberalismo basatiari freno bat jarri beharko zaiola,

gizarte laguntza sendotuz eta ekonomiaren alternatibak sortuz, kapitalista edo sozialista ez liratekeen egiturekin. Beren asmoetan, irmotasuna eskas dute, eta gizartea ez dago horretarako gerturik.

Erdibidea ez da gehienen gustukoa, eta aurrean bi inperialismo —frantsesa eta espainola— direnean auzo zapaltzaile, gizartearen aldaketa handiagoa eska lezake. Hegoaldeko gaurko aberzale guztien artean, badago horrelako zeingehiagoka, zein independentista handiago, zein subiranotasunean gogorrago. Bitxi da Europa ez dutela kontuan hartzen, ez dutela hautematen, ez dutela ikusi nahi nola estatu nazioek dagoeneko berenak ziren diruaren, armadaren eta diplomaziaren independentzia galduko dituzten eta Europari utziko. Independentzia autogobernua baldin bada, arrazoizkoa da. Denbora berean beren subiranotasun zatia ere. Jakina, euskaldunoi ahaztu zaigu Frantziak eta Espainiak ez dutela subiranotasunaz iritzi berdina; gu euskaldunok eta Egiategi zuberotarrak, Larramendi gipuzkoarrak halaxe zioten: subiranotasuna populuaren, herriaren eskuetan dago, ez da erregearena, ez da estatuarena, eta Egiategik berdin aldarrikatzen.

Uste dut autodeterminazioa ere euskal gizartearen salbamerenerako eta herri subiranotasunaren giltza litzatekeela, baina, dakigunez, NBEren babespean egin baledi kontsulta, hiru lurraldeetan zatikatuak ginatke, eta badakigu Iparraldean eta Nafarroan eza nagusitu litekeela eta Erkidegoan doi-doia baia. Aukeraren baimena honela irabaz bageneza ere, herri kontsulta horren ondotik beste galdera izan daiteke benetako autonomia, erdi independentzia konfederazio batean ala independentzia Europako herri auzoekin osoki hautsiz.

Amets horiek utzirik, *Udalbiltza* bezalako ekimenak, *Batera* iparraldeko plataforma, errealitatetik hurbil daudenak, baliosak izaten dira eta beharbada geroko erakunde baten lehen urratsa. Halaber, Europako mailan Euskal Herria eta euskara agertzea bide ederra da, baina noiz abiatuko dira frantsesak bide horretan? Bestalde, euskaldun nazionalista ez direnek, hala nola sozialistek, noiz aurkeztuko digute espainolista edo jakobino ez den egitasmoa?

Azkenean, ikusi dugu zeinen aldakorra, iluna, den ohituraren garapena; ikusi ere dugu gizarte bakoitzak zer erabiltzen duen ohituren zaintzeko, baliatzeko, aldatzeko edo oztopatzeko: erlijioa, armada, dirua, lana. Hurrengo kapituluan, balore orokorrak aipatuz, sistema handiek “ismoek” gizarte orekaren edukitzeko zer egin duten. Azkenean esan dezakegu, ohiturekin bukatzeko, garai bakoitzean, herri bakoitzean ohituren bilduma zibilizazioa dela. Gu euskaldunok europar zibilizazio baten adarrak gara; adar berezia, bai, baina zuhaitzetik ez moztua.

GIZARTE BALORE OROKORRAK

A. Gizarte ingurumena

Balore mundukorren aipatzaileak mendebaldarrok gara. Gehienetan, geure baloreen inposatzeko, uniformizatzeko egiten dugu, horregatik hitz “mundukor” “unibertsal” horiek, ahalaz, ez ditut erabiliko. Gainera, arrazoituz eta dialektikoki ezin da unibertsalera iritsi, ez azterketaren esparruan, ez eta kulturaren alo- rrean, ez eta politikan. Horretaz kezkatu zaigu berriki Ra- mon Garmendia euskal pentsalaria:

“Beste modu batean esanda, honek mundu material honeta- koak diren neurrian, dialektikotasun (diskurtso) garbi baten mendean daude eta dialektikotasun garbia diot, zeren horrek ez baitu amaierarik, jakintza unibertsalera sekulan ez baita iri- sten mundu honetan” (Ramon Garmendia, *Gure jakintzaren mugak*, Hiria, Donostia, 2001).

Areta, kultura sistema handi guztiek unibertsaltasunaren pretentsioa izan dute. Denborarekin, kultura horiek beren oro- kortasuna galdu dute, exotismo zaizkigu, eta erlijio zaharrak kasu horretan daude. Irakur diezaigun R. Garmendiari:

“Dialektikoak ez diren filosofietarik ondorio horretara iristen da eszeptisimoaren bitartez, batez ere frogatu denean gizakia- rentzat ezinezkoa dela jakintza unibertsalera iristea” (R. Gar- mendia, aip. lib. 10).

Zientismoa bizi-bizirik zegoen garaian, askok uste izan dute jakintzaren bidez eta batik bat fisika, kimika eta biologiaren laguntzaz mundu eta lur honen "egia orokorra" aurkituko zela. Baina, Budharen ipuinean bezala, ikusten dugu, deskripzioan bakarrik mugatzen denean ere, jakintzak ezin lotuzko kontrajarrizko mosaiko zatiak edo puzzle ezin batuak eskaintzen dizkigula. Teknikan baliagarri dena, baina ulerkeran ez. Horretaz R. Garmendiak dio:

"Deskripzioak ere beren artean desberdinak dira eta esan daiteke –okerrik esateko beldurrik gabe– zehaztasunetan infinituraino aurreratu daitekeela" (R. Garmendia, aip. lib. 17-18).

"Baina jada susmoa dugu infinituan galtzen zaigula gure helburu nagusia" "Azken teoriaren ametsa" dei daitekeena, jakintza unibertsalarena" (R. Garmendia, aip. lib. 18).

Buru bezainbeste aburu, ez dago gure inguruan, izadian, gure burutik ateratzen den logikaren antzekorik. Logika ez da gure ingurugiroan, gure ingurumenean, baina gure neuronetan, gure buruetan sartua baizik; horretaz gorago aipatu *Gestaltt* delakoak galdera eraiki zigun.

Jakintza utzirik, bizi diren kultura ugarietara joaten bagara, jakina, batzuetan ingurugiro berdinean bizi direnen artean antzekotasuna baliteke, baita baldintza zenbaitetan ere erreakzio berdinak. Txarrena da ustea sistema batek "Egia osoa" edukitzen duela eta berdintasunaren izenean askatasuna kentzea.

Bestelakotasunaren ukatzea dakar unibertsalismoak eta alegia arrazakeriaren aurka egin behar dela, denak molde berdinean garela aldarrikatuz beste arrazakeria progresista bat sortzen da. Errate baterako, Frantzia arrazismorik izan ez dadin, Frantzia jaio kanpotar haurra frantsesa da eta, frantsesa balitz bezala, frantses kultura bortxaz burmuineratu nahi zaio.

Berriki aipatu delako, etxeetan ere kanpotarrei frantsesez hitz egitea behartu nahi litzaieke. Ikusten dugu zer desastrea den: integratu gabeko musulman haur batzuen joko delako errebaletan beribilen, autobusen erretzea, bonberoak deitzea gero harrikatzeko eta autobus, metroetako langileak taldean erasotzea.

Asteak eta asteak, Marseillan ez dira ez tranbiak, ez autobusak, ez metroak atera hamar-hamalau urteko gaztetxo horien erasoez aseak. Orain, hor daude “beur” eta “black” delako gutxiengoa, musulman gazteen %1, inongo balore sistematik gabe, desmulsulmanduak, eta ez frantsestuak, hizkuntza murrizt batean, etxean ikasi frantses txarrean, eta keinuekin gehiago hitz egiten dutenak, eta trafiko guztiak bahituak eta zikinduak, Frantziak ulertu nahi ez duelako integratzea ez dela asimilatzea. Gazte horiek dira fundamentalisten ehiza errazak bilakatzen ari zaizkigunak, gero Al Kaeda sisteman sartzen direnak.

1. Ingurumenean, kulturaren errespetua

Jakina, gizakien burmuina molde berdinean egina delako, baldintza berdinetan irtenbide hurbilak, antzekoak, baina berdinak ez, aurkitzea ez da harrigarria. Elkarrekiko gizarte balore horietaz lehenbiziko idatzi dutenak gure eta Ingalaterrako foroak izan dira, gero Estatu Batuetako amerikarrak, nahiz gure herritar Francisco de Gamboa Gasteizkoak aspaldian eta lehenagotik indioak, amerindiarrak jende zirela idatzi. Garaiko iparramerikarrak ez ziren oraingoak bezala harroputzak, berentzat idatzi zuten Eskubide aldarrikapena; frantses Iraultza ostera inperiotasun joera zaharrean egonaz, “*Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasuna*” lematzat harturik, besteak gogo bildu beharrez armaz gairitzen ibili zen. Estatu-nazio ideia European zehar banatu zuten eta ondorioz sekulako gerrate odoltsuenak eramán.

Balore horietaz asko idatz daiteke, zelan Frantzian bertan aplikatzen diren ala ez. Mundu osora Eleonor Rooseveltek eta René Cassinek aldarrikapen hori legetzat eman nahi izan zutenean ez zuten pentsatu mendebaldarrak munduko ehuneko 30a baizik ez ginela; bestalde, Mendebaldean ere, NBen (ONUn) esertzen diren horietarik askok, ez bakarrik Asia eta Afrikakoek, baina Europakoak eta Estatu Batuak barne, 5. artikulua ez dute 57 herrik batere betetzen, torturatzen jarraitzen dutelako.

Urrunago, bosgarren artikulua errespetua eskatzen dutenek 3. artikulua, Frantziak (2005eko legebiltzarrean gogorki erantzunaz) eta Greziak esate baterako, beren gutxiengoekin egiten duten politikan ez dute onartzen. Bestalde, Europan sartzea eskatzen duen Turkiak kurduekin ez bata ez bestea. Non daude balore mundukorrak? Argien mendeko, Ilustrazioaren gizaldiko fruituak direla diote frantses ezkerreko alderdi zaharrek. Nik diot ezetz. Beren oharkabeko kristau kutsuarekin datoz, beren europar baloreen nagusitasunarekin. Horrekin ez nuke esan nahi ez dela lurzabal osoarentzat balio lukeen balore orokorrik, hala nola bakea.

Herri bakoitzak aukerak egin ditzake, ahalik eta gizabana-koak eta etnien ugaritasuna errespetatuz. Ezin da lege orokorrik eman besteei indarrez gainjar geniezaiekeenik, zeren mendebaldeko bizkar atzean, koloniakeriaren ondorioz, zibilizazio hierarkiako ikuspuntuak dauzkagulako.

Gure baloreak hoberenak direla eta globalizazioaren izenean, maltzurki, banatzen ditugula esanaz. Ez da *anaitasuna*, "*aitaizuntasun*" izatea baizik. Euskaldun zaharrek zioten zuhurki: "*batarentzat on dena, bestearentzat txarra*" litekeela. Balore orokorren izenean, mendebaldarrok XX. mendean gure ekonomiaren osasuna eta oreka gogoan, lurzabal osora, bost lehorretara hedatu nahi izan ditugu.

Afrikan, dagoeneko, afrikar eliteko txori beltzak gure ogi, ardo, beribil eta beste inbentuen xedera eta lazoetan hartu ditugu. Europar erduan bizi nahi eta proletariatuari ispilu kaltekor bat eskaintzen diote, hirietara miseriaren ezagutzera bilduz. Hori al da *anaitasuna*, Afrikarat igortzea irakasleak, frantsesa, ingelesa ikas dezaten eta beren "azpimintzaira ezainak" utz.

Berdintasun ametsak ideologia "unibertsal" itsasoetara eroan du. Berdintasuna da uniformetasuna, berdinkeria. Gure berdinak izango zarete, baina zuen nortasuna galduz, hala dio frantses errepublikak etorkinen semei, eta musulman askorekin porrot itzela da. Uste dugu ikerbideak aske direla, baina norabide ezberdinen ugaritasuna ukatzen badute, zer? Giza eta gizarte ikerlariak azpi-ideologia eta estatu iritziekin sasi-berdintasun horren zerbi-

tzuan datoz. Filosofiak egun batean dogmatiko izan gabe zerbait ekarri behar badu, orokortasuna, ugaritasuna ukatu gabe egin beharko du.

Filosofiak ez daukala xede edo asmo zuzenik? Ez dakit. Besteen asmoak inspiratzen jakin behar luke eta hori ez du lortuko boterean aurrean gogoz gaindi edo gogo onez belaunikatuz. Bihar zer izango den ez dakit. Duela berrogei urteko prospektibak informatikaren eta elektronikaren garapena ez baitzuen igarri, prospektibaren teknikarien porrota ikusi ondoren, aztikeriaren gaitz horretatik sendaturik egon behar genuke.

Ametsetik atera daiteke, nolana, ekintza zenbaitetan sar, ezen NBEko, ONUko, agiriak ez baitira denen onurako. Lagun hurkoari begirune gehiago edukitzea, askatasuna eskatzen dugunean besteena ez zapaltzea, bidegabekeriaren aurka ahaleginak egitea litzateke. Ahoan “borroka” hitzaren ordez “ekin” eta “laguntza” hitzen erabiltzea ez litzateke gaizki.

Nori lagundu jakin ondoren, laguntza geure aldetik egin genezake, baina gu baino handiago, aberatsago direnek ez dezatela ahatz, gure Euskal Herria eta beste herri txikiak basamortuz gure Iparraldean edo presondegiz gure Hegoaldean betetzen badituzte, gaitza berengana hedatuko dela. Unibertsaltasunaren izenean handien baloreak eta iritziak, kulturak eta sinesteak denei inposatzen bazaizkie, hori aho betez gorensten duten *askatasunaren* aurka doa.

Balore orokor edo “mundukor” horiek zer diren gehiegi zehaztu gabe, Eduardo Gil Bera nafar filosofoak horiekin dauzkan ezezkortasun aldeak ikus ditzagun.

“Unibertsalak, beraz antzik gabeko antzekotasunean, bermatzen dira, honelaxe izaten ohi dira Platonen asmamen guziak. Euskaraz, bi katuak ez berdinak dira baina Platonen lezean katu bat bada katu guzien eredu eta katu honi erraten diogu unibertsal; lezeko katu hori katurik katuena da, bertzeak ez dira hainbertze katu; gure bi katuei, lezekoarekin duten ahaidetasuna beharrik katu dei diezaiekegu; lezeko katurik ez baldi, ez genekike adibidez bi katuak katu direla, bioi katu erran diegu beraz” (*Atea bere erroetan bezala*, 99).

Balore orokor-mundukorrez ez da fidatuegi behar, gogorazten gara zelan Mircea Eliade errumaniar ikerlariak, honelako balore zenbaiten zaletasuna zeukanak, miresten zuen nola zuhaitz baten inguruan European, Ozeanian, Ameriketan, Afrikan erritu berdinak ematen ziren, baina ez zen konturatu errituak berdinak izan arren ez zirela sinesteak eta mitoak antzekoak, hurbiltzekorik ere. Irudia ez da aski testu, kontestua eta jakituria behar da ulertarazteko.

Itzulpen egiten ibili garenok badakigu zeinen zaila den hizkuntza batetik bestera pentsaera baten pasaraztea. Ingelesez “yellow” dena ez da euskaraz “hori” bakarrik, ez eta gaztelaniazko “amarillo” osoki. Nahiz koloreak uhinen luzetasunekin sailka daitezkeen, koloreen azpi-adigaiak beste baldintzetan, beste ingurumenetan, beste ingurugiroetan eraiki ziren.

Jungek bere bizitzaren azkenean, bere ekarpena kritikatu, zehaztu, azpimarratu zuen arketipoak herri baten gaitasunak zirela, ez zutela orokortasunik, ez mundukotasun irrutsik. Gehi dezaket besteei gure ohiturak behartzeari etnozidua deritzola. Balore orokor horien mugatzeko, beren hedadura, beren ezaugarri ohargarrienak eta jakingarrienak ezagutzea eta aipatzea lehen urratsa litzateke. Ohituraren alderantziz eta XIX. mendeko positibismoaren ondotik, esan da balore orokorrak, *mugarik gabeak*, lurzabal osokoak zirela. *Unibertsal* baina hitza *unibertsoa* astronomia (Marte, Artizar eta besteez) eta astrologia hiztegian erabili behar genuke eta gure baloreek ingurugiroan lurkorak eta jendeen artean *lurkorak*, *orokorrak* izan behar lukete. Balore *irekiak* adigaiaren itxura hori begikoa dugu, beti aberasten den zerbaiten itxaropena duelako.

Balorea ez bada irekitzen, zaharkitzen da eta fosilizatzen. Halaxe, ezin hilez, XVIII. mende azkeneko frantses jakobinismoak edota Marxen XIX. mendeko egitasmoek, mundua eta lurra bitartean aldatu direnez geroz, ez dute aplikatzeko unean balio handirik. Haatik, balore ez diren ekintza orokor batzuek itxura hori har dezakete, mundu guztian espekulazioa, diru zikinaren garbitzea, politikeroen ustelkeria hedatua dago, mundukorrak

baina kapitalismo kaltegilea lagun, mundukorrek baina ez baloreak direnak.

Balore orokortzat ematen direnak, usu, “tasun” handiak dira, zabalegiak, kontraesanek betetikako ideiak besarka ditzakeenak; jakintzakeriak (zientismoak) eta aurrerapenezalekeriak (sasi-progresismoak): Ben Laden, Bush eta Moonen pretentsioek horrelakorik erakusten digute.

Benetako balore orokorrek, sarritan, *utopiazko* amets ederraren antza dute: onargarritasuna, besteen maitasuna, berdintasuna, baina lurzabal hau ez da aingeruz betea, bizitzaren borrokan sentimenduak galtzen baitira. Horretan ibili ziren Sokrates eta Platon, baina ez ziren Greziarren eredu izan. Balore orokor horiek, ezpataren gisa, bi aho izan ditzakete: arrazakeriaren ezabatzeke, bestearen bestelakotasuna ukatzea.

Frantziaren politika itsua izan da, orain ezin integratu ehun milaka musulman gazte diplomarik eta lan ikasketarik gabe dabilta, hirietako errebaletan txikiak eguneroko kale borrokan edo *dealer* ofizioan droga saltzen. Balore orokorrek izendatu nahi baditugu, ez zaigu ahaztu behar kultura bakoitzean itxuraz berdinen diren hitzek errealitate eta ohitura desberdinak estaltzen eta besarkatzen dituztela. Beste kulturetara hertsatzen, hurbiltzen garenean, apur bat epaile izatea ahaztu behar zaigu.

Gizarte fenomeno guztiak onak direla ezin dezakegu esan, baina herri bati egokituak diren baloreak ez zaizkigu guri komeni aldatzea. Izan ere, zer dabilta egiten kooperazio delakoaren izenean misiolari laikoak ezpada, usu, besteei beren errituak, ohi-turak eta baloreak kentzen?

2. Giza eskubideen agiri mundukorra

NBE (ONUn) sarrera duten erresuma guztiak izenpetu duten eta balore “mundukorren” bilduma den hau aztertu beharra dago, ikusteko ea hain argigarria, eraginkorra, emankorra izan denez orain arte.

Lehen artikulua: “Gizaki guztiak duintasun eta eskubideez aske eta berdin sortzen dira. Adimendun eta kontzientziadun dira, eta elkarren artean anaitasun gogoarekin ekin behar dute”.

Lehen artikulua honetan ez da gauza berriagorik, gure piri-niar foruetan, Ingalaterrako *Carta Magna* eta *Habeas Corpus* delakoetan irakurtzen ez zenik. Geroago Estatu Batuek itxura modernoan emanik –andrezkoak apur bat ahazturik, beltzak aipatu gabe, jakina– honelako zerbait irakur daiteke. Geroago ere frantses iraultzak eredu hori indarrez besteei onarrarazteko harro-keria izan zuen. Frantses kondairalariek diote, ingelesak eta Mon-roe kontuan hartu gabe, frantses iraultza ideiei esker soilik Latin Amerikak espainolengandik askatu zirela.

NBEko guztiak izenpetu hau herrien erdiek ez dute batere aplikatzen. Gainera, artikulua horretan esaten dena asmakeria handia da: jende guztiak ez dira ez adimendun, ez kontzientziadun; gainera, bi “dun” horiekin ere ez dira besteentzat askoz ho-beak eta elkartasunari emanak. Badakigu integristek jende oso ja-kintsuen artean biltzen dituztela fanatikoanak. Ez genuke, ordea, bidegabekeriaren aurkako borrokan etsitu behar, lehen artikulua-ren gauzatzea ez da orainaldikoan egin, geroaldi mitikoan behar-bada, aske eta berdin.

Bigarren artikulua: “Ez dela arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politika iritzi edo beste nazio edo gizarte bereizketa, abe-rastasan, jaiotza edo egoeragatik oztoporik ipini behar”.

Hori aingerukeria hutsa edo gerorako helburua da. NBE edo kanpoko beste herri batek artikulua hori gauzatzen ez duenean, ez luke eskubiderik “barrengo egitekoetan” sartzeko. Protesta egi-teak kontzientzia ona ematen badu, askotan gertaerek, kondairak ditu egoera larriak eztitzen. Bigarren artikulua hori gutxienik zain-dua dena da, bi ahozko ezpata da, zeren, ezberdintasunarengatik bereizkuntzarik ez egiteko, bestelakotasunak, nortasunak ezaba-tzera eramaten baitu (ik. Argentina, Brasil, Espainia, Frantzia, Sudan, Txetxenia, Txina eta beste), eta, izan dadin erlijioan ala politikan, gehiengoak gutxiengoa irentsi nahi.

Bigarren artikulua horretan “elkar maita ezazue” kristau ideologia agertzen da, hori baitzen Leonor Roosevelt idazletarik baten lema. Bestalde, badakigu hainbat herritan, monoteista batzuen artean, oraindik gizona goiko sexua dela eta beheko sexu andrea.

Oinarrizko oker horiek bazter utzita, utopia horiek mundu gehienez ezin direla obretan agertu nabarmen dago. *Sexua*: musulman herri askotan andreen eskubiderik eza, umeen prostituzioa praktikatzeko duten herrietan (Filipinak, Maroko), prostituzio hori gaizki kontrolatzen dutenen artean (Frantzia, Kanbodia, Maroko, Tailandia, Vietnam) badago zer errana.

Arazakeria. Hutuek tutsien ehun milaka jende hiltzen zuteenez ez zela arazakeriarik Frantziak aldarrikatu zuen eta NBEk egiten utzi; halaber Liberian afroamerikarrak herriko beltzen galarazten dabiltzanean. Brasilen oraindik kristauak armarik gabeko amerindiarrek asimilatzen edo hiltzen dituztenean berdin.

Erlizio eskubidea: Sudanen hegoaldean denek isiltasun artean musulman fanatikoek Darfuren kristau eta animistak hiltzen dituzte. Kristautasuna Afganistanen, Yemenen, Saudi Arabian, osoki debekatua da.

Hizkuntzak: Kurduera Turkian debekatua, Tibetera Tibetean debekatua, Cree hizkuntza Quebec-ek eskolatik baztertua, Ipar Euskal Herrian frantses demokratik, Nafarroako neofrankisten euskaragatiko diskriminazioa eta abar... Ez, ez da aske eta berdin jaiotzen. Nola eskatu, gainera, herri behartsuei gerok egiten ez duguna? Zer garrantzi du artikulua horrek lurraren bi herenetan jendeak bizi nekearen nekez, erasokerian eta ezinikusian beren *struggle for life* bizitzaren borroka egunero daramatelarik, gu ongi bizi gaituzen?

Hirugarren artikulua: “Inor ez da esklabotasunean, mende-kotasunean eradukiko, esklabotasuna eta jendeen saleroskeriak debekatuak dira”.

Frantses poliziak, hain arduraduna euskaldunekin, aspaldian utzi du Jugoslavia zeneko eta Errumaniako haurren trafikoa Parisen garatzen. Gurasoek saltzen dituzte. Lehen urteetan, frantsesek idatzitako paper batekin metroan eskean ibili behar dute.

Nahikoa diru ekartzen ez dutenean jipoituak, zaflatuak. Orduan, lapurtzen ematen ziren. Azkenik, hezi ziren horodator kaxetan lapurtzen eta, diotenez, 8 milioi libera (milioi eta erdi euro) ebatsi zizkieten, baina horiek nagusi helduei, esklabo buruzagiei emateko. Berrikiago, haurrek beren buruak metro barruan zerraztera uzten dituzte, gauaz lapurtzeko.

Aspaldian badakigu paperik gabeko turkiar umeak gauaz josten ibiltzen direla Parisen. Oi! "*Le pays des Droits de l'Homme et des valeurs républicaines*" horrek besteen zorriak ikusten ditu, baina ez bere lepo handituaren lepotxoria; besteen alorrak jorrazten, bereak sasiz beterik daudelarik. Beraz, esklabotasuna legez kontra edo legezko denaz arduratzen ez diren herrien baltsan Frantzia sartu behar. Diktaduren menpean Afrikan, Arabian, Birmanian, Yemenen, Kolonbian esklabotasun berria garatzen da. Haurren saltzea Afrika beltzean egiten, haurren lana Frantzia, Txinan eta Indietan.

Bosgarren artikulua: Inork ez du torturarik, zigorrik, tratu ankerrik, nortasun hausterik jasango".

Artikulu hori gaur NBEko 57 herrik ez dute errespetatzen, batik bat politika presoekin. Denek egun batean Makiavelok aipatu *estatuaren arrazoia* dela eta, Europa osoan artikulu horretan lege-hauste nabarmenak egin dituzte. Espainian badakigu nola tormentuz galdekatuak diren euskaldunak, halaber gertatzen da beste berrogeita hamasei herritan. Eta Schongeneko segurtasun hitzarmenak ez du horretaz ezer aipatzen.

Seigarren artikulua: "Bakoitzak, norberak bere lege nortasunaren ezagutza eskubidea du, non-nahi".

Frantziako, Espainiako, Nigeriako, Txinako eta hamaika herritako zigor zeldetan zer? Beren nortasuna hautsi nahian, lapurrei eta hiltzaileei ematen ez zaïen tratua politika presoek jartzen?

Bai, haur eta emakume hiltzailea zigorra bete gabe askatzen eta politika aurkariak (Mégnigon, Bidart) giltzapean edukitzen? Zer egin Europako Epaitegiak politika militanteek eman tratu txarreatatik Frantzia kondenatu duenean, subiranotasun harrokeria gaizto batekin eta mendekantzaz euskal presoak sendiengandik urrutia gozatu dituzte?

Zazpigarren artikulua: “Jende guztiak legearen aurrean berdinak dira eta bereizkeriarik gabe: lege babes berdina eduki dezakete. Agiri hau hautsi dezakeen edozein diskriminazioaren aurka, dei egiteko eta babestua izateko eskubide berdina dute”.

Munduaren erdian baino gehiago, hurrek, andreek ez dute lege babes berdina, ez eta dei egiteko eskubiderik. Gainera, Nazioarteko Goi Epaitegia izatea europarrok eskatzen dugularik, Estatu Batuek ezezko gorria bota digute, agian heriotza kondena eta tortura erabiltzen dutelako.

Berdintasuna? Dagoeneko idatzi dugunez eta ahaztu behar ez zaiguna Chamford frantses umoristak idatzia: “*Denak berdinak gara, baina batzuk besteak baino berdinago dira*”. Legearen aurrean ez gara berdinak. Espainian, Frantzia, Italian eta beste errepublika bananero batzuetan dauden ezker eta eskuineko politikero lapurrak eta hiltzaileak lasaiki amnistiitzen dira. Torturatzen ibilitako poliziak edo lapurtzen ibilitakoak aske uzten edota kondena arin-arin batekin laster etxera itzultzen. Denen larruek ez dute prezio berdina, politikero batek bi militar balio ditu, militar batek bi polizia, polizia batek bi epaile, epaile batek bi jende heldu, eta jende heldu batek bi haur. Orduan, ume bat lasaikiago hiltzen da politikero bat baino. Demokrazia aldarrikatzen dituztenek ez badituzte ohitura txar horiek aldatzen, ez dago inon ez berdintasun erdi bat ere, ez eta demokraziarik izanen.

Zortzigarren artikulua: “Jende bakoitzak legeak edo konstituzioak ezagutu oinarrizko eskubideen bortxaketez kexatzeko benetako deibidea izan dezake nazioko auzitegien aurrean”.

Hau ere ametsa da. Non dago estatuaren eraginetik aske dagoen justizia? Gainera, zer dei egin zenezake Estatu Batuak bezalako demokrazia hotsezko batean biziaren pena ematen delarik? Zer egin Espainiako konstituzio “demokratikoak” tortura zilegi uzten duenean? Demokrazia eredu izan nahi direnek ez dituzte eskubide horiek errespetatzen.

Bederatzigarren artikulua: Inor ezin da, errugabeki, ogengabeki, atxilotu, giltzapetu edo erbesteratua izan.

Errugabeki atxilotuak, giltzapetuak eta gero askatuak izan diren hamaika Hegoaldeko, Espainian zuritu ogen gabeko eus-

kaldunek ez dute gaur Frantzia Handira itzultzeko baimenik. Schoengen! Schoengen! Zenbat bidegabekeria hire izenean! Espainiak erosi behar lukeen Frantses TGV (AHT) baten trukean zenbat euskaldun errugabe kanporatuak!

Hamargarren artikulua: “Jende bakoitzak, berdintasun osoan eskubidea badu bere kasua zintzoki eta zinki Auzitegi aske batez entzuna izan dadin, horrek bere eginbehar eta eskubideak zein diren erabakiko duelarik edo bere aurka zuzendu gaizkigile akusapena argituko”.

Politika auzietan ezin. Aurretik kondenatua da terrorismoaren izenean indarra erabili edo indarkeriaren alde azaldu dena; gainera, torturapean aitortuek Espainian eta hamaika herritan balio dute.

Hamaikagarren artikulua: “Kondenatua izan arte, errugabea da Auzitegi aurrean agertzen dena”.

Errugabetasunak ez du European mugarrik. Eta Espainiak errugabe ezagutu duen hego-euskaldunak zergatik errudun jarraitzen du Frantzian? Hau ez da Espainiarekin kolaboratzea, baina ezkerreko omen den frantses gobernuua, ekonomia arrazoien zergatik, Espainiak gobernu baten murrizketan ibiltzea. Badakigu Frantzian, sekulan epaitu gabe, errugabeek urte bat edo bi espetxean igaro dituztela. Eta ez ditzagun ahatz Argentinan, Ekuadorren, Kuban, Txilen, Uruguain eta hainbat herritan desagertuak.

Hamabigarren artikulua: “Bere bizi pribatuan, sendian, etxean eskutitzetan inork ez dezake nahitarako eskurik sar”.

Eta zer dira, okupatzaile moduan ibiliz, aspaldian Frantzian eta Espainian erabiltzen diren telefono entzuteak, mikrofonoak etxeetan ipintzea? Orain, Frantziako “Vigiepirate” terrorismoaren aurkako neurrien estakuruan, zilegi egiten du gobernuak urtebetez zure Interneteko gutun elektronikoen eta telefonoen grabatuak edukitzea. Behin, Frantzian gaizkigile bati eskatu zitzaion poliziaren entzuteak ordaintzea! Eta Frantzia demokrazia bat omen da, eta beti giza eskubideen lege-haustekak beste herrietan, Txinan eta Errusian, tai gabe salatzen dabil.

Hamahirugarren artikulua: “Herrian askeki ibiltzeko, herri-joateko eta herrira itzultzeko eskubideak edonork gorde di-

tzake”. Beharbada Europaren barruan hori gerta daiteke, baina hamaika herritan ez. Ihes egin behar.

*Hamabosgarren artikulua*ren testua ez dut itzuli, ez zaidalako batere argi irudi. Alde batetik Frantzian ez delako naziotasuna eta hiritartasuna bereizten, Frantzian, omen, nazio bat, etnia bat eta beraz herritartasun bakar bat dagoelako eta herri edo populu bakarra. Frantsesak hain dira beren XVIII. mendeko sisteman atsotuak non, behin naziotasuna eta herritartasuna nahasiz, idatzi baitzuten Solijenitsinek bakarrik “errusiar naziotasuna galdu zuela”, sobietar pasaporte eta hiritartasuna baizik kendu ez zizkiotelarik. Nola daiteke norbaiti bere oldearen, bere borondatearen aurka errusiar izatearen kentzea? Esan bageniezaio euskaldun bati ‘zure euskaldun izatea kentzen dizugu’, barre egingo liguke.

Hamazortzigarren artikulua. Iritzi eta sineste askatasunaz eta eskubideaz dioena ere aingerukeria hutsa da, ezen hain zuzen iritzi eta sineste batzuen izenean erlijio (Saudi Arabia) eta ideologia (Txina) tiraniak non-nahi ematen direlako.

Hamabosgarren artikulutik hogeita seigarrenaren. Hiru balore goraipatzen zaizkigu: Lana (23. art.), Familia (16-25. art.) eta Aberria (15. art.). Hain zuzen, aldarrikapenaren ondotik Mendebaldean usteldu egin diren eta aipatu ditugun hiru baloreak.

Hogeita batgarren artikulua, “sufragio universal” ospetsua aipatzen digu. Txantxetan ote dabilta? Ez ote da askotan “naufragio universal”? NBEko herri gehienetan, sarri, parodia hutsa delako, edo alderdi bakarra delako, edo botoak trafikatzeko direlako edo jendeak, ezin irakurriz, zer den gaia ulertzen ez duelako. Gainera sufragio horren izenean zure lekuko arazoak ezagutzen ez dituen gehiengo batek zure gutxiengo kezka baztertzen dizu. Frantzia argituan, munduko argia den horretan, andrezkoek bozkatzeko eskubidea 1948an baizik ez zuten izan (Uruguain 1927an, Hego Euskal Herrian 1931n).

Samintasun, garraztasun, etsitasun zaporea daukan errepaso hau horretan amaitzen dut. Munduan hogeiren bat konfliktu daude, militar ez diren bizkar egiten direnak, ezen hiltzen diren asko andreak, haurrak eta zaharrak direlako. Hau da benetako terrorismoa: zibilen hiltzea. Gatazka anitzek petrolio usaina

daukate. Mendebaldeak petrolioaren beharra du eta denbora berean bere diruarekin integristen terrorista sareak munduan zehar Saudi Arabiak ordaintzen eta non-nahi formatzen Aljerren, Buenos Airesen, Karatxin, Londresen, New Yorken, Parisen, Sanaan, musulman karitate taldeen izenean dirua darabiltelarik. Ez zaigu ahaztu behar, komunismoaren beldurrez, Estatu Batuek, buru gainetik hartu mailukada forjatzen, talibanak lagundu zituzten.

Nola erantzuten zaie konfliktoei, “gutxiengoaren terrorismoari”? Estatuaren terrorismo astunagoarekin baizik. Uste genuke demokratikak besteak baino emanago direla negoziatzeari, baina ez. Bestalde, amerikarrek palestinarrak terrorismo fanatikora bultzatu dituzte: Estatu Batuek, beren herrian daukaten judu lobbyak lehendakari hauteskundeetan daukan pisuagatik, garai batean, Israel utzi zuten arabiarrei lurren kentzen, eta NBEren erresoluzioak Israelek ez ditu sekulan errespetatu. Estatu Batuek NBEkoei armada neutroaren han tartekatzea ukatu zien. NBEren izpirituaren bidetik, Europak palestinarrak lagundu zituen eta Europak egin portu eta eraikuntzak Israelek bonbaz desegin. Bai, gutxiengo batek, Israelen kasuan, indarra daukalako, jasan dituen metodoak eta bidegabekeria itzela beste gutxiengo bati ezagutarazten dizkio. Noiz arte? Horretaz, israeldar eta palestinar zintzoak asetzen hasi dira. Euskaldunok badugu hor zer ikas, berbera ez egiteko.

Herri batzuk, eskubideetarik hain urrun daudenak, aldarrikapen horretako balore batzuetara hurbildu nahi badira beren nortasuna galdu gabe, beren gisako aldakuntzak eman behar dituzte. Herri bakoitzak berak erabakiz, baina horretarako Mendebaldeak ez badu aplikatzen, nola eskatu behar zaie Asiako, Afrikako herriei gauzatzea?

3. Gizartearen aldatzeko, mendebaldearen “ismoak”

Mendebaldean azken aldiko historian ezagutzen diren sistema nagusiak hiru izan dira Kristozaletasuna edo kristianismoa, Marxzaletasuna edo marxismoa eta Diruzaletasuna edo liberal-

kapitalismoa. Sistema horien zaleek sinetsarazi dute berek egia bakarra zeukatela, gauza berriak esaten zituztela, aurreko ohitura eta kultura guztiak garbituko zituztela. Beraz, argia bezala gaue-
tik egunera *egia berria* ekarriko zutela. Azkenean, ideologiak profeta batek edo filosofo batek egin sintesiak dira. Badira herriak filosofiari eman zirenak: Alemania, Grezia, Txina, eta beste batzuk profetismora: arabeak, indiarak, juduak, persiarak.

Kristianismoak Biblia erabili du, baina esatea europar zibilizazioa judu-kristaua dela gure Greziari eta Erromari irain egitea da; bestalde, Biblia hori, lehen kapituluetan, sumertarren eta asiarren sineste bilduma da; gero ikusten denez, sarritan, israeldarrak pagano izan ziren. Juduek monoteismoa ez zuten asmatu, zegoeneko aspaldian Indietan ezaguna baitzen. Judaismotik hartu osagaiei eseniarrek budismitik hartu fraide bizitza gainerraturik eta Jondone Pauloren ondotik Sokratesen, Platonen, Elizaren Aiten ideiak berreskuraturik, Ebanjelioez gain, orain ezagutzen den kristianismoa sortu zen, eta zergatik ez.

Sistema guztiak beren emaitzetarik epaitzen dira. Nahiz ez dudan sinesten Gaizkiaren eta Ongiaren atzean pertsonaia sakratuak eta madarikatuak daudenik, Mani eta Zaratustraren sinetuek ikusi zuten Gaizkia Ongia bezain sendoa edo gotorrago izan daitekeela. Baina non daude mugak, nire ona bestearen gaizkia bada eta bestearen ona niretzat gaizki?

Zer da gaizkia? Kristoren egiaren aitzakiaz, Amerikako indiarren milioika, erdiak hil "beren gurasoekin infernua nahia-
goz ezen ez kristauekin paradisuari" eta besteak kristautu ziren eta Europan ehun milaka heretiko hil, egiatik urruntzenezi zirelako edo sorgin zirelako.

Eliza, bere martirioak aipatuz eta berak eginak ahaztuz, Inperio Zuri bat bilakatu zen eta Jakintzaren garapena uztartu. Dotrinak dio ez dela lapurtu behar, baina lapurretaren karikatutura ederrena Italiako kristau-demokratek erakutsi digute.

3.1. Totalitarismoak edo agente osoko sistemak

1. Komunismoa. Erdi Aroko komunitate eskarmentuak, eta geroko Babeuf, Blanqui, Proudhon eta Saint-Simonen ideiak

ezagaturik, XIX. mendeko industria esparruaz egin azterketa gaineraturik, Karl Marxek, bere burges errentadun bizitza erosoan, komunismo utopia asmatu zuen eta profeta berri gisa erlijio profanoa eskaini. Marxek uste zuen kapitalismoa, berak sortu alderdiaren ideiekin, *berez hilko zela*, jendeak, Alemanian hasiz, berez komunista bilakatuko zirela. Harentzat, gizartearen eta baloreen aldaketa ekonomiatik etorriko zen. Uste zuen Marxek *ekonomia zela* gizartearen eragile bakarra, eta *azpiegitura* horren nagusitasuna aldarrikatu zuen. Orain, ordea, ikusten dugu MME eta merkatu gizarte honekin arrazoi pixka bat zuela, baina mundua ez dela berak uste zuen bidetik joan, liberalismora baizik.

Gero jendeak zer leku izango zuen hor ez zen argi. Eta nola zitekeen jendea aska, proletariatuaren diktatura eskaintzen zelarik eta komunismoarekin proletariatua desagertuko zelarik? Politikazko marxismoa, politika egitasmo bezala, berehalaxe Engelsek kritikatu zuen, *gainegitura* den kulturak, erlijioak eta ideologiak gizartearen bilakaeran duten indarra erakutsiz.

Frederich Engelsek, Londresen 1883ko ekainaren 28.ean argitaratu *Alderdi Komunistaren aldarrikapen* edo manifestuaren hitzaurrean, idatzi zuen: lurraren jatorrizko elkarrekiko jabetasuna galdu zenetik historia osoa klase borrokaren kondaira bat izan dela, klase irentsia eta klase irensoleen arteko, klase zapaldu eta zapaltzaileen arteko borroka historia, horien gizarte aurrerapenaren urrats desberdinekin gertatua. Lehenik aipatzen duen jatorrizko elkarrekiko jabetasunak Ingalaterran eta Alemanian galdu baziren, euskal mendietan orain arte eta nekez jarraitu dute. Jabetasun zahar horrek bi etsai izan ditu: Iparraldean, behintzat, frantses iraultza, jabetasun pribatuaren aldekoa zelako, eta oraingo ezkerreko batzuk amankomuneko lurren banatzearen alde? Marxek igarri ez zuena da politikari aginte klasea, "Nomenklatura", sistema guztietan Fenix hegazia legez, orain arte, beti piztuko zela.

Bigarrenik aitortu behar da edozein gizartek jendea arau batzuen barrenean sartzea eskatzen duela, behartzen duela, baina horrela agintearen klase bat sortzen dela, gaurko demokrazien

politikero ustelak komunisten nomenklaturak bezain zapaltzaile bihurtzen dira. Sarritan, eta Afrikan ikusten da hauteskondeek oposizioari boterea eskaintzen badio, galdu duenak ez du amore ematen eta armada edo dirua darabil “tronuan” egoteko.

Burges zapalkuntzari erantzuteko bitxi da nola proletaria-tuaren diktatura eskaini zitzaigun eta, gorago adierazi dugun bezala, nola agintea eduki dezaketen eskolarik gabe, eskarmentu-rik gabe, gaitasunik gabe, proletarioak denen zapaltzaile bilaka-raziz. Historiak erakutsi digu proletarioen diktatura hori inoiz ez dela garatu, ez gauzatu ere, alderdi bakarreko gutxiengo eskolatu dirudun bat herriaren izenean mintzatzen baitzen.

Engelsek zioen anarkistak burges txikiak zirela, baina inpe-rial-komunismoak aparatxik eta nomenklaturen burgesia handia sortu zuen, hala nola oraindik Errusian goien postuan dagoena. Burges txiki izatea al da, anarkisten gisa, demokrazia behetik gora egin behar dela aldarrikatzea? Gaur, agian, arazoak direnean, anarkisten pentsaeraz eta kritikez oroitu behar genuke, nahiz hor ere, ideologia guztien gisa, teoria utopia den, erran nahi baitu “lekugabekoa”, ametsa gauzatzen nekea. Laster bi sozialismo mo-ta agertu ziren, batak, sozialdemokraziak, kapitalismoaren indus-tria eta komertzio egiturak suntsitu gabe, politika agintea hartuz bideratu, zaindu eta hobetu nahi zituelako, jendearen ongizatea oinarritzat hartuz.

Komunismoak behetik gorako demokrazia ez zuen onartu. Zentralismoaren alde zen. Batik bat, kapitalismoaren egitura guztiak suntsitu nahi zituen, nekazarien jabetza pribatua, indus-tria pribatua, komertzio pribatua kenduz; azkenean, besterik ezi-nean, mentxebike edo anarkisten ideiak bazterturik, *Estatuaren Kapitalismoa* sortu, jendeen ekimen gabez kapitalismo pribatua baino gaizkiago ibiltzen zena.

Komunisten iraultza horrek egituren desegiteko, frantses iraultzaren moduan eta handiagoki, zegoeneko lekuan zeuden egiturekin batean jendeen hiltzea eskatzen zuen (ikus ukrainarrak eta juduak), baita errebisionista ziren sozialisten garbitzea, eta milioika hil ziren Kanbodian, Sobiet Batasunean eta Txinan. Bai,

Marxen egien aitzakian, Leninek, Pol Potek eta Stalinek egia onartu nahi ez zutenak, Inperio gorriaren errotzeko, hamar milioika hil, halaber Txinan Maok, frantses intelektualen txaloe-kin. Azkenean, burokraziak eta plangintza zurrunez egotziak, komunistak merkatu ekonomiara igarotzen ikusi ditugu.

2 *Nazismoa*: Balore ezezkorren lore beltzena dugu. Zainak prusiar militarismoan ditu, eta gaineratu zaizkio Chamberlain eta Wagnerek aipatu germaniarren nagusitasun goienena eta horretarako Nietzsche desbideratu. Gobineau okertuz erabili.

Hitlerren kasuan, austriarra zela ez zaigu ahaztu behar. Vienan *melting pota* zen eta herri xehean antisemitismoa eta antisla- bismoa bizi-bizirik zeuden. Gainera, Hitler margolari txiro be- kaitza zen, artista bezala frustratua eta judu elite batez inguratua; horrela garatuko du juduen etnia garbiketa itzelen.

Bigarrenik, Hitler, bere ideien zabaltzeko, Weimar errepu- blikaren ahuleziaz eta balore gabetasunaz baliatuko da, halaber lehen eta bigarren krisialdiak judu aberatsei itsatsiz (nahiz eta Krupp eta beste handi asko germano-ariar garbiak izan).

Oso trebea zen jendeen manipulatzeko. Ulertua zuen bere totalitarismoa nagusi zedin herriakitsu egon behar zuela eta, gai- nera, sasi-ideal bat eskaini behar zitzaioela, langabeziaren azkena, Alemaniaren handitzea, mendekatzea, eta, horretarako, herri xe- heari propaganda ximplea eta apalena eskaini behar zitzaioela. Hasieran, hain zuzen, *Deutsche Arbeiter Partei* aleman langileen alderdiaren buru jarri zen. 1920 eta 1921 bitartean eman zion alderdiari izen ezaguna: NSDAP (*Nationalsozialistische Deutsche Arbeiter Partei*). 1923an, Bavariako eskualdearen buruzagitzaz jabetzeko estatu kolpea, *pronuntziamendua* egiten du eta erreka jotzen. Alderdia apur baten erortzen da, baina 1929an, lurzabal guztiak krisialdia ezagutzen duenean, goiti ari da.

Mao baino lehen, bere ideiak *Mein Kampf* (Nire borroka) hogeita bi puntuko liburuan idatzi zituen 1925ean. 1932an 12.000.000 boto biltzen ditu. 1933an alderdi bakarra aldarrikat- zen, *Reichstag* legebiltzarrari su ematen, alderdiak debekatzen eta eskuinetik kompetentzia egiten zioten Konservative Revolutio-

neko nazionalistak eta ezkerreko komunistak atxilotzen, zigor zelaiak egiten.

Bere balore ezezkorren indarkeria basatiaren erabilera dira Hitlerren ezaugarriak. Jakina, Stalinek ere metodo berdinak erabili zituen, baina etnia garbiketan ez zen hain urrun joan, ez eta zigor zelaietan naziek praktikatu tormentu sadikoak erabili.

Hitlerren xedeak garbi ziren

1. Versaillesko itun traketsa ez errespetatzea.
2. Galdu gerrateaz mendeatzea. Horretarako, 1923an soldadu ohiekin *Sturmabteilung* (SA) delakoak antolatu eta gerrate betean SSak, benetako terroristak.

3. Juduetan batik bat arrazakeria finkatuz, boltxebike barne etsaiekin asimilatuz, Europako mapatik ezabatzea.

4. Aleman hizkuntzazko guztiak *Reich* handi batean biltzea (*Anschluss*).

5. Lurralde zabalen menperatzea, arrazen bestelakotasuna arrazoitzaz erabiliz, lehenik Europan *Lebensraum* (Polonia eta Errusiak) aberastasun iturri bilakatuz, Alemania izan zedin herri xehe aberatsena, kanpotarren beste beharrik ez lukeena, ezin garaitua; gero, Ipar Afrikako eta Asia mendebaldeko *Herren Volke* delakoak ustiatuz.

Ez dirudi ideologia ezezkor hori zurien gogotik galdu denik. Estatu Batuetan eta Ingalaterran du nazismoak indarririk handiena, gero Alemanian ere, klandestino armatuak dituztelako. Frantzia folkloriko, frustratu edo etsitu batzuen biltzeko sekta txikiak dira, juduen kontrako pintada egile, hilerri profanatzaile; azkenean, beharbada, Palestinako borrokak beroturik, horrelako gaizkiak musulman bakan batzuek eginik lirateke. Mao eta Hitler eredu, Kanbodian Khmer Gorriekin Alemaniako antzeko itsuskeriak ezagutu dituzte, eta txarrena, beren arteko zapalkuntzan.

Totalitarismoek, ordenaren izenean, elkarrekiko zazpi ezaugarri nagusi dituzte: aurkarien atxilotzea edo hiltzea, alderdi bakarra, iradokipen guztien iturri buru diktadorea, armada eta polizia antolaketa gogorrean bermatzea, nazionalista izatea, menpekoak uniformizatzea. Bakoitza garaiaren eta herriko ohituren arabera dabil.

Batzuk nekazariak hiritarren kontra berotzen (Mao, Pol Pot), lan bortxatuetan hilarazten (Franco, Hitler, Pol Pot), besteak hiriko langileak iruzurtzen, liluratzen (Hitler, Stalin), inperio baten xedea edukitzen (Hitler, Stalin). Diktadore askoren gisa, margolanetan, arkitekturan errealismoa eta klasizismo handinahia behartzea (Hitler, Napoleon, Stalin). Demokrazietan luzaroegi agintean egoten diren lehendakari agintetsu batzuek handinahi hori garatzen dutela eta obra eder guztiei beren izena jarri nahi (Mitterrand).

Bitxiena da diktadore horien artean batzuek iraultza baten jarraipena direla aldarrikatzen dutela, Napoleon 1789ko iraultzaren ondoko, Stalin 1917ko iraultzaren ondoko, Pol Pot 1953ko iraultzaren seme eta abar; iduriz gizartearen aldaketa nahasketak aginte osoaren sistema dakarrela.

Komunismo guztiek diote demokraziak direla. *Demoak*, herriak erresistitzeko ahala galdu ondoan, jendea liluratu behar da, zerbait hobekuntza eskaintzen zaio, ezin erosi diren intelektualak erbestera edo zigor zelaietara behartzen, eta besteak Edergintzaren funtzionario saridun egiten (Hitler, Stalin). Diktadore eta iraultzalari batzuek aurrekoek egin gauza ederren desegiteko ganberrismoa darabilte (Hitler, Pol Pot).

Herri demokrazia komunista horientzat, demokrazia mozo-roa da: azkenean, *Nomenklatura* izeneko polizia aginte burges bat sortzen delako eta herria "arditua" beti eguneroko bizi borrokan ibiltzen.

Faxismoek, gorago totalitarismo guztietan ikusten diren ezaugarriez kanpo, ez dituzte metodoak eta ereduak berdin, ez eta ideologia mozo-ro desberdina erabiltzen: sozialismo populistaren maskarapean aurkezten dira Hitler eta Mussolini; "cruzada cristiana" delakoaren izenean Franco. Francok eta hain zuzen Pinochetek, Hitler eta Mussoliniren alderantziz, aberatsen laguntzaz hartzen dute agintea.

Zer dute elkarren arteko lokarria? Batzuetan, elkarren arteko aliantza, hala nola azken gerratean Italia, Alemania eta Japon lotuz (Ardatzeko potentziak) eta bazterreko euren kolaboratzaileak edukiz (Francoren Espainia, Pétainen Frantzia)

Denen artean, faxismoek ezaugarri bi dituzte: bata, eskuinekoak direla sarritan, baina ez beti kontserbadore; bestea da zelan aginte osoaz jabetzen diren. Bai, abiatzen den iraultza edo aldaketa ahul batez baliatzen dira; herriaren itsasontziak ezker lema-zain baten bidez ababorrera jotzen duenean, faxista piratak itsasontziaz jabetzen.

Herri txiki eta ertainetan faxismoek ez dute irauten, edo behintzat demokrazien zerbitzuko egoten diren bitartean baizik. Hala, estatubatuarrak Hego Amerikako diktadoretxoak agintean jarri ondoren utzi zituen kentzera. Garaituak diren erregetxo horiek Frantziara errefuxiatzen dira: Giscard d'Estaingeren adiskide baldin bazen Bokassa diktadorea, Saddam Hussein Chirac-ena, Guy Mollet sozialista Francorena, ez da harritzekoa. Eta inguru-txoa inguruka jarraitzen.

Kapitalismoak, maltzurkiago, ez du jendea hobeki errespetatu. Koloniagintzak jendeak eta kulturak desegin ditu. Orain, demokraziaren izenean, estatubatuarrak, munduko zakurrak, maisu zigordunak, globalizazioaren eta diru inperioaren alde dabilta, bonba ukaldika jendea hezi beharrez eta Jakintzaren garapena teknikari lotuz, lurzabal osoa kutsatuz: AEB horiek barnean demokrata, kanpoan totalitarista.

Kapitalismoak ez du profeta bururik. Ezjakin batzuek diote ez duela ideologiarik; eta liberalismoa? Herensugeak bezala, zazpi buru, bat moztu eta berriz beste batek lekua hartzen baitio, atzo proletarioen kapitalismoa, gero komunistak kutsatu duen estatu kapitalismoa, gero liberalismoa eta harekin, beldurgarria dena, estatubatuarren gizabanako berekoikeriaren ideologia, ezen Hitlerren eta Stalinen erokeriek europar balore zaharrak kordokarazi zituzten eta haien lekuan eros-zaletasun itsua sartu zaigu.

Zer da ongia?

Gaizkiaz aski esan dugu eta sistema guztiek Ongi zerbait ekarri dutela aitortu behar. Erdi Aro azkenean, Elizak, elizek, sendiaren, familiaren egitura hobetu zuten, noizean ere teknika berriak hedatu (nekazaritzan), noizbehinka gerrateak geldiarazi.

Marxismoak, bere forma eztienean, sozialismoarekin jadanik, berrogei orduzko lan asteak, opor ordainduak, sindikatuak ekarri zizkigun eta, herri zenbaitetan, miseria gorritik txirotasunera igaro.

Kapitalismoari zor dizkiogu teknika garapen gehienak, beribilak, hegazkinak, telefonoak eta hainbeste gailu, baita besteen bizkar bada ere, Mendebaldearentzat sekulako erosotasuna ezagutzen duguna.

Badaude “ismo” horiez kanpo edo sistema guztietan sortu diren taldeak, anaitasunak, elkarteak, kofradiak, mutualak eta zerbitzuak: zaharren pentsioak, gizarte saria, gizarte segurantza, osakidetza. Ekonomia eta kultura mundukortzen ari den unean, horiek gure nortasunak gordetzen eta berdinkeriatik, gizabana-koaren ideologiatik salbatzen eta jende ingurumenaren hobetzen lagungarri genituzke.

Badirudi protestantismoz eta aleman giroaz kutsatu Nietzscheri ez zitzaizkiola agradatuko ideia berriak, bera berekoi-keriaren eta Niaren alde zegoelako, baina nazismoarekin ezer ikusteko ez zuen ni elitista.

4. Aurrerapena eta erosotasuna

Balore horiek ez dira hain zaharrak. XVIII. mendean Europako pizkunde garaian azaltzen hasi jendetasunaren ardurua Argien mendean garatuko da. Gaur, haren fruitu on eta txarrak ikus ditzakegu. Nork gaizki esan lezake hobeki bizitzeaz, osasunaren, ongizatearen, irakaskuntzaren hedapenaz, ibilgailuen lasterraz eta horrelakoez? Nor kobara, harpera itzul liteke? Ekologista amorratuena ere ez. Aurrerapena bai, baina zer zapalduz?, zer sunsituduz?, zer preziotan?

Euskal Herrian, horretaz aurreiritzi pila zegoen, industria garapenaren izenean dena zilegi zen. Horretaz, *Bizidunak haurren eta helduen heziketan* liburuxka idatzi zuen Peillenek; alegia, gure herrian, mediterraneanren ohituraz, Izadia “res nullius” dela,

eta hark zioen haurrekin hasi behar dela ingurugiroaren errespetu heziketa; geroztik, *Elhuyar* irakurriz, ikus daiteke nola balore berriak agertu diren eta batik bat kanpotik etorri *ingurugiroaren axola* sartu, Euskal Herriko lurretako eta itsasoko uretako zakar-tegiak gainditu baino lehen.

Aurrerapenaren ideologia horretan hiru adigai nagusi sar genitzake, bata kristautasunak eta gero marxistasunak zabalduetako **berdinkatzearen** helburua; zoritxarrez, ekonomiaren zapa-indarrei ezin ihardukiz inon erdietsi ez dena. Aukeren eta gizon-ema-kumeen sarien berdintasuna erdietsi daiteke, baina denen burmuinak ezin dira berdindu.

Bigarren adigaia eta osagai dena, hamazortzigarren mendeko Argien filosofiak zabaldua, hots, *arrazoiaren bidetik* joanaz gizarteak jakintzaren aurkikuntzekin erosotasun “unibertsala” sortuko zuela. Bai, lur honetako bizizaleen herenek erosotasuna zer den badakite, beste bi herenen bizkar. Gizarte antolakuntzarako helburuetan, herri aberatsenek demokrazia ispilua asmatu dute, alegia, teknikariek eta jakintzalariek emanak ongi baliatzeko, jendeari sinestaraztea boterea duela, baina denbora berean behetik gora etor litekeen eskaera nekez entzutea. Eskaera haien oztopo direnak kontuan hartu gabe, iradokizunak onartu gabe, hautetsiek nahi dutenaren egiteko eskubidea dute.

Jakina, herriak nahi duena hautetsiak ez badu betetzen, hurrengoan ez liteke hauta, baina hautetsiak alderdiek aukerazten dituzte eta jendea ohitu egiten da alderdi bati botoa ematera, eta kalte egin diona berriz boterean jar lezake. Batzuetan, herria esna daiteke, bihur daiteke, hori ikasi zuten beren kostuz frantses chiraquistek eta espainol aznaristek. Demokrazia amets ederra da, eta Grezia eredutzat ematen dutenek ez dakite herri hartan guretan baino demokrazia gutxiago zegoela, esklaboek edo azpi-herritarrek, kanpotarrek ez zutela inolako ez zuzenik, ez eta entzuterik ere.

Aurrerakuntzaren ideologiak pragmatismoa sortu zuen. Diruaren ustelkeriak desbideraturik, edo Estatuaren Onurak aipatuz, gorabehera asko eman ditu. Lehenik, jakintzalariak urduri

jarri zituen, Bachelard, Monod, Rostand eta Oppenheimer filosofia egitera bultzatuz. Gizartea aurrera eramateko eta jakintza-aren aitzinamenduez baliatzeko, bi bide nagusi erabili dira, bata kolektibotasunarena eta bestea bakoitzaren ekimena, berekoikeria irriksarekin bultzatuz.

Badirudi bizi baldintzak hobetzean, egoeraren hobetzearekin ere, materialistek, erosotasunzaleek eta erositasunzaleek ekonomikoki usu erreka jo dutela. Maila batera iritsi ondoren, aurrerapenaren mekanika blokatzen dela. Errusiako *Glasnost* berrikuntza, irekiera edo globalizazio izanik ere, badakigu Londresen, Moskun edo Parisen miserian bizi daitekeela, New Yorken bezainbat.

Aurrerakuntzaren jardutea, gizarte zaharkeria noizbehinka behaztopatu da, eta industria herri guztiek, nahiz politikaz gorri, nahiz zuri izan, gutxi edo asko langabezia, indarkeria, bortizkeria ezagutzen dute eta ekonomiaren zati nagusia armetan, drogetan, mafietan, prostituzioan ematen da. Diru zikin hori da nagusi Mendebaldeko gehienean, Amerika, Asiako "gutxiengo" ugariez gizentzen.

Aurrerapenaren bide zabala adarkatu da, merkatu ekonomiak eta industria herriek ez dute jakin, gizabanakoaren erdiespenaz kanpo, droga desegileen eta etsipenen aurka zerbait eskaintzen. Europa Ekialdeko herrietan, berdintasunaren ametsa zeukatenak, Marxen esanak gaizki ulertuz edo itsutuki erabiliz, diktadurara eraman dituzte. Eta komunismoa erori herrietan gaizki bizi zirenak, sistema erori eta gero, gaizkiago oraindik, beren herrietarik ihes eginik, lapurretara, prostituziora emanik.

Aitzinamenduak gogorki jorratu dira. Amerikarrak atomo bonba erabiltzen hasi zirenean, jendea kezkatu, nahiz bonbardaketa klasikoekin hil gehiago egin zen (Dresden 200.000, Tokion 150.000). Jakintzalariek, ordea, ez daukate botererik, armadetak teknika-riek edozein aurkikuntza gizonen hiltzeko bideratzen dute. Bi handien arma lehiaketa, gerra hotza izan zen Errusia ahulagoak bere Sobiet Batasun inperioa galtzearen eta mundua lekuka geldirik, izozturik egotearen zioa.

Jakintzaren etika ez da erraz bideratzen, beti. Jakintzalariai-
-gizon direnez- gaizkiaren aldetik jar litezkeelako, edo isilaraz li-

tezkeelako. Bestalde, ikusten dugu lurzabal hau kutsatzenenik duten Estatu Batuetako oraingo zuzendariek, aurrerapenaren izenean, kutsaduren beheitzeko hitzarmenaren izenpetzea ukatzen dutela. Gaur Ipar Ameriketako Estatu Batuak munduaren nagusi harroa direla ikusiz, badugu non kezkatu. Aurrerakuntzaren azken umea globalizazioa izan da. Askatasunaren izenean, ekonomiako saiak dabilta Afrikako jendea beren elikadurak kentzen, gure neguan gure produktu garestiak egiteko, gero lurzabalean, Txinan eta Indietan, Pakistanen eta Hego Amerikan umeek gutxi ordainduz egin lanak saltzen. Lurzabal honetako esklaboek erdiak ez al dira umeak?

Estatubatuar ekoizpenak eta ohiturak munduan banatzen dabilta, Coca-Cola eta bakeroa lekuko txikienak eta agerienak izanik. Horretaz, idazle batzuek herri eta jendeen nortasun galera dakarrela aldarrikatzen dute. Hala nola frantsesez, gaztelaniaz eta portugesez idazten duen Brasilgo Rodolfo Roldán Roldán idazleak: bestelakotasuna ez dela lege-haustea, baina duintasunaren, nortasunaren, bestelakotasunaren gordetzeko gogor egin behar dutela gazteek:

Jovens do mundo todo ligam o novo ideal
pelo direito de escolha
pelo direito a diversidade
diferença não é crime
diferença e dignidade
pela preservação da identidade
o consumo destrói o sonho
morte a globalização (R. Roldán Roldán, *Inidentidade*,
poesia, ed. Komedi, Campinas 2001).

5. Modernotasuna eta mundializatzea

Hemeretzigarren mendean, modernismo adigai hedatzen da. “Modernotasun” hitz higitu hori demokratizatze bilakabide batekin lotzen da. Izan ere, ez da demokrazia hori politikan benetan

garatuko, baina gizartean zerbait gisaz bai. XVIII. mende hartan, burgesiak aristokraziari eta monarkiari boterea hartzen dio eta pixkana klaseen arteko harresi batzuk erortzen. Hirietan plebeioak burges izatera igo zitezkeen eta diru beharrez nobleak, beren bizi mailari eusteko –odolarena ahazturik– dirua duten ber, burgesekin, kanpotarrekin, judu erdeinatuekin ere ezkontzen.

Denbora berean, zoritxarrez, hemeretzigarren mendean baserritik datozenek errebaletako miseria gorria ezagutuko dute eta proletariatua agertuko da. Denbora berean ere, Periklesen garaian bezala eta Homerok aztertu moduan, politika kasta bat garatuko da demokrazia eskuartuko eta gordeko duena, eta denbora berean jendeari eros zaletasuna eta apetaren gizartea eskainiz. Honela dakusa modernismoa Angel Rama, uruguaiarrak:

“Los cambios históricos no son el producto de mutaciones bruscas y conclusivas ni siquiera cuando son promovidos por revoluciones y aun éstas, cuando son auténticas transformaciones profundas obedecen a modificaciones graduales que se han producido en la estructura económica y han ido contaminando los diversos niveles de la sociedad (...)

“Aun aquellos períodos de cambio de duración relativamente reducida al ser examinados en detalle revelan que están compuestos de tendencias evolutivas de progresivas modificaciones de desplazamientos graduales de distintas concepciones, las que incluso pueden aparecer superpuestas en un mismo tiempo” (Angel Rama, *Las máscaras democráticas del modernismo*, Montevideo, 1994).

Badakigu modernotasun adigai horrek, maiz, azken modan izatea adierazi nahi duela, baina filosofian behintzat Iraultzarekin lotua datorrela eta honela dakusa, beste gisaz, Joan Mari Torrealdaik:

“Iraultzarekin batera europear pentsaera modernoaren lerro nagusiak ikusi ditut. Progresoan sinesmenen zientziaren guttialtasuna, gizonaren nagusitasuna, arrazoimenaren garaitzpena eta ardatz gisa dituen kultura gurea da, Europakoa. Iraultzaren pentsamendua ere hortxe dago” (J.M. Torrealdai, “Iraultzaz”, *Zeruko Argia*, 554.zk.).

Mundializazioa zen lehen hitza, baina ingelesez mundu hitza "world" baita, mundializazio hitza baztertzen da eta globalizazioa aipatzen. Globo hitz horrek ez du jende konnotaziorik: hori seinale da nora doan bilakabide hori. Lurzabal osoan ekonomia mugak kenduz, kultura eta ekonomia harremanak "erraztuz", munduaren merkatua egiteko mesianismoa da, baina bat egite horretan Munduko Merkatu Erakundeak argiki erakutsi digu liberalismo basati eta euro-amerikartasunaren hedatzeko homogeneousailua eta tresna dela, herri txikien kaltetan. Bai, hogeigarren mendeko bi tirania ia galdu dira, faxismoa eta komunismoa, baina tirania berdina ez ote merkatuak sortzen duena? Gizona, alegia, Izadia menpetu behar dela, hori norbanako zenbaiten onetan eta herri txikien eskubideen kaltetan gertatzen da. Ez dugu oraindik ikasi, haien esklabo ez izateko, tresneria eta teknikarengandik urruntasunaren hartzen.

Kapitalismo berriaren eros-zaletasun horren mesianismo horren hedatzeko, jakin behar dugu Prentsa Agentzia handi gehienak eta telebista sare mundukorrena estatubatuarren eskutetan daudela. Ekonomia liberal erraldoia sortzen ari zaigu, baina ez ote ditu, bere gehiegikerian, buztinezko oin hauskorrak?

Mundializatzea ez da gaurkoa, Kolon horretan ibili zen, eta kolonialismoa haren lehen ekoizpena izan zen, espainolen, frantsesen, ingelesen eta portugesen onuretan. Alegia, zibilizazioa eta komertzio harremanak erraztu eta hedatu behar zirela mundu guztira. Baina ez da historialari handi izan behar ikusteko, harremanen errazteko saio guztietan, inperialismoa dela baliatu dena: handiek txikiak irentsiz.

Gaurko globalizazioa berbera da. Badakigu nork mundu honetan agintzen duen: Estatu Batuek. Nork airea geroago eta gehiago aurrerakuntzaren izenean kutsatuko duen, nork arma egiten jarraituko duen, nork bere ekonomia interesen aldeko diktadurak lagunduko dituen.

Globalizazioak, harremanak erraztuz, beste gizarteen ezagutza eta errespetua ekarriko omen du. Barkatu, baina, Amazonian globalizazioak ditu amerindiarrak hiltzen. Eta besteen ezagutza

Euskal Herrian behintzat ez da batere hedatua: Birmanian eta Vietnamen ikusitako ez ginen erreportajeek ez dute sekulan euskal prentsan lekurik eduki ahal izan. Geure zilari begira gaude eta ez dakusagu ekaitza datorrela, ez dakusagu besteen zoritxarretan ikas genezakeela. Telebista, Internet eta CNNrekin uste dugu mundua zer den badakigula; “ikusi dut eta badakit” ordez, irudi horietan “nahi zutena erakutsi didate eta ez dakit hobeki” erran behar genuke. Prentsa agentzia handiek banatu albisteak sinetsi behar genituzkea?

Globalizazioak gure bizioak hedatu ditu; armen eta drogen globalizazioa aspaldixkan egin da. Bestalde, herri txikiak ez dira bakarrik menperatzen, hiltzen ere. Genozidiotik edo etnozidiotik uniformagailuak zibilizazioen aberastasuna suntsitzen dabilta. Amerindiarren, melanesiarren, Asiako menditarren *hamar bat hizkuntza* hiltzen da *urtero*, eta haiekin kulturak. Laster guri gerta ere lekiguke, jadanik gure euskal mintzaira eta gure euskal kultura UNESCOren ikerketaz gaixorik dagoelako.

Bai, harremanak erraztuko dira, baina zeinen onetan? Hala-ber, munduko balore ugarien desegite horretan, monopolio kapitalistek beren atzaparrak hedatzen dituzte eta, noski, gutxiengoan kultura eta hizkuntzak salbatzea ez da batere haien xedeetan, denek ingelesa ikastea baizik. Mundializatzeko horri bihurtzeko, euskaldunok geure baitan behar genituzke irtenbideak aurkitu. Oraindik, argi dago Ipar eta Hegoaldean langabeziak berriro sendotu dituela ahultzen ari ziren elkartasun joerak, auzoen arteko, herritarren arteko, bai familietako elkartasunak eta gizarte alternatibak gehiago behar genituzkeela, ezen ez da errana liberalismoaren buztinezko oinak ez direla pitzatuko.

Bai, beti lagun baten, ahaide baten etxean ohe bat aurkituko du euskaldunak. Baionan kalean lo dagitenak frantses erdaldunak dira. Horrelako zerbait sumatu zen 1996an *Los valores en la Comunidad Autónoma del País Vasco y Navarra. Su evolución en los años 1990-1995* Eusko Jaurlaritzak erdaraz argitaratua zuenean. Beharbada, familiaren sendotzeko, Hego Euskal Herriak ezagutu duen demografia eroria jasotzeko, Iparraldean senar-emazteek dituzten abantailak eduki behar lituzkete.

Bestalde, altermundialismoak, beste mundu bat eskaintzen duen irtenbideak, bitarteko alfer ongoseen beharra galaraziz, dirurik gabeko ekoizpen trukaketa eta bestez baliatzen ikasi behar genuke. Globalizazioa, hartu urratsean eta dauzkan xedekin, gutxiengoan zapaltzailea izanen da, eta gutxiengoan barruan beste gutxiengoa egiten duten kanpotar, langabetuen eta emakume askoren kasuan. Dagoeneko, emakumeak gogamenetan aurreratu zaizkigu, eta feminismo berriaren definizioa, “*Euskal Herria sortzera goaz*” ekimeneko kide den Izaskun Guarrotxenaren hitzak ekarriko ditugu:

“Azkenean gizonetikiko berdintasuna lortu duten emakumeak gizonen rola hartu dutelako izanda. Eta berdintasun hori ez dugu nahi, nik ez dut gizon baten berdina izan nahi. Argi dago ezberdinak garena. Guk aukera berdintasuna eskatzen dugu, bakoitzak bere berezitasunekin, baina denak aukera berberak izatea” (Izaskun Guarrotxena, “Iraganeko erroak hartu eta etorkizun berriaren bila”, in *Argia* 2002ko martxoaren 10a).

Hain zuzen, *La mujer en Euskal Herria* liburua idatzi duen Ana Maria Lagarde “Goihenetxe” zuberotarrak, Parisen 2002an argitaratu bere tesian, gaur ere gizon eta emakumeen artean baliagarri lirerateen gizarte harremanak aipatzen ditu. Tesiak dio: “*L’univers psychique des Basques (Instauration de la symétrie des sexes, analyse sociologique et linguistique)*”. Gogoratzuz aspaldian konturatu garena antzinako euskaldunek eta geuk, espainolen alderantziz, gehienetan hizkuntzan sexuen simetria mantentzen genuela: *los padres*, aita-amak edo gurasoak, *los tios*, osaba-izebak, *los hermanos* anai-arrebak eta azken kasu horretan lau izen geneuzkala, baina, urrunago joanaz, “hitanoka” alokutiboak hizkuntzaren mailan bi sexuen bestelakotasuna ongi azpimarratzen duela gaineratzen du. Goihenetxe andereak, Iparraldeko foruak ikertuz, erakutsi digu nola agertzen den legeetan simetria hori, geroago berak, zuberotar gisa, nola bizitu duen simetria hori, eta jendeek zer esan dioten horretaz. Bukatzeko, psikiatricaren bidez, nahiz ez den akats gabeko sistema, badago geroko gizarte eredu

edo balore berri baten eraikitzeko bidea. Globalizazioari bihurtze, erresistitze horretan, sistemaren zirrikituek, arraildurek, ahu-
leziak lagunduko gaituzte.

Jadanik, kapitalismo gogorak 1929ko krisi larria ezagutu du eta herriak ordaindu, baina berriki Estatu Batuetan *Enron* bezalako monopolio erraldoi bat erortzeak eta *Vivendi* kordokatzek globalizazioak freno bat izango duelako itxaropentxo eman ten digu. Aztia ez naizelako, ezin esan.

6. Bakea

Bakeari buruz jarrera asko izan daitezke. Hiru bide nagusi ikusten ditut.

1. Axularrek *Gero* liburuan, XVII. mendean ematen diguna: kanpoan guda egin, herri barreneko alfer kaltegarri, nahasle, maltzur eta gaiztagin direnak urruntzeko.

2. Egiategiren erdibidea, *Bigarren liburuan*. Bakea hobe da ikusten dugularik gerlak soldadu ez direnei ere zer oinaze, galtze eta itsuskeria ekartzen dizkieten, eta gaineratzen du horregatik armada beharrezko dela, “*Si vis pacem para bellum*” idatziz. Baina poetikoagoki idatzi zuen kapitulu hasieran:

“Jüstiziaren etsai odolgiroenak dirade bakearenak. Ezta halabadore zorihonik mündüan bakearen pare denik. Haren begitartea hain eder da nola ekia, haren izacraren hatsa Arabiako intsents(u)ak beno maitagarriago” (*Bigarren libürüa, Bakeaz, 75*).

3. Gudaren aurkakoak. Euskaraz ez da gehiegi idatzi horretaz, nahiz Afganistango gerraren aurka direnak, gure gerraren alde diren. Jusef Egiategi, behin, bakezale armatua dela idatz nezake, eta hona hark zer dioen:

“Bakea da zerüaren dohain handiena, hark dü Eremüa (basamortua) iraultzen ta mendiak ügaritzen (aberasten). Biziren argia da. Bakerik ez denean, ura odolez eta nigarrez ihinztatürik (intzez blai) airean heiahora, oihü eta dolümen baizik. Eztia

eta esnea ügormintzen dirade, ogia ta beste haziak zaldiek eta gizonen dütie zankopetan auriskitzen (oinperatzen). Deusere ez ützen. Süaldien keak dü Ekiaren (eguzkiaren) argia lilluratzten. Galgiro azkarra da, galmen alde güzietarik, polbora infernalaren zapartak (estandak), hiriak ondekitaraino zotütakuzten (mubitzen), elizak eta jauregiak lapurtzen eta erretzen. Jendeak bilusik. Ihon bazkarik, ihon aterberik, haurrak aita ama bagerik, marrakaz nekatürük eta gosez hilik (...)

“Hek dirade gerraren lardazki lotsagarriak, bake lüze batek baizik ahantzarazi litzokecnak. Bakeak zertüan dü bere egongia (egonlekua) hartarik dügüno dezagün begira (gorda) ahalena eta gizonen gaiztokeriarengatik maxima handiari lot’ “Nahi badük bakea, adelaezak gerla” (*Bigarren liburua, Bakeaz*, 345. gogamena, 157).

Bai, Egiategik Prusian eta Polonian gerrateen kalteak ikusizituen:

“Gerletan garrak hiriak ta elizak düttü erretzen, lürrak desegin-goan ta galkiroan jarten, bere odolean bera itorik, lürrak kapar (sasi) ta elorri baizik ez emaiten, jendea bakeari marrakaz hel dadin (..)” (*Bigarren liburüa, Soldado edo güdarietzaz*, 158).

Jadanik argitaratua den lehen liburuan, Egiategik idatzi zuen:

“Egia horren gertaldia dago Españan hanko erregeek Amerika güziak ta Indiak gidatü nahiz bere erresuma propioan die desderrictü, ürre ta zilhar mendiak bezain gora herri hectarik die atheratü ta harrigarri gizon hectan ehortzi” (*Soldado edo güdarietzaz*, 75).

Beste kapitulu batean, Ausartziaz mintzo denean, honela idazten du, soldadua nolakoa izan behar duen. Hor ageri den iritzia eskarmentuen fruitua da, Egiategi J.P. Bela zuberotar koronelarekin Prusiako erregearen eta Poloniakoaren zerbitzuan ibili zelako:

“Irakurri ez düanak nekez daki Ohorearen egiazko eginbidea. Han dü ikusten nolako gerlako ausartzia eta legeak, hanko lan gaitza, obra ederren lankaia. Meskabüer(nahigabei) nola behar düan bihürtü, aberastarzünak mesprextatü eta herioarekin oroitü” (*Lehen liburüa*, XXXVI. k. 256).

Egiategik ez du uste armada handiak direla beti garaile eta beste borrokabideak daudela, horregatik gogamenean dio:

*Güdan herriak norbere armekin
Davitek bezala habailarekin* (Mündüaren berritzeaz, argitaragabea, 870. gogamena).

Palestinarren kasua aipa genezake, besterik ez egiteko. Israeldar Goliatek irabaziko al du? Buka genezake Egiategik berak dioenarekin, gerraren (gerlaren) iraupenari aitzakia bilatzeko eta bi ahotako ezpata honekin:

*Gerlarik ez jagoiti(k)
Ezpada bakerengati(k)* (Mündüaren berritzeaz 990. gogamena).

Armada izatea onartzen bada, ez edozein, Egiategik dio ez dela gudarien prestakuntza lan zailena, gehiago dela zuzendariak gerratearen eta bakearen legeetan jakintsu izatea, jakin dezaten zer dezaketen eta ez dezaketen egin, beraz, bere herriko eta bes-teen herrietako legeak ikastea, eta jarraitzen du:

“Hola gerlatik kanpo ogenik (kalterik) ez egitea; jendeen zuzen-
netan ezpada jakintsü ta zer diraden obrak gerlak zilegitzen
eztüüanäk” (*Lehen libürüa*. Soldado edo güdarietàaz, 169. orr.)

Egiategik, soldadu egonak, diosku “Gerlarik ikusi eztüüanäk
bakearen balioa eztaiki”. Eta bakea nahasten dituzten hiru iturri
nagusiak:

1. Hitz emaitan, eztenean etxeki nahia: desleialtarzüna dena.
2. Hitz emanaz garbaia: astokeria dena.
3. Hitz etxeki ezina gan,bero ta ohointsüen beltzakia dena” (*Lehen libürüa*, *Bakeaz*, 157).

Beraz, mundua mundu deino, lurreko gatazkak gerra bila-
katuko dira eta totalitarismoak bakearen izenean sortuko.

7. Erljioak

Inperiokeria gizon bakar baten aginteari edo utopia bakar
baten diktadurari lotua bada, proselitismoa islam eta kristautasun

bi monoteista diren erlijio gehienen irritsa, lehia eta harropuzkeria da. Judaismoa etnia bati lotu da, baina besteek, kristauak eta musulmanak, munduko izpirituez jabetzeko helburua daukate eta bakoitzak egia bakarra daukala dio. Azken urte horietan, erlijio proselitiko horiek erresistentziak ezagutu dituzte, eta arrazoi-rekin zioen Egiategik:

“Gauza zaharretan dügü fedea hain tinko non sinets ezaigenezake gure aitasoak bide okerrean ibili direla; hartako Indianoak zioen, nahiago zela bere aitarekin infernüan ezi ez kristauen lagün paradisüaren esperantzän“ (aip. lib. 201).

Herri kristautu berrietan, misiolari batzuk konturatu dira sineste eta ohitura zenbait ezin zirela galarazi etnozidiorik egin gabe. Halaxe, afrikar elizak agertu dira, mendebalder ideologiaren proselitismoak afrikar hizkuntzak eta kulturak itotzera bultzatu nahi izan zituen, eta neokolonialismo laiko maltzur bat kolonialismoak baino kalte handiagoak eginaz dabil, hala nola frantsesa.

Musulmanen arrakasta Afrikan, herri behartsuetan, jendeen berdintasuna eta elkartasuna aldarrikatzen eta erakusten ongi dakitenetik dator. Musulmanek afrikar sineste batzuei itsu egon behar izan dute eta afrikar inimiziazioa ezin galaraziz ibili dira, inimiziazio horietan direlako afrikar munduari egoki diren jakiturriak. Musulmanek ez dute inon arabiera inposatu. Erlijioen txepeltzeak leku askotan arrazoia dauka jendeak askoz hobeki bizi direla, eta erlijioa miseriadun jendeen kontsolagarri delako; gainera, miseriadunak ez du astirik erlijioak eskaintzen dizkion dogma eta misterioen jorratzeko, eta den bezala hartzen du. Kristautasunaren atzerakada, Nietzscheren ustez, letorke gorago aipatu ditugun hiru balore garatuegi direlako: lana, familia eta aberria. Hona zer dioen aleman kristauetz:

Hain dira beren lanarekin, beren atseginekin, aipatu gabe beren “aberria” eta “familia eginbideak”, baitirudi ez zaiela erlijioarentzat astirik gelditzen (*Jenseits von Gut und Böse*, 58.oharra).

Hor Nietzschek protestanteen ezaugarri bat ematen digu, eta I. Mendi Ezkiok, Luis Bandres jaunak egin azterketa kritikatu, idatzi zuen:

“Kalbinismoaren ezaugarri bat lanaren etika da: gogor eta diziplinaz lan egitea, negozioiak zorrotz eramatea, zuzentasun, eta profesionaltasunez eta ondorioz arrakasta baduzu ederki Jainkoaren begikoa zarela seinale. Baina kontuz, ordea, etekinekin ahal duzuna aurreztu eta berriz inbertitu behar duzu guztien onerako eta ez zeure gozamenerako erabili (vs. Argentina). Kalbinismoak ez ditu batere atsegin luxua, ondasunen nabarmenkeria, aberatsen aisia, hedonismoa. Aitzitik, neurritasuna, laztasuna, soiltasuna eta antzeko balioak indartu izaten ditu. Honetaz antzeko pentsaera dagoela esango nuke, adibidez Arrasateko Kooperatiba Esperientzian. Labur esanda, uste dut kalbinismoak zerikusi gutxi duela zuk zeure artikuluan salatzen dituzun ‘kameleoi’ horien jokabideekin”.

Baloreen mailan erlijioen argitu ezinez arazoa izan zaiena Gaizkiarena eta Ongiarena. Jainko bat baldin badago oroahalduna, orojakituna, berak ongiarekin batean gaizkia eta infernua asmatu ditu, edo bestela ez da kreatzaile bakarra, bi baizik: Satan eta Jainkoa. Kristau batzuek jainkoa ona dela diote, baina badi-rudi aukeratzten dituztela beren ontasunak. Honela dio salmoak:

*Jauna, hire eskuinean dago
bere haserre egunean
erregeren hausteko,
nazioen epaitzeko,
hilen metatzeko,
askoren buruak ditu apurtuko* (119. salmoa).

Gero, zer den ona, zer den gaizkia, ohitura edo herri bakoitzak dakusa, noizik behin bataren gaizkia bestearen ona izan baiditeke.

8. Mendebaldeko ideologiek eskaini baloreen hierarkia

Hamazazpigarren gizaldian, Port-Royaleko komentuan, frantses gramatika logikoa idatzi zenean, hizkuntzen sailkapena eta hierarkia hirukoitza asmatu zuten frantsesek. Arrazoi oroko-

rraren izenean eta mundu osora hedatzezko, hizkuntza bakoitzak eta kultura bakoitzak hiru etapa ezagutu behar lituzke, ilunpetik argira, frantsesaren mailara igotzeko, edo basakeriatik zibilizatoraino heltzeko: monosilabadun lehen gizonak (txinera), elkarlotzaile polisilabadunak (aglutinanteak, euskara) eta goienean flexiodunak (frantsesa eta latina).

Kristau antropologoak erlijioez mintzo, behean animistak, erdian politeistak eta goienean monoteistak sailkatzen dituzte. Nola liteke orduan balore orokorrik? Edo nola batak besteak baino gorago? Bizi bilakaeraren eredian gizarteak sailkatu dira. Beheko lehen mailan, lehen gizarteak edo primitiboak, beraz logikaurreko gizarte gutxi garatuak (animistak); bigarrenik, gizarte logikoak (kristauak); azkenik, gizarte modernoak. Hala, mendebaldeko kultura handiak, hedadura handiko hizkuntzak, zuhaitzaren goi-goian daude, eta besteak ihar daitezela. Zenbat jendek ez du uste, gure jende ondarearen aberastasunerako, tximino mota bat edo hartz bat hizkuntza bat baino baliosagoa dela? Isiltasun handia. Urtero, dozena bat hizkuntza hiltzen da, eta zibilizazioak hilkor direlako aitzakian erailtzen dira.

Georges Dumézil frantses antropologoak, mitologia konpartatua sartuz, ukaldi ederrak eman zizkien kategoria horiei, eta beste buruan Mircea Eliade errumaniarrak, beste muturrera joanaz, kategoriarik eza aldarrikatu zuen, zoritxarrez errituetan finkatuz, sinesteetara gehiegi jaitsi gabe. Balore orokor delakoen izenean, jakina, zuhaitzak sakratu, kosmogonia berdintsuak nonnahi ikusi zituen, baina eskematik kanpo zeudenak baztertu. Errituak berberak izan arren, azalak dira, baina ohituraren mamira, adierazira joanaz, primitiboa modernoa baino aberatsago gerta daiteke.

Sakontzen denean, balore bereziak giro batek, ingurugiro edo ingurumen batek baldintzatuak izan daitezke, eta orduan antzekoak izan menditar gizarteak, baina oso bestelako nekazari gizarteak, itsastar gizarteak, ehiztari gizarteak. Jakina, Montesquieu filosofoak horretan geografiaren esanahiak gogoratu zizkigun, baina besterik ere badago, ekonomia, kultura, erlijioak, besteekiko

harremanak, gatazkak, gerrateak, goseteak eta hamaika osagai, gizarte bizitza moldatzen dutenak. Sakontzen saiatzen bada, osagai guzti horiek, sare bat baino gehiago, armiarma anarkista baten amarauna dirudite, eta antropologoen lana batere ez errazten.

9. Zuzenbidea eta eskubideak: legea

Manuel de Larramendik, gorago ikusi dugun bezala, “justicia más sencilla” nahi zuen eta Egiategik ere ez zuen nahi erromatar legea eta jurisprudentzia Euskal Herrian gehiago sar zedin. Foruarekin aski. Egiategik deitoratzen zuen, oraino XVII. mendean, Zuberoan bertan ematen zen justizia, kanpoan, intxaurren baten baten azpian, denen agerian eta goradeien, apelazioen jokoe-tan sartu gabe laster amaitzen zirenak; zeren, azkenean, zer da legea? Senaren eta ohituraren hezitzaile den arau bilduma, gizar-tearen oreka bilatzen duena. Ez al du erlijio moralak hala-hala egi-ten? Ez. Orokorregi da eta legea zehatzago, batzuetan zehatzegi.

Argi dago ez dela mundurako balio duen lege sistemarik; ohiturek agintzen dute, garaiak agintzen du eta noizean behin legeak estatu baten zapalkuntza tresna bilakatzen. Frantziako legeak, Jendeen Gizabide aldarrikapena irainduz, erresumako hizkuntza bakarra frantsesa dela aldarrikatzen duenean, non dago oreka?, non gutxiengoaren askatasuna? Frantziak goratik “*Un Etat de droit*” dela dio eta, horregatik, bere lau milaz goitiko le-geekin, munduko lege gehienik daukan herria da (Frantziako La-naren Kodeak bakarrik 2.600 orrialde ditu).

Gizartean arazo berria sortzen den aldikal, hamar lege ema-ten dira horren zuzentzeko. Frantses sozialistak azken legealdian harropuztu dira, alegia, 250 lege berri “errun” zituztela. Denak administraziozko oztupoak sortzeko dira. Ez dugu auzoari harria jaurti beharrik; zer egin du Gasteizko Legebiltzarrak? Azken le-gealdian ez al du hoge bat legez goiti “errun”?

Badago justizia ez errespetatzeko beste bide bat: legerik ez izatea. Frankismoaz geroztik ez da inoiz Espainiako konstitu-zioan torturaren aurkako legerik egin, eta hori beti Jendeen Es-

kubideen aldarrikapenaren erdeinuz. Zer da lege gabe egotea edo lege ugaritzea, ez badira jadanik egin legeak indarrean jartzen, ez direla ezagutzen eta direnean ez errespetatzen? Jakina, bakoitzak komeni zaizkion legeak darabiltza eta besteei gor eta itsu.

Ez dago erresuma bat ere justiziaren gainean kontrol gehiegia ez duenik. Orain, European gaude. Nola konponduko dira hainbeste aleman, euskal, katalan, frantses, italiar lege eta beste? Nola hogeita hamar izanen garenean? Ez al die bakoitzak, bere nortasuna galdu gabe, zerbait amore eman beharko besteei?

Sarritan, behar gorririk ez den herrietarako legeak egiten dira; haurren eskubideez mendebaldean komediak egiten direlarik, Indietan lasai zazpi urteko haur txikiak meatzetan darabiltzate eta Ekialdeko herri askotan, agerian, adin txikiko zernahi gazte alfonbragintzan edo haurrak salduz bizi. Gorago aski iruzkindu dugu giza eskubideen orain arteko alferrikako eragin hori.

Legeen barruan eskubideak daude, baina Giza Eskubideen errespetua eskatzen dutenek, beren nazioko armadarekin edo beren iraultzalariekin, zibilak, zahar, andre eta haur, non-nahi hiltzen dituzte. Ez al da lehenbiziko giza eskubidea biziaren begirunea? Noiz aldarrikatuko da eta bidean jarriko gerrate borroka armatu mota guztiak lege-haustek direla? Amets egin dezagun. Eskubideez askok hitz egiten dute, baina eginbideez oso gutxi; bada, legeak biez jarduten dute, edo behar lukete. Jusef Egiategik bi kapitulutan aipatzen ditu, eta lehenik dio Europako lege guztietan idatzia dena:

“Aitak aldiz haurrari sortü den bezain sarri deio zor hazkürria ta hezkuntza, potere düanaren doiala. Legantza bagerik hütsik egin ez lezake bi artikülü horier ezpada izan nahi bere haurraren erhaile ta haren bizio güzien langile.” (Lehen libürüa, *Aita amen eginbideaz*, 119).

Jakina, gorago ikusi dugun bezala, ez du Egiategik gurasoen eginbide hori bizitza guztira dela idatzi, eta berresaten du gurasoei dela umeei ez bakarrik jatera ematea, baina heztea ere:

“Hek (gurasoek) düelakoz beren hümeak bazkatzen ta dakiena irakasten.” (op.cit. 119).

Simetriaz dago beste kapitulua, “*Haurren eginbideaz aita amen eretzean*”. Jakina, horiek irakurtzean, ez zaigu ahaztu behar ez zela garai haietan zahar-saririk, baina gaur ere, pentsioak izan arren, jendea zahartzenago delako eta zahar elbarritua oso garesti delako, haurrek badutela beren gurasoekin erantzukizuna, eta erantzukizun hori heda daiteke aitaita-amametara, anai-arrebetara, osaba-izebetara halabeharrez, eta nahi duenak lehengusu-lehengusinak ere lagun ditzake. Zer dio Egiategik:

“Otean zer deie zor haurrek beren aita ameri, eziez bizia heterik üken düena, eta ützüli eztereikiena, bena bai errespetü hümilena ta beharrean diradenean zokorri ahalcnak” (*Haurren eginbideaz aita amen eretzean*, 129).

Eginbide horien argigarri bezala, Antzinateko adibidea ematen du:

“Lege zaharrean semeak bere eginbidetan aurridcen eretzean huts egin züanean aitak züan aüzoen bilgürala ekarten ta han harri”kaldiz züen erhaiten (hiltzen)” (op.cit. ib. 129).

Arau txikiak, lege ez direnak, arautegietan biltzen dira. Halaxe, elkarreek, erakundeek, eskolek eta etxeek beren araudiak dituzte. Irakasle izan direnek ikasleekin, musu-trukean lauzpazortzi jabekide diren etxeko arduradun izan direnek, ongi dakite arautegiak, zigorrik ezagatik edo, legeak baino gutxiago errespetatzen direla. Gainera, errua ez ezagutuz, sarritan, errudunari esan ahala bere arau haustean gogortzen da.

Justiziak beharrezkoa du bere buruaren jabetasuna, kanpo eraginik gabe egotea, baina bakea ere behar du. Egiategik zioen, bigarren liburuan, *Bakea* kapituluan, bakerik gabe ez dela justiziarik. Gainera genezake alderantziz ere, gizabanakoari edo etnia bati justiziarik eman gabe, bidegabekeria edukitzean, bakerik ezin dela garatu, eta Euskal Herria ez da adibide bakarra.

10. Demokrazia

Hitz hori, asmo eder hori, Greziari zor diogu, baina, esan dugun bezala, orduko errealitatea ezagutuz, badakigu herri gehiena

“agintetik” baztertua zela, baita agintearen hautatzetik ere. Europan, mundu guztiari demokraziaren irakaste eta beharrezkotasuna hedatzen dugunok, geure herrietan asmo horren zabal-tzen, aberasten jakin ote dugu? Orokorra omen den balore horretaz zer egin dugu? Eguneroko praktikan zer jarraitzen dugu? Galdera anitz eta erantzun zehatzik ez. Jende motak eta gizarteak asko direnez, bakoitzak bere moldean, nork bere gisara adelatu du demokraziaren sukaldaritzza. Komeni zaizkionak hartu, bere asmakizunak sartu eta nahasi. Goraipatzen diren demokrazia utopietatik urrutixko.

Mendebaldeko adibide batzuk hartuz, demokrazia hauteskondeekin, denen bozketarekin lotua dela ematen du; baina, ikusi dugunez, ahaldunen egitekoa ez da herriari agindua betetzea, haien ordez erabakitzea, edo gizarte talde mehatxagarrienari amore ematea. Europako erresumetan lege asko, %70, jendeen iritziauren aurka bozkatu dira eta erreferenduma, batik bat tokiko erreferenduma, ez da legezko. Ezen demokrazietan gehiengoak agintzen du eta gutxiengoa isilik. Zure herrialdetik urruti daudenek zuk baino eskubide gehiago dute zure geroaren erabakitzeko.

Hainbat gaizto inperio zabal batean edo handinahi batean gutxiengoa zarenean. Ez da on amerindiar izatea Brasilen, Argentinan, Txilen edo Estatu Batuetan, ez eta tibetar izatea Txinan. Inperioaren batasunaren atxikitzeko, sustatzeko, politika zentralistak darabiltzate, batasunaren izenean homogeneousotasunera joanaz. Iparraldeko fakultateetan, historialariek eta soziologo gehienek kontatzen omen dute nola Frantses Iraultzak Iparraldea osoki askatu zuen. Ez dute kontatzen nola udal mailan bozkatzaren ziren andereek orduan botoa galdu zuten, ez eta Europan Frantzia izan dela emakumeei botoa eman dien azkenetan. Frantses iraultza mirezgarri horrek, laster, zergak ordaintzen zutenei bakarririk eman zien botoa.

Frantses berri horiek ez dute idazten, beren goieneko etxetarik, gure demokrazia etxeko jaunena baldin bazen, hautetsiak, zinegotziak azkeneraino herriak eskatzen zuenaren alde agertu behar zuela. Orain, frantses diputatuak ez dira hurbildik ere

Legebiltzarrean aldi oro ibiltzen. Lege bat eztabaidatzen denean, hogeita hamar bat bakarrik, gero alderdiek esana egiten dute, beren hautesleen errespeturik gabe.

Lehenagoko zuberotar *Zinbideta* delakora zinegotzi bat joaten ez zenean, isuna ematen zitzaion edota kargutik kentzen. Foruko hautetsiek zin eginez hitzematzen zuten; ez oraingo frantsesek eta espainolek bezala, ordezko gisa nahi dutenaren egiteko. Zure herria eta zure beharrak ezagutzen ez dituen gehiengo batek zuretzat erabakitzen du (ik. Ipar Kataluniako, Korsikako, Ipar Euskal Herriko arazoak). Iraultza burges hark Euskal Herrira ekarri duena goitik behera dabil burges demokraziaren parodia. Aitortu behar da herri xehea ez dela gehiegi aldaketa zale eta hori ikusi zen nola populua –eskulangileak, salerosle txikiak eta nekazariak– karlisten aldetik eta foruen alde jarri ziren eta modernoak, aberatsak eta anbiziodunak demokrazia liberalaren alde.

Demokraziaren biziitzea ustelketak isilpean edukitzetik etorri da, eta bestalde gutxiengoaren iritzia ezdeus izatetik. Proporziozko hauteskunderen aurka daude, jakina, dagoeneko kopuruz gehiengo handia dutenek gutxiengoaren ordezkorik ez baitute nahi. Horretarako, kapitaletan dauden alderdiek agintzen dute: Chirac ala Stalin, Ceausescu ala Thatcher, Castro ala Aznar/Zapatero demokrata direla denek esaten dute, baina gutxiengoek legebiltzarretan lekurik eduki ez dezaten ahaleginak egiten. Gizarte horiek guztiak ez dira eredu klasikotik, “aristokratikotik” atera, eta R. Garmendiak ongi dioenez:

“Gizarte klasikoetan, oster, aginduaren mantentzeko gehien metatzen dutenek beldurraren bidez lortzen dute hobeto beren helburua, herria menderatzea hain zuzen, Makiavelok ere esango du hobe dela beldurra sorraraztea maitatua izatea baino, boterean mantentze aldera. Gizarte klasikoetako eredu aristokratikoa ezmorala da, berez” (R. Garmendia, aip. lib. 31).

Bai, ezmoraltasun hori da hain zuzen Nietzschek, botere nahikariaren izenean, miresten, artamendatzen, hobesten duen aristokrati moduko eredu klasikoa. R. Garmendiak beste eredu dema:

“Eredu moralagoa da gizarte berbanatzailectakoa non maitatuak izatearen bitartez gizakiak handi egiten duen, nolabait esateko, demokratikoki, benetako demokraziaren bidez, ez indarraren bidez. Hau guztiz logikoa da” (R. Garmendia aip. lib., 31).

Bai, denei hauteste eskubidea emanaz, estatuak terroristen gisa erabiltzen duen lehen metodo maltzurra da. Zernahi esanik ere, nola esportatu behar genuke zuriek lurzabal osora gerok errespetatzen ez dugun demokrazia, guhaurrek hamar aurpegi oportunistekin antzgabekten duguna? Euskal Herrian ordu genuke horretaz pentsaketan sartzea. Otoi, ez betiko itxuran, kanpoan eredu bat bilatuz: ez gara ez Albania, ez Alemania, ez Kuba, ez Irlanda. Akinari japoniarrak zioenez: “*gerok balore zahar batzuk eta balore berri batzuk dauzkagu, zergatik Txina imitatu behar genuke*”.

Euskaldunok geure kondaira chauvinismorik gabe iker dezagun. Geure huts eta onuneak ikus eta geure erdua, euskal herritar gehienek onar lezaketen erdua asma dezagun. Foruez idaztean, Larramendik eta foruen galtzea deitoratzen zuen Egiategik honelako zerbait gogoetatu zuten beren garaietan, herritarrek zuzenki parte hartzen dutenean ekintza miragarriak egin litezkeela herrietan:

“Herriak herritarrei sendagaila (balentria) handirik eragiten die bakotzak gobernüan parte hartzeko züzena düan errepubliketan” (*Bigarren liburua*, argitaragabea 1069. gogamena).

Azkenean zer? Europaren egitera goaz eta alde guztietako zentralista gehiengokoak eta gutxiengokoak oihuka, independentzia eta erresuma berezia behar dutela, muga kendu nahiz gabiltzanean. Estatu nazioek ez al dute aski gerra sortu European? Autogobernua demokrazia da, zeren behetik gorako demokrazia benetakoa ahalbidetzen baitu. Dilema nolabait askatu egin beharko.

Demokrazia ametsa da, herri askorentzat demokraziarekin ezer ikusteko ez duen sistemaren aitzakiaztat erabilia, eta tiraniak zurituz. Bai, tirania motak daude politikazkoak (Kuba), erlijiozkoak (Saudi Arabia), ekonomiazkoak (Estatu Batuak).

Iritziak eman, pentsatu, idatzi. Baina protesta egiten dugunok zer eragin dugu? Zeren izenean jardungo dugu? Demokraziaren elefante azala ukitu dugu, baina itsuak gara eta ezin erabaki. Egiategik zioen, etsiturik: “Ez dñanari irakurtuko/ez zaio dolütüko (damutuko)”.

Gaur nor ez da demokrata? Nork bere buruari demokrata diplomak eta urrezko dominak ematen dizkio eta izterbegia, aurkaria faxista edo nazia dela idazten. Hitzen higadurarekin kontuz! Hitzarekin batean, adigaia eta arrangura desager daitezke. Nolako ausartziarekin besteen demokrazia eza salatzen dabiltzan Frantzia eta Estatu Batuak! Demokrazia, bai, benetan amets ederra, baina amets minbera, hauskorra, ez iraunkorra. Aski da ikustea nola frantses iraultzaren askatasun ametsa odolean ito den eta ondotik Napoleon tirano nepotista eman zuen. Halaber, Weimarko errepublika ahulak Hitler eman zuen eta espainol errepublika nahasiak Franco, sobietar iraultzak Stalin.

Horiekin ororekin zer dakusagu, gure politika sistema guztiek ustelkeria dakartela? Makiavelok esan zuen: “*botereak usteltzen du eta botere osoak osoki usteltzen*”. Demokraziaren hantustea duten herrietan, botere jendeak estatuaren dirua ebasten du eta gobernuan direlako beren buruak zuritzen (ikus Berlusconi, Chirac, Dumas, Pasqua, Urralburu eta besteak). Politika indar guztiek, burua hartuz gero, oligarkia edo nomenklatura edo politika *mafia* isil bat sortzen dute (Frantzia, Espainia) edo agerian (Italia, Errusia). Jakina, aberats diren herriek horrelako zerriak haz litzaketek beren herria suntsitu gabe, baina kaltegarriago dira Heren Munduan, Afrikako miseria handienak hango buruzagien aberastetik eta gerratearik datozelako. Arraina burutik usteltzen delako, goikoak hain lapurrak ikusiz, lapurreta gizarte maila askotara hedatzen ari da, eta ziurtasuna, gizarte bakea, galtzen. Ez bakarrik Hegoamerikako herrietan, baina Europako hiri handi anitzetan, gaua gaiztaginen erreinua da eta eguna ez oso ziurra. Hortaz dihardu Nietzschek bere “*Ongiaren eta Gaizkiaren haraindian*”:

“Ustelkeria senen barruan anarkia mehatxagarria azaltzen duen neurrian, bizitzaren funtsa den pasioen eraikuntza

inarrosia dela salatzen digu” (F. Nietzsche, *Jenseits Von Gut und Böse*, 258. gogamena).

11. Buruzagien, gizagoienen, gizagaindikoek sortzea

*“Erregeak bufoia behar du aldamenean
bufoiek erregea behar duten bezala.*

(J. Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*, 153).

Giza edo buru hitz erroekin sortu adigaiak andreak idazteko zuzenik ez zutenean agertu ziren. *Buru* edo *goien* izateak ez ditu balore handiagoko, bertutez beteagoko jendeak goratzen, ezta beren senen gobernatzen dakitenak ere. Giza balore horiek geroago eta lohiztatuago ikusten ditugu, eta zerutiar ametsik gabe goieneko postuetara iritsi diren asko ez dira beren merezimen-duengatik igo, bakarrik talentu bitxi batzuekin, beren diru zikin eta erdi zikinekin, edo beren mendekotasun saltsekin, edo beren armen bidez hartara iristen dira.

Noizbait, buruzagiak beste buru txikiagoak biltzen zituen eta herriak jarraitzen; orain, zuzenean eta zeinek demagogia gehiagorekin, zeinek telebistan irudi hobea eman eta pertsona hobeki saltzen da.

Politika telebistako zirku bilakatzen da eta telebista ohitura berri guztien banatzaile (Azken urteetan, baserrietako zuberotar andre gehienek telebistan ikusi amerikar film batetik ateratzen dituzte beren umeen izenak: Sue Helen, Bryan, Willy, Lorie eta beste).

Kirolean eta mass-medietan, diru ezaugarriaren garrantzia nabarmen da. Horiek dira, politikeroekin batean, gaurko bufoiak, eta erregea dirua. Zein telebistako programatzaile frantsesek onar lezake hilabetean hiru milioi euro baino gutxiago irabaztea eta zein futbolari handik ere? Errege diruaren bufoi ikusle bilakatu gara, ez ekile; gero jendeari bost axola HIESaren edo minbiziaren edo mukobiszidosiaren sendagailua bilatzen dabilen jakintzalariak askoz gutxiago irabazten badute. Alabaina, gure

munduan zerbait demokratizatu da telebistaren bidez, gizon bat edo beste denen bufoi egin delako, eta, egia esan, herria handiago eta bufoia txarrago. Telebistak kultura tresna izan behar zuena, Messier eta Berlusconiren laguntzaz, europar zine ona hil arriskuan dago eta amerikar purtzilkeriak arte kateari nagusituko litzaizkioke.

Gizagoiena, heroi emea ala arra, ametsezko balorea da, baina betidanik emankorrena izana; mende bakoitzak bereak izan ditu, erlijio garaian santuak, militar garaian zaldunak eta jeneralak, eta orain zer eskaintzen diegu jende gazteei? Burtsako gizonak? Kirolariak? Zine izarrak?

Behin, hilen agerkuntzez, agerpenez idatzi nuen. Lehenago sinesten zirelako ikusten zirela, eta orain berdin. Garai bakoitzean uste dut, argi edo kometaren gisa, gizaldia bere etsipenetik ateratzeko eta gainetik ibiliz, gizagoienak izan direla. Geroago, balore hitza *kemen* hitzarekin nahasi zen, eta, gerrak hain odoltsu ez zirelarik, zaldunen bizi senaren aurka doan hori gorai patzen zen; gainera, ez omen zirelako diruarengatik gudukatzen, non ez zen erregearen edo printzearen aberasteko. Halaber dagite militar amorratuek, hala nola lehengo japoniar kamikazeek eta oraingo palestinarrek. Gaurko iraultzalariak bezala, hil ondoan, heroi.

Aurrerakuntzaren ideologia eta ametsek XIX. eta XX. mendeetan oskarbi aldia ekarri zuten, jakintzalariak gizagoientzat hartu zirenean. Zoritxarrez, XX. mendearen bigarren aldian jakintzalariek, teknikariek lekua utziz, politikeroen zerbitzuan jarriz, beren bikaintasuna begiratu arren, goientasun lekua galdu dute. Hamaseigarren mendean pizkundearekin berriro abiatu Jakintzaren balorapena, emaitzak ikusita, orain zalantzan jartzen da. Azkenik, politikako, kiroleko eta finantzeko vedetteek lekuak hartu dituzte, baina gerta daiteke XXI. mende honetan legeak errespetatzen ez dituzten horiek ere leku gorenak galtzea.

Nietzsche, hainbat eskutan berreskuratua edo ezkutatua izan delarik, bere "*Gaizkiaren eta Ongiaren Haraindian*" Zaratustrak dioena ere irakurtzen ikasi behar genuke. *Urbmensch* edo Giza-gaizandikoaz dioenez, Jon Mirandek saioa idatzi zuen eta, euskal-

dunen ezikusi eta ezin onartuak etsiturik, zakartegira bota eta zera zioen: gizadi guztian, aldioro, goi ikuspegi eta pentsaera zabalez antolatu merezimenduaren hierarkia behar litzatekeela, gizagaien bilduma, gizon guztien gainetik eta zuzendari zintzo jarriko litzaatekeena. Eskuak garbi, burua sano, ez ote gehiegi eskatzea?

Nietzscek jendeen berdintasun asmoa baztertzen zuen, esaten zuelako pentsaera horrek azken gizonera eroango gintuela, eta gizon horretaz dihardu *Also Sprach Zarathustra* liburuan. Gure pentsalariak badaki seduzitze eta desafio egite erraldoian sartzen dela. Ez du Egiatan sinesten, *poiesiaren*, estetikaren bide arriskutsutik sartzen da.

Kondairari, historiari etorkizun berria eskaini nahi dio, ziurtasunik gabekoa, gizonak bere burua sortu eta birsortu behar duelako. Egiaren, ongiaren, gaizkiaren ilusioak bazterturik, Nietzschek badaki estetikaren bidetik, moralik gabe dabilela.

Nietzscheren gizagaindikoa bide neketsu horretarik abiatuko da mendiko basamortura. *Aus Hohen Bergen*, mendi gailurretatik, mundua ikusiko du eta, bera ez bada gizagaindikoa izaten, besteei norabidea irakatsiko die. Gizagaindikoa anti-Sisifo da. Ez da jainkoen menpeko, mendi bati gora, tontor puntaraino harri biribil baten bultzatzen dabilena, jainkoa ukatu baitu. Haren borondatez dena gerta liteke, eta porrot egitea ere. Ez die besteei eta bere buruari zilegitasunik, erosotasunik, zorionik eskaintzen; alderantziz, aukera zailak, diziplina estua, gero besteen argi eta gidari gogor izateko. Horrelako espartar pentsaera ezin daiteke marxismo edo beste ismo batekin nahas, eta, halaz ere, bere gogortasunarengatik, tirania batzuek berenganatu nahi izan dute (nazismoak, komunismoak). Hitlerrek, orde, ez zuen Nietzschegan juduen gorroto eroa ikasi, Nietzschek juduak goresten zituelako eta, bera erdi poloniarra izaki, alemanak gutxiesten. Gogoera hori, agian, aitortu gabe, uste baino hedatuagoa da lurzabalean. Ameriketako inka eta aztekena ez ote zen halako? Asiako japoniar samuraiena, eta Txinako mandarinena? Nietzschek ideiak azkeneraino eramanez dituenak ez ote da Mishima?

Ezinbestean beren buruak hilaz? Badakigu Estatu Batuetako *Whasp* eta *Golden boy* gizarteak eta Errusiako mafia nomenklatura berriak ez dutela Sils Mariako pentsalariaren gizagaizkoarekin ezer ikusteko. Nolanahi, gure mendean, merkatu ekonomia-
ren, diru garaijaren giroan, *meritokrazia* horren asmoak denboraz kanpo, anakroniazkoa dirudi, baina bihar nork daki?

12. Edergintza hiru balore erroen bidegurutzean

Edertiak jatorriz senaren alabak omen dira. Gure zentzuei zuzenean heltzen zaizkienak: musika belarriari bibrazio goxo eta neurtuen bidez, begiari margo eta eskultura lanak, margoen eta antzen erabileraz eta antzerki, zinema ikusgarriak beren mugimenduekin; eta literatura ere begien medioz. Edertia senetik hurbil dago, zentzuen bidez atsegina eman baitiezaguke. Senetik hurbil, baina ohituretan moldatuak. Bai, nazioarteko tankerak noizbehinka agertzen dira, batik bat mendebaldar inperiokeriak gainjarriak, eskolak eta garaiak, lekuko estiloak dira.

Ez gara, ordea, gure ohituretarik, gure kulturetarik kanpo daudenen ulertzeko gai: lurzabalean musika tankera desberdin asko dagoelarik, gazteek euro-amerikar berria goizetik arrats entzun nahi lukete. Edertiak mundu osoan ikuspegi bakarra ote du? Aurpegi askotakoa da, diamantearen gisa. Gainera, Edertia adimenaren zuzendaritza zerbait gabe ez doa inora. Gure adimenaren eragin hori bi aldiz gerta liteke: hasieran, norabideak erakusteko; gero, senak lasterra hartuko du, aske jarraituko du.

Ekai soilaren aurrean, noizbait eraikuntza bat, egitura bat agertuko da. Ideia edo gai bat ematen duenean ere, benetako margolaria bere margoekin, marrekin askatzen da. Andreak, Maria Teresak ziotan: “Zu idazle bezala otoitz laikoan zabiltza, ni margoztuz meditatzen”.

Hiru balore mota gutxi edo asko kontuan hartuz, gizarte balore edo balore orokorrek Edertiaren xedea muga dezakete: Erdi Aroan margolariak gai nagusi gisa erlijioa zeukan, Sobiet

Batasunean gizarte errealismorako, erraldoikeriarako joera; beraz, argi dago Arte Plastikoetan, baita antzerkian ere, artea propaganda egiteko erabil daitekeela. *Proletkultur* saiakera laburra izan bazen, sobietar errealismoak, luzaz, beste eskola guztiak ito zituen. Zoritxarrez, gaur diruak du agintzen edertian, ez gaude hobeki.

Musikarekin ez da hain erraza: musika mundukorra izan omen daiteke, testurik ez dagoenean, hizkuntzetarik kanpo neutroki entzun daitekeena, baina hor ere adimena sartzen da; margolanak ikusten ikasten den bezala, musika entzuten ikasi behar da. Gure musika barrokoa Asiako herri zenbaitetan nekez entzuten eta onartzen dute, Afrikan batere ez, eta guk gehiena, ez ondo ulertu arren. Sarritan, begi-belarri oneko artistak bere zirrara eta senetan aukera bat egiten du, baina hautu hori, gorago ikusi dugun ideologia kasuetan, gizarteak muga liezaioke. Bestalde ere, doinu errazak aisa saltzen direlako, bizitzeko diru egiteko, horrelako zerbaiten egitera bultzatua da musikaria. Halaber, margolaria eta zizelkariak modaren menpeko dira. Artistak ere baditu bere barreneko oztopoak eta, lantzean behin, gehiegikerietan eroriz, bere mugak aurki ditzake.

Intenbide asko eskaini zaio Ederti garaikideari, bideitsu batean omen delako. Ederti mota askoren arteko ekoizpenak ematea (poesia, irudiak, hotsak batean, gure Joxean Artzek egiten duen moduan) edo objektuaren baztertzea (margoa osoki urdina) edo objektuaren desmistikatzea (eguneroko mahai eta aulkiak "instalakuntza" batean, apain arte parodiaz, bitxiki horma batean perpendikularki muntatzea edo zernahi objektu erakustea, pixontzia artistaren mokordoarekin, baina horretarako artista beharrik ez).

Betiko legez Edertiak, batik bat plastika garaikidea eta musika erraza, XIX eta XX. mendeetan salgai bilakatu zaizkigu. Oraingo obra ederrenak espekulazio egileen atzapar artean daude, edo gordailu batean, jende gehieneren helmenetik kanpo gordeak.

Ametsa egin zen zinematik eta telebistak jendeei Edertien heziketa emango ziela. Gehiengoaren erdeinuz, elite batentzat gauazko hamabietatik goiti ematen dira, langilea lokartzen denean

ematen dira, bai, ekoizpen ederrenak, jakingarrienak. Edertia, sena, ohitura eta balore orokorren batasun baliosa izan daitekeena altxor baten moduan ez da denen harmenean. XX. mendeak ideologiak eta etikak desegin omen ditu, eta Edertia ez ote doa bide berdinetik? Musikarekin gauzak ez dira hain behera jaitsiak. Irrati batzuk egunaz ere ausartzen dira musika zail kalitatezkoa jende gehiengoari eskaintzen. Herri xeheari kalitatea eskaintzen bazaio, erabiltzen ikasten du.

Nork, zerk laguntzen duen argi dago. Frantzia zentralistan “pentsamendu bakarra” nagusi da; beraz, gauza arriskugarririk eta aldaketa egile ez diren edertiak bankuek laguntzen dituzte. Literatura ez: ideiak ordenaren kaltegarri izan daitezkeelako.

Aitortu behar zait, gaztaroan, ideologiek uzkur uzten nindutela, eta Jon Miranderen gaitzespen salaketa handiena zen “zu, Txomin, esteta hutsa zara” eta nik erantzuten “edertasuna ontasuna baino aiseago eta segurago edireten da”.

B. Ingurugiroaren errespetua

1. Izadiaren erabilera

Dirudienez, Amazoniako ehiztarien munduan ehiza begirunez ikusten da eta ez da azkeneraino ustiatzen. Amerindiarren kultura guztietan bizidunaren errespetu handia erakusten eta irakasten da. Hona Uruguaiako amerindiar eskoletarako Elba Oterok idatzi olerki kantatua:

Indiecito niño
*Indiecito niño despiértate ya
a comer la fruta del mburucuyá.
¡Mira! el sol alumbra más rojo el ceibal
y cantan los teros bordeando el juncal.
Vamos indiecito, vamos a jugar,
con los pececitos, allá en el lugar*

*donde dijo Mamá, debemos cuidar,
a la Madre Tierra ¡hay que respetar!*

*¡Cuidado indiecito! no la pises no,
a esa lagartija que dormita al sol.
Ya a las calagualas se fue el caracol,
a su hijo en la sombra, ya lo acomodó.*

*Indiecita niña, la noche llegó
ya no canta el tero y ruge el jaguar,
a la toldería anda a descansar
mira el sol ya duerme, la luna salió* (Elba Otero, *En busca de las raíces*, Montevideo, 1969).

Zurien ustiaketa eta asiarrei kutsatu dieguna harritzekoa da. Behin Uruguaiako indiar batek, buruzagi zuriak agindu arren, ez zuen arrainik harrapatu nahi izan; erantzun zion arrainen arrautza egiteko garaia zela. Jendeek Izadiarekin dituen harremanetan geroago eta gehiago gizartearen garapenari ematea eskatzen zaio; bizizaleen ugaritzearekin fenomenoak handitzenago. Artzainekin ingurugiroa ere, leku askotan, oihanetik estepara eta estepatik desertura igarotzen da.

Hogeigarren mendeko nekazari, teknikari eta adimendun omen direnek joera horri ez zioten ihes egin. Garapena jainko bilakatu zitzairen. Beren ongarri erabilera gehiegiarekin *bad lands* edo lur gazituak hedatu ziren Ipar Ameriketara, Europan eta Afrikan, eta jarraikitzen dute. Gure ondotik etorriko diren belau-naldiei jaramon egin gabe, Izadiari gehiegi eskatzen diogu. Zer esanik ez, euro-amerikarrok geure jakituria guztiarekin ez gara geure lurren desegiteaz askiesten, Tropikoetako oihan gehienak egurtzen ditugu, kotoi, aratxide uzta bakarren sistemarekin Afrikako lurak hutsaltzen, antzutzen.

Itxes batekin, katastrofe batekin baizik ez gara ernatzen: Aral itsasoa edo Baikal aintzira gatz desertu edo osasunaren kaltegarri bihurtu ondoren, Txernobileko haizeak Ukraina, Bielorrusia herria eta Europa osoa kutsatu ondoren. 2001. urtean, Frantziako Tolosan, leherketa itzel batek AZF Total lantegi bat suntsitu

zuen, 32 hil egin, bi mila zauritu eta auzune bat eta unibertsitatearen zati bat porrokatu. Kimika lantegi horrek nekazaritzako nitratoak egiten zituen eta Mirailh izeneko etxeen erdi-erdian zegoen. Itxes horrekin jakin dute Frantzian "Sevezo kategoria arriskutsuan" 1.300 fabrika daudela eta haien artean hogeita hamar bat hiri erdi-erdian. Hala ere, ekologiaren beharra eta kutsaduraren hilgarritasuna ez da herri xehearentzat argi, altermunduzaletasun sentimentala da, ezen fabrika horretan lan egiten dutenek ez baitute nahi lantegia Gaskoniako Tolosa hiritik lekuz alda dadin; gainera, auzune berean beste hiru "Sevezo" enpresa daude. Jendeak uler dezan, bigarren eztanda handiagoa behar ote?

Mendebaldarrok teknologia daukagularik eta horrelakoak egiten, nola ibil gintezke Heren Munduari aholku ematen, zer egin behar duten eta zer ez? Gosearekin eta umeez zamatuak dabiltzan herri txiroei janarien erretzeko, oihan hits bakanen erretzeko eskubideak kendu ote behar, guk geure altzari ederren, leiho eta ateen egiteko tropikoetako hainbat oihan suntsitzen dugularik?

Lurzabalean haizeak eta urak kutsatzenenik dituen estatu erraldoi tiranikoak, Estatu Batuak, ez du ez Tokioko, ez Brasilgo Porto Alegreko kutsadura eta izadiaren errespeturako akordioa izenpetu nahi izan, eta jarraituko du geroago eta munduaren zikintzenago. Gaizkigileak ez dira ordaintzaileak. Buruan adimenik ba ote dute horiek? Etenik gabeko garapenez eta aurrera-kuntzaz izadia ekai hutsa bezala dakusate, eta hori dagitenean jendeen (batzuen) zorionerako beste ororen zoritxarra egiten.

Euskal Herrian, maila txikiagoan, mentalitate horrekin ibili gara. Arantzadi taldeko biologialarien kritikek eta Inozentzio Munitaren *Gure mendi eta oianak* liburuak ez zuten nahikoa oihartzun eduki. Garai hartan, ekonomia, osasuna, tximinia kegleen ugaritzearekin lotua zen. Industriaren fanatismoa zegoen. Fanatismo diot, ezen ez baitzen kontuan hartzen Izadiari egiten zitzaion kaltea.

Hona zer zioen Inozentzio Munita Arizmendi apaizak: "Zuaitzaren adiskide ta etsaiai zuzendutako lerro baldar batzuek"

kapituluan: "Huescako probintzian, basoak kentzeak aldatu egin die bizitza guztia: giroa, klima leorte ikaragarriak, maasti saillak ondatzea, nekazaritzak etekinik ez ematea" (*Gure mendi eta oianak*, Mugerza Tolosa, 1952. can 22). Urrunago idazten du: "Guztiok kantatu bear diogu zuaitzari, ainbeste ondasun ta ain merke leial eta egunero ekartzen dizkigun zuaitz onari. Esnatu guztiok eta ekin lanari bere alde, gure mendiak oso larrutu eta lur ontan ezin bizi litekela-ta, iges eginbearra etorri baino len. Zori txarrez beste toki askotan gertatu dana, ez dedilla gertatu gure erri maite maitean." (aip. lib. 33).

Negutegi efektua da erregaiek sortu oxido karbonikoen eraginez gertatzen dena, eta ekoizle handiena, jakina, Estatu Batuak. Erregai fosilak, ordea, ez dira berehalakoan desagertuko, eta beste energia iturririk ez da hainbat bilatzen. Zer gertatuko da airearekin, urarekin, Txinan eta Indian erregaien kontsumoa oraingo Estatu Batuen mailara igoko denean? Ipar Amerikarrek uste dute, beren aurrerakuntza sineskerian, denen aizolbean daudela. 2001eko irailean New Yorken eta Washingtonen milaka jende hil denean, beren lurraldean gerra bonbardaketarik ezagutu ez zutenei berek besteei egina gertatu zaie. Ulertu al dute? Ez. Berriz lehendakari bera eta antzeko politika hautatu dute.

Uste dut, agian, hogeita bigarren mendean ezin jasana gertatuko dela eta orduan "handiek" ere neurriak hartuko dituztela, baina aurreko bi mendeak erraz madarikatuko gaituzte hogeita bigarrenekoek. Bai, zertan gabiltza, anitzetan, gure hondakinekin? Herri batzuek herri behartsuetara bidaltzen dituzte diru txiki batzuen trukean, askok neutralizatu gabe itsasora botatzen. Dagoeneko Izadiak ezin ditu suntsitu.

2. Ekologiaz

Mendebaldean ekologiaren ideia berriek, ingurugiroaren errespetua eskatzen dutenen asmoek, beren bidea baratxe-baratxe igiten dute. Legerik ez bada, eta kontrol handia ere ez, herri

xeha ez da onartzera gerturik. Noizbehinka bizi naizen herrixkan ikusi ditut erantzunak. Ur kontsumoa ez da ordaintzen. Ordainduko zelako susmoa sarturik, aipaturik, egunero jendea amorratuki beribil, traktore, kamioi garbitzen hasi zen eta jarraitzen du. Beribil ezinduak bildu behar liratekeela esanik, auzo batek biharamunean bere katxarro zaharra hurbileko sakan bate-ra bota zuen eta su eman.

Ipar Euskal Herrian, eta Ipar Frantzian ikusi dudana bezala, zakar bagoiak, kontainerrak ipini arren, herriko bazterrak zikinduz, bere etxetik hurbil den erreka zakarrak botatzen, simaurraren zukueta eta ibilgailuen olio zaharrak erreka isurtzen dituzte. Baserri kodea inork ez du gehiago errespetatzen, astirik ez delako, jenderik ez delako, beste ofizio bat dutelako. Hau mendietan, baina zelaietako urak nitratoa erabiliegiz kutsatuak dira. Adibidez, Britainia osoan txerritegi modernoek eta txahaltegi modernoek ur guztiak ezin edanezko bilakatu dituzte. Eta zer harrokeria daukaten munduko nekazaritza modernoena daukate-lako! Koltzari ipintzen dioten drogarekin, herri batzuetan erleak desagertu dira eta ezin dira hazi.

Horretan lagun daukate nekazari handien sindikatu FNSEA, errentagarritasunaren izenean GAO edo genetikoki aldatu organismoen aldekoa agertu dena, eta "arrazoizko nekazaritzaren" sasi-erdibide eskaintzen digularik eta ez "nekazaritza iraunkorra", lurren, uren eta haizeen kaltetan nekazaritza horretan kantitatea nolana kalitateari nagusitzen zaio.

José Bové nekazaria, Frantzian globalizazio horren aurka dagoena, espetxean egon da. Bitartean, Ipar Euskal Herrian kalitatearen alde dagoen Euskaldun Laborarien Batasunak gehiengo duka, baina euskaldun laborarien ganbera biarnes aprobetxategien departamenduko giturak itotzen du.

Etxeek, jendeak, beren zakarrekin eta beribilekin kutsaduraren %40a egiten badute, industriek, aberatsek eta beste guztiak %60a. Hego Euskal Herrian, nahiz ahalegin ederrik egin den, adibide meta daukagu. Garai batean, Urumeari usainagatik "Kakumea" zeritzon. Ibaietarik arrainak desagertu ziren.

Ez uste Iparraldean egoera hobea dela: Baionako hiriak Sony enpresari ingurugiro errespetuaren domina eman zion, ekologistek Baionako Aritxagako errefera metal astunak igortzen zituztela aurkitu baino lehen. Ilbarritzeko berdegunean idatzia da ez dela ez arrantzarik, ez bainurik hartu behar, eta urari lixiba eta detergente usaina dario. Gainera, Baionan hiru "Sevezo" kimika lantegi daude.

3. Jakintzaz

Zientziak, jakintzak, mirespen zerbait merezi du. Hemeretzigarren mendean gertatu ziren aurrerapenekin, zientismoa, jakintzakeria sortu zen. Jakintzakeria horrek munduaren arazo guztiak konpondu nahi zituen. Jakintzarengandik irtenbide guztiak igurikatzen ziren, bizi hobetzea, ikastea eta gizona izadiak hobeki jabetzea. Argi dago gauza asko ez zirela jakintza gabe egiten: eritasunen sendatzeak, osatzeak, oinazeen kentzea, lanaren erraztea, jendeen arteko harremanak eskolaz eta komunikazioz hobetzea. Hala ere, jakintzak nahi ala ez, teknikak ongirako bezain gaizkirako erabil daitezke. Konfliktuok, eritasunak hedatuz, oinazeak eta torturak erabiltzea, lanaren galtzea, jendeen arteko harremanak indarkeriaz ematea, eskolen desagertzea, hots, gorago ikusi ekarpen guztiak galaraztea dakarte.

Orokorki erran dezakegu Jakintzak gure ahalak, gure bizi moldeak aldatu dituela, baina politikarengatik denek ez dituzte Jakintzaren ekarpenak berdin baliatzen. Jakintzan, askok uste arren, ez dago azken egiarik, eta maila batean ez dabilta, gu bezalako jende ximpleen gisa, errealitateaz mintzatzen, gertaeraz baizik. Jendeak bere pentsaera bere bizitzaren arabera ikusten du, sortu-bizi-hil sisteman, eta jakintzalariek nekez ihes egiten diote horri; bestalde, jakintzalariek ekidin behar duena da gertaera bati, fenomeno bati beti kausa bat bilatzea.

Badakigu gure burmuina baldintzatua dela, gure zentzuek beren mugak dituztela, baita gure munduaren ikuspegia ez dela lur munduaren benetako izatea. Muga horren aitzakian ez zaio

metafisikari fisikari baino garrantzi gehiago eman behar. Jakintzalariak bere ideiekin, bere teoriekin, eszeptikoa eta kritikoa izan behar du, eta beharbada bide berdinetik etika, metafisika, politika berritzapenetan sartu. Bai, ideien esparruan garai bateko sistema horrelako pausaldia, geldialdia izan liteke, baina berriz abiatzeko beste aukerak behar dira.

Jakintzaz ez naiz gehiegi luzatuko, ikerketan barrena jadanik ikusi dugulako biologiak zer arazo izan zuen erlijioekin, eta oraindik urte guztiz argudio eta aurkikuntza berriek, Darwinen teoria erlijio batzuek (musulmanek, kristau integristek) haren aipatzea eta irakastea debekatzen dute. Noizbait, marxisten genetikaren ukapena nabarmendu zen. Zoritxarrez, jende genoma aurkitu delako, gehiago gabe zernahi esanarazten zaio genetikari, hala nola euskaldunen jatorriaz.

Astronomian ere, luzaro, Biblia zaharra sakralizatuz, lurra-
ren biribiltasuna, birakatzea eta horrelako aurkikuntzak ukatu ziren. Betiere aurkitzen dira gaizkiaren aldetik jartzen diren jakintzalariak, hala nola Hitlerrentzat lan egin zutenak, edo gaurko Estatu Batuetan, politikeroek agindurik, ekonomia liberal batiariaren arrazoien negutegi efektua ukatzen dutenak.

Hala eta guztiz ere, bereiz nitzake gizarte jakintzak, nahiz lerro horietan horretaz jarduten dudak, alde batetik ez baitira ingurugiroaz, izadiak ari, baina batik bat gure buruaz, gure ingurumenez, eta hor objektibotasunak, ohiturek, historiak, erlijioek edo ez erlijioek agintzen baitute. Bakoitzak, aberrikeriaz, batzuetan ustekabeak, bere gizartea, bere herria, bere bizimoldea goretsi nahi luke, baina akatsak ikusi eta nola hobetu, nola aldatu. Alderantzizko ideologiak ezagutu ditugu, erlijioez, filosofoez eta historialariez baliatu direnak azkenean agintearen edo boterearen hartzeko eta atxikitzeko, jatorrizko egitasmo ederra galduz.

4. Mundu honetako bizioak eta atseginak

Zoritxarrez, gaur ideologiak erdi hilik eta erlijioek beren boterea galdurik, Europa bat eraiki behar dugu. Badirudi federa-

lismo bat garatzeko orduan, estatu nazio batzuek, batik bat Frantziak, beren baloreen izenean eta ezin asezko zentralismoz, mugak berpiztu nahi lituzketela eta itxurazko Europar Estatu Batuak sortu, muga batzuk berritu, estatu armadak berpiztu. Ez al dute estatu nazio horiek aski odol isuri eta frantses iraultzaren XVIII. mendeko inperiokeria Europari inposatu, alegia horiek direla benetako baloreak. Ez al zuten XVI. mendean Espainiatik joan iberoamerikarrek “*La destrucción de las Indias*” obratu? Balore desagile diren gerrateak aski ez bagenitu, erresuma gehienek oraindik erabiltzen duten terrorismoa eta hari erantzuteko erabiltzen direnak noiz arte? Balore desagile ere dira goien mailan erabiltzen diren diru ustelkeria, diru lapurreta, eta preso hartzen denean ehun euroren lapurra eta askatzen bost milioi euroren ebaslea. Hogeigarren mendearen inbentarioa eginaz, hona zer idatzi zuen Nicanor Parra txiletar etsituak:

(...) *Los vicios del mundo moderno:*

*el automóvil y el cine sonoro,
las discriminaciones raciales,
el exterminio de los pieles rojas,
los trucos de la alta banca,
la catástrofe de los ancianos,
el comercio clandestino de blancas realizado por sodomitas internacionales,
el autobombo y la gula,
las Pompas Fúnebres,
los amigos personales de su excelencia,
la exaltación del folklore a categoría del espíritu,
el abuso de los estupefacientes y de la filosofía,
el resbaladecimiento de los hombres favorecidos por la fortuna,
el autoerotismo y la crueldad sexual,
la exaltación de lo onírico y del subconsciente en desmedro del sentido común,
la confianza exagerada en sueros y vacunas,*

*el endiosamiento del falo
la política internacional de piernas abiertas patrocinada
por la prensa reaccionaria
el afán desmedido de poder y de lucro,
la carrera del oro,
la fatídica danza de los dólares,
la especulación y el aborto,
la destrucción de los ídolos,
el desarrollo excesivo de la dietética y de la psicología
pedagógica,
el vicio del baile, del cigarrillo, de los juegos de azar
las gotas de sangre que suelen encontrarse entre las sábanas
de los recién desposados,
la locura del mar,
la agorafobia y la claustrofobia,
la desintegración del átomo,
el humorismo sangriento de la teoría de la
relatividad,
el delirio de retorno al vientre materno,
el culto de lo exótico,
los accidentes aeronáuticos,
las incineraciones, las purgas en masa, la retención de los
pasaportes,
todo esto porque sí,
porque produce vértigo
la interpretación de los sueños
y la difusión de la radiomanía.
(...) Tratemos de ser felices, recomendando yo, chupando la
miserable costilla humana.
Extraigamos de ella el líquido renovador
cada cual de acuerdo con sus inclinaciones personales (Los
vicios del mundo moderno, In *Poemas para combatir la calvi-
cie*, Univ. de Guadalajara, México, 1993).*

Ikerlan hau bukatu nuelarik Nicanor Parraren olerki hau aurkitu nuen. Bai, denok XX. mendeak ekarri dizkigun gaitzei berdin irizten diegu, baina irtenbideak, soluzioak ere bilatu behar. Zerrenda horretan olerkariak gure mendeko kezkek azaltzen baditu, aitortu behar da beretzat bizio direnak beste askorentzat erosotasun edo bertute liratekeela. Pariseko B.N.an (Manuscrits basques et celtiques, 153. zk.) Urrustoiko Abbadiaren paperetan aurkitu eta argitaratu nuen poema bat. Idazkian gaztelu eraiki berria aipatzen delako, Urruñako Abbadiarentzat egina agian, Cesar Duvoisin euskal idazleak? Beharbada XIX. mendeko lapurtar euskal olerki horrek aurretik etsipenari erantzuna eman zion:

Epistola

Zer da gure bizia, adiskide maitea?
 Iragaitza labur bat nahigabez betea.
 Oi! zenbat atsekabe, gure hara-honetan
 zenbat kirats, bihotzmin, goitibeheitietan?
 Ezagun burasoak, haurrideak utzirik
 Itxasoko beldurrak, helkaintzak ahantzirik,
 peskizak baderama untzitan mariñela,
 ustez aberasteko urrun gan(joan) behar dela.
 Zenbat gerla piztu du ontasun egarriak!
 Zenbat eman ez daiku ondiko lazgarriak!
 Oi gizona hihaurek hire bizi laburra
 beti karasten duk, ez dea bada lurra
 berenez aski latza? Hanbat bekaitzkeriez
 hanbat asmu galgarri, hanbat gaixtakeriez
 gogorrago oraiño hihaurek egin gabe?
 Eta bizkitartean ez haiz bada herabe
 hire atseginentzat egiteko ehun laster
 gaztelu super hori norentzat egin duk?
 Herio beltzak ez dik ez urrikalmendurik
 ez aberatsen gupida, axola sobratu-rik!
 Bai orhoitzen bagina zein iraungikor diren,

hemengo izaiteak ez ginduzke pizturen
eskatima gerlarik: bake maitagarria
gizonarentzat laite (liteke) bizi gozagarria.

Ihizian nabilarik udan goiz aldeari
pozturik gelditu naiz xorien kantuari,
gogoetan egon naiz hekien atseginez,
urrikalmendu nuen, munduko dolumenez.
Baldin gizona balitz zuhurtzearen jabe,
kimeretarik urrun herakunderik gabe,
beren ikus lezake bertze gozorik dela
bai eta berma laite bizitzera bertzela.
Bainan ez! Zoratzen du gizon dohakabea,
guk zer eginen dugu adiskide maitea?
Nihor (inor) zuhurtziaren amodio duenik
edireiten (idoroten) badugu, elkargana lehenik
guziak bil gaitzen; utz ditzagun zoroak,
goazen preza ditzagun egiazko gozoak.

ONDORIOAK

Nolabait bukatu behar da. Gogoratzen naiz *Eganen*, 1960-1965. urteetan, erdizka zentsuratuak, kezka batzuk idatzi nituela, 1968. urtean lehertuko direnak. Orain, mende berri baten hasieran, erantzun baino gehiago, iritzi eta galderekin natorkizue. Iru-ditu zait jendearen eta izadiaren arteko bilakaera Egiaren elefantea dela, jakinik argi osoa, egia osoa ez dugula aurkituko, ilunpe trinkoan dagoena eta nire kandela eskuan ibili naizela, baina ni baino askozaz argiagoek argi gehiago eman dezatela. Mendebaldeko pentsaera uztea ez zaigu erraza izango, baina jakin behar dugu besterik badela, eta honela dio Claudi Molinièrek okzitaz, bere liburuan idatzia itzultzen diodala:

Sartalde-Ekialde pentsaerak elkar aurkitzeari buruz:

“Ekialdetar gogaera diodanean, jendetzaren gogamen argi den India aipatzen dut. Hor bi ikuspegi daude buruz buru: gurea, *Homo faber*en ariketa eta ekintzak zehar munduaren gorai-pa-mena dena, ekilearen, erosle esparru baten gauzatasunean, ekoizlearen sakratu egiteraino; bestea munduaren ukatzea, gauzatasunaren ukatzea, munduaren garra biziarazten, ekar-tzen duen gogamen handiago baten ezpala baizik ez dena” (aip. lib. 235).

Hiru balore sail handi aukeratu, hautatu ditut. Oraingo munduan, senarena (naturarena), ohiturena (kultura bereiziena) eta orokorrenak (kulturen artekoak), jende bakoitzetik lurzabal

osora eraman gaituztenak. Herrien, erresumen artetik lasterregi igaro gara. Hiru balore sail horiek, hiru balore sustrai horiek, izadiaren aurka jartzen den kultura adierazi zabalean biltzen dute. Gaur kultura bezala nahasten ditugu anglosaxoiek bereizten zituztenak: zibilizazioa (teknika eta jakintza), kultura (errentagarri ez omen diren kirol, aisialdi, edertiak). Urrunago joan gabe eta hiru baloreen harremanak argitzeko, hiru maila bereiz ditzaket.

Lehenik. Kosmogoniazko maila. Edozein ohituratan edo kulturatan ibili arren, denek onar genitzake kosmosaz Ptolemeok, Galileok, Kopernikok, Newtonek eta Einsteinek eskaini sistemak. Oztopo bakarra erlijio eta sekta batzuk. Mitologiako alegoriak, ipuin bezala heziketan erabili genitzakeenak, jendeek beren arketipoak hobeki oroi ditzaten irudimenez edertuak. Dakigularik mitoaren eta errealitatearen artean beti hutsunea egonen dela.

Bigarrenik. Ideologiazko mailak, dogma edo "egia" baten izenean gizabanako eta gizarteek ditugun eta behar genituzkeen harremanak aztertzen dituztenak. Kasu horretan, nolana, kristautasuna, paganotasuna, sozialtasuna edo globaltasuna onarturik ere, geure hizkuntzen eta mentalitateen arabera ideologiak aldatuko, ñabartuko edo bazter-baztertuko ditugu.

Hirugarrenik. Hizkuntzaren ikuspegizko mailan, jendearen, gure gizartearen, munduaren ikuspegiak hizkuntzak ekartzen dizkigun kategoriak. Gure sartalde herrietan gizarte egitura azaldu nahi dugunean, ideologia batek edo bestek bereganatzen gaitu. Gizaki guztien gisa, ez naiz osoki aske ibili horretan.

Euskal Herria dela eta, laburzki saiatu naiz erakusten, europar guztien antzean, iturri askotarik edan dugula. Balore maila zaharrena, protohistoriatik gutxienik, Europa osoko orduko joakaera, sineste eta egitura batzuk geratu zaizkigu: Paleolitikoan harpe sarrera askotan agertu "arrain hezur ikurra" eta "eme ikurra" Euskal Herriko uztarrietan, goldeetan, laratzetan XX. mendean egiten ziren tximistaz babesteko. Horrek darakutsa, kulturaren behintzat, herrian ez dela eten eta haustura osorik izan. Hala-koek eta beste guztiek, Euskal Herrian, ahal bezala, iraun zuten.

XIX. mendean jadanik Iparraldean orokorki bilduak izan ziren. Miguel Azurmendi Inchausti batek nahikunde txarrez eta irainez besterik esan arren, ez zituen J. M. Barandiaranek mitoak asmatu.

Eguzkiaz, ilargiaz eta lurraz sinesteak lurzabal guztian idoro genitzake, nahiz ez duten mitologia handien exotismorik eta irudirik, eta zergatik ez gurean? Mari munduko (Lope de Salazarrek XIV. mendean aipatua) gaitzizenez ezagutzen den jainkosa, ama-jainkosa, Eurasia guztian ezagutzen da. Haren irudi zaharrena Akitanian Aurignac mailan aurkitu da, eta geroztik Euskal Herriko paleolitoko grabatueta ere Magdalena garaian. Herri erlijio bakunean jainkotasun iraunkorra izan da eta gure gizarteak emakumez duen amaren gorespen handi horrekin eta amatasunarekin zerbait ikusteko luke.

Bigarren maila batean, erromatarren garaian hartu ditugun indoeuropar balore eta adigaiak ipin nitzake. Haien artean, arima ezilkorragan sinestea, kristau erakunde berrien bidez latinkadak, *Bekatu, Eliza, Errege, Estatu, Kartzela, Lege, Presondegi, Soldadu, Tortura* adigaien itzal handia.

Hirugarren maila ez da hain bakuna. Kristautasunaren bidez, hark judu hotsezko Ekialde osoko sinesteak sartu dizkigu eta benetan juduen Bibliak Mesopotamian (Sumer, Asur, Babilonia), Grezian bildu eta Israelgo etiken eta sinesteen sintesia egin, jansenisten piperrarekin edo jesuiten goxoarekin eskaini. Bai, genesisia, dilubioa, infernua, jatorrizko bekatua eta beste Indiako Vedanta haietan dira zaharrenik agertuak, geroago Sumerren azaltzen. Kristautasunak, Kristoren irakasgaiez kanpo, Aristotelesen eta Platonen ideiak eskuratu zituen eta ahal bezala herri jai pagano gehienak kristautu.

Laugarren maila, edo bere burua horrela irizten zuena, XVIII. mendean agertu zen. Hego Euskal Herria izan zen penintsulan Argiek gehienik ukितua, ilustrazioak ukितua, baina, Napoleondik landa, Elizak eta Erregeak oldea apur baterako moztu zuten. Ez zen oso berria unibertsalismoaren izenean frantsesek aldarrikatu "*La Déclaration des droits de l'homme et du citoyen*". Jadanik hogeita hamar urte goizago Ipar Ameriketara eta hamar urte lehenago

Korsikan aldarrikatu baitzen, baina besteei ezartzeko pretentsiorik gabe.

Frantses iraultzariak, oharkabean katolikotasun unibertsalismoaz kutsatuak eta handinahikeriaz, Europari beren jakobinista desbiazionistarekin konkistaz zentralismoa gainjarri nahi izan zioten. Ez zen hori izan Argien Mendeko xedea.

Uste dut frantses ilustrazioko filosofoak bizitu balira ez zutela frantses iraultzak hartu bide odoltsu eta traketsa onartuko. Bai, gizabanakoaren berdintasun hori gauzatzean, frantsesek, batasun baten izenean, benetako askatasuna baztertu zuten. Gizabanakoaren eskubideak goraiatu, bere inperioaren barruan zituen herrien zuzenbideak zapaltzeko eta emakumeak eskubide gabe utziz. Frantses Iraultzak ez zuen benetako berdintasuna gauzatu, emakumezkoek Pirinioetan herrixketako mailan bozkatzeko zuten zuzena galdu zuten eta pixkanaka gizonek ere zerga ordaintzen zutenean baizik ez zuten bozkatzeko eskubiderik eduki. Euskal Herrian lur kolektiboak kendu ziren, horrela zegoen elkartasun eta anaitasuna ezabatu nahiz. Horregatik, Nicanor Parrarekin esan genezake:

*Giza eskubideez asko hitz egiten da
gutxi
ia ezer, jendeen egin bidez
lehen gizaki eginbidea
giza eskubideen errespetatzea*

“Mucho se habla de derechos humanos/poco/ nada casi de deberes humanos/ primer deber humano/ respetar los derechos humanos” (Frasen par(r)a el bronce in *Poemas para combatir la calvicie*, Univ. de Guadalajara, México, 1993).

Europar, XIX. mendean garatu zen marxismoa. Sozialistak agertu ziren Zuberoan, eta batik bat komunistak, anarkistekin batean, Bizkaian. Marxistek, ordea, sistema katoliko unibertsalaren gisa, Eklesia bat, Eliza bat sortu nahi izan zuten eta profeta Karl Marx hartu. Zoritxarrez, komunismoa Estatuaren kapitalismo ahula bilakatu zen, eta herri komunistak guztiak alderdi baka-

rreko diktadura. Marxismoa Euskal Herrian modan egon bada ere, ez da obratu. Nahiz sozialismoarekin langileentzat, batzuetan, ondorio onik eman duen ere.

Europa mendebaldean gizartea araugabetzen, zatikatzen ari zaigula, ideologia borroka asko lokartu dira. Sistema bakoitzak ez ote dio gizarteari zerbait ekarri? Gerrateak direla eta, ez du pauso onik eman: Estatu handiak ez dira gehiago beren artean gudu-katzen, baina armak egin eta herri txikiagoetan, “eragin eremue-tan” nahaspila sortzen.

Hemeretzi eta hogeigarren mendeetan, Estatu nazioaren sorrerak gauzak nahasi zituen. Euskaldunok ez gara gai izan horrelako estatu baten antolatzeke, eta beharbada balio ez duten euskal asmo zentralistekin eta hitz handiekin oihuka gabiltza. European, jendea hobeki bizitzeak berekoitu du. Euskal Herrian, oraindik –auzo herriekin konparatuz– elkartasun zerbaitek irauten du.

Non dabilta garai bateko familia, eskola, lan asmo ederrak, eta zertan dago aberriaren pentsamendua Europa egitera goazenean? Gure nortasun eta elkartasun ohiturak gordeaz, euskaldunok ikasiko al dugu globalizazioaren frenatzeko geure alternatiba eredia asmatzen?

Senarekin ikusi dugu gizonengan ez duela, lehen begi ukaldian, animalietan bezainbat garrantzirik, nahiz eta gure jokaera eta jestu asko baldintzatu. Gizakien sena ahuldua izanik, umea neotenian, oso garatu gabe jaiotzen da. Badakizki ordea bularra hartzen, edoskitzen, hatz baten hartzen, negar egiten eta horrelako zerak, ikasi gabe.

Sen soilaz bizitzeko, gizarte gabe, ingurugiroa etsai luke. Ez da ninia gai zaldikumea bezala zutitzeko eta laster bere janaria idorotzeko. Beharrezkoak ditu umeak gizarte ingurumenaren baloreak, gurasoen ohiturazkoak. Beraz, gizakia Izadiari buruz ekile eta sortzaile bezala agertzen zaigu, baina adimenak ere bere ahuleziak ditu. Asmatu guztia, aurkitu guztia gizartearen onerako edo txarrerako izan daitekeelako. Jendeak, bestalde, Izadiari agindu nahi dio, baina hari egokitzen eta begirunez erabiltzen ez badaki, suntsitzen du eta lurraldeak basamortu bilakatzen.

Kulturak, hots, baloreen bildumak, beti aberastu behar luke. Jakintzak, noizbehinka erabilpenik gabe gelditzen direnak gorde, baita giza ingurumenarekin eta ingurugiroarekin egin akatsez oroitu. Horretarako ere kultura ezberdinen balioa onartu behar genuke eta utzi gure mendebaldar adigai higatuak besteei gainkatzeari eta behartzeari.

Hitzen inguruan da joko: gutxiengoak akusatzen dira beren identitate eskaerekin beren ghettoak sortzen dituztela, komunitarismoan bizi direla eta gehiengoek identitate ordeztuz nazio eta hiritartasun errebindikapen nahasian aldarrikatzen, nahiz hori komunitarismo zapaltzaile handiagoa izan, hala nola "le modèle français". Zerua aski goibel dago: zortzi handienek beren munduko merkatu ekonomia (MME) batzordearekin munduaren uniformetasuna gogoan dutelako.

Ohituren azken itxuraldaketa aski garbi da Europan. Gure europar gizarteak ez dira, orokorki, erosotasun eta salerospen ideologiari aurka. Erosotasunak demokrazia apur bat ekar lezakea? Herri batean Francoren pean euskaldun nortasuna ukatu zen, erlijio praktika behartu eta tiranoa erori zenean beste muturrera jo, euskotar ez zirenen iritziak gehiegi ikusi gabe abertzaletasun erradikal eta erlijio ezean sartu. Askatasunaren izenean, zurekin ados ez dena hiltzen. Alderantziz, Ekialdeko Alemanian, Polonian eta Errusian halako gerratzioa egin zitzaion erlijioei, baina osoki debekatu gabe, eta hor Marxek ikusi ez zituen gaine-giturako eraginak antolatuta eta erlijioa sendotu zen.

Intelektualek edo eskolatuek ez dutela gizartearen aldaketan eraginik esaten da, baina, bloke komunista zartatu zenean, Txekian eta Eslovakian eta Hungarian gauzak ez baziren gaizkiegi joan, lehen buruak intelektualak zirelako gertatu zen; alderantziz, Errumanian esate baterako, orduan eta orain, intelektualen hutsuneak eta teknokraten ezgaitasunak herria suntsitzen dute. Hor herri bakoitzak erakutsi du ideologia "mundukorrik" eta eredu orokorrik ez dagoela, herri bakoitzak bere ohitura zahar eta berriekin kultura ezberdina gordetzen dueino.

Gure baloreak aldatzen dituzten joera berriak hauek liriateke: *epelkeria*, errealtatea estaltzera, jendeak "beren onetan", ezja-

kinean edukitzea, lehen ondorio gisa, gero datozen oztopoen ukatzea. Telebistak erakusten dituen itsuskeriak jendeari berean ondo dagoela sinetsarazten dio, gero nekearen eta oztopoen gainditzeaz kiroletako marka hausleak eskaintzen. *Jendeen Iritziari* atsegin ematea. Egiten eta esaten dena demagogikoki makurtzea (*Nire emankizuna jarraitzen duzuenok jende argiak zarete! Begira zein bakunak diren gure handikiak, zuek bezain gaizki hitz egiten dute!*). Entzule-ikusleen arreta ehuneko kota handiaren izateko eta lekuan den gobernuari atsegin emateko.

Irudiaren indarra hain da handia eta eskolari nagusia, edozein astakilo jende bakuna “arima biluztuz” *Lofi Story* batean, *Reality-show* batean agertu eta sekulako diruak egiten hasten da.

Sentimentalkeria. Hau urririk dago. Hitzetan mugatzen da, maitasun zapuztu eta zorigabekoen kultura da. Sabela beterik dutenen melankolia eta etsipena Europako eleberrietan behartua dago. Benetako gaizki daudenek entzute gutxi dute. Zenbat obrero euskal eleberrietan?

Talde joera. Denen gisa jan, edan, jantzi behar da, belaunal-dikal. Zazpi urterekin besteen gisako oinetako, txaketa eta burukoak; hamalauetan beste tankera, hogeietan beste bat, baina aurpegia, “*look*”a ikusi gabe, gure gazteak zer adinetakoak diren jakin genezake. Jende asko taldean ezkerreko egin ziren eta orain taldean ardien gisa eskuinean. Non daukate askatasun pitin bat? Ez al dakite manipulatuak direla?

Hainitsuak eta gorrak ote dira gaurko jendeak? Erantzun bat ematen digu Lazkano Mendizabalek:

“Haatik ere “Gizon berrian” sinestea ez da erraza. kontsumo zibilizazioaren martxak asetasuna eta erosotasuna eskaini arren eta –adibidez– parajeak eta bizitzaren ingurualdeak oro pozinduz, ez du gizona kontentatzen. Egia nabarmena da hori. Ezpaitut pentsarazi nahi, gaurko gizona bere egoerarekin gus-tora dagoenik” (Lazkano Mendizabal, *Gizona abere hutsa da, Jakin, Oinati*, 1975).

Aski harro izango ote dira pentsalariak modez askatzeko, epelkeriaren, iritzi publikoaren, sentimentalkeriaren baztertze-ko.

Inoren zerbitzuan ez jartzeko. Aitor dezagun joan diren ideologien zatiekin ez dakigula zer egin. Batzuk ere hasi direla *Patch-Work* lanean, mosaiko lanean, baina azkenean gertaerek, gizarte aldaketek astiroki, beharbada, irtenbideak emango dizkigute.

Balore orokorrik, egia dogmatikorik ez dela pentsalari askok idatzi dute, hala nola Juan Bautista Alberdi argentinar politika pentsalari zorrotzak:

“No hay, pues, una filosofía universal, porque no hay una solución universal de las cuestiones que la constituyen en el fondo. Cada país, cada época, cada filósofo ha tenido su filosofía peculiar, que ha cundido más o menos, que ha durado más o menos, porque cada país, cada época y cada escuela han dado soluciones distintas de los problemas del espíritu humano” (Juan Bautista Alberdi, “Ideas para una filosofía contemporánea” in *Fuentes de la cultura latinoamericana*. L. Zca, Tierra Firme 1993).

Ez da eskarmentua eta atsegina baino hoberik, urrundik mendi zirudiena harkaitz dela ikusi arteraino. Hori ere dio Cesare Pavese, bai: “belaunaldi bat irabiatu duten arazoak hurrengoan itzaltzen direla ez irtenbidea aurkitu delako, jendeen ezaxolak ezereztatu dituelako baizik”.

“I problemi che agitano una generazione si estinguono per la generazione successiva, non perché siano stati risolti ma perché il disinteresse generale li abolisce” (Cesare Pavese, *Il mestiere di vivere*, 20 de diciembre 1941).

Badirudi Lazkano Mendizabalek oihartzuna egiten diola:

“Problema da, ea beti betiko problemekin ibili behar ote dugun? Gauzak zeuden bezala, 1770.ean demokrata izan beharra zegoen, 1890.ean sozialista izan beharra zegoen, 1920.ean komunista izan beharra zegoen. Handik jotzen zuen haizeak aldagoiaren gogortasunez jo ere. Eta gaur zer?” (Lazkano Mendizabal, *Gizona abere hutsa da*, Jakin, Oinati, 1975, 5).

Historia dabil suntsitu edo erdi galdu sistemen zakar eta hondakinen artean.

Lan honen bukatzean eta balorapen bat egitekotan, Jüsef Egiategi abiapuntu zahar legean hartu nuelarik, haren iritzi batzuk ez ditudala ontzat hartu konturatu naiz. Hura bere garaikoa zen bezala, gu geure denborakoak garelako. Hemendik ehun urte, norbait gai bada lan honen irakurtzeko, nire landare gehienak deserrotuko lituzke, gelditzen direnak jorratuko. Honela Egiategik bere buruaz esan zuena nik ere neureaz eta biak Demokrito handiaren itzalpean jarritz:

“Egia bezain gorderik eta ez ezagütürrik mündüan ez da gaüzarrik. Demokritok egia baizik bere bizian erran ez züanak, zion haren altarea lanoz eta odeiez estalirik zagoela, hartakoz hartara ihor hel ez laitekeela” (Lehen libürüa, *Egiaz*, 196).

Europarrok ametsetik jalgi behar dugu. Izadiarekiko eginbeharrak, izadiaren ingurugiroa zainduz eta gure ingurumenean gizarte eta gizabanakoen lehentasunez oroituz. Egiategiren hitzez:

“Filosofok –norbere sinestearen fabore– tinko egoitean, mündüaz baitüe amets bat egin ta hala egia porrokatürrik, zertara ezjakinez lotü, erori baikirade dudaren ta ezinbestearen zorte gaitzeara” (Lehen libürüa, *Egiaz*, 196).

Balore hitza baloratu nahi nuke, nahiz jende askok egia hitza nahiago. Egiak aniztasunean ipiniz, hitzak gure gogamenen gainetik daudenak izango lirateke. Egiak zerbait baldin badira, ez dira geldirik egoteko bideak, ibiltzekoak, korritzekoak baizik. Euskaldunontzat egiak eginak badira, monumentuetan, eraikuntzetan, makinetan, gauzen errealitatean eta gure lanaren fruituetan ikus genitzake, baina haien mirespenean erori gabe. “Egia” bilatu nahi dutenentzat bide asko daudela, eta bide guztietan zerbait ikas daitekeela aitortu behar da. Horrela ikasiko dugu ez dela gure buruan baizik zerbait batasunik, eta betiereko egiaz ez dela. Gure egiak gure heziketari, gure kulturari, gure ingurumenari, gure gogamenari egokitzen zaizkionak dira. Bataren egia bestearen gezurra gerta daiteke.

Badira, jakina, “egia” mota asko: batzuk zientifikoak, jakintzazkoak, teorietan arrimatuak, besteak sentimenduzkoak, besteak

eskarmentuzkoak, gure iritziak eratu eta egitaratu dituztenak eta errealitatearen irudi direnak. Gainera, Sorbonnen irakasle izan nuen eta Nobel saria eduki zuen Jacques Monod-ek honela daku-sa egiaren eta baloreen arteko harremana:

“Onartu behar ote zaigu, balore teoria eta egia objektiboa betirako ezin elkartu arlo arrotzak direla? Izan daitezen idazle, filosofo edo jakintza gizon, badira pentsarzaile garaikide asko jarrera hori hartzen dutenak. Nire ustez, jende gehienentzat ezin onartua da, ezen antsia bat piztu eta iraunarazi baitezake, baina erabat okerra da eta hori bi zioengatik:

—Lehena, jakina, baloreak eta jakintza, hizlaritza bezala, ekintzarekin lotuak direlako.

—Gero eta batik bat, azkenik jakituriaren egiazko definizioa etikazko postulatueta oinarritua delako” (Jacques Monod, *Le Hasard et la nécessité*, Editions du Seuil, Paris, 1970, 188).

Egia horiek, nahiz errealitatearekin, eginazkoarekin lotuak diren, jende banakoak bere begiz, bere senez, bere sentimenduz, bere ohituraz ikusten dituelako, “egia” horiek, iritzi direnek, gure baitan nabardura asko eta aldakorrek eduki ditzakete. Filosofo arrazoizaleek (arrazionalistak) ez dituzte korapilo horiek onartzen, beren kategoriak bakunak direlako edo bakun izan nahi direlako. “Egia” bakun, bat egina, errealitatearen aberastasun eta aniztasunarekin behaztopatzen da. Jende ximpleak badaiki “egiazko hagina” eta dentistak ipini “hagin faltsua” zein diren; gero handik goiti zer?

Hor hasten dira haren egiaren hegiak. Dena ez da egiazkoan logiko: kausa berak ez du beti ondorio berdina. Gertaerak ez dira hala-hala errepikagarri. Arrazoiak kanpo eta logikaz kanpo daude egunean egiten ditugun ekintza alferrak, urrats ezdeusak, ezertarako ez diren hamaika hitz, eta zer? Txoriek ere ez dute beti beren bizi eremua mugatzeko kantatzen. Baloreak zertarako diren, aspaldiko galdera eta euskaraz J.P. Urrosolok eta J. Apalategik honela azaldua:

“Zerbaiti buruz ari garenean portaera eredu-garri bat atxematen baitugu, eta eredu horiek baloreen bidez koherentzia lortzen

dute. Aldi berean baloreek gizaki-emazteki banakoaren batasun psikikoa sendotzen dute; baita ere gizartean hain beharrezko den hitzaren soziala edo elkartasun soziala finkatzen dute baloreek” (J. Apalategi, J.P. Urrosolo, *Baloreak eta Irakaskuntzan*, Kriselu AEB, Donostia, 1988).

Irakaskuntza dela-eta Fernando Pessoa baloreen irakastea hiru helburu ikusten zizkion:

“Lehen: gazteei gauzak esatea, lehengo eta oraingo historia kontatuz, beraz *irakatsiz*.

Bigarrena: gazteei gauzak frogatzea, gure jokabideekin *erakutsiz*.

Hirugarrena: gazteei gauzak adieraztea, biziaren oztopoak eta eginbideak eta eskubideak aipatuz, *iniziatuz*”.

Oraingo bizioen eta okerbideen artean, umeak erosotasunean sartuz, oztopo guztiak kenduz, asko dirua dugunean gure bizkarroi eta ez dugunean lapur bilakatzen ditugu.

Gogoetatu gabe erosten erakusten diegu eta ondoren, zoolo-gikoko tximinoen gisa, xedetzat, ahalik lanik egin gaberik aisialdian gozatzen. Nolanahika, oztoporik gabe garaitzea irakasten diegu; horrela, batik bat eskola gutxi dutenen artean, gazteriarren %10 lege hausle iraunkor bilakatzen dugu eta beste horrenbeste langileen, gurasoen, gizartearen bizkar bizizale. Lan txikiena legez debekatuz ez diegu lanerako gogorik emango. Ugarituz doaz gurasoak mehatxatuz haien dirutik bizi nahi diren frantses helduen kopurua (2000tik goiti, iaz), *Tanguy* izeneko telepelikulak nola egin erakutsi omen dielako. Berriki, gizon batek Frantzia gurasoen aurkako auzia irabazi du. Gurasoek etxetik kanpo bota zuten 35 urteko “umea”, gauero etxera mozkor sartzen zena, zartat handian eta gurasoen dirutik bizi; alegia ahula, buru mehea zela eta gurasoek hil arteraino babesa eman behar ziotela, kondanatuak izan dira. Badira jaiotzez elbarrituak gurasoei auziak egiten dizkietenak, alegia sortzen utzi dituztelako, edo arrazoi beragatik gurasoek auzia sendagileei egiten. Gizartearen auzikeria hori Estatu Batuetatik etorri zaigu: han medikuek, arkitektoek, enpresariek, ia denek abokatu iraunkorra ordaindu behar dute.

Hogeigarren mendeak ezagutu dituen eskola porrotak aipagarriak dira. Mendearen lehen erdian buruak beteegi omen zirela eta ongi eginak izan behar zutelak; horretarako, “ez zen ezer ikasi behar”, baina “ikasten ikasi behar”, eta sasi-metodologia, tematika tartean, joan den mendearen bigarren erdian, ezer ez dakiten gazte asko formatu ziren.

Tematikazko ikerketa goi maila batean beharrezkoa da, baina geografian lehen mailatik hasi eta nekazaritza zer zen irakatsi zen sinkronikoki, mendeen diakronia kontuan hartu gabe; halaxe, ikasle askok uste zuten Egiptoko faraoiak, Erdi Aroko bisigodoen garaikide zirela. Geografian, unibertsitateko agregazio oposizio azterketa batean, katedratiko gaiak Ruhr Alemaniako esparruaren egitura eta ekonomia ongi azaldu zuen, baina, Ruhr non zegoen galdeturik, Austriaren alboan jarri zuen.

Biologian sistematika oroimen hutsezkoa omen zelako debekatu zen. Tematika zen igeri egitea, hegan egitea, lasterka egitea, ernalketa animalien artean. Gazteentzat hegan egitea txoriena baitzen, saguzarra txorietan sartzen zuten, ostruka ugaztunekin lasterkari zirelako. Sistematika apur bat egiten zuen irakaslea inspektoreak gaitzetsi zuen. Tematika horrek erakutsi behar zuen zer aurrerakuntza egin zuen munduak eta jendeak zeinen argiak garen. Sailkapenaren pedagogia balorea ukatu egin zen.

Irakaskuntzaren zati handi bat, etxean ikusia, kanpoan ikusia, telebistan ikusia da. Helduek nola jokatzeko duten, nola bizi diren. Helduek adibidegarri izan behar lukete, gaur gazteek dakusaten ereduak ez da oso ona.

Kazetaritzaren zati batek daukan eskandaluzko albisterako joerarekin eta jendeek horien ikusteko daukaten bizioa balakartuz, laztanduz, gazteek helduengandik ustelkeriaren eta biolentziaren eredu guztiak ikas ditzakete. Jokoak bailiran, haurrak hamar urterekin beribil erretzen, hamalauetan neska bortxatzen. Miretsirik nago honelako helduen ereduarekin, honelako giroan nola ez den gazte gehiago lege hausle egiten.

Pessoak aipatzen duen inimizazioa ez da besterik, gaztea beregain, bere buruaren jabe jar dadin, ikas dezan lanaren eta bizi-

tzaren nekeetan borrokatzen. Zailena izango da bere bizitzan gurasoak lanik gabe bizitzen ikusi dituenarentzat lan egiteko go-goaren hartzea.

Lurzabal honen eremuan, kulturaz kultura joanaz, errealitateak bestelako eta anitzak badira espazioan, gure euskal munduaren denboran ere gure oinarritzko baloreak arbasoek aspaldidanik metatu, aldatu, iragazi eskarmentuetatik datoz, eta guk zer transmitituko dugun jakin behar genuke? Nire ustez, mehatxatzen gaituen mundu uniformizatzeari bihurtzeko, kontra egiteko, gure-gureak diren irtenbideak aurkitu edo asmatu: hori ezin da izan pertsona bakar baten lana.

Kristautasunean, ezkertiaritasunean, hainbeste ameslari zintzoen utopiak suntsitzen ikusi ditugu. Gure garaia egokitu beste ideal sendorik eskaintzen ez den bitartean, diruzaleatasunaren sasi-balorea garaitzen ari delako, beldurra hartzen dugu. Itxaropen txikia piztu da globalizazioaren aurka, gizarte alternatiboa, ez komunista, ez kapitalista litzatekeenaren ametsarekin. Maria Antonietta Maccocchi italiar andere pentsalariak aspaldidanik salatu zuen europar intelektuaren saldukeria, bai, barrenetik kritikatu gabe alderdi eta ideologia bati beren buruak itsuan ematen zizkiotenak, ezkerren akatsak ez ikusi nahiz edo ukatuz, komunista diktadura odoltsuen alde (Eluard, Aragon eta beste).

Kristozaleak eta marxzaleak *Eklesia* eginaz antolatu ziren. Orain, aurreko ideologiak hilik direla, ez da gauza hain ziurra, baina altermunduzaleek antzinako dogmen joera dute: hau oso ongi da, hau oso gaizki da. Sarritan, beste ideologiengatik, jendearen minberatasunari, sentiberatasunari dei egiten diete, ez zentzuari; halaxe, karitatea, urrikalmena eta izua dituzte biltzaile. Azkenean, gaitzen kausa sendatu ordez, gaixotua erremediatzen ez ote dabilta? Beharbada, liburu honetan, heziketaz, ongi eta gaizki kategoria horiek lekuka eskapatu zaizkit; dena den, hirutasun baten ukatzen jarraitzen dut.

Hiru zenbaki magikoaren estalpean, teologoek, hebreoa jarraituz, hiru bider arnegatzea, hiru teologia bertuteak eta abar asmatu bazituzten, bakoitzak bere burua ezagutuz, *Notis Eoton*,

badaki ez dela hiru gizakirik, aingerua, jendea eta deabrua, baina jende bakoitzaren barruan hiru joerak bilduak direla.

Biharrek esango du zertara joango garen. Ideologiaren erdi porrota gogoan edukitzen badugu, ez gara ezerezetik abiatuko, oker guztien inbentarioa eginik baita. Behetik gora lihoakeen demokrazia bidea ez da hartu, gainetik behera legebiltzarrek jendeen asmoak behartzen dituzte.

Herri bakoitzak, ordea, bere erdua, bere egitura asmatu behar luke. Batasun handiago bati (hala nola Europari) kalterik egin gabe eta inperiokeria berri bat asmatu gabe. Osasuna eguneroko dietaz egiten baita, ez azkenean ebakuntza eta pilulaz, halaber eguneroko eztabaidaz da gizarte bat aldatzen. Apika, lan handia izango dugu guk ere, euskaldunok, erdaldunen integrazioa, geure erruz galtzera goaz. Cesare Pavese idatzi zuen:

*“Chi non si salva da se
nessuno lo può salvare”* (Cesare Pavese, *Il mestiere di vivere*, 1940ko azaroaren 2an idatzia).

Europako erreka guztiek ez bada gehienek ibai berera daramatzate beren urak. Lan hau bukaturik eta Cesare Pavese *Il mestiere de vivere* aurreko aipamen hori bildu ondoren eta urrutiegi joan gabe, *Ni Ez naiz Hemengoan*, hona Joseba adiskideak zioena:

“Errealitatea irekia bada, ez dugu hertsu behar gure pentsamendua. Bizia eta ezagumena ez dira ikasiak izan behar, geure esperientzia joan behar da kulturaren oihan horretan barrenan bideak igarri, hautatu edo eginaz. Norberak antolatu behar du orden pertsonala, gauzak aukeratu ala utziaz, gauzak ahaztuz ala maitatuz, maitatuei oreka eta arnasa emanaz” (Joseba Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*, Germinal 8, 105-106).

Egia Bakarraren banbu zut, zurrun, lerdan adar gabekoaren ideologia garaia joan da. Sektak eta fanatikoak horien zoritxarrezko karikaturak ditugu. Ea norabide ugarien garaia abiatuz, europarrok zuhaitz adartsu sendo askoren egiten jakiten dugun! Ala estatubatuarren mundializazioan, “heriotza dantzan”, aurreakuntzaren, ekonomia haztearen idolatrian, mugarik gabeko garapen ero batean, lurzabal honen suntsitzen sorgin horiek

lagunduko? Ikerlan honetan ideologia bat ez dut sakondu nahi izan, gazte garaiko gure etxean amets izan genuena suntsitu delako eta minberegi utzi: sobietar komunismoa.

Geroko baloreen artean, ez da azitia izan behar, jendeek ongizatea, ingurugiroaren kalitatea eta bakea nahiko dute, baina globalizazioaren fruituek darakutsate, munduaren erdiak hori erdietsi baleza, beste erdiaren bizkar izan litekeela.

Azken hitza, haren bertsoa itzuliz, greziar olerkari bati emango diot

*“O adiskideak! bide zuzena jarraitzen nuelarik
ez ote naiz jira-biraka bidegurutze katramilatsuak
hartuz, lehengotik urrundu
edo haize batek
nire ontzia itsasoan desbideratu”* (Pindaros, XII.
Pythionikoa, 3. antistrophe).

EUSKAL BIBLIOGRAFIA LABURRA

- AINTZIART (P.) *Biziaren bazterrean*, Maiatz, Baiona, 1992.
- AIRE (H.) *Egiaren egarriz*, Maiatz, Baiona, 1989.
- ALTONAGA (K.) *Folin Markesa. Marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan*, Elhuyar, Usurbil, 1998.
- AIZPURUA (J.R.) *Lurrak ba al du gerorik?* Gaiak sorta, Donostia, 1993.
- APALATEGI BEGIRISTAIN (J.) *Baloreak eta irakaskuntza*, Urrosolo, Haranburu arg. A.E. B. Barandiaran arg. 26. zbk., Donostia, 1989.
- APALATEGI BEGIRISTAIN (J.) *Haurren nazioak*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002.
- APALATEGI BEGIRISTAIN (J.M.) *Mintzamena ta erreala*, U.E.U. Pedagogia saila, Iruinea, 1984.
- APALATEGI BEGIRISTAIN (J.M.) *Antropologia hirian*, Haranburu, A.E.B. Barandiaran, Donostia, 1987.
- ARTOLA ZUBILLAGA (F.) *Hereseak Durango aldean XV. mendean*, Haranburu arg. A.E.B. Barandiaran, Donostia, 1986.
- ARTZE (J.A.) *Isturitzetik Tolosan barru*, Usurbil, 1969.
- ARTZE (J.A.) *Ortzia lorez, lurra izarrez*, Elkar, Donostia, 1987.

- ASKOREN ARTEAN *Filosofiaren kondaira*, Jakin, Oinati, 1965.
 —*Europa*, Jakin, Oinati, 1965.
 —*Marx eta Jesus European*, Jakin, Oinati, 1965.
- ASKOREN ARTEAN *Zuzenbide politikoaren hastapenak*, Deustuko unibertsitatea, Bilbo, 2001.
- AXULAR AGERRE (P.) *Gero*, Bordelen, 1643.
- AZKONA LANDETA (A.) *Giza ekintzen eragina Euskal Herriko ingurugiroan*, U.E.U., Bilbo, 1989.
- AZKUE (R.M. de) *Euskalerrriaren Yakintza*, Ed. Espasa Calpe, bigarren argitalpena, Madrid (1959-1971).
1. *Oitura ta sineskeriak*, lehenengo liburukia (1959).
 2. *Ipuin eta irakurgaiak*, bigarren liburukia (1966).
 3. *Atsotitzak eta...* hirugarren liburukia (1969).
 4. *Otoitz, herri olerki, sendakuntza*, laugarren liburukia (1971).
- AZPIAZU LARRAÑAGA (L.) *Jansenismoa Euskal Herrian*, Kri-selu, Donostia, 1987.
- AZKUENAGA (J.) *Gerra eta bakea Euskal Herrian*, (Politika-gintza lege zaharraren krisialdian), Gaiak, Donostia, 1993.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Shopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Susa, Donostia, 1989.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Kultura proletarioa*, Jakin, Oinati, 1973.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Gizona abere hutsa da*, Jakin, Oinati, 1974.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Mirande eta Kristautasuna*, Irun saria, Kutxa, Donostia, 1978.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Marxismoaren errebisionismoa*, Gero, Bilbao, 1984.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Iraultza sobietarra eta literatura*, Gero, Bilbao, 1984.
- AZURMENDI ARRIOLA (J.) *Espainolak eta euskaldunak*, Elkar, Donostia, 1992.

- AZURMENDI (X.) *Izatearen malurra*, Gero, Bilbao, 1967.
- CHAHO (A.) *Azti begia*, Paris, 1837.
- EGIATEGI (J.) *Lehen libürüa, filosofo hüskaldünaren ekaia (1785)*, Tx. Peillen argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbao, 1983.
- *Bigarren liburua, argitaragabea, Euskaltzaindian digitalizatua*.
- *Mosde Etxeberriren gogamenak*, bi hizkuntzetan, eskuidazkia, Manuscrits Basques et Celtiques 1054. zenbakia B. N. Parisen.
- ELHUYAR TALDEA. *Nora doaz zientzia eta teknikak?*, Donostia, 1987.
- ELHUYAR TALDEA *Eboluzioaren norabideak*, Donostia, 1985.
- ELKARREN ARTEAN *Gizartean*, Jakin, Oinategi, 1975.
- ERKOREKA (A.) *Medikuntza antropologia*, Haranburu arg. AEB Barandiaran, Donostia, 1985.
- ETXARREN LOHIGORRI (B.) *Huarte hator etxerat*, Jakin arg., Oinategi, 1975.
- ETXEBARRIA (J.G.) *Greziako philosophia*, Solte, Bilbao, 1987.
- ETXEBERRI (J.) *Sarako medikua, Idazlan hautatuak*, Lur arg. Bilbao, 1972.
- GARATE (G.) *Marx eta nazioa*, Gero, Bilbao, 1969.
- *Maoren marxismoa*, Gero, Bilbao, 1978.
- *Marxismoaren errebisionismoa*, Gero, Bilbao, 1972.
- *Leninen Marxismoa*, Gero, Bilbao, 1979.
- *Izurri berria*, Donostia, 1982.
- *New York! New York!*, Donostia, 1987.
- GARATE (R.) *Lanaren antropologia*, Gero, Bilbao, 1968.
- GARMENDIA (R.) *Gure jakintzaren mugak*, Dakit, Zarautz, 2001.
- GIDE (A.) *Teseu*, Elkar, Donostia, 1987.
- GIL BERA (E.) *Atea bere erroetan bezala*, (Xalbador saria), Pamiela, Iruinea, 1985.

- O! tempora!,o mores!* Axular saria, Pamiela, Iruinea, 1987.
- Chamforten erranairak eta gogoetak, Izaera eta pasadizoak*, Pamiela, Iruinea, 1989.
- Fisikaz honatago*, Pamiela, Iruinea, 1990.
- HARANBURU ALTUNA (L.) *Seme*, Hiria, Alegia, 1999.
- HARTSUAGA (J.I.) *Euskal mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia, 1986.
- HARTSUAGA (J.I.) *Jentilen akabera*, Haranburu arg. AEB Barandiaran, Donostia, 1987.
- HIRIART-URRUTY (J.) *Zezenak errepublikan*, Joseba Intxautik paratua, Jakin, Oinati, 1972.
- IRIGARAY (X.) *Itzala barnean*, Maiatz, Baiona, 1992.
- IRIGOYEN (A.) *Hi ta ni garade zu, To ez date no*. A. Irigoyen arg., Bilbo, 1990.
- ITURRIOTZ LAUZIRIKA (A.) *Agora homerikoa eta agora arkaikoa*, Tesia, E.H.U., Leioa, argitaragabea.
- IZTUETA (P.) *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2001.
- JUARISTI LARRINAGA(P.) *Euskalherria globalizazioaren aurrean*, Euskaltzaindia-BBK, Mikel Zarate saria 2000, Bilbo, 2001.
- LAZKANO MENDIZABAL (F.) *Gizona abere hutsa da*, Jakin, Oinati, 1975.
- LEVI-STRAUSS (Cl.) (Jokin Apalategik itzulia), *Gizarteen jakintzak*, Haranburu, AEB. Barandiaran sorta, Donostia, 1985.
- LEVI-STRAUSS (C.) (Jokin Apalategik itzulia), *Arraza ta kondaira*, Haranburu, AEB. Barandiaran sorta, Donostia, 1985.
- MIRANDE (J.) *Haur besoetakoa*, Lur Kriselu, Bilbao, 1972.
- MIRANDE AIPHASORHO (J.) (Txema Larreak bildurik), *Miranderen lan kritikoak*, Pamiela, Iruinea, 1983.
- MUJIKA (L.M.) *Gizartea eta parasozialismoa*, Gero, Bilbao, 1975.

- MUJIKÁ (L.M.) *Sistema filosofikoak*, Kriselu, Donostia, 1981.
- ODRIOZOLA LIZARRIBAR (J.M.) *Nazio identitatea eta eskola*, BBK, Bilbao, 2000.
- OIHENART (A.) *Atsotitzak eta neurtitzak*, Facsimilez.
- OIHENART (A) (Tx. Peillenek prestatua), *Oihenart (Obra eta bizitza)*, Hiria, Alegia, 2002.
- ORELLA UNZUÉ *Foru testuak. Jokabideak eta pentsamoldeak*, Gero, Ortzadar bilduma, Bilbao, 1995.
- ORIXE (Ormaetxea N.) *Giza eskubidegai guztien aitorkizunak*, Moret, Iruinea, 1969.
- PEILLEN KARRIKABURU (Tx.) *Jon Miranderen lan hautatuak*, Argitalpen kritikoa, biografia, Etor, Bilbao, 1976.
- Jusef Egiategiren lehen liburua (1785)*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1983.
- Animismua Zuberoan*, Haranburu, A.E.B. Donostia, 1985.
- Bizidunak haurren eta helduen heziketan*, Ortzadar bilduma, Mensajero, Bilbao 1995.
- Herri sendakuntza eta sendagingoan Zuberoan*, Barandiaran Fundazioa, 1998.
- Euskaldunen ingurugiroa (Espazioa eta denbora)*, Dakit, Zaratuz, 2001.
- RUSSELL (B.) *Azken iritziak* (Txillardegiren itzulpena), Irakur saila, Donostia, 1970.
- SARRIONANDIA (J.) *Intxaur azal baten barruan*, Pto de Santa María, 1983.
- Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruinea, 1985.
- Ez gara geure baitakoak*, Pamiela, Iruinea, 1986.
- SATRUSTEGI (J.M.) *Euskaldunen sexu bideak*, Ed. Jakin, Oinati.
- SATRUSTEGI (J.M.) *Ekaitza*, ed. Jakin, Oinati, 1972.
- SUDUPE (J.) *K.Marx teoria eta politika*, Euskaltzaindia, BBK, Bilbo, 1984.

- SUDUPE MARTIJA (J.) *Euskaldunak, liberalak eta komunitate-zaleak*, BBK, Bilbao, 1999.
- TORREALDAI (J.M.) *Iraultzaz*, Jakin, Oinati, 1973.
- TXURRUKA (J.) *Zuzenbide Erromatarren sarrera historikoa* (Rosa Mentxaka, Gorka de Aurre laguntzaile, itzultzaile), Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994.
- UGALDE (M.) *Batasun eta zatiketen artean*, Elkar, Donostia, 1989.
- Jatorriaren errotik*, Elkar, Donostia, 1980.
- UGALDE UGARTE (M.) *Bake biltzarraren ildotik*, T. Altzaga saria, BBK, Bilbao, 2002.
- URANGA UNANUE (J.J.) *Herioarekin borrokan*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2001.
- UIZI (P.) *Psikologia*, Donostia, 1986.
- URIARTE (F.) ARTZE (J.A.) *Buru ilun lurruntsua* (Euskaldunak Everest mendian), Elkar, Donostia, 1976.
- URRUJULEGI (J.) *Bizia ta bizitzaren eboluzioa*, Haranburu arg., A.E.B. Barandiaran, Donostia, 1987.
- URSUA LEZAUN (N.) *Azalpen eta ulerpenaren kontzeptuak giza zientzietan*, AEB Barandiaran, Donostia, 1987.
- UZEI *Psikologia*, Donostia, 1987.
- VILLASANTE (L.) *Jainkoa*, Jakin, Oinati, 1962.
- ZAITEGI PLAZAOLA (J.) *Platoneneko atarian*, Donostia, 1962.
- Otoruntza, Protagora, Menon*, Usurbil, 1975.
- Gorgia*, Usurbil, 1977.
- Eutifron eta Sokraten apologia*, Usurbil, 1978.
- Kriton eta Faidon*, Usurbil, 1978.
- Ipia Txikia eta Alkibiada*, Usurbil, 1979.
- ZALDUA (I.) *Giza eboluzioa*, Gero, Bilbao, 1987.
- ZAPIRAIN AGIRRE (M.) *Denbora eta egia Kojèveren gogoeta*, tesia E.H.U., Donostia argitaragabea.

- ZARATE (M.) *Utopiaren fantasia*, Kriselu, Donostia, 1982.
- ZELAIETA (A.) *Peru Abarkaren berrirakurtzea*, Kriselu, Donostia, 1974.
- Foruak eta euskal literatura*, Kriselu, Donostia, 1979.
- ZULAIKA (J.) *Adanen poema amaigabea*, Kriselu, Donostia, 1975.

ERDAL BIBLIOGRAFIA

- ABELLAN (J.L.) *Historia crítica del pensamiento español*, Espasa Calpe, Madrid, 1989-1991.
- AGUILAR (F.) *Las sociedades económicas de Amigos del País en el siglo XVIII*, RSVAP, Bilbao, 1972.
- AJURIAGUERRA (J.) *Manuel de psychiatrie de l'enfant*, Ed. Masson, Paris, 1977.
- *Psychopathologie de l'enfant*, ed. Masson, Paris, 1982.
- *Psiquiatria infantil*, Ed. Masson do Brazil, Rio de Janeiro, 1980.
- *Cours de Monsieur Julien de Ajuriaguerra*, zenbaki berezia, Collège de France, Paris 1990.
- ALBERDI (J.B.) *El crimen de la guerra*, 1869.ean Parisen idatzia, Buenos-Aires, 1915.
- ALLENDE LANDA (J.) *Ecología y ecologismo en Euskadi*, U.P.V. cursos de extensión universitaria, Bilbao, 1983.
- APEL (K.O.) *Teoría de la verdad y Ética del discurso*, Páidós, 1991.
- ALVAREZ OSES (J. A.) *Algunos tópicos españoles y otras denuncias*, Donostia, 1980.
- APALATEGI (U.), *La naissance de l'écrivain basque*, Ed. L'Harmattan, Paris, 2000.

- ARPAL POBLADOR (J.) *La sociedad tradicional vasca*, Kriselu, Donostia, 1983.
- ARRINDA (A.) *Magia y religión primitiva de los vascos*, Amado, Bilbao, 1985.
- AZCONA (J.) *Antropología biosocial. Darwin y las bases modernas del comportamiento*, Barcelona, Anthropos, 1982.
- BARBAT (M.T.); OTERO (E.) *En busca de raíces*, Montevideo, 1998.
- BERISTAIN IPINA (A.) *La droga en la sociedad actual*, Eusko-Jauriaritza, Gasteiz, 1985.
- CARO-BAROJA (J.) *El mito del carácter nacional*, Meditaciones a contrapelo, Madrid, 1970.
- CARO BAROJA (J.) *Los hombres y sus pensamientos*, Txertoa, Donostia, 1988.
- CARO BAROJA (J.) *La Sorcellerie*, Gallimard, Paris 1981.
- CARO BAROJA (J.) *Los Vascos*, Minotauro, Madrid 1971; Istmo, Madrid, 1995.
- CHAHO (A.) *Paroles d'un voyant*, Laffitte reprints, Marseille, 1979.
- CHARRITTON (P.) *Le droit des peuples à leur identité: l'évolution d'une question dans l'histoire du christianisme*, Fides, Montreal, 1979.
- COMFORT (A.) *Nature and human nature*, Weidenfield and Nicholson, London, 1966.
- CORSI OTALORA (L.) *Capitalismo y democracia, las dos dimensiones de un mismo engaño*, Bogota, 1982.
- CRAWFORD (C.J.) *Antropología, psicología: el estudio de la personalidad en la cultura*, Antropología, 2, Barcelona, 1983.
- CUETO (J.) *Mitologías de la modernidad*, Salvat, Barcelona, 1982.
- DENDALETICHE (Cl.) *Montañas y civilización vascas*, Mensajero, Bilbao, 1980.

- DICKERSON (J.W.) eta MAC GURK(K.) *Brain and Behavioral development*, University Surrey Press, Guilford, 1982.
- DOUGLAS (W.) *Muerte en Murélagu*, Barral, Barcelona, 1973.
- ESTORNES ZUBIZARRETA (I.) *La construcción de la nacionalidad vasca: el autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1990.
- FERNANDEZ DE CASADEVANTE ROMANI (C.) *El convenio europeo de derechos humanos: demandas contra España, 1979-1988*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 1988.
- FLETCHER (R.A.) *Instinct in man*, George Allen & Unwin, London, 1957.
- FOREST (E.) *Diez años de tortura y democracia*, Edelvives, Bilbao, 1989.
- FOX (I.) *La invención de España. Nacionalidad liberal e identidad nacional*, Catedra, Madrid, 1997.
- GARCIA MARQUEZ (J.) *Cien años de soledad*, Seix Barral, Barcelona, 1972.
- GINES (S.) *Universalidad y diferencia*, Alianza, Madrid, 1996.
- GIRARDET (R.) *La nationalisme français: anthologie (1871-1914)*, Le Seuil, Paris, 1983.
- GOYTISOLO (J.) *El hermano Santiago, un alma de las que ya no quedan: el viejo topo*, Barcelona, 1978.
- GRATACOS (I.) *Fées et gestes (Femmes pyrénéennes un satut social exceptionnel en Europe)*, Privat, Toulouse, 1987.
- GUARIGLIA (O.) *Ética universalista y sujeto moral*, FCE, Buenos-Aires, 1997.
- HACKER (F.) *Agression et violence dans le monde moderne*, Paris, 1982.
- HEISELER (J.H; von) *Zur kritik der Philosophie und Soziologie von Horkheimer, Adorno, Marcuse, Marxistische Blätter*, Frankfurt, 1971.
- HOBBS *Human Nature*, Virin, London, 1st 1650, 2nd 1971.

- Some consideration on the consequence of the Lowering of Interests in raising the value of Money.*
- The english works of Thomas Hobbes of Malmesbury*, London, 1st 1839, 2nd 196.
- HORNILLA (T.) *La ginecocracia vasca*, Gero, Bilbao, 1980.
- LACASTA ZABALZA (J.I.) *España uniforme, el pluralismo ente-co y desmomoriado de la sociedad española y de su conciencia nacional e intelectual*, Pamplona, Iruinea, 1998.
- LAGARDE "GOIHENETXE" (A. M.) *L'univers psychique des Basques. Instauration de la symétrie des sexes* (Approches socio-logiques et linguistique) Baionako fakultatean, Tesia, 200. urtean, argitaragabea.
- LARRALDE (C.M.) *Un vasco en el Uruguay*, Montevideo, 1969.
- LARRAMENDI (M. de) *Sobre los fueros de Guipúzcoa* (J.I. Tellechea Idigorasek lehenbizkoz argitaratua), D.A.K., Donostia, 1983.
- LARRAMENDI (M. de) S.J. *Discursos históricos sobre Cantabria*, Etxabbarri, 1982.
- LHANDE (P., S.J.) *Autour d'un foyer basque*, Laffitte reprints, Marseille, 1979.
- LENIN (W. I.) *Ensayos de estética marxista*, Madrid, 1976.
- LOCKE (J.) *Essay Concerning in Human Understanding*, London, 1689.
- The works of Jon Locke* London, 1st 1823, 2nd 1963.
- LORENTZ(K.) *Studies in Animal and Human Behavior*, Harvard University, Preso Cambridge, 1931.
- L'agression une histoire naturelle du Mal*, Flammarion, Paris, 1969.
- Vergleichende Verhaltenforschung Grundlagen der Ethologie*, Wien, 1978.
- MACCIOCHI (M.A.) *Mil ani di felicita*, Milano 1975.
- MEVES (C.) *Mit der agression Leben*, Freiburg, 1976.

- MOLINIÈR (Cl.) *Los fols del desir*, Institut d'Estudis Occitans, Besièrs, 2001.
- MONOD (J.) *Le hasard et la nécessité*, Le Seuil, Paris, 1970.
- OLZA ZUBIRI (M.) *Psicología de una población rural vasca*, Na-farroako Gobernua, Iruinea, 1989.
- OPPENHEIMER (J.R.) *Science and the Common understanding*, Berkeley, 1955.
- ORPUSTAN (J. B.) *Arnaud d'Oihénart, Proverbes et poésies basques (1657-1664)*, Izpegi, Baigorri, 1992.
- OTAZU y LLANA (A.) *El igualitarismo vasco*, Txertoa, Ipar aizea sorta, Donostia, 1988.
- PAGOLA (M.) *Culture basque et urbanisation à Hasparren*, Pagola, Baiona, 1996.
- PARRA (N.) *Poemas para combatir la calvicie* (muestra de anti-poesía), Premio Juan Rulfo, 1991, Universidad de Guadalajara. Colección Tierra Firme, 1993.
- PAVESE Cesare, *Il mestiere di vivere*, Einaudi, Torino, 1973.
- PAVLOV (I.P.) *Conditional reflexes*, Oxford, 1927.
- PEILLEN (Tx.) *Conception du monde et culture basque*, L'Harmattan, Paris, 1998.
- *Bosquejos vasco-uruguayos*, Dakit, Zarautz, 2003.
- PESSOA (F.) *Obras en prosa*, Aguilar, 1974.
- QUESNAY (F.) *Tableau économique*, Paris, 1758.
- *Physiocratie*, Flammarion, Paris, 1991.
- RAMA Angel *Las máscaras democráticas del modernismo*, Montevideo, 1994.
- RODRIGUEZ OSES (M.A.) *La percepción social en el adolescente inadaptado*, Eusko-Jaurlaritza, Gasteiz, 1988.
- ROLDÁN ROLDÁN (R.) *Inidentidade*, Komedi, Campinas, 2001.

- ROUGIER (L.) *Une faillite de la scolastique*, ed. Pauvert, Paris, 1960.
- ROUSSEAU (J.J.) *Discours sur l'origine de l'inégalité* (1755)
—*Le Contrat Social* (1762).
- SANCHEZ CARRIÓN (J.M.) "Txepetx" *Un futuro para nuestro pasado: claves de recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, ASJU "Adorez eta atseginez", Donostia, 1991.
- SATRÚSTEGUI (J.M.) *Mitos y creencias*, Txertoa, Donostia, 1980.
- SEVERINO (E.) *Las tendencias fundamentales de nuestro tiempo*. Estudios Contemporáneos, Pamiela, Iruinea, 1987.
- STEINBUCK (K.) *Die informierte Gesellschaft, geschichte und Zukumpf der Nachuchtenttechnik*, Rembek, 1971.
- TAKIE LEBRA Suguyima *Japanese culture and behaviour*. Selected Readings, Hawaii, 1976.
- TARSKI (A) B. Carrascalen itzulpena "Egiaren kontzepzio semantikoa eta semantikaren oinarriak" in *Gogoia 1-2*, EHU, Donostia, 2001.eko urria.
- TELLECHEA IDIGORAS (I.) *Sobre los fueros de Guipúzcoa* (Larramendiren hitzaldiak), RSVAP, Donostia, 1983.
- TINBERGEN *Das Tier in seiner Welt*, Piper, Munch, 1977.
- TODD (G.) *The whole world is Watching*, Berkeley, 1980.
- TUÑÓN DE LARA (M.) *Medio siglo de la cultura española* (1885-1936), Tecnos, Madrid, 1973.
- WILLIAMS (R.) *Television, technology and cultural forms*. Shocken Books, New York, 1975.
- ZULAIKA (J.) *Del cromañon al carnaval. Los vascos como museo antropológico*, Erein, Donostia, 1996.
- X. (collectif) *Processus sociaux et culture basque*, Baionako kongresua, Presses Universitaires de Bordeaux, Pau, 1987.
- X (Colectivo) *Ilustración y Revolución francesa en el País Vasco*, Xabier Palacios, Gasteiz, 1991.

- X. (colectivo) *Euskalerrria en la encuesta Europea de valores*, Deiker, Bilbao, 1992.
- X. (Collectif) *Le Pays Basque et l'Europe*, Izpegi, Baigorri.
- X (Colectivo. Leopoldo Zea compilador) *Fuentes de la cultura latinoamericana* tomo I, Tierra Firme, México, 1993.
- X. (colectivo) *Los valores en la Comunidad Autónoma de País Vasco y Navarra. Su evolución en los años*, Eusko-Jaurlaritza, Gasteiz, 1990-1995.
- X. (collectif, M. Lafourcadek bildua) *La Frontière depuis l'origine jusqu'à nos jours*, Zuzenbidearen Historiaz, Baionako Nazioarteko kongresua, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1998.
- X. (colectivo) *La práctica actual del derecho consuetudinario en Euskal Herria, La Pratique du droit coutumier au Pays Basque*, Cuaderno Azpilcueta 13, Eusko-Ikaskuntza, Donostia, 1998.
- X. (Collectif, zuzendari Jesus Etxano) *Baiona-Donostia Euskal Eurohiriari buruzko gogoeta jardunaldiak, Journées de réflexion sur l'Eurocité Basque Bayonne-San Sebastian, Jornadas de reflexión sobre la eurociudad Vasca Bayona-San Sebastián*, Azkoaga bilduma, Eusko-Ikaskuntza, Donostia, 2001.

EUSKARRIAK

bilduma

1. Joan Jose Uranga: *Herioarekin borrokan*, 2001
2. Jose Antonio Gorriti: *Aralarko eguzki-loreak*, 2001
3. Jokin Apalategi: *Haurren nazioak*, 2002
4. Joan Jose Uranga: *Etxe-ataritik. Globalizazioa eta balioak*, 2004
5. Txomin Peillen: *Baloreak Euskal Herrian eta beste gizarteetan*, 2005